

1. *Gratien Adema*, Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charriton*, Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Ihande*, Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*, Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*, Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*, Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen*, Biziazen Hitzegia. 2009
8. *Gorka Aulestia*, Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*, Zuberoko literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*, Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*, Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*, Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*, Jesú Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*, Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*, Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*, Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*, Xiberoko antzertia edo pastorala. 2011
18. *Txomin Peillen*, Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*, Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*, Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*, Amodiaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*, Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charriton*, Le fondement moral des droits culturels de l'homme (kultura eskubideen oinarri etikoak). 2013
24. *Pierre Dourisbourg*, Bahnar deitu salbaiak. 2014
25. *Mongozo Dassanza*, Albatartitzako idazlanak (1692-1892). 2014
26. *Ignazio Omaetsabarria*, Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca. 2016
27. *Resurreccion Maria Azkue*, Ardi galdua. 2018
28. *Jakes Sarraillet*, Janpierra Lexardoarteren bizitza edo Basabürüaren trajeria. 2018
29. *José Agerre Santesteban*, Biografía de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Gachiteguy*, Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko. 2019
31. *Joakin Bermingham*, Joakin Berminghamen solasak. 2020
32. *Emil Larre*, Emil Larre 1926-2015. Lekukotasun, kantu eta idazki. 2020
33. *Jean-Louis Davant*, Ozaze Jaurgainean. 2020
34. *Jon Casenave*, Euskal literaturaren historiaren historia Gurea nola konda? 2020
35. *Jean Elizalde Zerbitzari*, Zerbitzariren lan hautatuak. 2021
36. *Txomin Peillen*, Ene bertsoen bilduma. Errimarik ez, arrazoirik ez. / Recueil de versification. Sans rimes ni raisons. (1951-2021). 2021
37. *Jean-Louis Davant*, Blanca eta Viana. Nafarroako Blanca trajeria. 2021
38. *Allande Socarros* (1957-2021), Euskal idazlan eta lekukotasun. 2022
39. *Henrike Knörr* (1947-2008), Idazlan hautatuak. Textos escogidos. 2022
40. *Adolfo Arejita*, Faktoriako geziak. Egungo gizarte-kontzeptu berriak euskaraz nola eman: hautuak eta arrazoiak. 2022
41. *Jose Maria Agirre Egaña*, Lizardi *Bibot begietan* eta gainerako olerkiak. 2023
42. *Isabel Etxebarria*, Margarita, Nafarroako erregina (1492-1549). 2023
43. *Bonifacio Echeagaray*, Bonifacio Echeagaray, promotor y defensor del euskera. Artículos 1927-1933.
44. *Junes Casenave-Harigile*, Zortzi pastoral berri. 2024
45. *Andres Iñigo, Paskual Rekalde*, Blas Fagoaga Ariztia. Irakaslea eta euskaltzaina

EUSKALTZAINAK izeneko bilduman euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Loguntzaileo

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua



EUSKALTZAINDIA

45

BLAS FAGOAGA ARIZTIA. Irakaslea eta euskaltzaina

ANDRES IÑIGO, PASKUAL REKALDE

45

EUSKALTZAINAK BILDUMA



EUSKALTZAINDIA



ANDRES IÑIGO ARIZTEGI
(Ituren, 1945)

Filosofia eta Letretan lizentziaduna eta doktorea. Lanbidez irakaslea izan da. Hasiara batean Iruñeko San Migel Aralarkoa ikastetxean (1970-1979). Gero Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean (1979-2007), Euskara irakasle titularra 1979tik, katedraduna 2002tik, eta Eskolako zuzendaria (1980-1997).

Euskaltzain urgazlea (1987), euskaltzain osoa (1999) eta emeritua (2020). Euskaltzaindian zenbait ardura izan ditu, hala nola Onomastika Batzordeko kidea (1988-2012) eta batzorde horretako burua (2001-2012), Jagon Saileko kidea (1991-2021), eta Zuzendaritzako kidea eta Jagon sailburua (2004-2012). Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria (1997-2021). Gaur egun Euskaltzaindiaren Hiztegiko Batzorde Ahaldunduaren kidea da.

Argitara eman ditu zenbait ikerketa lan, Onomastika alorrean erraterako: *Toponimística Histórica del Valle de Santesteban de Lerin* (1996), «Onomastika euskararen normalizazioan» (2000), «Izengoitia Nafarroako oikonomia historikoan» (2008), «Toponimia de Navarra y Euskadi» in *Toponimia de España. Estado actual y perspectivas de la investigación* (2010), «Euskal oikonomia Baztan-Bidasoa eremuko lekukotasun historikoen argitan» P. Rekalde-rekin batera (2018), «*Etxe* > *itze* aldaera Malerreko eta Bortziritako toponimia historikoren argitan batik bat» (2019), «Zenbait toponimoren lekukotasunak Bortziritako, Malerreko eta Baztango agiri zaharren argitan» P. Rekalde-rekin batera (2019), eta abar. Bertze alorretakoen artean: «Euskararen egungo egoera Nafarroan» (2001), *Jose Mari Sarriategi: erile eta lekuko* (2005), *Santiago Ezkerra Beltza "Lizarrusti"* (2009), *Perpetua Sarriategi: eskulidazkiak eta bizitza* (2011), «Euskara batua Nafarroan» (2021), «Erramun Joakin Sunbil, Iturengo arotza» (2021), «Euskara katedraren mendeurren Iruñeko Seminarioan» (2023), *Euskaltzaindiaren adierazpenak 1976-2023*, 6 argitalpenen prestatzailea (2006-2024).

Parte hartu du zenbait itzulpen eta ikerketa-lanetan: Mariano Izetaren *Baztango Hitzegia* lanaren prestatzailea (1996), *SOS Arrazakeria Nafarroaren Kultura arteko bezkuntzaren 20 saio: bizi ezazu aniztasunaren aberastasuna* lanaren itzultzailea (2002), «Euskara batua eta euskalkiak Nafarroako administrazioan eta hezkuntzan: inkesta batean emaitzak, kezak eta ondorioak» P. Iñigorekin batera (2004), Xorroxin Irratiaren eta Dindaia Fundazioaren *Baztango ipuinak* lanaren prestatzailea (2007), Mariano Izetaren *Dirua galgarr* lanaren prestatzailea (2015), «Euskal oikonomia Baztan-Bidasoa eremuko lekukotasun historikoen argitan» A. Iñigorekin batera (2018), *Etxezarra. 1912 Baztan 2012: Fr. Pedro María de Madrid, José Luis Larrión: elkarriketak – diálogos* lanaren itzultzailea (2018), «Zenbait toponimoren lekukotasunak Bortziritako, Malerreko eta Baztango agiri zaharren argitan» A. Iñigorekin batera (2019).



PASKUAL REKALDE IRIGOIEN
(Amair, 1963)

Euskal Filologian lizentziaduna. Lanbidez, nagusiki, euskara itzultzailea izan da. Bi ikasturtez Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasle izan ondotik, Nafarroako Gobernuo euskara itzultzaile ari izan da 1989tik 2023ra arte; artean Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuko Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroaren zuzendaria ere izan zen.

Euskaltzain urgazlea (2003) eta euskaltzain osoa (2020). Euskaltzaindiko zenbait batzorde eta lantaldeko kide da: Corpus Batzordea (2000-2016), Euskalkien Lantaldea (2001-), Euskaltzaindiaren Hiztegiaren Lantaldea (2001-), Gramatika Batzordea (2003-), Onomastika Batzordea (2013-), Euskara Batua Eskuliburuaren Batzordea (2015-), Morfosintaxiaren Estandarizazioaren Batzorde Ahaldundua (2021-). Halaber, Hizkuntza Kalitatearen Behatokiaren zerbitzuko arduraduna da 2013tik.


Parte hartu du zenbait itzulpen eta ikerketa-lanetan: Mariano Izetaren *Baztango Hitzegia* lanaren prestatzailea (1996), *SOS Arrazakeria Nafarroaren Kultura arteko bezkuntzaren 20 saio: bizi ezazu aniztasunaren aberastasuna* lanaren itzultzailea (2002), «Euskara batua eta euskalkiak Nafarroako administrazioan eta hezkuntzan: inkesta batean emaitzak, kezak eta ondorioak» P. Iñigorekin batera (2004), Xorroxin Irratiaren eta Dindaia Fundazioaren *Baztango ipuinak* lanaren prestatzailea (2007), Mariano Izetaren *Dirua galgarr* lanaren prestatzailea (2015), «Euskal oikonomia Baztan-Bidasoa eremuko lekukotasun historikoen argitan» A. Iñigorekin batera (2018), *Etxezarra. 1912 Baztan 2012: Fr. Pedro María de Madrid, José Luis Larrión: elkarriketak – diálogos* lanaren itzultzailea (2018), «Zenbait toponimoren lekukotasunak Bortziritako, Malerreko eta Baztango agiri zaharren argitan» A. Iñigorekin batera (2019).

ANDRES IÑIGO
PASKUAL REKALDE

BLAS FAGOAGA ARIZTIA

Irakaslea eta euskaltzaina

Erratzu (Baztan) 1897-1966



Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren
Azkue Bibliotekako katalogoan:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en
el catálogo de la Biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles
sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la Langue Basque:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka,
Royal Academy of the Basque Language:
www.euskaltzaindia.eus/azkue



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

© Andres Iñigo, Paskual Rekalde

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde zurrerako eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S. L.

Gainazala: NB Servicios Gráficos

ISBN: 978-84-128382-3-7

Lege gordailua: BI 01589-2024

ANDRES IÑIGO
PASKUAL REKALDE

BLAS FAGOAGA ARIZTIA

Irakaslea eta euskaltzaina

Erratzu (Baztan) 1897-1966

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2024

AURKIBIDEA

Aitzinsolasa	IX
Eskertzak	XI
BLAS FAGOAGA ARIZTIA. IRAKASLEA ETA EUSKALTZAINA	I
I Blas Fagoagaren bizi-ibilbidea	3
I.1 Erratzuko Etxebeltzetik Iruñeko Seminariora	4
I.2 Euskararen katedra Iruñeko Seminarioan	II
I.3 Blas Fagoaga Euskara katedraren arduradun eta irakaslea	22
2 Blas Fagoagaren <i>Breve diccionario etimológico de apellidos toponímicos, etc. fáciles de retener</i> hiztegiaren edizio egokitu eta eguneratua ...	27
2.1 Xedea	27
2.2 Ezaugarri nagusiak.....	27
2.3 Ohar argigarri eta osagarriak	32
2.4 Hiztegi egokitu eta eguneratua hurrenkera alfabetikoan	35
3 Blas Fagoagaren euskara haren hiru sermoi nagusiren argitan	245
3.1 Berroetako sermoia	246
3.2 Elizondoko sermoia	260
3.3 Orreagako sermoia.....	273
3.4 Ezaugarri nagusiak.....	284
Iturriak	319
Bibliografia	321

Aitzinsolasa

Baztanen eta euskararen (gurean *eskuararen*) arteko harremana ez da gaurkoa zinez. Baztango hizkera nolakoa den jakiteko baitezpadakoa dugu Luis Luziano Bonaparte printzearen lana hemen gogoratzea eta, bereziki, Bruno Etxenikek egindakoa. Printzearen aginduz itzuli zituen Etxenikek Baztango mintzora, “Elizondoko euskara”ra, zenbait erlijio-testu. Lan gaitz horretaz baliatu zen gero printzea Baztango euskara euskalkien mapan kokatzeko. Etxenikek eman datuekin goi-nafarreraren barnean kokatu zuen 1869an printzeak Baztango mintzoa. Nolanahi ere, sailkapen hori ezbaian paratu zuten Koldo Mitxelena eta bertze euskalari batzuek, zeinek adierazi baitzuten ibarreko euskara zubi-hizkera dela, erran nahi baita, lapurteraren eta goi-nafarreraren artekoa. Eta halaxe da gaur den egunean ere.

Etxenikek erein haziak izan zuen segida zenbait urteren buruan. Garai bertsuan, Juan Kruz Goienetxe eta Juan Bautista Gorosurreta apezek zernahi hitz eta erramolde bildu zuten, bertzeak bertze, Baztango hitzak jasotzen ari zen Resurrección María Azkue prestatzen ari zen hiztegirako. Urte batzuk geroagokoa da Mariano Izetaren lan paregabea, nagusiki Azkueren hiztegitik edan zuena. Lehenik, euskaltzain urgazle (laguntzaile), eta, gero, ohorezko izan zenari zor diogu Baztango hiztegiaren lehen hazi nagusia, *Baztango Hiztegia*, alegia. Jakina da hiztegi horretaz baliatu zirela Pello Salaburu eta Maite Lakar *Baztango mintzoa* izeneko liburuko hiztegiaren ontzeko.

Halarik ere, Izeta baino lehenagokoak ditugu Joseba Azkarate eta Blas Fagoaga euskaltzain urgazle baztandarrak. Eta hara non, Baztango Udalaren eskariz eta Nafarroako Gobernuko Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren barnean, argia ikusi duen Fagoaga erratzuar irakasle eta euskaltzainaren lan xehe eta joriak. Egileek erraten digute liburu honen xedea dela D. Blasek XX. mendearen hasmentan hasi eta mendearen hirugarren

hereneraino euskararen alde egindako lana ezagutzera ematea eta, aldi berean, egoera hartan egin zuen ahalegina dagokion neurrian baloratzea eta aitortzea.

Ez izan beldurrik, ez izan ahalke, irakurle! Liburuko orri usuetan denetarik izanen duzu. Blas Fagoagaren bizi-ibilbidea zein izan zen ikasiko duzu, hark prestatu eta Seminarioko ikasleei erakusten zien Nafarroan euskarak izandako presentziaren bilakaera eta, bereziki, berak prestatutako hiztegi toponimikoa. Eta azken horretan erratzuarrak hitz bakoitzari emandako azalpen zehatzarekin batean izanen duzu egileek egindako iruzkina. Berroetan, Elizondon eta Orreagan egin zituen hiru prediku ere leituko dituzu nahi duzun gisan, dela hark eskribitu bezala, dela baztaneraren ezaugarriak galdu gabe euskara batura ekarritako bertsioan. Erran behar dut ez zaidala arrotza egin haren idazteko manera, gaur-gaurkotik aski hurbila.

Hitz labur hauek akitzeko, erran dezadan etorkizunean gustuz hartuko ditugula Baztanen Andres Iñigok eta Paskual Rekaldek egindako liburu honen gisako lanak, azken finean, izan ginelako izanen baikara hemendik aitzina ere. Halabiz!

Fernando Anbustegi Goñi
Baztango alkatea

Eskertzak

Lehenik, 2021eko apirilaren 18an zendu zen Jose Mari Olleta *Aralar58* ikasmilako lagun zintzo eta maitagarriari. Euskara ikastera iritsi ez bazen ere, interes handia izan zuen 1963-1964 ikasturtean D. Blas Fagoagaren ikasle izandakoei erratzuarrak ikasarazitako *Breve diccionario etimológico de apellidos toponímicos, etc. fáciles de retener* hiztegia 55 urte geroago berritik kopiatu eta banatzeko. Bere gain hartu zuen hasierako lana eta, Andres Iñigok emandako laguntzarekin moldatu ondotik, banatu zen *Aralar58*-ko kideek urtero egin ohi duten bileran, 2019koan hain zuzen ere. Zerrenda hura oinarritzat hartuta osatu dugu orain argitaratzen dugun hiztegi egokitu eta eguneratua.

Joseba Otondo Baztango alkate ohiari, baztandarrek Erratzuko Blas Fagoaga irakasle eta euskaltzain urgazle izan zena hurbilagotik ezagut dezaten erakutsi zuen interesagatik eta Fernando Anbustegi egungo alkateari argitalpen hau gauzatzeko egindako ahaleginengatik.

Etxebeltzeko Xabier eta Iñaki Fagoaga Iturralde, Blas Fagoagaren ilobei, beren osabari buruzko zenbait informazio eskuratzeko emandako erraztasunagatik.

Mikel Larranbebere Iruñeko San Migel Seminarioko errektore ohiari, bertako artxiboko eta bibliotekako zenbait informazio eskura jartzeagatik.

Patxi Galé Euskaltzaindiko Onomastika Zerbitzuko ikerketa teknikari eta Onomastika batzordeko kideari, informatikako moldaketetan eman digun laguntzagatik.

Patxi Salaberri euskaltzainkideari eta Mikel Gorrotxategi Onomastika Zerbitzuko arduradunari, zenbait kontsultatan eman dizkiguten argibideengatik.

Euskaltzaindiari eta Nafarroako Gobernuko Euskarabideari, bi erakundeen arteko 2024ko hitzarmenaren gaien artean lan hau argitaratzeko hartutako erabakiagatik.

**BLAS FAGOAGA ARIZTIA
IRAKASLEA ETA EUSKALTZAINA**

1

Blas Fagoagaren bizi-ibilbidea

Blas Fagoaga Ariztia Baztango Erratzuko Etxebeltzean jaio zen 1897ko otsailaren 3an, eta bertan zendu zen 1966ko ekainaren 22an, 69 urte zituela.



I. Argazkia: Etxebeltzea (1925)

Iturria: Leoncio Urabeyen funtsa (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)



2. Argazkia: Etxebeltzeko Fagoaga-Arizona familia. Gurasoak eta 9 seme-alabak. Jarrita, ezkerretik eskuinera: Pedro Fagoaga (aita), Maria Teresa (haurrideetan gazteena), Kattalin Ariztia (ama), eta Blas (haurrideetan bigarrena). Zutik, ezkerretik eskuinera: Ines, Eulalia, Maria Paz, Jose Maria, Mikela, Maria eta Manolita.

Iturria: Etxebeltzea

I.I Erratzuko Etxebeltzetik Iruñeko Seminariora

B. Fagoagaren garaian, apez izateko normalean 12 urteko ikasketak egin behar izaten ziren, honela banatuak: 4 Gramatikakoak, 3 Filosofiakoak eta 5 Teologiakoak. Fagoagak Gramatikako bi lehenbizikoak, 1908-1910 urteetan, Amaiurko eliz ikastetxean (*Preceptoría* izenekoan) egin zituen eta gainerako hamarrak Iruñeko elizbarrutiko San Migel Seminarioan. 12 urte horietako ikasgai guzi-guzietan lortu zuen emaitza *meritissimus* (bikain) izan zen¹.

¹ Halaxe ageri da “Libro de prueba de los alumnos del Seminario Conciliar de San Miguel de Pamplona: 1903-1923” an, Mikel Larranberebe Seminarioko errektore ohiak emandako informazioaren arabera.



3. eta 4. argazkiak: Blas Fagoaga gaztetan
Argazkiak: Etxebeltzea


1920ko ekainaren 13an apeztu eta 16an Meza Berria sorterriko parrokiarian eman ondotik, lehenbiziko urtean Ultzamako Ilarregiko parrokiaren ardura eman zioten eta hurrengo hiruretan Lesakako parrokiako koadjutorearena. 1924an, Iruñeko elizbarrutiko Seminarioko irakasle izendatu zuten. 1924-1925 ikasturtean, Filosofiako lehenbiziko mailan Logika eta Ontologia emateaz gain, Teologiako bigarren eta hirugarren mailetako Elizaren Historia eta Oratoria ere bere ardurapeko gaiak izan ziren. 1925-1929 aldiko ikasturteetan, ordea, Filosofiako lehenbiziko mailan aipatutako bi ikasgaiak eta Matematika irakasten aritu zen eta 1929-1930 ikasturtetik aitzina Kritika eta Euskara ere bai. Ikasturteren batean Historia Zibila eta

Erljio-Apologetika irakatsi zituen, bai eta zenbait urtez Euskara ere Gramatikako hirugarren eta laugarren mailetan nahiz Teologiako azkenekoan. Dena dela, bere irakasle ibilbidearen amaiera arte, 1966 arte alegia, zeregin nagusia izan zen Filosofiako lehenbiziko mailan Logika, Ontologia eta Kritika (azken hori 1961 arte) eta Euskara irakastea. Euskara alorrean, Seminarioko Euskara katedraren arduradun eta irakasle ez ezik, ikur eta erreferentzia ere izan zen urte luzez. Horietaz gain, 1943-1948 urteen bitartean, Antonio Pérez Goyena liburuzainaren laguntzaile aritu ondotik, 1948tik bere azken egunetara arte Seminarioko liburuzain² izan zen Fagoaga. Laburbilduz, apez izan zen 46 urteetatik 42 Iruñeko apezgaitegian izandako arduretan eman zituen.

Euskararen alorrera mugatuz, aipatzekoak dira, bertzeak bertze, izan zituen bi merezimendu. Bata, 1933an Nafarroako *Euskeraren Adiskideak* elkarateak antolatutako poesia lehiaketan lortu zuen lehenengo saria, eta, bertzea, 1950eko urriaren 27an Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu izana, Baztango Anizko Jose Azkarate eta Berako Ignazio Larramendi nafarrekin batera. Bertzalde, euskara gaietarako elizbarrutiko eliz zentsorea ere izan zen. Hala ageri da, erraterako, 1927an Mateo Muxika apezpikuaren aginduz Iruñeko Elizbarrutirako ezarri zen Damaso Intzaren *Kristau Ikasbidean*, 1928an Migel Intxaurrondok argitara emandako *Método Práctico del Euskera* liburuan, 1936an kaleratutako Gaspar Asteteren *Kristau Ikasbidea* dotrinan³ eta azken horren 1955eko berrargitalpenean ere.

² Beraz, liburuzainaren laguntzaile izendatu zuten 1943an eta liburuzain 1948an. Informazio honekin bat ez datozen baieztapenak egin izan dira, hala nola «Se ordenó en 1920, siendo nombrado cuatro años más tarde bibliotecario y profesor del mismo centro» (Bidador 2004: 213).

³ Dotrina horren argitalpenean eliz zentsore gisa ageri da, egile izan zela erran baldin bada ere «Fagoaga preparó un catecismo para los niños que iban a hacer la primera comunión» (Bidador 2004: 213).



EL PRESBITERO
D. BLAS FAGOAGA ARIZTIA

celebrará por primera vez
el santo sacrificio de la Misa en la Parroquia
del Apóstol San Pedro, de Errazu
el día 16 de Junio de 1920



*El nuevo Presbítero y su familia tienen
el honor de invitar a V. al solemne acto,
esperando verse honrados con su presencia
y favorecidos con su oración al Todopoderoso
por la fidelidad y perseverancia del
nuevo Ministro.*



Tip. Vda. de T. Bescansa

5. Argazkia eta I. Irudia: Blas Fagoaga apeztua eta haren Meza Berriaren oroigarria
Iturria: Etxebeltzea

Argitara eman zituen lanen artean, batzuk euskaraz idatziak edo euskarari buruzko gaiak dira, hala nola «Azkueren iztegi berritu eta osoturako Joakin Lizarraga Elkanoko Apaizaren liburu argitara gabekoetatik ateratako itz saila» (*Euskera* IV, 1959: 63-78), «Algunas frases inéditas del euskera antiguo» (*Euskera* VI, 1961: 27-29), «Datos para la geografía histórica del euskera en Navarra» (*Euskera* VII, 1962: 205-213). Jakina da elizako zenbait otoiitz, kantu eta abar itzuli zituela euskarara, horien argitalpenetan edo erreferentzietan bere izena ageri ez bada ere. Hala ere, bakarren batean, bere eskuz idatzitako “B. Fagoagak itzulía” aurkitu dugu, erraterako «Orreaga-ko Andredena Mariari» izeneko otoiitz honetan:

Orreaga-Iko Andredena Mariari

Otoitza

Ibañeta-ko mendietan zauden Erregiña, Orreaga-ko Ama Birjiña guztiz garbia!

Gu mendiz bi aldetako euskaldum guztiok, Orreaga-ko zure aldare aintzina etortzen gara, gure atsekabetan zuri otoiz egitera eta burua apaldurik auspes erortzen zure oñetara.

Gisa beraz pozturik nai ditugu gure biotz barnetik xuxendu gure esker beroenak olako Ama onari noren bitartez erdietsi dugum ontasun guztiagatik, eta pozez beterik nai dugu araindi ta onaindi bi alderdietako Nafarrak eta menditar guztiok zure ondoan aurkitu zure koroitzearen egun andian.

Onartzkizu bada, Ama Birjiña maitea gure naikundeak; ala galdegiten diogu zure Seme Jainkoari; zabaldu eta aunditu ORREAGA-ko Ama Birjiñari zor zaion debozioa Españian eta Franzian bizi garen Euskaldun guztien artean. Alabiz.

* * *

B. Fagoagak itzulia

Orreaga-Iko Ama Birjina

Orreagako Ama Birjinaren istorioa polita da. Una emen laburki. Orreagatik urbil, artzain batzuk beren artaldean zain egoten ziran. Larunbat batez, ilunabartu zuelarik, basauntz eder bat oianetik atera zen, eken aitzinetik zauli pasa eta belardiaren bixkar batean, iturri baten ondoan, gelditu zen, belaunikaturik, zerura begira. Aren adarraje larria argi ederrez argitu zen eta bitartean kantu entzungarria zerutik aditu zen, Salve Regina kantu xamurra. Gertaera arrigarri au zenbait larunbatez berritu zen.


Iruñeko Obispoari adiazten diote, baño eztu berealakoan sinesten, Aingeru batek gauzez iratzartzen du eta Ama Birjinaren naia aditzera ematen dio: Orreagara igen dadiela eta gertaera miragarria berak bere begiz ikusi dezala. Eta ala, Orrëagarà ìgeten da, eta arekin batean Nafarroako erregina-Andere Oneka

ere, jaun aundikiz inguratua, Larunbata da. Belardian, ilunabarrean gelditzen dira. Eta ara, berzetan bezala, basauntza laister bizian agertzen, belardi bixkarrean iturri ondoan gelditzen, adarrak argi miragarriz distiatzen, aingeruen kantua aditzen.

Agerkunde ori ikusi ondoan, Obispo jaunak bixkar ura aitzurtzeko manatzten du eta barna aitzurtuz Ama Birjinaren iduri edo imajina eder eder bat arkitzen dute, moroak etorri ziranean, eken beldurrez lurpean altxatua edo... ¿Certatua? ¿Ele xarra? Bietaik agian. Nola nai dela, egia, Iruñeko Obispo Sancho de la Rosa argiak, XII mendean, Orreagako Ama Birjinarendako jauregi ederra, bere apez zerbitzariendako konbentua, eta beilari edo peregrinoentzat Ospitalea fundatu zituela; egia, andik unat, mendez mende, Orreagako Ama Birjinaren aitzinean argiak eta urreak distiatzen dutela; egia, kanonigo jaunak eta erromesak (peregrinoak) Salbe kantu xamurra egunero mendez mende Ama Birjinaren aitzinean kantatu dutela; egia, Ama Birjinaren iturria edo ta Aingeruen iturria deitzen den iturri xaarra badela...

Orreagako Ama Birjinarem imajina ederrenetakea da: Ama yarrita ageri da, Aurra besotan: Ama Aurrari eztiki begira eta Aurra Amari irriantxan... Amabigarren mendean egina omen. Jakintsu batek dionez, Orreagako Ama Birjina mende aietako imajina guzien artean munduan den ederrena da.

Orreagako Ama Birjin au, Nafarrea Garaiko eta Nafarrea beereko menditarren Erregin eta Ama au, bertako kalonjeak eldu den Burullan koroiatu gogo dute, Eliz Liturjiaren arabera, Eta ortarako, Orreagako Ama Birjinaren maitale guziei, bi alderdietako aren seme guziei, dei egiten diete, koroï ortan beren emaitzez parte zerbait ar dezaten eta Orreagako Amaren egun aundi ortan ager daitezen.



2. Irudia: Orreaga-ko Andredena Mariari otoi-tza
Iturria: Etxebeltzea

Baita 1960. urtean egin zen «Orreaga-ko Ama Birjinaren Elizlegezko Koroitzaerako Kantua»n ere:

B. Fagoagak irudiz

ORREAGA-KO AMA BIRJINAREN ELIZLEGEZKO KOROITZAERAKO KANTUA

DENEK *p* *Solenne quasi largo*

Korua

ze ru e ta ko a ma o -
 rriagako lo re a men diatidean du zu na yar te ku tal da re a bi nafarro e
 ta ko zu re maitatza te ak bi otzak el kar turik de naku ze se meak a -
 ma ta erreginta ko ai tortzen zaitu **I**

Kantaria

air ge ru ak e mentze sal -
 te a zu ten kanta ge rotzik beita ri ak komposte la bi de an o toitzoi zabal -
 zu ten e mendik e ra manta o rriaga koandre ma ri kris tau guen arte an a
 ren maiteta su na a go e tan i... zanta e... ra gu tuazi zu ten eu
 ro pa za ba te an ee *tr*

II

Orreagako Andre Mari-Gure Ama Birjina
 Egiazki izan zara - aspaldiko mendetan
 mendiotako Euskaldunek autatuko Erregina
 Dezazutela beti - Demboram demboretan
 Nafartar menditarrak maitetasun berdina
 Gero Landa zaitzatem mendez mende zeruetan

DENEK

Zeruetako ama Orriagako Lorea
 mendialdean duzuna Yarleku ta aldarea
 Bi Nafarroetako zure maitatzaleak
 Biotzak elkarturik denek zure semeak
 Ama eta Erregintako Aitortzen zaitute

Depósito legal, NA. 390-1960

EDIT. ARAMBURI - PAMPLONA

3. Irudia: Orreaga-ko Ama Birjinaren Elizlegezko Koroitzaerako Kantua
 Iturria: Etxebeltzea

Argitara eman zituen bertze batzuk, ordea, zenbait apezten biografiaren inguruan gaztelaniaz idatziak dira Gasteizko Montepío Diocesano inprimategian “*Semblanzas sacerdotales*” izenburupean: *Por sendas de rectitud: D. Joaquín Elcano Erro* (1943); *Dos lustros de pastor: Ilmo. Sr. D. Juan Lorenzo Irigoyen y Dutari, obispo de Pamplona* (1948); *Maestro de tres generaciones D. Pedro María Ilundáin Oyaregui* (1950), *Un hombre de Dios D. Cipriano Olaso Aranguren, sacerdote de Unión Apostólica* (1954).

I.2 Euskararen katedra Iruñeko Seminarioan

Nafarroako Foru Diputazioak 1922ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, bi euskal katedra ezartzea erabaki zuen Iruñean; bata, Institutuan eta Maisu-Maistren Eskolan 3.000 pezetako diru-kopuruarekin, eta, bertzea, Seminarioan 1.500 pezetakoarekin⁴.

- Seminariokoari dagokionez, Euskaltzaindiak Diputazioari hala eskatuta ezarri zen. Izan ere, Akademiak gai honen inguruan izan zuen kezka eta interes berezia argi egiaztatzen da Euskaltzaindiaren 1920 eta 1924 bitarteko zenbait batzarretako agirietan:
- 1920ko azaroaren 22ko batzarrean aipatu zen Euskaltzaindiak Iruñeko apezpikuari gutun bat igorri eta, erantzunik izan ez zuenez gero, erabaki zela Damaso Intza, Julio Urkixo eta Arturo Campión euskaltzainak izendatzea apezpikuarekin hitz egitera joan eta ondoko eskabide bikoitz hau egiteko: Seminarioko ikasketetan euskara irakastea eta elizbarrutiko Buletinean (*Boletín Oficial Eclesiástico* izenean) argitaratzen ziren pastoralak euskaraz ere agertzea.
- Urte bereko abenduaren 29ko batzarrean bertze bi erabaki hauek hartu ziren. Bata, euskalari jakintsua behar zuela izan Seminarioan euskara irakasteaz arduratuko zen irakasleak. Bertzea, Buletinerako pastoralak euskaratzeko ardura D. Intza eta Blas Goñi jaunek hartzea.

⁴ Foru Diputazioko bilera horretan, Manuel Irujo diputatuak egin zuen proposamena «Seguidamente manifestó el Diputado Sr. Irujo la necesidad de que se establezcan cátedras para la enseñanza del vascuence [...] Discutida suficientemente la proposición del Sr. Irujo, se acordó limitar la enseñanza de lengua vascongada a una cátedra en el Seminario Conciliar con la dotación anual de 1.500 pesetas y otra en el Instituto de segunda enseñanza con 3.000 pesetas, pero debiendo suprimirse ambas cátedras si no asistiese número suficiente de alumnos» (agirien 184. liburukia: 62).

- 1921eko ilbeltzaren 27ko batzarrean, D. Intzak jakinarazi zuen apezpikuak gutun baten bidez aditzera eman zuela agindutako gaien gain zegoela.
- 1922ko maiatzaren 22koan, berriz, D. Intzak aditzera eman zuen Seminarioko errektorea euskara ikasketetan sartzearen alde zegoela eta apezpikuak zeregin horretarako irakasle bat ere izendatuko zuela. Aldi berean, D. Intzak galdetu zuen ea Euskaltzaindiak laguntzarik ematen ahalko zuen. 500 pezeta ematea erabaki zuen Akademiak.
- Urte bereko ekainaren 22ko batzarrean, berriz ere, D. Intzak informazio berri hau eman zuen: jadanik erabakia zegoela Seminarioan euskararen irakaskuntza ezartzea eta horretaz arduratuko zen irakaslea Uhartea Arakilgo seme eta Arraiozko erretore zen Esteban Irañeta jaun izanen zela. Halaber, galdegin zuen Euskaltzaindiaren dirulaguntza 500 pezetakoa izan beharrean posible izanen ote zen 1.000 pezetakoa izatea. Euskaltzaindiaren erabakia baiezkoa izan zen, alegia, Nafarroako Foru Diputazioak Euskaltzaindiari agindutako 3.000 pezetako dirulaguntzatik 1.000 gogoz emanen zituela helburu horretarako.

Eta hala egin ahal izan zuen handik hilabete batzuetara (1923ko otsailaren 28ko bileran), hain zuzen ere, Foru Diputazioaren 1922ko abuztuaren 2ko bilera-agirian egiaztatu zelako Euskaltzaindiari agindutako dirulaguntza gauzatu zela:

S. E. se enteró de una comunicación del Director de la Academia de Lengua Vasca de Bilbao Sr. Azkue dando las gracias por la subvención de tres mil pesetas anuales concedidas para dicha Academia; y se dispuso hacer efectiva la consignación del presupuesto con destino a dicha subvención. (agirien I85. liburukia: 29)

Azkenik, Diputazioak 1922ko urriaren 17ko bileran onartu zituen bi katedretako izendapenak, E. Irañeta Seminarioarako eta Jesus Aranzadi Institutu eta Maisu-Maistren Eskolarako. Seminarioko katedra azaroaren 20an jarri zen abian, eta hala jakinarazi zitzaion Diputazioari. Erakunde honetan urte bereko abenduaren 5ean izandako bileran jakinarazpen hau eman zen:

S. E. se enteró de una comunicación del Rector del Seminario Conciliar de San Miguel de Pamplona, participando que el día 20 de noviembre último dieron comienzo en dicho Seminario las clases de la Lengua Vascongada a cargo del profesor nombrado por S. E. Don Esteban Irañeta y la forma en que se han establecido dichas clases. (agirien I85. liburukia: I13)

Aipatzekoa da Seminarioan gai honi hasieratik eman zitzaien garrantzia eta indarra; izan ere, hiru ikasturtez (1922-1925) Filosofiako lehenbiziko eta bigarren mailetako ikasle guzientzat derrigorrezko ikasgaia izan zen eta hautazkoa hirugarren mailakoentzat, eta eskola ordua, egunerokoa, denentzat⁵.

Katedra ezarri zen lehenbiziko ikasturtearen amaiera aldera, Euskaltzaindiaren 1923ko maiatzaren 28ko batzarrean Seminarioko errektorearen gutun baten berri eman zen, zeinetan Akademiari eskatzen zitzaion ikasturtearen amaierako etsaminak ikertzerara joateko. A. Campión eta D. Intza izendatu zituen Akademiak zeregin horretarako.

Hurrengo batzarrean, ekainekoan, D. Intzak azaldu zuen, bai berak, bai bilerara joaterik izan ez zuen A. Campionek pozez eta atseginez egiaztatu izan zutela etsaminen bikaintasuna. Euskaltzaindiak erabaki zuen zorionik beroena igortzea errektore jaunari.

Bikaintasun horren berri tokiko prentsan ere eman zen; erraterako, *El Pensamiento Navarro* egunkarian argitara emandako «La cátedra de euskera en el Seminario» izenburuko artikulua honela zioen:

Se han celebrado en el Seminario Conciliar los exámenes de la lengua vasca. La cátedra de euskera, como recordarán nuestros lectores, fue solicitada por la Academia de la Lengua Vasca y los gastos de la misma sufragados por la Excm. Diputación, habiéndose abierto en Noviembre de 1922. La asignatura ha sido obligatoria para todos los alumnos de primero y segundo curso de Filosofía, pertenecan o no a los pueblos vascongados, habiendo acudido de los primeros 25 y 28 de los segundos; de los de tercero han acudido voluntariamente cinco alumnos.

Además de estas clases diarias que se han dado a los filósofos, ha habido todos los domingos una clase o conferencia para los alumnos de los cinco cursos de Teología, que son los últimos de la carrera.

El resultado de los exámenes ha sido en extremo satisfactorio, habiéndose podido apreciar la labor grandiosa llevada a cabo por el celoso profesor vasco don Esteban Irañeta.

⁵ Elizbarrutiko Buletinean urtero argitara ematen zen Seminarioko Ikasketa Planaren arabera, 1922tik 1936ra bitartean, ikasleek egunero izaten zuten eskola ordua. Honekin bat ez datorren baieztapenen bat egin izan da, erraterako «En el Seminario de Pamplona fue establecida una cátedra de euskera, dada en días alternos» (Jimeno Jurío 1997: 223).

También puede verse la aplicación y entusiasmo de todos los alumnos por el estudio de la hermosa lengua euskara, pues hasta los que son hijos de los pueblos en donde por desgracia no es conocida, han conseguido traducir en solo cinco meses de estudio el vascuence con gran facilidad. ¿No es ésto verdaderamente encantador?

El resultado de los exámenes, pues, ha sobrepujado, según nuestros informes, a todas las esperanzas del profesorado. Nosotros hemos de felicitar efusivamente al culto profesor de vascuence del Seminario, don Esteban Irañeta, por el éxito conseguido, y a los alumnos por su aplicación.

No terminaremos estas líneas sin animar a la Excm. Diputación Foral de Navarra, continúe prestando toda su valiosa colaboración a la clase de euskera, establecida en el Seminario Conciliar de Pamplona. (8128. zk., 1923-06-08: 3)

Elizbarrutiak gaiari eman zion garrantziaren bertze seinaleetako bat ere agerikoa da. Garai hartan ohikoa zen elizbarrutiko agerkari ofizialean (*Boletín Oficial Eclesiástico*) ikasturte bakoitzaren amaieran argitaratzea, mailaz maila, apezgaiak ikasgai guzietan lortzen zituzten emaitzak (*Meritissimus*, *Benemeritus*, *Meritus* edo *Suspensus*). Bada, 1922-1923 ikasturtean eta hurrengo bizpahirutan Filosofiako hiru mailetak emaitzen ondotik, atal berezian gehitu ziren ikasleek Euskararen lortutako emaitzen zerrendak. Onak benetan. 1922-1923 ikasturteko emaitza orokorrak honako hauek izan ziren: % 25,45 *Meritissimus*, % 60 *Benemeritus*, % 14,54 *Meritus*; *Suspensus* bakarrik ere ez.

Halaber, aipatzekoa da ikasleen euskararekiko interesa eta jarrera. Erraterako, 1923ko udako oporren aitzinetik, Euskaltzaindiaren *Erizkizundi-Irukoitza* proiektuan lan egiteko asmoa izan zuten eta baita egin ere. Izan ere, D. Intzak 1924ko otsailaren 29ko Euskaltzaindiaren batzarrean jakinarazi zuen apezgaiak 1923ko udako oporretan egitasmo horretako sei gutun bete zituztela.

1924an irakaslea aldatu zen. Arribeko⁶ seme eta Etulaingo apez zen Migel Intxaurren izendatu zuten eta ardura horretan aritu zen bortz urtez, 1929ra arte. Intxaurren, Irañetak bezala, Arrigarai (Celestino Peralta) jaunaren *Gramática del euskera* metodoa erabili zuen. Intxaurren doktorea zen eta 1927an izendatua euskaltzain urgazle. Euskararen alorrean bere bi lan, behinik behin, aipagarriak dira. Bata, Seminarioko 1926-1927 ikasturtearen hasierako

⁶ Zenbait argitalpenetan, hala nola *Lur Hiztegi Entziklopedia*-ko 6, 53. orrialdean eta *Wikipedia Entziklopedia Aske*-ko argitalpen elektronikoan, Intxaurrendoren sorterritzat *Aribe* ematen dute *Arrib*e eman beharrean, hau da, Aezkoa ibarreko *Aribe* Araitz ibarreko *Arrib*e-tzat hartuz.

hitzaldia «La Iglesia y el Euskera. Obligación de hablar al pueblo en su lengua nativa y de cultivarla» izenekoa. Bertzea, 1928an, Seminarioko irakasle izandako epearen amaiera aldera argitara eman zuen *Método Práctico del Euskera* liburua⁷.

Ikasturteek aitzina egin ahala gauzak pixkanaka aldatzen joan ziren eta eskola orduak jaisten. 1925etik 1929 bitartera, Filosofiako lehenbiziko mailan euskarak derrigorrezko ikasgaia izaten segitu zuen eta eskola ordua egunero-koa, bigarren mailan ematen zena, ordea, Gramatikako laugarren mailan ezarri zen, baina eskola egunero ematetik astean hiru egunez ematera pasatu zen.


1929an, B. Fagoaga izendatu zuten irakasle. 1929tik 1936ra bitartean Euskara ikasgaia Filosofiako lehenbiziko mailara mugatu zen⁸, astean sei egunetan ordubeteko eskolarekin jarraitu bazuen ere.



6. Argazkia: Blas Fagoaga bere ikasleekin 1933. urtearen inguruan
Iturria: Etxebeltzea

⁷ Honela dio liburu horren sarreran «Después de cuatro años largos que he dedicado a la ardua tarea de enseñar el euskera a mis queridos estudiantes del Seminario de Iruña, me he lanzado, por fin, a publicar este *Método Práctico del Euskera*».

⁸ Aipatzekoa da Mateo Muxika Gasteizko elizbarrutira joan ondotik, Tomás Múniz de Pablos, Huelvakoa, izendatu zutela Iruñerako, eta berehala nabaritu zela atzerakada euskara gaietan (Dron-da 2007: 282-284).



4. **Irudia:** 1932-1933 ikasturteko ikasleek Blas Fagoagari bere urtebetetze egunean eskainitako bertsoen azala

Iturria: Etxebeltzea

Gure Irakasle maite, kantuna
 Bedi zuretaiko gaurko eguna
 Egun oro alai fa porgatia
 Jannak, bada, dixu urte berria.
 Agur putzu bat ikasle guziok
 Agur bat zuri geure biote ok
 Agur dazate geure mingoñak
 Agur garbi bat geure españak.
 Zuzandik bai genuen ikasgi
 Zuzatik gidan lenbixiko agi
 Garazo xaren ikuntza mintzaten
 Dugun doirik obeana maizatzen.
 Janngoikoak urte apko bekizkizu
 Euzkeraren alde lan egizu
 Gure lan guziak Euzkerarentzat
 Euzkera, beris, Janngoikoarentzat.

Zure irakasleak

3-2-33

5. Irudia: 1932-1933 ikasturteko ikasleek Blas Fagoagari bere urtebetetze egunean eskainitako bertsoak

Iturria: Etxebeltzea

Gerra Zibilaren ondotik murrizketak eta eskola ordu kopuruaren jaitsiera hagitz nabariagoak izan ziren. 1939-1940 ikasturtean astean hiru egunez soilik irakatsi zen eta, gainera, eskola bakoitza ordubetekoa izatetik hiru ordu laurdenekoa izatera murriztu zuten⁹, eta 1940-1948 bitartean batere ez, salbu 1940-1941 ikasturtean, zeinetan Teologiako 5. mailakoek, apez ordenatuko zirenek alegia, astean bi egunez izan zuten euskarazko eskola.

1948an berrezarri zen eta astean ordu bakarreko eskola eman zen. 1953ra arte Filosofiako bigarren mailan irakatsi zen, eta orduz geroztik 1966ra arte (B. Fagoaga zendu zen arte) lehenbizikoan.



7. eta 8. argazkiak: Blas Fagoaga 1930. eta 1950. urteen inguruan, hurrenez hurren
Iturria: Etxebeltzea

⁹ Hala zioen B. Fagoagak, Euskara katedraren arduradun gisa, 1939ko urriaren 12an Foru Diputazioari zuzendutako gutun batean: «Con el Plan de Estudios implantado para el presente curso (...) se han fijado para dicha cátedra tres clases semanales de tres cuartos de hora cada una». Iturria: Etxebeltzea.

Laburbilduz, hau izan zen katedra ezarri zenetik 1966. urtera arte euskararen irakaskuntzaren bilakaera:

- a) Lehenbiziko hiru ikasturteetan (1922-1925) Euskara Filosofiako lehenbiziko eta bigarren mailetako ikasle guzientzat eguneroko eskola ordua zuen derrigorrezko ikasgaia izan zen.
- b) Hurrengo lau urteetan (1925-1929) lehenbiziko mailan eguneroko eskolarekin jarraitu bazuen ere, bigarren mailan edo Gramatikako laugarrenean astean hiru egunekoa izatera pasatu zen.
- c) 1929tik aitzina lehenbiziko mailara bakarrik mugatu zen.
- d) 1936-1948 aldian (aipatutako 1940-1941 ikasturtea kenduta) ez zen irakatsi.
- e) 1948tik 1966 bitartera maila batean irakatsi zen (Filosofiako lehenbiziko mailan, gehienbat), baina astean ordu bakar batez soil-soilik. Beraz, 1922an abian jarri zen katedraren eskola orduak 1929rako % 50era murriztu ziren eta 1948tik aitzina % 10era.

Informazio osagarri gisa aipatu behar da B. Fagoagak euskaraz zekiten Teologiako apezgaietako eskolaz kanpoko klase batzuk ematen zizkiela. Bertzalde, 1960-1966 urteen bitartean etxetik euskara zekiten Gramatikako ikasleei astean ordu bateko eskola eman zitzaientzen, B. Fagoagak 3. eta 4. mailetakoei eta Juan Apezetxeak¹⁰ 1. eta 2.ekoei.

B. Fagoagak 1965-1966 ikasturteari hasiera eman zion, baina irakasteari utzi behar izan zion 1965eko urriaren 26an klinikan sartu behar izan zuenean. Handik, bere sortetxera, Etxebeltzera, joan zen. 1966ko urtarrilean Seminarioko ikasketaburuari (*Prefecto de Estudios*) idatzitako gutun batean¹¹ aitortu zion ez zuela bere burua gai ikusten ikasturte horretako *Kalendariumean* bigarren lauhilekorako aurreikusiak zituen ardurak bere gain hartzeko eta bertze irakasle bat izendatzea aholkatu zion.

¹⁰ Goizuetan 1930ean jaioa. Teologian doktorea, Iruñeko Seminarioko irakasle izana erretiroa hartu arte, eta euskaltzain urgazlea.

¹¹ Iturria: Etxebeltzea.



9. Argazkia: Blas Fagoaga Iruñeko Seminarioko *Aralar*58 ikasmilako dantzari taldeko kide batzuekin, San Tomas egunean, 1965-03-07an. Ezkerretik eskuinera: Joxe Migel Ganboa, Luzio Errea, Blas Fagoaga, Patxi Urrutia, Fernando Sukuntza, Juan Migel Etxarri eta Andres Iñigo. Iturria: *Aralar*58 ikasle taldea

Handik bortz hilabetera, 1966ko ekainaren 22an zendu zen B. Fagoaga eta hurrengo urteetan, bertze elizbarruti batzuetan gertatu zen bezala, Iruñeko Seminarioa ere ikaslez husten joan zen, bai Filosofian bai Teologian, eta Seminario Txikia (Gramatika deitzen zitzaiona) “San Migel Aralarkoa” Batxilergoko ikastetxe bilakatu zen.

Ezin da aipatu gabe utzi Mateo Muxika idiazabaldarraren eragina Iruñeko apezpiku izan zen urteetan (1924-1928), euskarak nolabaiteko loraldia izan baitzuen Iruñeko elizbarrutiko esparru batzuetan. Horien artean, beharbada aipagarriena, Seminarioan Euskara derrigorrezko irakasgaia ezarri ondoren, gai horren irakaskuntzak izandako babes ofiziala. Horrekin batera, euskarak izan zuen bultzada eta ikusgarritasuna zenbait ekitalditan, hala nola Teologiako ikasleei B. Goñi irakasleak euskal kulturaren inguruan astero ematen zizkien hitzaldiak eta urteroko San Tomas egunetan Seminarioan egin ohi ziren ekitaldi akademiakoetan euskarari ematen zitzaion presentzia. Urte horietako agerkari ofizialean aipatutako ekitaldi akademiko horien berri ematen zen gisa honetako aipamenetan:

...y puso fin a esta primera fase literaria de la fiesta el alumno (...) con una hermosa y delicada poesía vascongada que, como las anteriores, fue muy aplaudida: agradó a los vascongados la claridad y propiedad del lenguaje... (1521. zk., 1924-03-20: 145). Edota

...los pequeños humanistas declamaron también lindísimas composiciones poéticas alusivas (al santo) redactadas en latín, castellano y en el milenario euskera. (1629. zk., 1928-03-15: 169)

Baina ez zen Seminariora soilik mugatu presentzia hori. Urte horietan zehar euskarara itzultitako zenbait pastoral argitaratu ziren elizbarrutiko agerkari ofizialean, bai eta euskaraz egiten zen parroketan errezatu ohi ziren otoitzen testu moldatuak ere.

Testuen kalitatea ere M. Muxika apezpikuaren kezketako bat izan zen. Hartara, agerkari ofizialean argitara emandako «Único texto del Catecismo vasco» izenburuko gutunean aditzera eman zuen bazirela Nafarroan testu ezberdineko bederatzi dotrina eta, orokorrean, edukien aldetik hutsune nabariak zituztela, eta, hizkuntzari zegokionez, kalitate hagitz eskasekoak zirela:

Nada menos que *nueve* son los textos distintos de Catecismo vasco entre nosotros. Uno manuscrito, deficientísimo, que ni siquiera da noticia de algunas verdades importantísimas de nuestra Religión Sacrosanta. *Ocho* impresos que corren de mano en mano, los *ocho*, con honrosa, aunque relativa excepción de solo dos, están escritos con giros, expresiones y vocablos tan inadmisibles en la lengua vasca que la desfigurán por completo y repelen al lector. (1620. zk., 1927-II-02: 558)

Hori guzia zuzentzeko, bere aginduz, D. Intzak prestatutako *Kristau ikasbi-dea* inposatu zuen testu ofizial eta bakar gisa elizbarruti guzira:

Al efecto, acaba de publicar por Nuestra Orden y mandato el R.P. Dámaso Inza, Capuchino, un Catecismo vasco que es completo y bueno por su fondo, debida extensión, pureza de lenguaje, no rebuscado sino natural, y giro propio de la lengua vasca (...) Imponemos, en consecuencia, el Catecismo vasco del R. Padre Inza, como *único texto oficial obligatorio* para todos los pueblos y parroquias de habla vasca, y al aceptarlos con rendida sumisión, y al explicarlo Nuestros venerables sacerdotes deben guardarse de introducir modificación alguna de vocablos distintos al texto, para no incurrir de nuevo en el mal que hemos conseguido evitar. (1620. zk., 1927-II-02: 558)

M. Muxikak euskararen alde izan zuen jarreraren lekuko adierazgarriak dira Intxaurrondok 1928ko urrian (Muxika Iruñeko elizbarrutitik Gasteizkora joan berrian) argitara eman zuen *Método Práctico del Euskera* liburuaren eskaintza hitz hauek: «Muxika ta Ufestarazu'ko Yaun aundizki eta Agur-garri, Gasteiz'ko Gotzain, eta Iruñeko izanari. Beroí, bai, gure oitura on da garbien zaindariari; gure abesti atseginkor eta goiargituen maitaleari; gure euskera maitea elizetan indartu eta, elizbarúti oni zuzendu dizkion Artzai-Eskutitzetan, goralduek duen orí; euskaldunekin euskeraz mintzatzeaz lotsatzen ez den euskaldun zintzo ta leyatsu orí, biotzaren erdi-erditik... Egileak».

I.3 Blas Fagoaga Euskara katedraren arduradun eta irakaslea

Erran bezala, 1929tik 1966ra arte B. Fagoagaren esku egon zen katedra horren ardura. Doktorea zen eta 1950ean euskaltzain urgazle izendatua. Seminarioko ikasturte bakoitzeko *Kalendariumean* ikusten da D. Blasek epe luze batean, 1956ra arte, Intxaurrondoren materialak erabili zituela; 1957tik aitzina, ordea, berak prestatutako *Annotationes professoris*. Azken epe horretan, behinik behin, erratzuarraren xedea ez zen izan hizkuntza bera ikaslaraztea, bertzeak bertze, erabat ezinezkoa zelako helburu hori lortzea astean ordubetez eskolak emanda. Hortaz, Filosofiako lehenbiziko maila 1950 eta 1960ko hamarkadetan egindakoek egiaztatu bezala, Fagoagaren eginahalik handiena izan zen euskara Nafarroako ondare historiko eta kulturalaren ikuspegitik azaltzea. Bi alderdi garatzen saiatu zen nagusiki.

Alde batetik, ahalegindu zen, artxiboetako agirietatik eta testu zaharretatik hartutako hainbat eta hainbat lekukotasunez baliatuz, euskarak garai batean Nafarroan izan zuen hedadura eta mendeetan zehar jasaten ari zen murrizketa ikusarazten. Errealitate horren testigantza eta aipamen historiko ugari ematen zituen. Hona hemen, adibide gisa, klasean ikasleei diktatzen zizkien lekukotasunen fitxa pare bat. Lehenbizikoa XVI. mendean ezkongaien artean euskaraz egin ohi zen ezkontza promesa baten testigantza da, hain zuzen ere, 1556. urtean Aranguren ibarreko Labioko alaba zen *Maria de Taxonar* eta Espartza Galarko *Joanes Ramiriz* izenekoek elkarri egindakoarena.

Archivo de Navarra - Escrituras de Irudia - año 1557
 Eusthera - Matrimonio clandestino - 1556 -
 Entre Maria de Trasonar de Labiano, que es hija de Cajonar
 y Joanes Remisi de Espera de Galar. Ella estaba
 de noche con los paces de el. ^{en la casa de Galar} (la volubaba) ^{de Galar} un cierto dia
 del mes de marzo de 1556, "con un mano derecha to-
 mo' la mano derecha de esta contentante y le dixo...:
Nic d'raudaçut fede çu emeste arçeo y luego
 el dicho dependiente le dixo a esta contentante: Ala-
ber çu arçe maçu senarçat? y ~~la dicha~~...
 respondió a las dichas palabras y dixo nic alaber
arçen çaytut y al rixera de Santa Lucia de

en mismo año vinieron a Pamplona y encieta
 casa de Pamplona... una anciana que vivia en
 Pamplona Maria de Iuzsu les tomó la ft. "... se
 Trasonar de las manos d'echas... y la dicha vieja...
 dixo al dependiente: Joanes çu arçen duçu Ma-
ri ori çu arçe emasteçat? y el dicho Joanes
 respondió... bayer y luego... habló a este con-
 tante y le dixo Alaber çu Maria arçen duçu
doanis ori çu arçe senarçat? y esta contentante
 respondió a las dichas palabras luego bayer.
 Así se transcriben las palabras en el articulado. Mas arriba
 se leen estas mismas palabras con alguna pequeña variante.

6. Irudia: Blas Fagoagak eskuz idatzitako fitxa baten bi alderdiak.

Iturria: Etxebelzea

Bigarrena, Erdi Aroan Nafarroako herrietan zehar modu arruntean erabili ohi ziren hainbat euskal antroponimoren (izengoitiak bereziki) testigantza.

25) Antropinimoa navarroa medievala. Art. de ch. Nafarroa
Principe de Navarre LXI. (Requiere algunos de nombres muy
 mendicantes. del libro de 1366)
 + San Severus (1366) Ximen de duro - Herin Bartolo hijo de San
de Correns (uolilla) + Arrocin (id.) Pero Sandrin de duro
 + Arrocin Miguel burque (caberin) + Peralta: Miguel Peri
beorro (B. p. 1366) + Los Arrocin Garcia Baldia (de l. b. u. a.
 catalanensis?) + Falca: Pero Sandrin correns (de l. b. u. a.)
Bevain (1366) Miguel Peri guresti one. utella: Johan
Garcia Marterr Perrota. Johan mum oz + utella:
Pero Pascual badmarca. + Adama: Miguel Peri
musa gorri + Pamplona: Garcia Lera. + Adama: Pero Peri
para duro. Pamplona: Johan torrodo. Id. Maniz Gorria
Olari: Sandrin Gorri. Pamplona: Garcia Lera. utella:

+ Hermin Ximen Gonzalez arroz de espuz (m. n. 1329)
Johan de duro. + Galdean: Pero Garcia Belga. Puente
de Reina Zuhir antia: Pero Miguel Barra antia + Avellano:
Pero Alma. Pamplona: Jain heña. Pamplona: Miguel
Meana. Id. Arnalt Nabon (P. 1366) Lirapua: Miguel illar
Arca: Pero Mochama + Ballantia: Pero Sandrin gorria.
Id.: Garcia San en perro. Pamplona: Johan gorria. Id.
poyen: Martin sendra. Pamplona: Pascual musa.
Puente de Reina: terera arguma. Amblil: Martin arrodia
 + utella: Pero Peri aper gor + Garcia Martini de ar
hija prohita lauro berretter paiz: (de l. b. u. a.) utella:
Garcia labovari + Oteia: Miguel Peri mendico. Puente
de Reina: Miguel stunio. Arrocin: Pero Sandrin stun
faiza. Lorawan: Gardot de landa antia.
Id. N. etia cural de 7a. + Hara Reque dicta Bartrina reque de
elara en 1382

7. Irudia: Blas Fagoagak eskuz idatzitako fitxa baten bi alderdiak.
 Iturria: Etxebeltzea

Aldi berean, euskal literaturari buruzko ezaugarri batzuk ematen zituen, batetik bat Luis Villasante euskaltzainburu izan zenaren *Historia de la Literatura Vasca* liburutik hartuak. Halaber, euskara hizkuntza gisa, baloratu eta goraiapatzeaz gain, euskararen ikertzaile esanguratsuen berri ere ematen saiatzen zen, hala Euskal Herrikoak zirenenak (R.M. Azkue, A. Campión, E. Garibai, F. Idoate, A. Irigarai, G. Lacombe, M. Lekuona, J. Lizarraga, K. Mitxelena, aita Moret, aita Villasante...), nola Espainiako estatukoak (R. Menéndez Pidal, A. Tovar...) nahiz atzerrikoak (L.L. Bonaparte, G. Humboldt, H. Schuchardt, J. Vinson...).

Bertze aldetik, eta bereziki, berak prestatutako hiztegia (mila eta bortzehen sarrera inguru zituen) ikasle guzietan ikasazten zien, eta ohi zuen exijentziarekin buruz ikasazten, hain zuzen ere. Hiztegi horri izenburu hau eman zion: *Iniciación al estudio del euskera. Breve diccionario etimológico de apellidos toponímicos, etc. fáciles de retener.*

Edukiari dagokionez, hiztegiaren sarrera gehienak toponimoak edota deiturak ziren eta, neurri txikiagoan, Nafarroan jadanik euskaraz hitz egiten ez zen herri aunitzetan erabiltzen edo ezagutzen ziren hitz arruntak eta esapideak. Argi dago helburu bikoitza erdiesten ahalegindu zela, hau da, ikasleei ikusarazten beren familietako deitura nahiz beren herrietako toponimo aunitz, hein handi batean, euskal sustraikoak zirela, eta, horrekin batera, gaztelaniazko hizkeran entzun eta erabili ohi zituzten zenbait hitz eta esapide euskararen ondarekoak zirela. Erraten ahal da xede bikoitz hori lortu zuela, ikasle guztiak ongi jabetzen baitziren bi errealitate horietaz.

Urte batetik bertzera ukituren bat edo bertze egiten zion hiztegi horri, baina aldaketa nabaririk gabe orokorrean. Ikasleei banatzen zizkien kopiak Seminarioko ziklostilean egiten zituen. Hemen aurkezten dena 1963-1964 ikasturteko ikasleei banatu ziena da, oker ez bagaude, B. Fagoagak prestatu zuen azkeneko argitaraldiarena, alegia.

Mila eta bortzehen hitz inguru zituen hiztegi hartako izen gehienak toponimoak eta deiturak zirenez gero, hitz horien zerrenda eman aitzinetik, sarre-ohar gisa azaltzen zituen toponimoen eta deituren osieran agertzen diren ezaugarri batzuk, berak *Principales sufijos que se usan en toponimia y apellidos* deitzen zituenak¹². Alegia, atzizkiak (*sufijos*) izen orokorra ematen zion multzo osoari,

¹² Hala nola *a, ak, aga, alde, arte, barren, barne, be, pe, bere, buru, puru, muru, doi, dui, toi, tui, egui, en, ren, gain, ain, guibel, gune, un, kune, güe, goyen, guren, keta, ko, go, no, ola, ondo, tegui, ti, di, z, za, ze, zu, su, so, jo.*



8. Irudia: Blas Fagoagaren hiztegiaren azala, Seminarioko ziklostilean ateratakoa Iturria: 1963-1964 ikasturteko ikasleei banatutako alea

batere zehaztu gabe amaiera horien artean bazirela marratxoarekin idatzi beharrekoak, hala nola artikulua (-a singularra eta -ak plurala), toki ugaritasunezko atzizkiak (-aga, -eta, -keta, -tz(a), -tz(e), -(i)tz, -zu...), atzizki multzokariak (-di, -doi, -dui, -ti, -toi, -tui...), atzizki txikigarriak (-ko, -go, -no, -sko, -to, -xo...) edo handigarriak (-so), jabetza adierazten duten atzizkiak (-en, -ena, -ain...), tokizko atzizkiak (-egi, -tegi...), bai eta postposizioak (alde, ondo...) edota izen osagarriak ere (gune, barren, gain, gibel, goien, guren...), lan honen "Hiztegi egokitu eta eguneratua hurrenkera alfabetikoan" izenburua daraman 2.4 kapituluaren ageri diren sarrera bakoitzeko **Oharra** izeneko atalean azalduko ditugunak.

Sarrera-ohar horren ondotik zetorren aipatutako hitz zerrenda hurrenkera alfabetikoan, gutxi gorabehera.

Blas Fagoagaren *Breve diccionario etimológico de apellidos toponímicos, etc. fáciles de retener* hiztegiaren edizio egokitu eta eguneratua

2.1 Xedea

B. Fagoaga euskaltzain urgazleak euskararen alde egindako lanaren berri izateko interesa agertu ziguten, bai Joseba Otondo Baztango alkate ohiak, bai gaur egun alkate den Fernando Anbustegik, batik bat, baztandarrek ezagutu ahal izateko erratzuarrak alor horretan egindakoa. Hori da, neurri handi batean bederen, orain aurkezten dugun edizio hau prestatzeko izan dugun xede nagusia, alegia, D. Blasek garai zail haietan euskararen alde egindako lana ezagutzera ematea eta, aldi berean, egoera hartan egin zuen ahalegina dagokion neurrian baloratzea eta aitortzea.

2.2 Ezaugarri nagusiak

B. Fagoagaren hiztegi hartako hitz guziak (toponimoak, deiturak, izen arruntak eta esapideak) sartu dira edizio honetan, baina irakurleak errazago ulertze aldera, hitz haietako bakoitzari, hurrenkera alfabetikoa aplikatuz, dagokion sarrera eman diogu eta hiru ataletan azaldu dugu:

Hitzari dagokion sarrera (**hondar**, adibidez)

- **B.F.** (Blas Fagoagak emandako sarrerak eta azalpenak)
- **Oharra** izenpean edizio honetarako euskaraz gehitu ditugun azalpenak

Honetara:

hondar

- **B.F.** Ondarra, ondarras.- Ondar (arena, playa, restos, último)...
- **Oharra:** egileak aipatzen duen bezala, erranahi hauek ditu *bondar* hitzak: a) ‘itsaso edo ibaien ertzean edo hondoa, eta basamortuetan ere, metatzen diren material gogor xeheen multzoa’ (harea), b) ‘jaten edo erabiltzen den zerbaitetik gelditzen den gauza’ (hondakina), c) ‘erabat hondatu edo desagertu den zerbaitetik gelditzen den gauza’ (azkena). *-as* amaiera gehituz, sortu du gaztelaniak “ondarras” hitza.

Modu zehatzagoan azalduz, hau da hiru atal horietako bakoitzean aplikatu dugun irizpidea:

- a) **Sarrera.** Hitz bakoitzari eman diogun sarrera letra beltzean eta gaur den egunean onartutako euskal aldaeran eta grafian paratu dugu: **hondar** (ez ondar), **Aizkibel** (ez Aitzquibel), **karrika dantza** (ez carricadanza), **Es-kuxuri** (ez Eskujuri). Irizpide horren arabera egokituak ageri dira sarrera guztiak, alde batetik, hurrenkera alfabetikoan paratuak (irakurleak hitz bakoitza modu errazean aurkitu ahal izateko), eta, bertze aldetik, letren moldea egokituta (letra larriz hasita toponimoak eta deiturak: **Argibel**, **Otondo**, **Urrutia**...), eta letra xehez hasita esapideak eta izen arruntak: **argin**, **hondar**, **mutiko alai**, **ur**...), azken hauetatik toponimo edo deitura gisa ezagunak direnak salbu: **Beltza**, **Ezkurra**, **Lorea**...).

Modu berean jokatu dugu B. Fagoagak hitz bat baino gehiago biltzen zituen sarreretan, erraterako **Bordazar**, **Bordandia** eta **Bordachipi** sarrera barrean sartu zituen. Horrelakoetan antolaketa hau egin dugu: hitz horien sarrera batean, **Bordazar** hitzari dagokionean kasu honetan, eman ditugu hirurei dagozkien azalpenak, eta alfabetikoki tokatzen zaien lekuan sartu ditugu bertze biak, ‘Ikus’ marka gehituz: **Bordandia** Ikus **Bordazar**, **Bordatxipi** Ikus **Bordazar**.

Irizpide bera aplikatu dugu, hitz arrunt, toponimo edota deituretan: **zar-rapo**, **ar-rapo** edo **Bagadi**, **Pagadi**, edo **Gamio**, **Kamio** eta abarretan, bai eta Nafarroan gaztelaniazko forma emanez erabiltzen diren zenbait euskal hitzen kasuan ere; azken hauei euskal hitzari alfabetikoki dagokion tokian eman dizkiogu sarrera eta azalpenak: **altxatu** edo **kutsatu** sarreretan erraterako, eta gaztelaniazko forma, alfabetikoki dagokion tokian, baina letra

etzanean emanez, sartu dugu, 'Ikus' marka gehituz: *alzar* Ikus *altxatu*, edo *cunchar* Ikus *kutsatu*.

Halaber, toponimo nagusien sarrerei dagokienez, gaur egungo egoera kontuan hartuz, informazio lagungarri eta osagarri gisa, irizpide hau aplikatu dugu:

- Izena ofizialki euskal grafian soilik onartua duten toponimoen sarrerak grafia ofizial horretan ageri dira: **Etxauri**, **Ilarratz**, **Irantzu**, **Lekunberri** eta abar.
- Gainerakoak, B. Fagoagak emandako aldaeran jaso dira: **Azanza**, **Artajona** eta abar, baina 'Oharra' atalaren amaieran kasuan kasuko ohar bat gehitu dugu:
 - Batzuetan, herri izen horri dagokion euskal grafia argitzeko: Azanza > *Azantza*, Zariquiegi > *Zarikiegi*...
 - Bertze batzuetan, herri izen horri dagokion euskal ordainaren berri emateko: Artajona > *Artaxoa*, Larraona > *Larragoa*, Lazagurria > *Elizagorria*...
 - Azkenik, ofizialki izendapen elebiduna duten herriena ere jakinarazi dugu: Auritz > *Auritz* / *Burquete*, Azcoien > *Peralta* / *Azcoien*, Erriberri > *Olite* / *Erriberri*...

Horretaz gainera, hitz arruntei dagokienez, B. Fagoagak artikuluekin emandako sarrerak artikulurik gabe paratu ditugu, hiztegieta ohi den bezala: abarra > **abar**, adiskideak > **adiskide**, anaitasuna > **anaitasun**, artzaia > **artzain**, eheco andrea > **etxeckoandre**, mozcorra > **mozkor**, urra > **hur**, ura > **ur**, zamucas > **zamuka**, eta abar.

- b) **B.F.** (Blas Fagoaga) sigla daraman atala. Gorago aipatu dugu Euskara nahitaezko ikasgaia zela Filosofiko lehen mailako ikasle guzientzat, eta kontuan izanik ikasle gehienak Nafarroan euskararik egiten ez zen herrietakoak izaten zirela, D. Blasek gaztelaniazko grafian prestatu zuen bere hiztegia eta, horregatik ere, gaztelaniaz eman zituen azalpenak. Hortaz, atal honetan hitzez hitz kopiatu ditugu erratzuarrak sarrera bakoitzari emandako gaztelaniazko forma, grafia eta azalpen testuala.

Modu honetara aurkeztu ohi zuen:

- Izen bakoitzaren sarrera eta haren osagaiak: Arizabala.- Aritz - zabal - a. (**Aritzabala** sarreran).

- Kasurik gehienetan, osagarri bakoitzaren gaztelaniazko ordaina parentesi artean paratzen zuen: Begueder.- Begui (ojo) - eder (hermoso). (**begieder** sarreran).

Halaber, zenbaitetan, zegokion hitzaren ondotik, bertzelako adierazgarri batzuk ere tartekatzen zituen, parentesi artean gehienetan. Arruntek honako hauek dira:

- Atzikia adierazteko: (suf.).
- Antzinatasuna, mendea eta urtea hiru modu hauetako batera adierazi ohi zuen: 1) Arc. ('arcaico'), 2) XII, XIII... (mendea), 3) II25, II52... (urte zehatza).
- Landare batzuen erreferentzietan Bot. ('botánica') jarri ohi zuen.
- Irizpide bera erabiltzen zuen, bai ikertzaile edo egilearen erreferentzietarako: (Moret), (C. Baroja), (Iribarren)..., bai lekukotasuna jaso zuen Nafarroako herriaren izena adierazteko: (Añorbe), (Arlegui), (Burlada), (Cizur Menor), (Estella), (Monreal), (Muez), (Salinas), (Santacara), (Ujué), (Villamayor)...
- Zenbait lekukotasunetan latinezko aipu testualak ere txertatzen zituen komatxoan artean, erraterako: *Ego sum Ganboa* (**Kanbo** sarreran), *Urtzi vocant Deum* (**Urtzi** sarreran), *Soto uno qui dicitur aquer zaltua saltus hircorum* (**Zaldua** sarreran).
- Sarrera bakoitzaren osagaien ondotik, eta amaiera gisa, izenaren gaztelaniazko ordain osoa ere gehitzen zuen hainbatetan: *Begueder*.- Begui (ojo) - eder (hermoso). Ojos hermosos (**begieder** sarreran); *Zazpiturrieta*.- Zazpi (siete) - iturri (fuente) - eta. Sitio de las siete fuentes (**Zazpiturrieta** sarreran).
- Normalean, hitz bakarreko sarrerak ematen zituen: Ezcurra, Ezcurdia eta abar. Zenbaitetan, ordea, gorago aipatu dugun bezala, sarrera batean hitz bat baino gehiago sartzen zituen: Ezpeldi eta Ezpeldoy, edo Bordazar, Bordandia eta Bordachipi, edo Lizardi, Lizarreta, Lizarza eta Lizarzu, edo Urdanegui, Urdaneta, Urdaniz, Urdanoz eta Urdazubi, eta abar.

c) **Oharra** izena daraman atala, hots, edizio berri honetarako gehitu eta euskaraz eman dugun atala.

Kontuan izan behar da B. Fagoagak hiztegi hau prestatu zuenetik urte aunitz pasatu direla, 60 hain zuzen ere, eta urte hauetan zehar egin diren ikerketa berriei esker, izen horiei buruz —toponimoei eta deiturei dagozkienei,

Erriberri.- Erri-berri. Pueblo nuevo.
 Erroiabar.-Erro-ibar. Valle de Erro.
 Errotabarri.- Errota(molino)-barri. Molino nuevo.
 Errotaldea.- Errota-alde-a. El lado o cercanía del molino.
 Errotamunoa.- Errota-muno(colina)-a. La colina del molino.
 Errotazar.- El molino viejo.
 Errotazelaya.- Errota-zelai(llano, lanura)-a. La llanura del molino.
 Esandi.-Esarte,Eseberri= Echandi,echarte, echeberri.
 Esabier, Sabier, Jabier.- Esa, echa, eche(casa)-bier, berri. Casa nueva.
 Escubi.- Derecho, mano derecha.
 Escujuri.- Escu(mano)-juri,xuri, zuri(blanco). Manos blancas.
 Esquerriasco.- Esquer(gracia)-ic-asco(mucho). Muchas gracias.
 Esteribar.- Eстера(piedra de afilar, acequias profundas)-ibar. Valledede...
 Ezti, esti.- Atrás! (a los bueyes.)
 Euscalduna.-Ecualduna.- Vascongado./Eusquera(el idioma vasco)-dun(el que tiene)-a. El que tiene el euskera
 Eunate.- Eun(cien)-ate(puerta). ¿Cien puertas?
 Euscalerria.- Euscal(vasco)-erri-a. El pueblo vasco.
 Euscaljai.- Euscal-jai(fiesta, festejo). Festejo vasco.
 Eyerahide.- Eyara, eyera(molino)-bide. Camino del molino.
 Eyaralar.- Eyara-larre. La dehesa del molino.
 Ezcurra.- Bellota, árbol(arcaico).
 Ezcurdia.- Ezcurra-di-a. Sitio de árboles o de bellotas.
 Ezpatadanza.-Ezpata-danza. La danza de las espadas.
 Ezpeldi, ezpeldoy.- Ezpel(boj)-di,doi. Bojeral.
 Ezpeleta.- Id.Id.
 Ezpelosin.-Espelosin.- Ezpel-osin(pozo, sima ,barranco).Barranco de bojes.
 Ezponda,Ezpondon.- Ribazo.
 Ezpondaburu.- Parte superior del ribazo.
 Ezquerria.- Ezquer(mano zurda, zurdo)-a.

9. Irudia: Blas Fagoagaren hiztegiaren orrialde bat, Seminarioko ziklostilean ateratakoa
 Iturria: 1963-1964 ikasturteko ikasleei banatutako alea

bereziki— interpretazio berriak ere badirela. Seguru gaude, D. Blasek aurre-rapen hauek ezagutu izatera, neurri handi batean bederen, onartu eta bereak egin ez ezik, gaur egungo euskal grafian eskribitu izanen zituela.

Gorago aipatu dugun bezala, gaur den egunean onartuak dauden euskal aldaeran eta grafian paratu ditugu edizio honetan hitz bakoitzeko Sarrera eta Oharra atalak. Eta azken atal honetako azalpenak modu honetara eman ditugu: toponimo nahiz deitura bakoitzaren osagaiak letra etzanean eta '+' zeinuaren bitartez bereziz. Osagai bakoitzari dagokion erranahia, bai eta izen osoaren nondik norakoa ere, komatxoaren artean gehitu ditugu, gisa honetara:

- **Ezkurdia:** *ezkur* 'haritzaren, artearen eta kideko zuhaitzen fruitua' + *-di* atzizki multzokaria + *-a* artikulua; beraz, 'ezkur anitz dagoen tokia'.
- **Mariskorena:** *Mari(a)* pertsona izena + *-sko* atzizki txikigarria + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, hau da, 'Maria txikiaren etxea'.

Dena dela, aitortu behar da zenbait toponimoren nahiz deituraren interpretazioek oraindik ilunpean edo erdi ilunpean segitzen dutela, ikerketa berri eta argiagoen esperoan. Halaber, hitz arruntak edota esapideak definitzen saiatu gara, egungo zenbait hiztegik, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* bereziki, ematen dituzten azalpenez baliatuz. Adibidez:

- *almute* ‘ale edukiera-neurria, ia bi litro eta erdiren baliokidea’.
- *soraio* ‘sentiberatasunik gabea’, bai eta ‘zistizerkosiak jotako txerria’ ere Baztanen.
- *txarrantxa* ‘lihoa orrazteko eta garbitzeko eskuila, burdinazko hortzak dituen’; Baztanen bertze erranahi hauek ere baditu ‘mandoei kokots inguruan paratzen zaien uhalaren burdina’ eta ‘behiak garbitzeko burdinazko eskubila’.

2.3 Ohar argigarri eta osagarriak

a) Gorago, 2.I kapituluan, aipatu dugun bezala, edizio berri honen xedea B. Fagoaga euskaltzain urgazleak euskararen alde egindako lana ezagutzera ematea da, eta, bereziki, baztandarrek ezagutu ahal izatea D. Blas erratzuarrek garai zail haietan bere ikasleekin egiten zuen ahalegina, eta dagokion neurrian baloratzea eta aitortzea.

b) Zenbait definizio eta argibide irakurlearentzat.

Irakurleari sarrera bakoitzeko **Oharrak** izeneko atalean ageri diren zenbait hitzen eta azalpenen ulergarritasuna errazte aldera, egoki iruditu zaigu definizio eta argibide batzuk aitzinetik azaltzea. Honako hauek behinik behin:

- Aferesia: hitz baten hasieran soinu bat, bokal bat edo batzuetan silaba bat ere, galtzea, erdararen eraginez batez ere: *Aintziarte* > *Intziarte*, *Arros-pide* > *Rospide*, *Elizaga* > *Lizaga*, *Errekalde* > *Rekalde*, *Ibaiarte* > *Baiarte*.
- Apokopea: hitz baten amaieran soinu bat edo soinu multzo bat galtzea. Baztango, Malerrekako eta Bortzirietako eremuan XVI. mendez geroztik dokumentatzen den galera arrunta da, batik bat etxe-izen eta deituretan: *Bidarte* > *Bidart*, *Egiluze* > *Egiluz*, *Etxebertze* > *Etxebertz*, *Etxarte* > *Etxart*, *Zubiaurre* > *Zubiaur*.
- Asimilazioa: fonema edo soinu batek inguruko bertze bati bere ezaugarriren bat harrarazten dion gertakaria da, normalean hizkera mintzatuaren

eraginez gertatzen dena; batzuetan bokalen artean: *Arantzedi* > *Arantzadi*, *Oiaregi* > *Oieregi*, eta, bertze batzuetan, kontsonante txistukariaren artean: *gantxigor* > *txantxigor*, *Zubimusu* > *Sumusu*.

- Bokal protetikoa: hitz baten hasieran gehitzen den bokala da, normalean *a-* edo *e-*, batez ere *r* kontsonanteaz hasten diren izenei aitzinean gehitzen zaiena euskaraz: *Rotxapea* > *Arrotxapea*, *Remondegi* > *Erremondegi*.
- Bokalen arteko *-n*-ren eta *-g*-ren galera maiz samar gertatzen den fenomeno da toponimoetan: *ola* + *gune* > *Olague*, *sasi* + *gain* > *Sasiain*.
- Bokalen elkarketak toki izen konposatuetan:
 - Bi bokal berdin elkartzen direnean, bat bakarra idazten da normalean: *-e* + *e-* > *-e-*, *arte* + *eta* > *Arteta*, *dolare* + *etxe* > *Dolaretxe*; *-a* + *a-* > *-a-*, *eliza* + *aitzin* > *Elizaitzin*, *ola* + *arte* > *Olarte*; *-o* + *o-* > *-o-*, *pago* + *ola* > *Pagola*.
 - Zenbait kasutan, elkarketako lehenbiziko osagaia *-a* edo *-e* amaiera-koa denean, hori da normalean galtzen dena: *-a* + *e-* > *-e-*, *muga* + *eta* > *Mugeta*; *-e* + *o-* > *-o-*, *ote* + *ondo* > *Otondo*; *-e* + *a-* > *-a-*, *bide* + *aurre* > *Bidaurre*.
 - Aldiz, lehenbiziko osagaiaren amaiera *-i*, *-o* eta *-u* bokalak direnean, erregulariki ez dira galtzen: *-i* + *e-* > *-ie*, *(h)egi* + *eder* > *Egieder*; *-o* + *e-* > *-oe-*, *soro* + *eta* > *Soroeta*; *-u* + *e-* > *-ue-*, *altzu* + *eta* > *Altzueteta*, baina badira salbuespenak ere, erraterako *muno* + *eta* > *Muneta*.
 - Bertze zenbaitetan, *-e* eta *-o* bokalak *-a* bihurtzen dira: *etxe* + *bakoitz* > *Etxabakoitz*, *etxe* + *mendi* > *Etxamendi*, *baso* + *burua* > *Basaburua*, *oilo* + *tegi* > *Oilategi*.
- Bustidura edo palatalizazioak ere nahiko arruntak izaten dira toponimo eta deituretan, erraterako:
 - *-in-* > *-iñ-*: *Joanmartinena* > *Joanmartiñena*, *Okinena* > *Okiñena*.
 - *-in-* > *-ñ-*: *(h)arri* + *gaina* > *Argaña*, *Larraina* > *Larraña*, *muino* > *muño*.
 - *il-* > *ill-*: *Ilarramendi* > *Illarramendi*, edo *-il-* > *-ll-*: *Teilagorri* > *Tellagorri*.
 - *z-* > *tx-*: *Zoko* > *Txoko*.
 - *z-* > *x-*: *Zubiri* > *Xubiri*.
 - *-z-* > *-x-*: *Etxezuri* > *Etxexuri*.
- Disimilazioa: asimilazioaren alderantzizkoa, hau da, hitz bateko bi fonema berdin edo antzeko direnak desberdin bihurtzea; bi fonemaren

arteko desberdintasunak areagotzea: (*H*)*arrikorta* > *Alkorta*, *Ira(t)ztortza* > *Irastortza*, *Mutilola* > *Mutiloa*.

- Haploglia: hitz batean zati berdinak edo antzekoak elkarren ondoan doazenean, horietako bat galtzea: *Baratzezabal* > *Barazabal*, *Dolaregarai* > *Dolaagarai*, *Etxeberri* > *Etxerri*, *Telleritxipi* > *Telletxipi*, *Zaldibide* > *Zalbide*. Datu dokumentalak argiak badira, forma osoa berreskuratzea da egokiena.

- Kontsonanteen arteko aldaketak:

- Txistukariak: *z*, *s*, *x* (“igurzkariak” deituak) *tz*, *ts*, *tx* (“afrikatuak” deituak).

Ozenen neutralizazioa:




Euskaraz *l*, *n* eta *r* kontsonante ozenen ondotik *z*, *s*, *x* igurzkariak datozenean *tz*, *ts*, *tx* afrikatu bihurtzeko joera automatikoa da euskal eremu gehienetan, batez ere bi hitzen elkarketetan gertatzen denean: *zubel* + *zu* > *Zubeltu*, *larrain* + *zar* > *Larraintzar*. Alderantzizkoa ere gertatzen da, alegia, afrikatu baten ondotik bertze kontsonante bat datorrenean, afrikatu hori igurzkari bilakatzea: (*h*)*aritz* + *mendi* > *Arizmendi*, *arrotz* + *bide* / *pide* > *Arrozpide*, *ikatz* + *tegi* > *Ikaztegi*, *isats* + *ti* > *Isasti*.

- Herskariak: *b*, *d*, *g* (“bigunak” deituak) *p*, *t*, *k* (“gogorak” deituak):

Erdararen eraginez, maiz gertatu ohi da *z* > *s* aldaketa herskari (*b*, *d*, *g*, *p*, *t*, *k*) baten aitzinean doanean: *Apeztegia* > *Apestezia*, *Ariztegi* > *Aristegi*, *Buztintze* > *Bustintze*, *Ezpelosin* > *Espelosin*, *Irastortza* > *Irastortza*, *Latsagabaster* > *Latsagabaster*, *txantxabizkor* > *txantxabiskor*. Horrelakoak saihestu beharrekoak dira, batez ere, erdararen eraginez gertatu dela argi denean. Baina kontuan izan behar da batzuetan euskararen barruan sortutako aldaketa ere izaten ahal dela, eta gertakari hori aspalditik gauzatua denean, bere horretan onartzen da: *Ameskoa* (Nafarroako ibarrak), *Askarraga* (Donamariako auzoa).

- Metatesia: hitz batean soinu bat edo gehiago tokiz aldatzea: *ukitu* > *ikutu*, *zuloa* > *zolu*.
- Sinkopa: hitz baten barruko soinu baten edo soinu batzuen galera da, aitzineko silabaren azentuazioaren eraginaren ondorioz gertatzen dena normalean: *Agerregi* > *Agerri*, *Axerilur* > *Axelur*, *Garaikoetxea* > *Karakotxea* eta *Karaktxia*, *Goikoetxea* > *Kokotxia* eta *Koktxia*, *Ibarrola* > *Ibarla*, *Iturbiribilla* > *Iturbilla*, *Lizarreta* > *Lizarta*, *Oteitzoian* > *Otexon*, *Pagobilla* > *Pagolla*.

- c) Etxe-izenak eta etxeko jabeei edo bizilagunei ematen zaien izena. Aipatzekoa da anitz direla hiztegi honetan ageri diren etxe-izenak, hala nola **Apeztegia** (apezaren etxea), **Arretxea** (harrizko etxea), **Etxandia** (etxe handia)..., hau da, amaieran *-a* artikulua definitzailea dutenak. Ezaguna da, halaber, izen horietako etxeetan sortu edota bizi (izan) direnei *Apeztegi, Arretxe, Etxandi...* izenez deitu ohi zaiela, hots, etxe-izenari azkeneko *-a* kenduta, eta izendapen horietako anitz deitura bihurtu direla. Ez dira horietako gutxi B. Fagoagak hiztegi honetan emandakoak: *Agerrebere, Aroztegi, Barrenetxe, Bazterretxe, Dorregarai, Etxebeltz, Etxegarai, Etxexuri, Elizalde, Errotazar, Goienetxe, Indart, Irigoien, Jauregizar, Salaberri, Ugartetxe, Zubiri* eta abar.



10.a, 10.b eta 10.c irudiak: Blas Fagoagaren sinadurak

Iturria: Etxebeltzea

2.4 Hiztegi egokitu eta eguneratua hurrenkera alfabetikoan¹³

abar

- B.F. Abarra, abarras.- Abar (ramaje) - a (el, la, lo). El ramaje.
- **Oharra:** *abar* 'zuhaitz- edo zuhaixka-adarra, bereziki egur gisa erabiltzen dena'. Euskarazko *abar* hitzean oinarriturik eta pluralaren kutsua ematen dion *-as* atzizkia gehituz, sortu du gaztelaniak *abarras* hitza.

¹³ Gorago, 2.2 kapituluan, azaldutakoaren arabera, hiztegi egokitu eta eguneratu honen hitz bakoitzean ondoko hiru atal hauek bereizten dira:

Sarrera (hitz bakoitzari dagokiona, **abar** adibidez)

- B.F. (Blas Fagoagak emandako sarrerak eta azalpenak)
- **Oharra** (edizio honetako egileek euskaraz gehitu ditugun azalpenak)

abarka

- B.F. Abarca, labarcas.- Calzado hecho con piel sin curtir (Diccionario de la Academia Española).
- **Oharra:** *abarka* ‘Euskal Herrian erabili ohi den larruzko edo gomazko oinetakoa, batez ere oinaren azpialdea babesten duena eta soka baten bidez zangoaren behealdean lotzen dena’.

abarras Ikus **abar**

Abarrategi

- B.F. Abarrategui.- Abarra - tegui (sitio, cuadra, casa). Sitio donde se guardan las abarras.
- **Oharra:** *abarra* (ikus *abar* sarrera) + *-tegi* tokia adierazten duen atzizkia; beraz, ‘abar tokia’ edo ‘abarrak gordetzen diren tokia’.

Abarzuza

- B.F. Abarzuza.- Abariz (carrasca, coscoja) - zu - za. Lugar de carrascas.
- **Oharra:** Ematen duenez, izenaren osagaiak honako hauek dira: *abar* (ikus *abar* sarrera) + *-zu* ugaritasunezko atzizkia (edo agian *zur* ‘zuhaitzen’ edo ‘zuhaitzen enborra’) + *-tza* toki ugaritasunezko atzizkia; hortaz, ‘abar ugariko tokia’ izaten ahal da seguruenik. Herriaren izen ofiziala *Abárzuza* / *Abartzuza* da.

abea Ikus **habe**

abia Ikus **habe**

Adarraga

- B.F. Adarraga.- Adar (cuerno, rama en el árbol) - aga. Sitio de ramas.
- **Oharra:** *adar*, ‘zuhaitz enborretik ateratzen den besoa’ + toki ugaritasunezko *-aga* atzizkia; ‘adar tokia’ alegia.

adiskide

- B.F. Adiskideak.- Adiskide (amigo) - ak. Los amigos.
- **Oharra:** *adiskide* ‘norbaiti adiskidetasunez lotua dagoen pertsona’.

Aezkoa

- B.F. Aezcoa.- Aitz - ko - a. La de peñas (Tierra áspera y peñascosa. Moret).

- **Oharra:** *aetzak* ‘Aezkoako herritarrek’ dira; hortik *aetz* + *-oa* edo *-goa* ‘multzoa’ > *-koa* bilakatutakoa, Gipuzkoa *giputz* + *-koa* ‘Gipuzkoako herritarra’ den moduan. Baztertzekoa dirudi, beraz, B. Fagoagak dioena, hots, *haitz dela* jatorrizko erreferentzia.

Agerre

- B.F. Aguerre, Aguirre.- *aguer*, *aguir*, *aguri* (visible, notorio). Casa que está en sitio visible.
- **Oharra:** *ageri* ‘ezkutua ez dena’, ‘nabaria’ hitzaren erreferentzia dira *ager-* eta *agir-*; beraz, ‘toki nabaria’ edo ‘agerian dagoen tokia’. *Agerrea* izeneko etxean sortu edo bizi (*izan*) denari ere eman ohi zaio *Agerre* izendapena, deitura ere bilakatu dena.

Agerrebere

- B.F. Aguerrebere.- Aguerre - bere (bajo). Aguerre de abajo.
- **Oharra:** ikus *Agerre* sarrera + *behere* ‘beheitikoa’ > *bere* bilakaturia; beraz, ‘Agerre beheitikoa’.

Agileta

- B.F. Aguleta.- Aguiñeta.
- **Oharra:** B. Fagoagak dioten bezala, toponimo honen lehenbiziko osagaia *hagin* (ikus *Aginaga* sarrera) izan liteke, baldin eta **Agineta* > **Agiñeta* > *Agileta* bilakaera egiaztatzen duten lekukotasun zaharrak izanen bagenitu. Bigarren osagaia *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia da. Bertze aukera bat izanen litzateke toponimo misto bat dela uste izatea, alegia, gaztelaniazko *águila* ‘arranoa’ + *-eta* ugaritasunezko atzizkia.

Aginaga

- B.F. Aguinaga.- Aguin (tejo Bot. - muela) - aga (suf.). Lugar de tejos.
- **Oharra:** *hagin* ‘hosto iraunkorreko zuhaitza, azala gorrixka, zura arras gogorra, eta hosto eta hazi pozoitsuak dituen’ + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia; ‘hagin ugari dagoen tokia’ alegia.

Aginagalde

- B.F. Aguinagalde.- Aguinaga - alde (suf.). Al lado de sitio de tejos.
- **Oharra:** *Aginaga* (ikus *Aginaga* sarrera) + *alde* postposizioa; ‘Aginaga dagoen hurbileko alderdia’.

Agiñeta

- B.F. Aguiñeta.- Aguin - eta (suf.). Sitio de tejos.
- **Oharra:** *hagin* (ikus *Aginaga* sarrera) -in- > -iñ- palatalizazioarekin + -eta toki ugaritasunezko atzizkia; ‘haginak dauden tokia’.

Agirre Ikus Agerre**Agirrebarrena**

- B.F. Aguirrebarrena.- Aguirre - barren (suf.). Aguirre inferior.
- **Oharra:** *Agirre* (ikus *Agerre* sarrera) + *barren* ‘behereneko alderdia’ + -a artikulua; ‘behereneko alderdian dagoen Agirre (izeneko etxea)’.

Agirrebengoa

- B.F. Aguirrebengoa.- Aguirre - be (abajo) - en (de, más) - go, ko (de) - a. Aguirre el de más abajo.
- **Oharra:** *Agirre* (ikus *Agerre* sarrera) + *bebengo* ‘alderdirik beherenean dagoena’ > *bengo* bilakatua haplogiaz + -a artikulua; beraz, ‘behereneko tokian dagoen Agirre (izeneko etxea)’.

Agirrezabal

- B.F. Agirrezabal.- Aguirre - zabal (ancho). Casa visible ancha.
- **Oharra:** *Agirre* (ikus *Agerre* sarrera) + *zabal* adjektiboa ‘ageriko toki zabala’, hots, ‘Agirre izena duen toki zabala’.

ago

- B.F. Ago.- Estáte.
- **Oharra:** *ago* interjekzioa ‘abereekin erabiltzen den agindu hitza’.

Agorreta

- B.F. Agorreta.- Agor (seco) - eta (suf.). Sitio seco.
- **Oharra:** *agor* ‘idorra’, ‘lehorra’ + -eta toki ugaritasunezko atzizkia; hots, ‘toki idorra’.

agot

- B.F. Agote.- Raza despreciable.
- **Oharra:** *agot* ‘Nafarroa Garaiko iparraldean bizi zen jatorri ezezaguneko arraza bateko kidea’.

agur

- B.F. Agur.- Saludo y despedida.
- **Oharra:** *agur egin* ‘norbaiti, ikustean edo eskutitz baten hasieran, edo haren-gandik urruntzean edo eskutitz baten bukaeran, gizalegezko hitzak erran’.

aida

- B.F. Aida.- Interjección a los bueyes.
- **Oharra:** *aida* interjekzioa ‘abelgorriei aitzina egin dezaten erraten zaien hitza’.

Aintzialde

- B.F. Ainzialde.- Aenzi (aguazal, sitio acuoso) - alde (suf.). Al lado de sitio acuoso.
- **Oharra:** Arizkungo auzo izen honen osaerari dagokionez, lehenbiziko osagaia segur aski *aintzi* izanen da, Nafarroa Beherean ezaguna den *aintzira* hitzaren aldaera, hots, ‘ur geldizko eremu iraunkorra eta aski handia’, alde batera utzi gabe *aitzin* ‘aurrea’ edota zenbait tokitan erabiltzen den *aintzin* aldaera; bigarren osagaia *alde* ‘hurbileko alderdia’ da. Beraz, ‘aintziraren hurbilean dagoena’ edo ‘aurreko aldean dagoena’.

Aintziart Ikus Aintziarte**Aintziarte**

- B.F. Aintziarte, Aintziart, Intziarte.- Aintzi - arte (suf.). Entre aguazales.
- **Oharra:** *aintzi* (ikus *Aintzialde* sarrera) ‘ur geldizko eremu iraunkorra eta aski handia’ + *arte* ‘tarteko zatia’. *Aintziart* apokopeagatik sortutako aldaera da. *Intziarte* aferesiaren eraginez sortutako aldaera da.

Aintziburu

- B.F. Ainziburu.- Aintzi - buru (suf.). En la parte superior de los aguazales.
- **Oharra:** *aintzi* (ikus *Aintziarte* sarrera) + *buru* ‘goreneko alderdia’ edo ‘amaiera’.

Aintzinena Ikus Aitzinena**Aintzioa**

- B.F. Ainzioa.- ¿de aintzi?, ¿de aitz?
- **Oharra:** ikus *Aintzialde* sarreran aipatutako *aintzira* (edo *aintzi* aldaera) eta *aintzin* erreferentziak, + *-oa*, nahiz eta zail dirudien *-oa* amaiera ‘eremua’, ‘lurraldea’ erreferentzia horiekin lotzea. Ikus, erraterako, *Aezkoa* sarrera.

Aintziondo

- B.F. Ainziondo.- Aintzi - ondo ¿junto al aguazal? Vel Aitz - ondo ¿junto a la peña?
- **Oharra:** *aintzi* (ikus *Aintziarte* sarrera) + *ondo* ‘aldamena’. B. Fagoagak ematen duen bigarren azalpena (*haitz* hitzean oinarrizten duena) erabat lekuz kanpokoa dela dirudi.

Ainzoain Ikus Aizoain

Aisa

- B.F. Aisa .- Aitz - a?
- **Oharra:** kontuan izatekoa da *aisa*-k, toponimo gisa, haitzarekin baino zehrikusi gehiago izaten ahal duela atsedean tokiarekin, bai baitira *Aisatokia* eta *Aiseleku* toponimoak Unanun eta Olatzagutian hurrenez hurren, atsedean toki adierazten dutenak eta, hortaz, erreferentziatzen *aisatu* ‘eramangarriago egin’, ‘atseden hartu’ aditza izan dezaketenak.

aita

- B.F. Aita.- Padre.
- **Oharra:** *aita* ‘seme edo alaba bat edo gehiago dituen gizona’, bai eta ‘erlijioso apezpuei ematen zaien titulua’ ere.

aitona

- B.F. Aitona.- Aita - on (bueno) - a. Abuelo, el padre bueno (Padre Isla).
- **Oharra:** *aitona* ‘aitaren edo amaren aita’, bai eta ‘adineko gizona’ ere.

Aitzabal

- B.F. Aizabal.- Aitz - zabal. Peña ancha.
- **Oharra:** *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera) + *zabal* adjektiboa; ‘haitzaren hedadura’ edo ‘haitzen hedadura’.

Aitzarte

- B.F. Aitzarte.- Aitz, atz, ach (peña, piedra) - arte. Entre peñas.
- **Oharra:** *haitz* ‘harrizko masa handi samarra, lurraren gainetik edo ur-bazterrean goititzen dena’ + *arte* ‘tarteko zatia’; beraz, ‘haitz tarteko eremua’.

Aitzeta

- B.F. Aizeta.- Aitz - eta. Abundancia de peñas.

- **Oharra:** *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia; ‘haitz tokia’.

Aitzinena

- **B.F.** Aincinena, Aizinena.- Aintzin (delante, enfrente) - en - a. La de delante, enfrente.
- **Oharra:** *aitzin* (edo *aintzin* aldaera) ‘aurrea’ + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia ala superlatiboaren marka daraman atzizkia; ‘aurrenean dagoena’ alegia.

aitzur

- **B.F.** Aitzur.- Aitz - ur (de urratu: desgarrar). Piedra para desgarrar, azada.
- **Oharra:** *aitzur* ‘lurra lantzeko eta harrotzeko lanabesa, zurezko gider batez eta hari zeharka lotutako burdinazko xaffa lau eta ahodun batez osatua’.

aixkol

- **B.F.** Aiscol, Aixcol.- almorta, muela Bot.
- **Oharra:** *aixkol* ‘belar landare lekaduna, gezi itxurako hostoak, lore zuri edo ubelak eta zurtoin adarkatua dituen, eta bazka gisa erabiltzeko edo aleagatik ereiten dena (*Lathyrus sativus*)’.

Aiziaga

- **B.F.** Aiziaga.- Aitz - aga. ¿Sitio de peñas?, o ¿aize? (viento) - aga. Sitio de viento.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia izaten ahal da *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera) edo agian *haize* ‘airea’, (*h*)*aizi* bilakatua bokalen asimilazioagatik; bigarrena *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia da; hortaz, ‘haitz tokia’ edo ‘haize tokia’.

Aizkibel

- **B.F.** Aitzquibel.- Aitz - guibel (suf.). Detrás de la peña. Ezquibel: Aitzquibel.
- **Oharra:** *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera) > (*h*)*aiz-* aldaera hartzen duena jarraian duen *g* kontsonantearen aitzinean + *gibel* ‘atzeko aldea’ > *kibel* bilakatua *z*-ren ondotik; ‘haitzaren atzeko aldea’ alegia. *Ezkibel* aldaera *Aizkibel*-etik sortutakoa da, hasierako *Ai-* diptongoa *E-* bilakatzearen ondorioz.

aizkolari

- **B.F.** Aitzcolari.- Aitzcor - lari (suf. agente). El que trabaja con el hacha.
- **Oharra:** *aizkora* (ikus *aizkora* sarrera) > *aizkol-*, elkarketan gertatzen den *-a* bokalaren galera gehi *-r-* > *-l-* aldaketagatik, + *-ari* atzizki agentea ‘aizkoraz lan egiten duen pertsona’, bereziki, ‘aizkora-jokoan lehiatzen dena’.

aizkora

- B.F. Aizcora.- Aitz - gora (alto, arriba). Piedra alta, hacha.
- **Oharra:** *aizkora* ‘zura eta kidekoak ebakitzeko erabiltzen den lanabesa, burdinazko xafla lau, aho-zorrotz eta begidun batez, eta begian finkatzen den zurezko kirten batez osatua’. K. Mitxelenaren iritziz, latinezko *asciola* ‘aizkora ttiki’ hitzaren mailegua da.

Aizkorbe

- B.F. Aizcorbe.- Aitz - gor - be, - pe (suf.). Debajo de altas peñas.
- **Oharra:** *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera) + *gorri* adjektiboa > *-gor* elkarketan hartzen duen aldaera *-kor* bilakatua *z*-ren ondotik, + *bebe* > *be* ‘beheko alderdia’ edo ‘azpia’; hortaz, ‘haitz gorriaren (edo landarerek gabekoaren) azpian dagoena’. Ikus *Aizkorri* sarrera.

Aizkorri

- B.F. Aizgorri.- Aitz - gorri (rojo). Peña roja.
- **Oharra:** *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera), > *aiz-* aldaera hartzen duena jarraian duen *g* kontsonantearen aitzinean, + *gorri* ‘gorria’, bai eta ‘soila’ edo ‘landarerek gabea’ ere toponimian, > *korri* bilakatua *z*-ren ondotik; beraz, ‘haitz gorria’, ‘haitz soila’ edo ‘landaredirik gabeko haitza’ seguruenik. Ikus *Aizkorbe* sarrera.

Aizoain

- B.F. Ainzoain.- Aintzi (aguazal, sitio acuoso) - ain - gain. Encima de sitio acuoso.
- **Oharra:** ohartaraztekoa da herriaren izena *Aitzoain* (sic) dela, ez B. Fagoagak *-n-* bat tartekatuz ematen duen **Ain(t)zoain* (eta, hortaz, funtsik gabekoa dela ustezko izen horretan oinarrituta egiten duen azalpena). Kontuan izan behar da, gainera, *-ain* atzizkiak amaitutako izenek normalean pertsona baten jabetza *-dermioa* edo *tokia-* adierazten dutela (ikus aitzinago *Andoain*, *Belascoain*, *Garinoain*, *Muniain* eta horien gisako bertze hainbat sarrera). *Aizoain* ere horien artekoa litzateke, argi ikusten ez bada ere zein izeni egiten dion erreferentzia hasierako *Ai(t)zo-* horrek. Kontzejuaren izen ofiziala *Aizoáin* / *Aitzoain* da.

Aizpea

- B.F. Aizpea.- Aitz - pe - a. Debajo de la peña.
- **Oharra:** *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera) + *bebe* > *be* ‘beheko alderdia’ edo ‘azpia’ > *pe* eratorria *z*-ren ondotik + *-a* artikulua; beraz ‘haitzaren azpiko aldea’.

Aizpeazu

- B.F. Aizpeazu, Azpiazu.- (suf.). Sitio de debajo de la peña.
- **Oharra:** ikus *Aizpea* sarrera + *-zu* toki ugaritasunezko atzizkia. K. Mitxelena dioenez, *Aizpeazu*-tik ateratako aldaera da *Azpiazu*.

Aizpegi Ikus Izpegi**Aizpuru**

- B.F. Aizpuru.- Aitz - buru (suf.). Parte superior de la peña.
- **Oharra:** *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera) + *buru* ‘goiko aldea’ edo ‘akabera’ > *puru* bilakatua *z*-ren ondotik; hortaz, ‘haitzaren goiko aldea’ edo ‘haitzaren akabera’.

Aizto

- B.F. Aizto.- Aitz - to (diminutivo). Piedrecita, cuchillo.
- **Oharra:** *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera) + *-to* atzizki txikigarria; ‘haitz txikia’ alegia.

aiztur

- B.F. Aiztur.- Aitz - ur. Tijeras.
- **Oharra:** *aiztur* ‘guraizeak’ edo ‘artaziak’, esku bakarrarekin erabiltzen direnak edo, tamainaren arabera, bi eskuez, erraterako, ardiei ilea mozteko.

akelarre

- B.F. Aquelarre.- Aquer (macho cabrío) - larre, larra (campo de pastos). Prado del demonio. Conciliábulo del brujo.
- **Oharra:** *akelarre* ‘sorginen gau bilera’.

Akerreta

- B.F. Aquerreta.- Aquer - eta = Aguerreta. Sitio visible.
- **Oharra:** *aker* ‘ahuntzaren arra’ + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘aker tokiak’ beraz. *Agerreta* izenaren lehenbiziko osagaia ez da *aker*, *ager* baizik (ikus *Agerre* sarrera). Beraz, *Akerreta* eta *Agerreta* ez dira sinonimoak.

akuilu

- B.F. Acullo.- Aguijada para azucar. . .
- **Oharra:** *akuilu* ‘makila luze eta buru-etzenduna, gurdi abereei eragiteko erabiltzen dena’.

albenari

- B.F. Albenari.- Murciélago (Añorbe).
- **Oharra:** J.M. Iribarrenek Añorben jasotako *albenari* izenaz dio *gauenara* ‘saguzar’ dela, hots, *gau* + *enara* euskal izenetatik eratorritakoa. A. Aranek *Izarbeibarko Hiztegian*, berriz, zalantzan jartzen du etimologia hori; Aranaren ustez, lehenbiziko osagaia gaztelaniazko *alba* izan daiteke.

Aldaba

- B.F. Aldaba.- ¿Aldabe?
- **Oharra:** hasierako elementua *alde* dela dirudi (ikus *Aldabe* sarrera). Amaierako *-ba* horrek, ordea, ez dirudi *-be*-rekin zerikusirik duenik, akabera hori duten Nafarroako bertze herri izen batzuetan gertatzen den bezalaxe, hala nola *Arriba, Eslaba, Izaba, Orba, Zalba...*

Aldabe

- B.F. Aldabe.- Alda, alde (lado, cuesta) - be. ¿Debajo de la cuesta?
- **Oharra:** *alde* ‘aldea’, ‘alderdia’ > *alda*- elkarketan hartzen duen forma, + *bebe* ‘behea’ edo ‘zola’ > *be* bilakatua; beraz, ‘alderdiaren edo eremuaren azpia’.

Aldapa

- B.F. Aldapa.- Cuesta. (Cuesta de San Fermín de Aldapa).
- **Oharra:** *aldapa* ‘alde bat bertzea baino garaiago duen lur eremua’.

Aldapeko

- B.F. Aldapeko.- Aldapa - co. De la cuesta. (Aldapeko sagarraren...).
- **Oharra:** ikus *Aldapa* sarrera + *-ko* ‘nongo’ adierazten duen toki genitiboa. B. Fagoagak kantu ezagunari egiten dio erreferentzia, baina badira han-hemenka *Aldapeko* nahiz *Aldapako* izenburuko toponimo franko ere.

Aldasoro

- B.F. Aldasoro.- Alda - soro (yerbín, prado, pieza). ¿Prado de la cuesta?
- **Oharra:** *alde* ‘aldea’, ‘alderdia’ > *alda*- elkarketan hartzen duen forma, + *soro* ‘belardia’ edo ‘alorra’; beraz, ‘alderdiko edo eremuko belardia nahiz soroa’.

Aldatz

- B.F. Aldaz.- Aldatz, aldats (cuesta).

- **Oharra:** *alda* (ikus *Aldasoro* sarrera) + *-tz(e)* ugaritasunezko atzizkia. B. Fagoagak *aldatz* eta *aldats* sinonimotzat eman zituen, baina K. Mitxelenaren iritziz, *Aldatz* izenak ez du loturarik *aldats* ‘aldapa’ izenarekin. Gainera, kontuan izatekoa da Larraungo *Aldatz* herriaren lekukotasunetan bakarrik ere ez dela ageri **Aldats* gisa dokumentaturik.

alde

- **B.F. Aldea.**- Alde (lado) - a. El lado.
- **Oharra:** *alde* erranahi anitz dituen hitza da, horien artean B. Fagoagak dioen ‘aldea’, ‘alderdia’.

Aldekoa

- **B.F. Aldecoa.**- Alde - co - a. La del lado.
- **Oharra:** *alde* (ikus *alde* sarrera) + *-ko* ‘nongo’ adierazten duen toki genitiboa + *-a* artikulua.

Aldekotxea

- **B.F. Aldecochea.**- Alde - co - eche - a. La casa del lado.
- **Oharra:** *aldeko* (ikus *Aldekoa* sarrera) + *etxea*, ‘aldean dagoen etxea’ alegia.

Alderdieder

- **B.F. Alderdi eder.**- Alderdi (costado, paraje) - eder (hermoso). Paraje hermoso.
- **Oharra:** *alderdi* ‘lurralde edo dermio baten zatia’ + *eder* ‘bere itxura edo eragatik, ikusmenari-edo, guztiz atsegina edo miresgarria gertatzen zaiona’. Donostiako toponimo ezaguna da.

alkartasun Ikus elkartasun

Alkorta

- **B.F. Alcorta.**- Arri - corta (cuadra, sel). Sel o cuadra de piedra.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera), elkarketan *ar-* > *al-* eratorria disimilazioagatik, + *korta* ‘ukuilua’; beraz, ‘harrizko ukuilua’.

Almirantearena

- **B.F. Almirantearena.**- Almirante - a - r - en - a. La de el almirante.
- **Oharra:** *almirante* ‘aguazila’ edo ‘itsas armadako buruzagi gorena’ + *-aren* ‘noren’ edutezko genitiboa + *-a* artikulua; beraz, ‘almirantearen etxea’, Nafarroan behinik behin ‘aguazilarena’.

almute

- B.F. Almute.- Almud.
- **Oharra:** *almute* ‘ale edukiera-neurria, ia bi litro eta erdiren baliokidea’.

Altsasu

- B.F. Alsasua.- Alza (aliso) - su, - zu (suf.) - a. Lugar de alisos.
- **Oharra:** *baltz* (ikus *Altzaga* sarrera) + *-zu* ugaritasunezko atzizkia dira bere osagaiak. Hortik sortutako *Altsasu* aldaera, euskaraz aspalditik gertatu ohi den *-tz-* / *-ts-* eta *-z-* / *-s-* txandakatzearen ondorioa da, Erdi Aroaz geroztiko dokumentazioan egiaztatzen dena. Herriaren izendapen ofiziala *Altsasu* / *Alsasua* da.

altxatu

- B.F. Alzar.- Esconder (Iribarren).
- **Oharra:** Nafarroan gaztelaniazko hizkeran ezaguna den *alzar* forma, euskaraz, bai Nafarroan, bai Ipar Euskal Herrian ere, *altxatu* ‘ezkutatu’ erranahiarekin erabiltzen den aditzetik eratorritakoa da.

altxirri

- B.F. Alchirria.- Ardi - chirria. Excremento de ovejas (Iribarren).
- **Oharra:** *altxirri* (edo *arkin*) ‘ardi gorotza’.

Altzaga

- B.F. Alzaga.- Alza (aliso) - aga. Sitio de alisos, alisal.
- **Oharra:** *baltz* ‘lur hezeetan eta ibai-bazterretan hazten den zuhaitza, enborra iluna, liraina eta hagitz zuzena, eta hostoak biribilak eta erorkorrak dituen’ + ugaritasunezko *-aga* atzizkia; ‘haltz anitz den tokia’ alegia.

Alzate

- B.F. Alzate.- Alza (aliso) - te (suf., lugar de). Alisal.
- **Oharra:** *baltz* (ikus *Altzaga* sarrera) + *ate* ‘haltzen pasabidea edo ataka’; ez B. Fagoagak dioen tokizko atzizkia. Ikus *Alzeta* sarrera.

Altzerreka

- B.F. Alcerreca.- Alza (aliso) - erreka (regata). Regata de alisos.
- **Oharra:** *baltz* (ikus *Altzaga* sarrera) + *erreka* ‘ibaia baino etorri txikiagoko ur-lasterra’; beraz, ‘haltzak dituen erreka’.

Altzeta

- B.F. Alceta.- Alza (aliso) - eta. Alisal.
- **Oharra:** *baltz* (ikus *Altzaga* sarrera) + *-eta* ugaritasunezko atzizkia, ‘haltz tokia’ alegia. Ematen duenez, B. Fagoagak *Alzate* eta *Altzeta* toponimoak parekotzat hartu zituen, kontuan izan gabe nonbait, lehenbizikoaren amaierako osagaia *ate* izen arrunta dela eta bigarrenarena *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia.

Altzibar

- B.F. Alcibar.- Alza (aliso) - ibar (vega, valle). Vega de alisos.
- **Oharra:** *baltz* (ikus *Altzaga* sarrera) + *ibar* ‘harana’, hots, ‘haltzak dituen harana’.

altzo

- B.F. Alzo.- La halda (Iribarren).
- **Oharra:** *altzo* ‘eserita dagoenarengan, gerritik belauetarainoko tartea’ edo ‘magala’ da, bai eta ‘mantala edo gona gorantz tolestean gertatzen den poltsa modukoa’ ere, *sagararak altzoan bildu ditu* gisako esaldietan ikusten ahal den bezala. Horretaz gainera, kontuan izatekoa da Gipuzkoan badela *Altzo* izeneko herri bat. Bere osagaiak *baltz* (ikus *Altzaga* sarrera) + *-zu* ugaritasunezko atzizkia dira, *-zo* bilakatua erromantzearen eraginez.

Altzola

- B.F. Alzola.- Alza (aliso) - ola (suf.). Lugar de alisos.
- **Oharra:** *baltz* (ikus *Altzaga* sarrera) + *ola* ‘artzain etxola’ edo ‘burdinola’ segur aski.

Altzu

- B.F. Alzu, Arzu, Arrizu.- Sitio pedregoso, o Alza - zu? Sitio de alisos.
- **Oharra:** hirurak ez dira oinarri bereko izenak. Lehenbiziko osagaia *harri* da *Arrizu* eta *Artzu* izenetan, elkarketan *ar-* bilakatua *Artzu*-ren kasuan. *Altzu*-rena, ordea, *baltz* landarea da (ikus *Altzaga* sarrera), alde batera utzi gabe *alxu*, *altsu* ‘ardi taldea’, eta hortik sortutako *altxonbide* izenarekin izan dezakeen lotura. Bigarren osagaia *-zu* ugaritasunezko atzizkia da hiru izenetan.

Altzuaran

- B.F. Alzuaran, Arzuaran.- ¿Vega pedregosa?
- **Oharra:** lehenbiziko osagaiari dagokionez, ikus *Altzu* sarreran azal dutakoa. Bigarrena *baran* ‘ibarra’ da bi izenetan.

Altzueta

- B.F. Alzueta, Arzueta.- Sitio de pedregal.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaiari dagokionez, ikus *Altzu* sarreran azaldutakoa. Bigarrena *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia da bi izenetan.

Altzugarai

- B.F. Alzugaray, Arzugaray.- Arri - zu - garay. Encima del pedregal.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaiari dagokionez, ikus *Altzu* sarreran azaldutakoa. Bigarrena *garai* ‘altua’ da, B. Fagoagak dioen ‘gaineko aldea’.

Altzuguren

- B.F. Alzuguren, Arzuguren.- Límite del pedregal.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaiari dagokionez, ikus *Altzu* sarreran azaldutakoa. Bigarrena *guren* ‘ederra’ da bietan.

alzar Ikus **altxatu****Alztoi**

- B.F. Alztoi.- Alza (aliso) - toi, doi (suf.). Lugar de alisos.
- **Oharra:** *haltz* (ikus *Altzaga* sarrera) + *-doi* atzizki multzokaria > *-toi* bilakatu *z*-ren ondotik; beraz, ‘haltz ugariko tokia’.

ama

- B.F. Ama.- Madre.
- **Oharra:** *ama* ‘seme edo alaba bat edo gehiago dituen emakumea’.

Amaia

- B.F. Amaya.- Amay - a. El fin (Amaya o el fin de los vascos).
- **Oharra:** *amai* ‘bukaera’, ‘amaiera’ + *-a* artikulua. Navarro Villosladak idatzitako *Amaya o los vascos en el siglo VIII* eleberri entzutetsuaren pertsonaia nagusiaren izena da *Amaia*, XX. mendearen erditsutik aitzina emakume izen gisa arrakasta handia izan duena euskal gizartean eta Euskal Herritik kanpo ere bai.

ambulas Ikus **anbulo****Ametzaga**

- B.F. Ametzaga.- Ametz (quejigo, melojo, especie de roble) - aga. Lugar de quejigos, quejigal.

- **Oharra:** *ametz* ‘*Quercus* generoko zuhaitza, haritzaren antzekoa’ + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘ametz tokia’.

Ametzola

- **B.F. Ametzola.**- Ametz - ola. Lugar de quejigos.
- **Oharra:** *ametz* (ikus *Ametzaga* sarrera) + *ola* ‘artzain etxola’ edo ‘burdinola’.

Ametzua

- **B.F. Ametzua.**- Ametz - zu - a. Lugar de quejigos.
- **Oharra:** *ametz* (ikus *Ametzaga* sarrera) + *-zu* ugaritasun atzizkia + *-a* artikulua; ‘ametz ugari dagoen tokia’ alegia.

Amezqueta

- **B.F. Amezqueta.**- Ametz - queta. Abundancia de quejigos.
- **Oharra:** *ametz* (ikus *Ametzaga* sarrera) + *-keta* toki ugaritasunezko atzizkia, *-eta* atzizkiaren aldaera, hau da, ‘ametz tokia’.

Amezkoa

- **B.F. Amezcoa.**- Ametz - co - a. La tierra de quejigos.
- **Oharra:** erabat seguru ez bada ere, ematen du Nafarroan *Amezkoa* deitzen diren ibarretako oinarrizko erreferentzia *ametz* (ikus *Ametzaga* sarrera) dela + *-koa* atzizkia, tokiaren edo eremuaren zentzua izanen lukeena, ‘ametzaren eremua’ alegia. Hala izatera, aipatu behar da *-tz* + *-k* elkarketan *-zk-* egin ondotik *-sk-* bilakatu dela, bertze zenbait kasutan bezala, ikus *txantxabiskor* sarrera, erraterako. Izendapen ofiziala *Améscoa* da, eta horren euskal ordaina *Amezkoa*.

Amezti

- **B.F. Amezti, Amezti.**- Ametz - di, ti (suf.). Lugar de quejigos.
- **Oharra:** *ametz* (ikus *Ametzaga* sarrera) + *-ti* toki atzizki multzokaria, hau da, ‘ametz ugari duen tokia’. Toponimian ohikoagoa da *-a* artikuluekin, *Amezti* alegia.

Amezti Ikus Amezti

Ameztoi

- **B.F. Ameztoi.**- Ametz - toi. Lugar de quejigos.
- **Oharra:** *ametz* (ikus *Amezti* sarrera) + *-toi* toki atzizki multzokaria, *-ti* den bezala, ‘ametz ugari tokia’. Ikus *Amezti* sarrera.

anaitasun

- B.F. Anaitasuna.- Anai (hermano) - tasun (cualidad abstracta) - a. La hermandad.
- **Oharra:** *anaitasun* ‘edozein arrazoirengatik familia batekoak sentitzen direnak batzen dituen lotura’.

anbulo

- B.F. Ambulas.- Hierba, pasto del cerdío.
- **Oharra:** *anbulo* ‘larreko landarea, *Liliaceae* familiakoa, ezpata gisako hostoak eta lore zuriak buruxketan bilduak dituena (*Asphodelus albus*)’. *-as* amaiera gehituz, sortu du gaztelaniak *ambulas* hitza. Ikus *Unanu* sarrera.

anderete

- B.F. Anderete.- Andere, andre (Señora, reina de las abejas). Hormiga reina con alas.
- **Oharra:** *andere* ‘erleei deitzeko erabiltzen den hitza’ da, batez ere Ipar Euskal Herrian. Hortik dator Nafarroan gaztelaniak hartu duen *anderete* hitz txiki-garria, inurri hegaldunak izendatzeko.

Andia

- B.F. Andia.- Andi, aundi (grande). El, vel, la grande.
- **Oharra:** *bandi* edo *baundi* ‘ohiko tamaina, neurria, indarra edo garrantzia gainditzen duena’ + *-a* artikulua. Aipatzekoa da Nafarroan hain ezaguna den *Andia* izeneko mendia, *Andimendia* izendapenez ere ezaguna dena.

Andiarena

- B.F. Andiarena.- Andi - a - r - en - a. La de el grande.
- **Oharra:** *bandi* (ikus *Andia* sarrera) + *-aren* jabetza adierazten duen edo edutezko genitiboa + *-a* artikulua. Beraz, ‘izengoitiz edo deituraz *Andia* deitutakoaren etxea’.

Andoain

- B.F. Andoain.- Andu - gain. Encima del sitio de cepas.
- **Oharra:** B. Fagoagak izen honen oinarrian ikusten duen *andu* ‘mahatsondoa’ izan daitekeela erabat baztertu gabe, gehiago dira antroponimo baten erreferenziaren alde egiten duten ikertzaileak, delako pertsonaren jabetza adieraziko lukeen *-ain* atzizkiaz osatua. Ikus, bertzeak bertze, lan honetan ageri diren *Aizoain*, *Ansoain*, *Garinoain*, *Muniain*... sarrerak.

Andonegi

- B.F. Andonegui.- Andon - egui (suf.). La casa de Andon, Antón.
- **Oharra:** *Andoni* > *Andon*- elkarketan hartzen duen aldaera + *-egi* toki atzizkia 'etxea' adierazteko, hau da, 'Andoniren etxea'.

Andre Maria

- B.F. Andrea Maria.- La señora María. Santa María (siglo XII).
- **Oharra:** *Andre Maria* 'Jainkoaren Amari ematen zaion izena'. Euskal Herriko mendebaldean, *Andra* aldaera erabiltzen da, *Andra Maria* alegia.

Anduaga

- B.F. Anduaga.- Andu, andue, andui (cepa) - aga.
- **Oharra:** *andu* (ikus *Anduetza* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia.

Anduetza

- B.F. Andueza.- Andu, andue, andui (cepa) - za. ¿Sitio de cepas?
- **Oharra:** *andu*, *andue* 'lur azpian gelditzen den enbor moztuaren zatia', 'lur barnean eta erroei lotua den zernahi landare', bai eta 'mahatsondoa' ere, *-tza* ugaritasunezko atzizkia.

Ansoain

- B.F. Ansoain.- ¿Ancho - gain? ¿Encima de la llanura?
- **Oharra:** *Antso* (pertsona izena) + *-ain* atzizkia, hots, aipatutako *Antso* pertsonari jabetzaz dagokion dermioa edo toki adierazten duena. Ikus *Aizoain*, *Andoain*, *Garinoain*, *Muniain*. . . sarrerak. *Ansoain*, gaztelaniak bere ahoskerara egokitutako aldaera da. Herriaren izendapen ofiziala *Ansoáin* / *Antsoain* da.

Antonegi

- B.F. Antonegui.- Ver Andonegi.
- **Oharra:** (ikus *Andonegi* sarrera), 'Antonon etxea'.

Antsorena

- B.F. Ansorena, Anchorena, Anchonea.- Sancho - r - en - a. La de Sancho.
- **Oharra:** *Antso* (pertsona izena) eta *Antxo* haren aldaera adierazkorra + *-rena* edota *-nea* 'etxea' adierazten duten jabetza atzizkiak; beraz, 'Antsoren edo Antxoren etxea'.

Antxonea Ikus Antsorena

Antxorena Ikus Antsorena

Antzizu

- B.F. Anzizu.- Aintzi - zu. Sitio de aguazal.
- **Oharra:** *aintzi* (ikus *Aintziarte* sarrera) > *antzi* bilakatua *ai* > *a* diptongo murriketaren ondorioz, + *-zu* toki ugaritasunezko atzizkia.

Apestegia Ikus Apeztegia

Apezarena

- B.F. Apezarena.- Apez, apaiz (cura) - arena. La del cura.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *apez* da, batik bat Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko oikonomian eta familia deituretan erabat errotua ageri dena; bigarren osagaia *-arena* ‘etxea’ adierazten duen jabetza atzizkia.

Apezena

- B.F. Apezena.- Apez - en - a. La de los curas, la del cura.
- **Oharra:** *apez* (ikus *Apezarena* sarrera) + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘apezaren etxea’ alegia.

Apezetxea

- B.F. Apecechea.- Apez - eche - a. La casa del cura.
- **Oharra:** *apez* (ikus *Apezarena* sarrera) + *etxea*.

Apeziturri

- B.F. Apeziturri.- Apez - iturri (fuente). Fuente del cura.
- **Oharra:** *apez* (ikus *Apezarena* sarrera) + *iturri* ‘ura azaleratzen den tokia’ + *-a* artikulua, hots, ‘apezaren iturria’.

Apeztegia

- B.F. Apezteguia, Apestequia.- Apez - tegui - a. La casa del cura.
- **Oharra:** *apez* (ikus *Apezarena* sarrera) + *-tegi* toki atzizkia ‘etxea’ adierarekin + *-a* artikulua, hau da, ‘apezaren etxea’, *Apezarena* eta *Apezetxea* bezala. *Apestezia* aldaera, erdaraz ohikoa den *-zt-* > *-st-* egokitzapenaren ondorioa da (ikus, erraterako, *Errasti* eta *Irastortza* sarrerak).

apur

- B.F. Apurricas.- Apur, papur (migaja, un poco, resto).

- **Oharra:** *apur* ‘txikia, urria, bereziki ogiaren zati txikia’. Euskarazko *apur* hitzean oinarriturik eta pluralaren kutsua ematen dion *-icas* amaiera gehituz, sortu du gaztelaniak *apurricas* hitza.

apurricas Ikus *apur*

Araitz Ikus Aramendia

Araluze

- **B.F.** Araluce.- Aran (valle) - luce (largo). Vega larga.
- **Oharra:** *baran* ‘ibarra’, elkarketan *-n* sudurkariaren galeraren ondorioz *ara-* aldaera hartzen duena, + *luze* adjektiboa, hots, ‘luzera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen ibarra’.

Aramendia

- **B.F.** Aramendia, Araiz, Areta.- ¿De aran?
- **Oharra:** ez dira nahitaez oinarri bereko izenak, B. Fagoagak *baran* ‘ibarra’-ekin lotu zituen hirurak. *Aramendia*-ri, dagokionez, zalantza handirik gabe (*b*)*aran*, elkarketan *ara-* aldaera hartzen duena da lehenbiziko osagaia eta *mendi* bigarrena, *Areta*-ri dagokionez, ordea, erreferentzia seguruagoa dirudi *harea* ‘hondarra’, ‘legarra’, eta *Araitz*-en kasuan, gehiago dira antroponimoren batekin lotzen duten ikertzaileak.

Aran Ikus Haran

Aranatz

- **B.F.** Aranaz.- Aran - a - z. ¿Sitio de vegas?
- **Oharra:** izen honen osagaiak buruz badira hainbat iritzi ikertzaileen artean, baina ziurtasun handirik gabekoak. Batzuentzat osagai horiek *baran* ‘ibarra’ + *aratz* ‘garbia’, ‘polita’ izan litezke, *Aranaratz* alegia > *Aranatz* bilakatua haplologiaren eraginez; bertze batzuentzat, ordea, osagaiak *aran* ‘aranondoa’ edo ‘fruitua’ + *-atz* leku atzizkia dira.

Aranburu

- **B.F.** Aramburu.- Aran (valle) - buru. Parte superior del valle.
- **Oharra:** *baran* ‘ibarra’ + *buru* ‘goiko aldea’ edo ‘amaiera’. Haran edo ibarra-*ren* ‘goiko aldea’ edota ‘bukaera’.

Aranburuzabala

- B.F. Aramburuzabala.- Aran - buru - zabal - a. Cima del valle ancho.
- **Oharra:** *Aranburu* (ikus *Aranburu* sarrera) + *zabal* adjektiboa + *-a* artikulua, alegia, *Aranburu* izeneko tokiaren ‘zabalera’ edo ‘hedadura’; ez, ordea, B. Fagoagak dioen ‘haran zabalaren gaineko aldea’.

Arandigoyen

- B.F. Arandigoyen.- Aran - di - goy - en. Encima de sitios de vegas.
- **Oharra:** izen honen osagaiei dagokienez, ematen du *aran* ‘aranondoa’ edo ‘fruitua’ + *-di* atzizki multzokaria + *goien* ‘garaia’, ‘altua’ direla, hots, ‘toki gorako aranondo multzoa’, baina baztertu gabe *baran* ‘ibarra’, ‘landa’ + *bandi* > *arandi* bilakatua haplogiaz, + *goien* ere izaten ahal direla, hots, ‘ibar handiaren goia’. Herriaren izendapen ofiziala *Arandigoyen* / *Arandigoien* da.

Arangibel

- B.F. Aranguibel.- Aran - guibel. Detrás del valle.
- **Oharra:** *baran* ‘ibarra’ + *gibel* ‘atzekoa’; beraz, ‘ibarraren gibleko aldea’.

Arangoa

- B.F. Arangoa.- Aran - go, co - a. La del valle.
- **Oharra:** *baran* ‘ibarra’ + *-ko* atzizki txikigarria > *-go* bihurtua *n-* sudurkariaren ondotik + *-a* artikulua; beraz, ‘haran edo ibar txikia’.

Arangoiko

- B.F. Arangoico.- Aran - goy - co. De encima del valle.
- **Oharra:** *baran* ‘ibarra’ + *goiko*, hau da, ‘toki gorako ibarra’.

Arangoiti

- B.F. Arangoiti.- Aran - goiti. ¿Valle alto? ¿Encima del valle?
- **Oharra:** *baran* ‘ibarra’ + *goiti*, ‘goiko aldeko ibarra’ alegia. Ikus *Ibargoiti* sarrera.

Aranguren

- B.F. Aranguren.- Aran - guren (suf.). Límite del valle o valle lozano.
- **Oharra:** *baran* ‘ibarra’ + *guren* ‘ederra’, hau da, ‘ibar ederra’.

Arano

- B.F. Arano.- Aran - no. ¿Sitio de vegas?
- **Oharra:** *baran* ‘ibarra’ + *-no* atzizki txikigarria, ‘haran edo ibar txikia’.

Arantzabal

- B.F. Arantzabal.- Aran - zabal. Valle ancho.
- **Oharra:** *baran* ‘ibarra’ + *zabal* adjektiboa ‘hedadura’ > *tzabal* bilakatua *n-* su-
durkariaren ondotik, ‘hedadura nabariko ibarra’.

Arantzadi

- B.F. Arantzadi.- Aranza (espino, espina) - di. Sitio de espinos, espinal.
- **Oharra:** P. Salaberriren eta J.M. Jimeno Juríoren arabera, izen honen oinarria *arantze* ‘elorri landarea’ da, ez landare batzuetan sortzen den ziri zorrotzetako bakoitza, + *-di* atzizki multzokaria, hots, *Arantzedi* ‘elorri ugariko tokia’, bokal asimilazioaren eraginez *Arantzadi* bilakatua.

Arantzazu

- B.F. Arantzazu.- Aranza - zu. Sitio de espinos, espinal. ¿Aranze - an - zu? ¿Tú en el espino?
- **Oharra:** *arantze* ‘elorri landarea’ + *-zu* ugaritasunezko atzizkia ‘arantza ugarri duen tokia’, alegia. B. Fagoagak ematen duen bigarren azalpena, herri etimologiaz sortua, erabat baztertzekoa da.

Arantzeaga

- B.F. Arantzeaga.- Aranza (espino, espina) - aga. Sitio de espinos, espinal.
- **Oharra:** *arantze* ‘elorri landarea’ + toki ugaritasunezko *-aga* atzizkia.

Arantzeta

- B.F. Arantzeta.- Aranza (espino, espina) - eta. Sitio de espinos, espinal.
- **Oharra:** *arantze* ‘elorri landarea’ + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia.

Arbea

- B.F. Arbea.- Arri - be - a. Debajo de la peña.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *bebe* ‘azpiko alderdia’ edo ‘zola’ > *be* eratorria + *-a* artikulua, hots, ‘haitzaren beheko aldean dagoena’.

Arbeiza

- B.F. Arbeiza.- Arri - be - za. Sitio de debajo de peñas.
- **Oharra:** itxura batean, osagaiak *arbe* (ikus *Arbea* sarrera) + *-itz* ugaritasunezko atzizkia + *-a* artikulua dira. M. Belaskoren iritziz, izen honen oinarrian *arbi* ‘baratze landarea, hosto-handi eta lore-horia, sustraia mamitsua eta jateko ona duena (*Brassica napus*)’ egon daiteke, **Arbiiza* > *Arbeiza* bilakaera

izan ahal duena, eta horren arabera ‘arbi ugariko tokia’ izanen litzateke. Dagokion euskarazko izena *Arbeitza* da.

Arbekoa

- B.F. Arbepoa.- Arri - be - co - a. La de debajo de la peña. La Virgen de Arbepoa (Esparza de Galar).
- **Oharra:** *arbe* (ikus *Arbea* sarrera) + *-ko* toki genitiboa + *-a* artikulua; beraz, ‘haitzaren azpiko aldean edo zolan dagoena’.

Arbelaitz

- B.F. Arbelaitz.- Arbel (pizarra) - aitz. ¿Peña de pizarra?
- **Oharra:** *arbel* ‘harri ia beltza, orri gisako zatietan puskatzen dena’ + *haitz* ‘harrizko masa handi samarra, lurraren gainetik edo ur-bazterrean goititzen dena’; beraz, ‘arbelaren ezaugarriak dituen haitza’.

Arbeloa

- B.F. Arbeloa.- Arbel - oa?, koa? ¿La de pizarras?
- **Oharra:** *arbel* (ikus *Arbelaitz* sarrera) + *ola* ‘burdinola’, ‘artzain etxola’. Segur aski **Arbelola*-tik, bi *-l* kontsonanteen disimilazioaz sortutakoa da *Arbeloa* aldaera; antzeko kasuetan uste izan den bezala, errate baterako **Mutilola* > *Mutiloa* toponimoan nahiz deituran.

Arbeltz

- B.F. Arbelz.- Arri - belz (negro). Peña negra.
- **Oharra:** *barri* ‘mea-materia gogorra, lurraren azalean (azal-azalean nahiz barnean) masa gogorretan aurkitzen dena’, elkarketan *ar-* aldaera hartzen duena, + *beltz*, hots, kolore beltza adierazten duen adjektiboa, ‘harri beltza’.

Arbide

- B.F. Arbide.- Arri - bide (camino). Camino de piedras o calzada.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arbeltz* sarrera) + *bide*, hau da, ‘harri bidea’.

Arbilla

- B.F. Arbilla.- Arbe - iria? ¿Casa o pueblo de debajo de la peña?
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arbeltz* sarrera) + *biribil* ‘biribila’ edo ‘borobila’ > *-bil* eratorria + *-a* artikulua, hots, ‘harri biribila edo borobila’. Beraz, deus ikus-tekorik ez B. Fagoagak uste izan zuen *biri* izenarekin.

Arbizu

- B.F. Arbizu.- Arri - be - zu. Sitio de debajo de la peña (de San Donato).
- **Oharra:** *arbi* ‘baratze landarea, hosto-handi eta lore-horia, sustraia mami-tsua eta jateko ona duena (*Brassica napus*)’ + *-zu* toki ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘arbi ugariko tokia’. Ematen duenez, zerikusirik ez du B. Fagoagak uste izan zuen *barri* eta *bebe* > *be* erreferentziekin.

Arburua

- B.F. Arburua.- La de encima de la peña. La Virgen de Arburua (Salazar). O erri - buru - a. Encima del pueblo.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arbeltz* sarrera) + *buru* ‘goiko aldea’ edo ‘amaiera’ + *-a* artikulua. B. Fagoagaren bigarren azalpena (*berri* dela uste izatea) baztertekoa da. Azken horri dagokionez, ikus *Erburu* sarrera.

Ardanaz

- B.F. Ardanaz.- Ardantz, ardanze (viña) - az. ¿Sitio de viñas? “Unam vineam quae appellatur bazterreco ardanzea”. La viña del extremo (del pueblo). Siglo XII.
- **Oharra:** K. Mitxelenaren iritziz, **ardano* da izen horren lehenbiziko osagaia-
ren jatorrizko forma, bokalen arteko *-n*-ren galeraren ondorioz *ardao* ‘ardoa’
bihurtua eta *arda-* elkarketan, + *-tz(e)* toki ugaritasunezko atzizkia; beraz,
‘mahasti tokia’. Herri izen horri dagokion euskarazko ordaina *Ardatz* da.

are

- B.F. Area.- Rastra, instrumento de trabajo agrícola.
- **Oharra:** *are* ‘lurra urratzeko erabiltzen den nekazarien lanabesa’.

Areta Ikus Aramendia**Argain**

- B.F. Argain.- Arri - gain. Encima de la piedra.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arbeltz* sarrera) + *gain* ‘toki goia’, hots, ‘harriaren gaineko aldea’.

Argaitz

- B.F. Argaitz.- Arri - gaitz (malo, grande). Peña mala.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arbeltz* sarrera) + *gaitz* ‘hagitz handia’; beraz, ‘harri hagitz handia’.

Argal

- B.F. Argal.- Flaco, débil.
- **Oharra:** *argal* ‘mami gutxikoa edo mehea dena’ edota ‘ahula’, ‘indar gutxikoa’.

Argaña

- B.F. Argaña.- Arri - gan, gain, gañ - a. Parte superior de la peña.
- **Oharra:** *Argain* (ikus horren sarrera) + *-a* artikulua, *-in-* > *-ñ-* palatalizazio automatikoagatik *Argaña* bilakatua.

Argarai

- B.F. Argaray.- ¿erri? (pueblo) - garay (alto, parte superior). Parte superior de la ciudad.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arbeltz* sarrera) + *garai* ‘altua’, hots, ‘harri edo haitz altua’. Baztertzekoa da B. Fagoagak (*Arburua* sarreran bezala) hemen ere ikusten duen *herri*-ren erreferentzia.

Argarate

- B.F. Argarate, Azkarate. Ver Garate.
- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera berean eman zituen bi izen horiek, baina argitu behar da ez direla jatorri berekoak. *Argarate: barri* (ikus *Arbeltz* sarrera) > *ar-* elkarketan hartzen duen aldaera da + *garate* (ikus *Garate* sarrera). *Azkarate* izenaren oinarria, berriz: *haitz* da (ikus *Aitzarte* sarrera) > *az-* bilakatua, toponimian arrunta den bokal bikoitza bakuntzearen ondorioz, + *garate* (*karate* bilakatua *z*-ren ondotik). Beraz, ‘harrizko pasabidea’ lehenbizikoan eta ‘haitzezko pasabidea’ bigarreanean.

Argibel

- B.F. Arguibel.- Arri - guibel. Detrás de la peña. O erri - guibel.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arbeltz* sarrera) + *gibel* ‘atzeko aldea’. *Argarai* sarreran aipatu bezala, izen honetan ere alde batera uztekoa da B. Fagoagak ikusten zuen *herri*-ren erreferentzia.

Arginarena

- B.F. Arguinarena.- Arguin - arena. La del cantero.
- **Oharra:** *argin* (ikus *hargin* sarrera) + *-arena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘harginaren etxea’.

Argiñena

- B.F. Arguiñena.- Arguin - en - a. La de los canteros.
- **Oharra:** *argin* (ikus *Arginarena* sarrera) > *argiñ* bilakatua *-in-* > *-ñ-* palatalizazio automatikogatik + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia; hau da, ‘harginaren etxea’.

Aribe

- B.F. Aribe.- Arri - be. Debajo de la peña.
- **Oharra:** B. Fagoagak ematen duen azalpena ez dirudi kontuan hartzekoa denik. M. Belaskoren arabera, seguruago da pentsatzea Aezkoako *Aria* (*Ari-be*-ren gaineko aldean dagoen herria) + *bebe* ‘beheitikoa’ > *be* direla izen horren osagaiak, *Aribe* aldaera sortu dutenak.

arin

- B.F. Arin.- Ligero, alegre.
- **Oharra:** *arin* hitzak dituen erranahien artekoak dira B. Fagoagak aipatzen dituen ‘pisu edo astuntasun gutxikoa, erraz jasotzen dena’ eta ‘heldutasunik gabea, zentzu gutxikoa’.

Arispe Ikus Arizpe**Aristegi Ikus Ariztegi****Aristoi Ikus Ariztoi****Aristu Ikus Ariztoi****Aristui Ikus Ariztoi****Aritzabala**

- B.F. Arizabala.- Aritz (roble) - zabal - a. La llanura del roble.
- **Oharra:** *haritz* ‘pagoaren familiako zuhaitza, hosto erorkor eta gingildunak dituen eta fruitutzat ezkurra ematen duena’ + *zabal* ‘hedadura’ + *-a* artikulua, hots, ‘haritzak dauden toki hedatua’.

Aritzabaleta

- B.F. Arizabala.- Aritz (roble) - zabal - eta. Sitio de llanura de robles.
- **Oharra:** *aritzabal* (ikus *Aritzabala* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia.

Aritzaga

- B.F. Arizaga, Arizala.- Aritz (roble) - aga. Sitio de robles.
- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera berean emandako bi toponimo horiek ez dira erranahi berekoak. *Aritzaga*-ri dagokionez, osagaiak *haritz* (ikus *Aritzabala* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia dira, hau da ‘haritz ugariko tokia’. *Arizala*-ren osieran ez dago *-aga* atzizkia eta, gainera, bere amaieran bertze elementu bat ageri da, seguruenik *Aritzabala* toponimoa *Arizala* bilakatua, haplologiaren ondorioz. Deierriko herri horren izendapen ofiziala *Arizala* / *Arizala* da.

Aritzeta

- B.F. Arizeta.- Aritz (roble) - eta. Paraje de robles.
- **Oharra:** *haritz* (ikus *Aritzabala* sarrera) + *-eta* toki atzizkia, ‘haritz tokia’.

Aritzu

- B.F. Arizu.- Arri - ¿zu? Sitio de peñas.
- **Oharra:** *haritz* (ikus *Aritzabala* sarrera) + *-zu* ugaritasunezko atzizkia, hots, ‘haritz ugariko tokia’, B. Fagoagak aipatzen duen *barri*-rekin zerikusirik ez duena.

Arizala Ikus **Aritzaga****Arizcuren**

- B.F. Arizcuren.- Aritz (roble) - guren. Límite del robledal.
- **Oharra:** *haritz* (ikus *Aritzabala* sarrera) + *guren* ‘ederra’ > *kuren* eratorria *z*-ren ondotik, ‘harizti ederra’ alegia. Herriaren izendapen ofiziala *Arizcuren* / *Arizkuren* da.

Arizkain

- B.F. Arizcain.- Aritz (roble) - gain. Encima del robledal o cima de robles.
- **Oharra:** *haritz* (ikus *Aritzabala* sarrera) + *gain* ‘toki gora’ > *kain* eratorria *z*-ren ondotik; ‘haritz tokiaren gaina’.

Arizkun

- B.F. Arizcun.- Aritz (roble) - cun, gune (suf.). Paraje de robles.
- **Oharra:** *haritz* (ikus *Aritzabala* sarrera) + *gune* ‘tokia’, ‘aldea’, ‘eremua’ > *kun* bilakatua, alde batetik, *z*-ren eraginez sortutako *-g-* > *-k-* aldaketagatik eta, bertzetik, akabailako *-e* apokopeaz galdu izanagatik.

Arizmendi

- B.F. Arizmendi.- Monte de robles.
- **Oharra:** *haritz* (ikus *Aritzabala* sarrera) + *mendi* izen arrunta; ‘haritzak dituen mendia’.

Arizpe

- B.F. Arispe.- Aritz (roble) - pe. Debajo del robledal.
- **Oharra:** *haritz* (ikus *Aritzabala* sarrera) + *bebe* > *be* ‘beheko aldea’ edo ‘lurra’ > *pe* bilakatua *z*-ren ondotik, hau da, ‘hariztiaren beheko aldea’ edo ‘hariztiaren zola’. *Arispe* erdarak egokitutako aldaera da.

Ariztegi

- B.F. Aristegui.- Aritz (roble) - ti - egui, o Aritz - tegui. Vertiente o colina de robles, sitio de robles.
- **Oharra:** *haritz* (ikus *Aritzabala* sarrera) gehi *-ti* atzizki multzokaria eta *-egi* toki atzizkia > *-tegi* eratorria; hau da, ‘haritz multzoa dagoen tokia’; *Aristegi* erdarak egokitutako aldaera da.

Ariztia

- B.F. Ariztia.- Aritz - ti - a. Robledal.
- **Oharra:** *haritz* (ikus *Aritzabala* sarrera) + *-ti* atzizki multzokaria + *-a* artikulua, hau da, ‘haritz multzoa’.

Ariztimuño

- B.F. Ariztimuño.- Arizti - muño (cima, colina). Colina de robles.
- **Oharra:** *harizti* (ikus *Ariztia* sarrera) + *muino* ‘inguruko eremutik goratzen den lur zatia, mendia baino txikiagoa’ > *muño* eratorria palatalizazio arruntaren bidez; beraz, ‘haritz tokiaren bizkargunea’.

Ariztizabal

- B.F. Ariztizabal.- Robledal ancho.
- **Oharra:** *harizti* (ikus *Ariztia* sarrera) + *zabal* adjektiboa, ‘hedadura handi samarreko hariztia’.

Ariztoi

- B.F. Aristoi, Aristu, Aristui.- Sitio de robles.
- **Oharra:** *haritz* (ikus *Aritzabala* sarrera) + *-toi* atzizki multzokaria dira *Ariztoi* izenaren osagaiak. Izen horren aldaerak dira *Aristoi*, *Aristu* eta *Aristui*, eta

aldaketa hauek dituzte: alde batetik, *ariz* > *aris-* erdararen eraginez lehenbiziko osagaien, eta, bertze aldetik, *-toi* > *-tui* atzizkiarena bigarreanean. Kasu guzietan duen erranahia ‘haritz tokiak’ da.

Arkaia

- B.F. Arcaya.- Arri - ga - di - a? Lugar pedregoso o de peñas (el P. Vitoria).
- **Oharra:** P. Salaberrik uste du Arabako toponimo ezagun honek, segur aski, *Arcaeus* edo *Arceius* izeneko pertsona baten jabetza adieraziko zuela, ondoren *Arkabia* > *Arkaia* bilakatua. Horren arabera, alde batera uztekoa da B. Fagoagak aipatzen duen aita Vitoria-ren interpretazioa.

Arlegui

- B.F. Arlegui.- Arri - egui. Vertiente pedregosa.
- **Oharra:** itxura batean, ematen du hauek direla osagaiak: *barri* (ikus *Arbeltz* sarrera) + *-egi* tokia adierazten duen atzizkia > *-legi* bilakatua *r-* kontsonantearen eraginez; beraz, ‘harri tokia’. Baina dokumentazio zaharrearan ageri diren herri izen honen lekukotasun batzuen argitan, hala nola *Herlegui* III4an eta *Erlegui* II3In, K. Mitxelenak ez du baztertzeko oinarritzko izena *erle* izatea. Dagokion euskarazko izena *Arlegi* da.

Arluzea

- B.F. Arluzea.- Arri - luce (larga) - a. Peña alta, larga.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arbeltz* sarrera) + *luze* adjektiboa + *-a* artikulua; beraz, ‘luzera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen harria’.

Arostegieta Ikus Aroztegieta

Arotzarena

- B.F. Arotzarena.- Arotz (herrero, carpintero) - arena. La del herrero.
- **Oharra:** *arotz* ‘metalak, batez ere burdina, lantzen dituen pertsona’, ‘errementaria’ alegia (bereziki Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian) eta ‘zura lantzen duen pertsona edo zurgina’ ere bai (batez ere gainerako lurraldeetan) + *-arena* jabetza adierazten duen atzizkia; beraz, ‘arotzaren etxea’.

Arotzena

- B.F. Arozena.- Arotz - en - a. La de los herreros.
- **Oharra:** *arotz* (ikus *Arotzarena* sarrera) + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia; ‘arotzaren etxea’.

Aroztegi

- B.F. Aroztegui.- Arotz - tegui. Casa del herrero, herrería.
- **Oharra:** *arotz* (ikus *Arotzarena* sarrera) + *-tegi* toki atzizkia; beraz, ‘arotzaren etxea’ seguruenik.

Aroztegieta

- B.F. Aroztegieta.- Arotz - tegui - eta. Sitio de herrerías o ferrerías.
- **Oharra:** ikus *Aroztegi* sarrera + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia; ‘aroztegiak dauden tokia’. *Aroztegieta* erdarak egokitutako aldaera da.

Arpide

- B.F. Arpide.- Arri - bide. Camino de piedra.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arbeltz* sarrera) + *bide* hitz arrunta > *pide* bilakatua *r*-kontsonantearen eraginez, ‘harri bidea’ alegia.

Arrandi

- B.F. Arrandi.- Arri (peña) - andi. Peña grande.
- **Oharra:** itxuraz, *barri* ‘mea-materia gogorra, lurraren azalean (azal-azalean nahiz barnean) masa gotorretan aurkitzen dena’ > *arr*- elkarketan hartzen duen aldaera + *bandi* > *arrandi* dukegu, alde batera utzi gabe *arrandegi* (< *arrano* ‘hegazti harraparia’ + *-tegi* toki atzizkia, *-degi* bilakatua *n*-hotsaren ondotik) izenetik haplologiaz eratorritako aldaera ere izaten ahal dela *arrandi*. Toponimo ere bihurtu da, bai baitira *Arrandi*, *Arrandieta*. . . izenekoak.

arrapo Ikus zapo**Arrarte**

- B.F. Arrarte.- Arri - arte. Entre peñas.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *arte* ‘bitartea’, ‘harri tarteko tokia’ alegia.

Arrate

- B.F. Arrate.- Arri - te. Sitio pedregoso o peñascoso. O Arrarte.
- **Oharra:** *barri* ‘mea-materia gogorra, lurraren azalean (azal-azalean nahiz barnean) masa gotorretan aurkitzen dena’ > *arr*- elkarketan hartzen duen aldaera, + *ate* ‘ate tokia’, ‘ataka’, ‘pasabidea’ (ez, ordea, B. Fagoagak ematen duen *Arrarte* toponimoaren parekoa). *Arrate* toponimo ezagunaz gain, gaur egungo hiztegietan *barrate* ‘mendate’-aren sinonimoa da.

Arratibel

- B.F. Arratibel.- Arrate - ¿guibel? Detrás de sitio de...
- **Oharra:** ikus *Arrate* sarrera, + *gibel* ‘atzeko aldea’ > *arratibel* bilakatua haplologiaren eraginez, hots, ‘harri tokiaren gibelego aldea’.

Arratzubi Ikus Erretzubi

Arregi

- B.F. Arregui.- Arri - egui. Vertiente o ladera pedregosa.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *-egi* toki atzizkia, edota *begi* ‘mendi hegala’; hortaz, ‘harrizko tokia’ edo ‘harrizko mendi mazela’.

Arretxea

- B.F. Arrechea.- Arri - eche - a. Casa de piedra (de sillería).
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *etxe* ‘gizakia bizitzeko eraikina’ + *-a* artikulua, ‘harrizko etxea’ alegia.

Arriada Ikus Arriaga

Arriaga

- B.F. Arriaga, Arriada.- Arri - aga. Sitio de piedras o peñas.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia; ‘harri tokia’. B. Fagoagak *Arriada* ere *Arriaga*-rekin lotzen du. Baina ez da argi ikusten izen bera ote diren. Izan ere, eskura ditugun datuen arabera, leku-kotasunik zaharrena 1647koa da «*Arriaga* pieza de tierra blanca de la casa Baracual de Arizcun», baina 1693an «Juan de *Arriada* y Berroa dueño de la casa de Estebarena de Arizcun» ageri da, eta litekeena da azken honegatik, euskaraz ohi den bokalen arteko *-g-* galtzearen ondorioz, atera izatea 1726an eta 1827an Amaiurren dokumentatzen den «casa *Arriada*» eta Arizkunen 1762an «Martin de *Arriada*, dueño de la casa de Larrateberria».

Arrialdegi

- B.F. Arrialdegui.- Arri - alde - egui. Ladera de grupo de peñas.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *alde* ‘hurbileko alderdia’ + *-egi* toki atzizkia; beraz, ‘harri tokiaren eremua’.

Arriaran

- B.F. Arriaran.- Arri - aran. Valle de peñas.

- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *baran* ‘ibarra’; hau da, ‘ibar edo haran harritsu’.

Arriarte

- **B.F. Arriarte.**- Arri - arte. Entre peñas.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *arte* ‘tarteko zatia’.

Arribas

- **B.F. Arribas.**- Arri - ba, be. Debajo de la peña.
- **Oharra:** ematen duenez, B. Fagoaga Araitz ibarreko *Arribe* herri izenaz ari da. Hala bada, argitu behar da herri horren lekukotasunik zaharrenak *Arriua* (1280koa) eta *Arriba* (1366koa) direla, eta kontrara, hagitx berria dela dirudienez, bokal harmonia dela eta, sortutako *Arribe* aldaera eta egungo izen ofiziala. Zail da, erratzuarrak uste izan bezala, *ba* eta (*bebe* >) *be* sinonimotzat ematea. Bertzalde, badira *Arribas* izeneko toponimoak Nafarroako Santakara, Miranda Arga, Berbintzana eta Mendigorria herrietan, baina, ematen duenez, ez dute zerikusirik *barri* hitzarekin; azken horien erreferentzia latinezko *ripa* izaten ahal dela dirudi, gaztelaniak *ripa* eta *riba* gisa erabiltzen dituenak ‘ibai bazterreko aldapa’ izendatzeko.

Arribillaga

- **B.F. Arribillaga.**- Arri - ibil (mover, movido) - aga. Sitio de cantos rodados. O sitio de debajo de la peña.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *biribil* ‘borobila’ > *bil*- bilakatua + *-aga* ugaritasunezko toki atzizkia; beraz, ‘harri biribil edo borobilen tokia’; ez, ordea, erratzuarrak gehitzen duen harri edo haitzaren azpian dagoen tokia.

Arrieta

- **B.F. Arrieta.**- Arri - eta. Sitio de peñas.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘harri tokia’.

Arrigorri

- **B.F. Arrigorri.**- Arri - gorri (rojo). Peña roja. La Virgen de Arrigorriaga (Arraiza).
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *gorri*, kolore gorria adierazten duen adjektiboa.

Arrigorriaga

- B.F. Arrigorriaga.- Arri - gorri - aga. Sitio de peñas rojas.
- **Oharra:** ikus *Arrigorri* sarrera + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia.

Arriola

- B.F. Arriola.- Arri - ola. Sitio de peñas.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *ola*, ‘burdinola’ edo ‘txabola’, seguruenik ‘haitz ondoan aurkitzen den burdinola edo txabola’.

Arrizabalaga

- B.F. Arrizabalaga.- Lugar de piedras anchas, de losas.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *zabal* adjektiboa + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘harri zabaleko tokia’ alegia.

Arrizu Ikus Altzu

Arrizubieta

- B.F. Arrizubieta.- Arri - zubi (puente) - eta. Sitio de puente de piedra.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *zubi* izen arrunta + toki ugaritasunezko *-eta* atzizkia ‘harrizko zubiaren tokia’ edo ‘harrizko zubien tokia’.

Arrizuria

- B.F. Arrazuria.- Arri - zuri (blanco) - a. ¿Peña blanca?
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *zuri* koloreari dagokion adjektiboa + *-a* artikulua, ‘harri edo haitz zuria’.

Arrizurieta

- B.F. Arrizurieta.- Arri - zuri - eta. Lugar de peñas blancas.
- **Oharra:** (ikus *Arrizuria* sarrera) + toki ugaritasunezko *-eta* atzizkia; beraz, ‘harri zuria dagoen tokia’ edo ‘harri zuriak dauden tokia’.

Arrondo

- B.F. Arrondo.- Arri - ondo. Junto a la peña.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *ondo* ‘aldamena’; hortaz, ‘harri tokiaren aldamena’.

Arrozpide

- B.F. Arrotzpide, Rospide.- Arrotz (extraño, huésped) - bide. Camino de peregrinos.

- **Oharra:** *arrotz* ‘bertakoa ez dena, atzerrikoa, atzerritarra’, ‘ezezaguna’ + *bide* izen arrunta > *pide* bilakatua *z*-ren ondotik, *Arrozpide* alegia. Bide batez, zenbait tokitan ageri den toponimoa da, errate baterako, *Arrozbidea* etxe izena Iruritan eta Igantzin. *Rozpide* aferesiagatik sortutako aldaera da, eta erdararen eraginez *Rospide* eratorria.

Artabia

- **B.F.** Artabia.- Arte (encina, entre, hasta) - be - a. Debajo de encinas.
- **Oharra:** izen honen lehenbiziko osagaia *arte* da ‘pagoaren familiako zuhaitz ez arrunt garaia, hosto-iraunkorra eta enbor-sendoa, eta haritzak bezala ezkurak ematen dituena (*Quercus ilex*)’ eta elkarketan *arta*- aldaera hartzen duena. Bertze bi osagaiak *ibi* ‘pasalekua’ eta *-a* artikulua dira. Bere osotasunean ‘arteak dauden pasalekua’ erranahia du. Baztertzekoa da B. Fagoagak bigarren osagaian ikusten duen *be* < *bebe* ‘azpiko aldea’. Herriaren izendapen ofiziala *Artavia* da; euskaraz dagokiona, *Artabia*.

Artadi

- **B.F.** Artadi.- Arte - di. Sitio de encinas. Encinar.
- **Oharra:** *arte* (ikus *Artabia* sarrera), + *-di* atzizki multzokaria; hortik *artadi* ‘arte basoa’.

Artaiz

- **B.F.** Artaiz.- Arte - iz. Sitio de encinas. Encinar.
- **Oharra:** *arte* (ikus *Artabia* sarrera) > *arta*- elkarketan hartzen duen aldaera + *-itz* atzizki multzokaria ‘arte ugariko tokia’ adierazteko. Dagokion euskarazko izena *Artaitz* da.

Artajo

- **B.F.** Artajo.- Arte - jo, xo, su, zu. Sitio de encinas. Encinar.
- **Oharra:** *arte* (ikus *Artabia* sarrera) + *-xo* atzizkia, iduri duenez *-so* < *-zu* ugaritasunezkoetik eratorriaren aldaera, gaztelaniak *-jo* bihurtu duena; beraz, ‘arte ugari den tokia’. Herriaren izendapen ofiziala *Artajo* / *Artaxo* da.

Artajona

- **B.F.** Artajona.- Artajo - ona, une (suf.). Paraje de encinares (en el escudo de Artajona hay una encina en un cuartel).
- **Oharra:** P. Salaberrik dioenez, izen honen osagaiak izan daitezke *arte* + *-xo* < *so* (*-zu* atzizkitik eratorriak; ikus *Artajo* sarrera) + *-a* artikulua, erabat

alde batera utzi gabe, izenaren *-oa* edo *-ona* amaierak ('dermioa', 'lurraldea' adieraziko luketenak) bide ematen duela pentsatzeko bere aitzinetik doana antroponimoren baten erreferentzia ere izaten ahal dela. Dagokion euskarazko ordaina *Artaxoa* da.

Artamendi

- B.F. Artamendi.- Arte - mendi. Monte de encinos.
- **Oharra:** *arte* (ikus *Artabia* sarrera) + *mendi* izen arrunta; beraz, 'arteak dituen mendia'.

Artaza

- B.F. Artaza.- Arte - za. Sitio de encinos.
- **Oharra:** *arte* (ikus *Artabia* sarrera) + *-tza* ugaritasunezko atzizkia, hots, 'arte aintz dagoen tokia'. Dagokion euskarazko izena *Artatza* da.

artazi

- B.F. Artazi.- Arte (encino) - azi (simiente). Bellota de encino.
- **Oharra:** *arte* 'pagoaren familiako zuhaitz ez oso garaia, hosto-iraunkorra eta enbor-sendoa, haritzak bezala ezkurak ematen dituen (*Quercus ilex*)' > *arta-* elkarketan hartzen duen aldaera + *hazi* 'fruituaren zatia, landare berri bat sor dezakeena'; beraz, 'arte izeneko zuhaitzaren hazia'. Kontuan izatekoa da hiztegi arruntean *artazi* 'ebakitzeko tresna' ere badela, *aiztur* edo *guraize* hitzen sinonimoa.

Artazu

- B.F. Artazu.- Arte - zu. Sitio de encinos.
- **Oharra:** *arte* (ikus *Artabia* sarrera) + *-zu* toki ugaritasunezko atzizkia, 'arte ugariko tokia', alegia.

Arteaga

- B.F. Arteaga.- Arte - aga. Sitio de encinos.
- **Oharra:** *arte* (ikus *Artabia* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, hots 'arte ugari dagoen tokia'.

Artegi

- B.F. Artegi.- Ardi - tegui. Local para las ovejas. Redil.
- **Oharra:** *ardi* 'ugaztun hausnarkaria, iletsua, gehienez talde handietan zaintzen dena' > *art-* elkarketan hartzen duen aldaera (*artalde* hitzak bezala) +

-*egi* ‘tokia’ adierazten duen atzizkia, ‘ardi tokia’ alegia. Badira zenbait herri-tan *Artegi* izeneko toponimoak.

Arteta

- B.F. Arteta.- Arte - eta. Lugar de encinos, o Arrieta: lugar de peñas.
- Oharra: *arte* (ikus *Artabia* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, hots, ‘arte tokia’; ez, ordea, B. Fagoagak dioen ‘harri tokia’.

Artica

- B.F. Artica.- Arte - ika (cuesta). ¿Cuesta de encinas?
- Oharra: *artiga* > *artika* erromantzetik datorren hitza dela dirudi, eta, erra-nahiari dagokionez, euskal toponimian nahiko arrunta den *berro* ‘luberria’ hitzaren parekoa izanen litzateke; alde batera utzi gabe toponimo honen erreferentziatzeko oinarria *Artius* antroponimoa ere izan daitekeela. Herria-ren izendapen ofiziala *Artica* / *Artika* da.

arto

- B.F. Arto.- Maíz, antes mijo.
- Oharra: *arto* ‘lasto lodi eta sendoko landarea, hostoak zabalak eta lantza modukoak, eta aleak zilindro itxurako buru lodi bati itsatsiak dituen (*Zea mays*)’.

Artola

- B.F. Artola.- Arte - ola. Sitio de encinas, o ardi - ola. Redil.
- Oharra: *ardi* (ikus *Artegi* sarrera) + *ola*, ‘mendi edo landako etxe txikia, abe-reak eta tresnak gordetzeko erabiltzen dena’; beraz ‘ardien txabola’.

Artondo

- B.F. Artondo.- Arte - ondo. Junto a los encinos.
- Oharra: *arte* (ikus *Artabia* sarrera) + *ondo* ‘aldamena’, hau da, ‘arte tokiaren aldamena’.

Artsuaga

- B.F. Arsuaga.- Arr - zu - aga. Sitio de abundantes piedras.
- Oharra: *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *-zu* ugaritasunezko atzizkia > *-tsu* bilakatua *r-* kontsonantearen eraginez + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, hau da, ‘harri ugari dagoen tokia’.

Artxueta

- B.F. Archueta.- Arri - zu - eta. Paraje de abundancia de peñas.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *-zu* ugaritasunezkoa atzizkia > *-txu* bilakatua + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia; hortaz, ‘harri anitzeko tokia’.

Artza

- B.F. Arza.- Arri - za. Sitio de peñas. Oso.
- **Oharra:** B. Fagoagak bi erreferentzia ematen ditu: toponimoa eta animalia izena. Lehenbizikoari dagokionez, hauek dira osagaiak: *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *-tza* atzizki multzokaria; beraz ‘harri ugari dagoen tokia’. Bigarrenari dagokionez, honako hauek: *hartz* ‘ugaztun orojalea, ile sarri eta luzekoa, ibiltzean oin zola osoa lurrean jartzen duena (*Ursus* sp.)’ + *-a* artikulua.

artzain

- B.F. Arzaia.- Ardi (oveja) - zai (guardián) - a. El guardián de las ovejas, pastor.
- **Oharra:** *artzain* ‘ardiak zaintzen dituen pertsona’; *artzai* zenbait euskal eremutan erabiltzen den aldaera laburtua da.

Artzamendi

- B.F. Arzamendi.- Arza - mendi (monte). Monte de pedregales, o de osos, o de pastores.
- **Oharra:** K. Mitxelenaen ustez, lehenbiziko osagaia seguruenik *barri* da (ikus *Arrandi* sarrera) + ugaritasunezko *-tza* atzizkia edo, agian, *artzain* ‘ardiak zaintzen dituen pertsona’, elkarketan *artza-* bilakatua. Bigarren osagaia *mendi* izen arrunta da; beraz, errenteriarraren arabera, ‘mendi harritsua’ edo ‘artzainaren mendia’ izanen litzateke. Alde batera utzi behar da B. Fagoagak *hartz* animalia ugaztun orojalari erreferentzia eginez gehitzen duen ‘hartzen mendia’.

Artze

- B.F. Arce.- Arri - ze, za. Lugar de peñas.
- **Oharra:** *barri* (ikus *Arrandi* sarrera) + *-tze* ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘harri multzoa’.

Artzelus

- B.F. Arcelus.- Arze - lus, luz, luze (largo). Pedregal largo.

- **Oharra:** *barri* (ikus *Artze* sarrera) + *luze* adjektiboa > *luz* bilakatua apokopearen eraginez, *Artzeluz* alegia, eta ondoren (*tz* eta *z* txistukarien disimilazioagatik) *Artzelus*, beraz, ‘harri ugariko toki luzea’.

Artzibar

- B.F. Arzibar.- Arze - ibar. Valle de peñas.
- **Oharra:** itxura batean ematen du, B. Fagoagak dioen bezala, lehenbiziko osagaia *Artze* (ikus *Artze* sarrera) izan litekeela, baina *Artzi* da, ez *Artze*, Erdi Aroaz geroztik dokumentatzen den forma ibar horretako herrixkaren aipamenetan, eta ez da argi ikusten amaierako *-i* hori zeri dagokion. Bigarren osagaia *ibar* ‘harana’ da. Ibarren izendapen ofiziala *Valle de Arce / Artzibar* da.

Artzu Ikus Altzu

Artzuaran Ikus Altzuaran

Artzueta Ikus Altzuetza

Artzugarai Ikus Altzugarai

Artzuguren Ikus Altzuguren

Asarta

- B.F. Asarta.- Aitz - arte. Entre peñas.
- **Oharra:** Toponimo iluna. Nafarroako Berrotza ibarreko herri baten izena da eta bere lekukotasunak XIII. mendean geroztik *Asarta*, *Assarta* eta *Sarta* dira; hortaz, oinarririk gabekoa dirudi B. Fagoagaren azalpenak.

aska

- B.F. Asca.- Abrevadero.
- **Oharra:** *aska* ‘abereei janaria edo edateko ura jartzen zaien kutxa moduko ontzia, gehienetan zurezkoa’.

Aspurz

- B.F. Aspuz.- Aitz - puru (suf.) - z (suf.). Sitio de encima de peñas.
- **Oharra:** P. Salaberriren iritziz, toponimo hau jatorrizko *Aizpurgi* (*baitz* + *burgi* hitzez osatua, bigarren osagai hori zeri dagokion argi ikusten ez bada

ere) euskal izenetik ateratakoa da, hasiera batean Nafarroako erromantzearen eta gero gaztelaniaren eraginez *Aspurz* aldaera hartu zuena. *Aizpurgi* da euskaraz dagokion izendapena.

Astigarraga

- B.F. Astigarraga.- Astigar (arce, Bot.) - aga. Sitio de arces.
- **Oharra:** *astigar* ‘zuhaitz hosto-erorkorra, loreak mordo zintzilikarietan eta haziak hego moduko mintz gogor batez hornituak dituen’ + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, hau da, ‘astigarrak dauden tokia’.

asun

- B.F. Axunes.- Axun, asuñ, asoin (ortiga). “Los axunes dan sumin” (Artazu).
- **Oharra:** *asun* ‘belar landarea, larruazalean erresumina eragiten duten hostoak dituen’ (*Urtica*); *axun*, *asuñ* eta *asoin* aldaerak dira. Gaztelaniak *axun* aldaera bereganatu du amaieran *-es* plurala gehituz.

Asurmendi

- B.F. Asurmendi.- Azuar (zarza), azur (hueso) - mendi. Monte de zarzas o de huesos.
- **Oharra:** K. Mitxelenaren ustez, izen honen oinarria *azur* izan daiteke, *hezur* hitzaren aldaera den aldetik, + *mendi* izen arrunta; ‘hezur mendia’ segur aski. *Asurmendi* eta *Ezurmendia* deitura ezagunak dira. Ikus *Ezurmendia* sarrera. Baztertzekoa da B. Fagoagak uste izandako *azuar*-en erreferentzia.

Ataun

- B.F. Ataun.- Ate (puerta, paso, puerto) - un, gun. Sitio de puertos.
- **Oharra:** *ate* ‘ate’, hots, ‘ataka’ edo ‘harratea’ > *ata-* elkarketan hartzen duen aldaera + *-un* ‘tokia edo puntu zehatza’; hortaz, ‘ate tokia’.

Atauri

- B.F. Atauri.- Ate - uri (pueblo). Pueblo de puertos.
- **Oharra:** *ate* > *ata-* elkarketan hartzen duen aldaera (ikus *Ataun* sarrera) + *buri* < *biri* ‘biztanlegunea’; beraz, ‘ate edo harrate tokian dagoen biztanlegunea’.

Atazabal

- B.F. Atazabal.- Ate - zabal. Puerto ancho.
- **Oharra:** *ate* > *ata-* elkarketan hartzen duen aldaera (ikus *Ataun* sarrera) + *zabal* adjektiboa, hots, ‘ate edo harrate zabala’.

Atondo

- B.F. Atondo.- Ate - ondo. Junto al desfiladero.
- **Oharra:** *ate* ‘ataka’ edo ‘sarrera’ (ikus *Ataun* sarrera) + *ondo* ‘aldamena’, hau da, ‘atakaren edo sarreraren aldameneko tokia’.

Atxa

- B.F. Acha.- Ach - a. La peña.
- **Oharra:** *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera) + *-a* artikulua. Kasu honetan *haitz* hitzaren *atx* aldaera palatalizatua dugu, nahiko arrunta dena bereziki Euskal Herriko mendebaldeko toponimian eta deituretan.

Auritz

- B.F. Auritz.- Burguete.
- **Oharra:** erdal izena *Burguete* duen herriaren euskal izen zaharra da *Auritz*. Argi ikusten ez bada ere, pentsa liteke *Auritz* antroponimoren baten erreferentzia izan daitekeela, *Aurius*-ena agian, jakinik *-itz* atzizki multzokaria izateaz gain, jabegoa adierazten duen atzizkia ere izaten dela, bertze zenbait herri izenetan uste den bezala, hala nola *Araitz*, *Urdaitz*... Herriaren izendapen ofiziala *Auritz* / *Burguete* da.

Aurizperri

- B.F. Auritz Berri.- Burguete nuevo. Espinal.
- **Oharra:** (ikus *Auritz* sarrera). *Auritz* + *berri* > *Aurizberri*, bertakoen ahoskeran *Aurizperri* > *Auzperri*. Herriaren izendapen ofiziala *Aurizberri* / *Espinal* da.

aurrera

- B.F. Aurrera.- Aurre (delante) - r - a. A adelante.
- **Oharra:** *aurrera*, batik bat ‘adorea emateko erabiltzen den hitza’.

Auzmendi

- B.F. Auzmendi.- Auntz (cabra) - mendi. Monte de cabras.
- **Oharra:** *abuntz* ‘ugaztun hausnarkaria, ilea motza eta latza, eta adarrak atzerantz okertuak dituena; abere horren eme heldua (*Capra bircus*)’ + *mendi* izen arrunta, ‘ahuntzak izaten diren mendia’ alegia, *Auzmendi* bilakatua.

auzolan

- B.F. Auzolan, Ozalan.- Auzo (vecino) - lan (trabajo). Trabajo concejil.

- **Oharra:** *auzolan* ‘auzokoen arteko elkarlana’; *ozalan* J.M. Iribarrenek Estelle-
rrian eta Ameskoa ibarretan jasotako aldaera da.

axunes Ikus *asun*

azari Ikus *azeri*

Azanza

- B.F. Azanza.- Azanz (ruido). De aitz (peña).
- **Oharra:** jatorri iluneko toponimoa da eta B. Fagoagak ere argi agertu zituen bere zalantzak, bi erreferentzia (*azanz* eta (*b*)*aitz*) erabat ezberdinak eman baitzituen, ezinezkoak diruditenak. Dagokion euskarazko izena *Azantza* da.

Azcona

- B.F. Azcona.- Aitz - goi (alto) - en (más) - a. Encima de la Peña, de la colina.
- **Oharra:** *haitz* (ikus *Azketa* sarrera) + *-ko* atzizki txikigarria + *-a* artikulua, hau da, ‘haitz txikia’. *Azcona* gaztelaniak egokitutako forma da. Herriaren izendapen ofiziala *Azcona* / *Aizkoa* da.

Azkoien

- B.F. Azcoien.- Aitz - goi - en. Encima de la Peña, de la colina.
- **Oharra:** *haitz* > *az-* (ikus *Azketa* sarrera) + *goien* ‘garaiena’, ‘altuena’, *koi*en bilakatua *z*-ren ondotik; hortaz, ‘haitz altuena’; ez B. Fagoagak dioen ‘haitzaren gainean dagoena’. Herriaren izendapen ofiziala *Peralta* / *Azkoien* da.

azeari Ikus *azeri*

azenari Ikus *azeri*

azenario

- B.F. Zanahoria.- Zain (raíz) - ori (amarillo) - a. Raíz amarilla.
- **Oharra:** jatorriz izen arabiarra da, gaztelaniaz “zanahoria” erabiltzen dena, baina euskal ordaina *azenario* da. B. Fagoaga, bertze bizpahiru sarreratan bezala (*Arantzazu*, *Eunate*, *Goñi*), herri etimologiak fidatu zen izen horren azalpena emateko.

azeri

- B.F. Azari, Azeari, Azenari (zorro). “Jaun azeari” (II52). Aznar, Aznarez.

- **Oharra:** *azeri* ‘txakurraren familiako ugaztun haragijalea, otsoa baino txikiagoa, buru-zabala eta mutur-zorrotza, buztana zuzena eta iletsua duena (*Vulpes vulpes*); pertsonaz mintzatuz ‘maltzurra’; *azari*, *azeari* eta *azenari* aldaerak dira.

azkar

- **B.F.** Azcarro.- Azcar (fuerte).
- **Oharra:** *azkar* ‘bizkorra’, ‘indartsua’, ‘sendoa’, ‘abila’. Gaztelaniak *azkarro* forma bereganatu du (amaieran *-o* gehituz), bertze zenbait euskal hitzekin gertatzen den bezala, erraterako *txarro*, *txaparro*, *zakarro* eta abarrekin (ikus *txar*, *txapar* eta *zakar* sarrerak).

Azkarate Ikus Argarate

Azkarraga

- **B.F.** Azcarraga.- Azcar (arce, Bot.) - aga. Sitio de arces.
- **Oharra:** *azkar* ‘astigar arrunta’ (ikus *Astigarraga* sarrera) + toki ugaritasuneko *-aga* atzizkia, ‘azkar anitz dagoen tokia’ alegia.

Azkarrena

- **B.F.** Azcarrena.- Azcar (fuerte) - en - a. El más fuerte.
- **Oharra:** *azkar* ‘bizkorra’, ‘indartsua’, ‘sendoa’ + *-ena* jabetza adierazten duen edutezko genitiboa; hortaz, *Azkar* izengoitizat edo deituratzat duen pertsonaren etxea izanen litzateke.

azkarro Ikus azkar

Azkoitia

- **B.F.** Azcoitia.- Aitz - goiti (arriba) - a. ¿Arriba de la Peña?
- **Oharra:** egun ezaguna den izen honen formari dagokionez, hauek lirateke osagaiak: *haitz* > *az-* (ikus *Azketa* sarrera) + *goiti* ‘goitiko aldean dagoena’ > *koiti* bilakatua *z-*ren ondotik, + *-a* artikulua, ‘haitzaren edo haitzen goitiko aldea’ alegia. Egungo forma diogu, ematen duelako hasierako *Az-* hori, XIV. mendean dokumentatutako *Abez*-tik (*Abezgoytia* edo *Abezcoytia*) eratorritakoa dela.

Azpeitia

- **B.F.** Azpeitia.- Aitz - beiti - a. La de debajo de peñas.

- **Oharra:** egun ezaguna den *Azpeitia* formari dagokionez, hauek lirateke osagaiak: *haitz* > *az-* (ikus *Azketa* sarrera) + *beheiti* > *beiti* ‘beheko aldean dagoena’ > *peiti* bilakatua *z*-ren ondotik, + *-a* artikulua, ‘haitzaren edo haitzen behe-tiko aldea’ alegia. Egungo forma diogu, ematen duelako hasierako *Az-* hori (*Azkoitia* toponimoarekin gertatu bezala) XIV. mendean dokumentatutako *Ayz-* (*Ayzpeitia*) edo *Aez-tik* (*Aezpetia*) eratorritakoa dela.

Azpiazu Ikus Aizpeazu

Azpilkueta

- B.F. Azpilcoeta.- Aitz - pil, - bil (debajo, junto) - co - eta. Sitio debajo del monte.
- **Oharra:** *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera) > *az-* eratorria + *bil* ‘biribila’ adjektiboa > *pil* bilakatua *z*-ren ondotik + *-ko* atzizki txikigarria + *-eta* ugaritasunezko atzizkia; beraz ‘haitz biribiltxoek tokia’. Izan ere, *Aitzpilcoeta* zen Erdi Aroan, geroago eta gaur den egunean ere Azpilkueta gisa ezagutzen den Baztango herriaren izena. B. Fagoagak ongi asmatu zituen osagaiak; ez, ordea, *bil*-en erranahia.

Ázqueta

- B.F. Azqueta.- Aitz - queta (suf.). Abundancia de peñas.
- **Oharra:** *haitz* (ikus *Aitzarte* sarrera) > *az-* bilakatua, toponimian arrunta den bokal bikoitza bakuntzearen ondorioz, + *-keta* ugaritasunezko atzizkia (*-eta* atzizkiaren aldaera); beraz, ‘haitz ugari dauden tokia’. Izen ofiziala *Ázqueta* duen herria Nafarroako Iguzkitzaibarren dago. Euskaraz dagokion izendapena *Azketa* da.

Azurtza

- B.F. Azurza.- Azur - za. Sitio de zarzas o huesos.
- **Oharra:** *azur* (ikus *Asurmendi* sarrera) + *-tza* ugaritasunezko atzizkia, ‘hezur multzoa’ seguruenik.

Bagadi Ikus Pagadi

bagurrin

- B.F. Bagurrin (Iribarren).- Bago (haya) - urrin (olor). Olor de bosque.
- **Oharra:** *pago* (bai eta *bago* eta *fago* aldaerak ere) ‘basoko zuhaitz handia, enborra zuzena, azala leuna eta iluna, hostoak erorkorak eta zur zuria, arina

eta sendoa dituen (*Fagus sylvatica*) + *urrin* ‘usaina’, ona erregulariki; beraz, ‘pagoaren usain ona’.

bai

- B.F. Bai.- Si. Ez.- No.
- **Oharra:** *bai* ‘galdera bati erantzutean, baiezko esaldi baten ordain den hitza’, (*ez* ‘ezezko esaldi baten ordain den adizlaguna, galdera bati erantzutean erabiltzen dena’).

baiarte

- B.F. Bayarte.- Bi (dos) - arte. Entre dos? Parihuelas (Ujué).
- **Oharra:** J.M. Iribarrenek gaztelaniaz “parihuela” delakoaren berri ematen du, Erronkaribarren, Zaraitzun, Aezkoan eta Agoitzen jaso. B. Estornés Lasak ere, *Erronkariko uskararen biztegia*, *baiarta* eta *baiarte* aipatzen ditu ‘esku-ohea’ edo ‘anda’ren ordain gisa. K. Mitxelenaren ustez, berriz, *ibai* hitza dago toponimo honen oinarrian, hots, *ibai* + *arte* ‘bitartea’ > *baiarte* bilakatua aferesiagatik. Hartara, kontuan izatekoa da Arabako Arratzua-Ubarrundia udalerrian badela *Ibaiartegi* izeneko auzoa.

Baigorri

- B.F. Baigorri.- Ibai (río) - gorri. Río rojo.
- **Oharra:** zenbait ikertzailek B. Fagoagak emandako azalpen hori bera defendatzen badute ere, ez dira gutxi, halakorik argi ez ikusi eta izen horren jatorria Akitaniako aspaldiko *Baigorri* *deo* jainkotasunean oinarritzen dutenak.

Baigorritegi

- B.F. Baigorritegui.- Baigorri - tegui. Casa de Baigorri.
- **Oharra:** *Baigorri* (ikus *Baigorri* sarrera) + *-tegi* jabetza adierazten duen atzizkia, hots, ‘*Baigorri* deitura duen pertsonaren etxea’.

Baiona

- B.F. Bayona.- Ibai (río) - ona. Río bueno o hermoso? O Ibai (río) - une. Paraje de río.
- **Oharra:** toponimoaren etimologiari dagokionez, B. Fagoagaren azalpenean ageri den bezala, Garibaik XVI. mendean eta ondotik bertze ikertzaile batzuek ere, izen horren osagaiak *ibai* ‘ugaldea’, aferesiagatik *bai* bilakatua, + *on* adjektiboa + *-a* artikulua direla defendatu izan dute. Bertzeren batek,

J.B. Orpustanek erraterako, bigarren osagaian *-un(e)* ‘tokia’ adierazten duen atzizkia ikusten du. P. Salaberriren iritziz, bi interpretazio horiek ez dirudite batere defendagarriak, Erdi Aroaz geroztiko lekukotasun bakar batean ere ez delako ageri *ibai-* forma duen aldaerarik, ez eta *-une* edo *-una* duenik ere, 1063az geroztik beti *-ona* edo *-one* ageri baita. A. Irigoienen arabera, *Baiona* antroponimo bat da *Baio* pertsona izenean oinarritzen dena, baina uxuetarrarentzat hau ere ez da erraz defendagarria, hain zuzen ere, euskaraz nahiz gaskoiz bokalen arteko *-n-* galdu egiten delako. Ikus, hartara, *Larraona*, *Azcona* sarrerak, zeinetan euskal ordainak *Larragoa* eta *Aizkoa* diren.

Balantzategi

- B.F. Balantzategui.- Balanza - tegui. Casa de la balanza.
- **Oharra:** *balantza* ‘pizatzekeo tresna, alde batera eta bestera makur daitekeen atal zurrun batek eta atal horren muturretan zintzilik dauden plater moduko bi ontziz osatua’ + *-tegi* jabetza adierazten duen atzizkia; hortaz, ‘pizatzekeo tresna hori dagoen etxea’.

Balentiaga

- B.F. Balentiaga.- Balanza - aga? Casa de la balanza.
- **Oharra:** K. Mitxelenaren ustez, izen honen oinarria antroponimo baten edo *Valentzia* hiriaren (edo deituraren) erreferentzia izan daiteke + *-aga* toki atzizkia; ez, ordea, B. Fagoagak uste izandako *balantza*.

Baleztena

- B.F. Baleztena.- Balezta (ballesta) - en - a. La del ballestero.
- **Oharra:** *balezta* (*baleztari* ‘balezta armatutako gudariari’ edo ‘lanbidez balezta egiten dituen pertsonari’ dagokion erreferentzia) + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, hau da, ‘baleztariaren etxea’.

Baltzategi

- B.F. Baltzategui.- Balz, belz - a - tegui. La casa del negro.
- **Oharra:** *baltz* Euskal Herriko mendebaldean *beltz* izenaren aldaera arrunta + *-tegi* ‘jabetza adierazten duen atzizkia’, hots, ‘Baltza izeneko pertsonaren etxea’.

Baratzabal

- B.F. Baratzabal.- Barazezabal.
- **Oharra:** ikus *Baratzezabal* sarrera > *Baratzabal* bilakatua haplologiaren eraginez.

Baratze

- B.F. Baraze.- Huerta.
- **Oharra:** *baratze* ‘lursail ez handia, gehienetan hesitua eta etxe ondoan dagoena, jateko on diren landareak aldatzeko edo horien haziak ereiteko ardura bereziz zaintzen dena’. Deitura gisa ere ezaguna da.

Baratzearte

- B.F. Barazearte.- Baraze - arte. Entre huertas.
- **Oharra:** *baratze* (ikus *Baratze* sarrera) + *arte* ‘bitartea’, hots, ‘baratzeen tartea’.

Baratzezabal

- B.F. Baratzezabal.- Baraze - zabal. Huerta ancha.
- **Oharra:** *baratze* (ikus *Baratze* sarrera) + *zabal* adjektiboa, ‘ohikoa baino zabalera handiagoa duen baratzea’.

Barber

- B.F. Barber.- Cirujano, barbero.
- **Oharra:** *barber* ‘sendagilea’ edo ‘medikua’ seguruenik, batik bat oikonimian, nahiz eta ‘barberua’ ere baden. Deitura gisa ere ezaguna da.

Barberena

- B.F. Barberena.- Barber - en - a. La del cirujano.
- **Oharra:** ikus *Barber* sarrera + *-ena* jabetza adierazteko atzizkia, ‘sendagile edo medikuaren etxea’ alegia.

Barrena

- B.F. Barrena.- Barren (parte inferior, parte interior) - a.
- **Oharra:** *barren* ‘edozein gauzatan, bere mugen arteko bitartea’, bai eta ‘zerbaiten beheko aldea edo ertza’ ere, toponimoetan bereziki, + *-a* artikulua. Deitura ezaguna ere bada.

Barrenetxe

- B.F. Barreneche.- Barren - etxe. Casa de la parte inferior.
- **Oharra:** *barren* (ikus *Barrena* sarrera) + *etxe* izen arrunta, ‘beheko aldean dagoen etxea’.

Barrikart

- B.F. Barricart.- Barrica - arte. Entre barricas.

- **Oharra:** *barrika* ‘tamaina txikiko upela’ + *arte* ‘bitartea’ > *barrikarte*, ezaguna den apokopeagatik *barrikart* eratorria. Ikus, erraterako, *Bidart* eta *Bidaur* sarrerek.

Basabe

- **B.F.** Basabe.- Baso - be. Debajo del bosque.
- **Oharra:** *baso* ‘batez ere zuhaitzez betetako lurraldea; gizakiak lantzen ez duen eremua’ da, eta hortik *basa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *bebe* ‘azpiko aldea’ edo ‘zola’ > *be* bilakaturia; beraz, ‘basoaren azpiko aldean dagoena’.

basajaun

- **B.F.** Basojaun.- Baso - jaun (señor). El señor de la selva.
- **Oharra:** *basajaun* ‘euskal mitologiako gizakia, oihanetako jauna, iletsua eta basatia’.

basaka

- **B.F.** Basaca, pachaca.- Fruta silvestre.
- **Oharra:** *basaka* ‘zuhaitzez mintzatuz txertatu gabea’; *patxaka* J.M. Iribarrenek Nafarroako zenbait tokitan bildutako aldaera da. Kontuan izatekoa da Baztanen eta Malerrekan, behinik behin, euria bortizki egiten duen uneari ere *basaka* deitzen zaiola.

Basarte

- **B.F.** Basarte.- Baso - arte. Entre el bosque.
- **Oharra:** *baso* (ikus *Basabe* sarrera) + *arte* ‘bitartea’, hau da, ‘basoen artea’.

Basauntziturri

- **B.F.** Basauntziturri.- Baso - auntz (cabra) - iturri. La fuente de las gacelas.
- **Oharra:** *basabuntz* ‘ahuntz basatia, oreina, orkatza edo kideko aberea’ + *iturri* hitz arrunta, ‘basahuntzak edatera joan ohi diren iturria’.

baserri

- **B.F.** Baserri.- Baso - erri (pueblo, casa). Casa del bosque, caserío. Pueblo del monte, aldea.
- **Oharra:** *baserri* ‘landan bakaturik dagoen etxea, nekazaritzako edo abeltzaintzako lurrak dituena’.

Basozabal

- B.F. Basozabal.- Bosque ancho.
- **Oharra:** *baso* (ikus *Basabe* sarrera) + *zabal* adjektiboa, hau da, ‘ohikoa baino zabalera handiagoa duen basoa’.

Basterra Ikus **bazter****basurde**

- B.F. Basurde.- Baso - urde (cerdo). Cerdo silvestre, jabalí.
- **Oharra:** *basurde* ‘urde basati mutur-luzea, ilea latza eta sarria, eta letagin nabarmenak dituen (Sus scrofa)’.

batzarre

- B.F. Batzarre.- Bat (uno). Reunión del concejo.
- **Oharra:** *batzarre*, Nafarroan bereziki, ‘herriak edo udalak egiten duen bilera berezia’ da.

bazter

- B.F. Bazterra, basterra.- Bazter (extremo) - a. El extremo.
- **Oharra:** *bazter* ‘ertza’, ‘muga’, ‘alde bakartua’, ‘zokoa’ edota ‘aldea’, ‘alderdia’. -a artikularekin, eta erdaraz ohikoa den -zt- > -st- egokitzapenarekin, *Basterra* alegia, deitura ezaguna da.

Bazterretxe

- B.F. Bazterreche.- Bazter - eche. Casa del extremo, de las afueras.
- **Oharra:** *bazterretxe* ‘baserria’, ‘basetxea’ da, baina gehienbat ‘etxe bakartua’ izendatzen duena (gatzelaniaz “casa diseminada” deitzen dena).

begieder

- B.F. Beguieder.- Begui (ojo) - eder (hermoso). Ojos hermosos (siglo XV).
- **Oharra:** *begi* ‘ikusmenaren organoa’ + *eder* adjektiboa, euskaraz pertsonen izengoiti gisa ere aniztetan erabilia dena, bai deituretan (*Eder*, *Ederra*) bai oikonimian (*Ederrena*) islatu dena.

begigorri

- B.F. Beguigorri.- Begui - gorri. Ojos rojos (siglo XIV).
- **Oharra:** *begi* ‘ikusmenaren organoa’ + *gorri*, hau da, kolore gorria adierazten duen adjektiboa.

behar

- B.F. Biarra.- Bear (necesidad) - a. “La biarra enseña mucho” (Esparza de Galar).
- **Oharra:** *behar* ‘nahitaezko den gauza; beharrezko gertatzea’. Nafarroan, ‘premia’ gaztelaniaz adierazteko modu nahiko arruntean erabiltzen da hitz horretatik sortutako *biarra* forma, hots, *-ea-* > *-ia-* aldaera eta *-a* artikulua duena.

Beitia

- B.F. Beitia.- Parte inferior.
- **Oharra:** *bebeiti* > *beiti* bilakatua ‘beheitikoa’, ‘beheitia’ + *-a* artikulua.

Belagua

- B.F. Belagua.- Belar (hierba, pasto) - aga, gue. ¿Sitios de pastos?
- **Oharra:** ematen duenez, izen honen osagaiak honako hauek dira: *belar* ‘landare txiki, berde eta zurtoin-biguna, gehienetan urterokoa’, elkarketan *-r* galtzearen ondorioz *bel-* bihurtua, + *-gu* eratorpeneko atzizkia + *-a* artikulua; hortaz, ‘belar tokia’ seguruenik.

Belardi

- B.F. Belardi.- Belar - di. Sitio de hierba, prado.
- **Oharra:** *belar* (ikus *Belagua* sarrera) + *-di* atzizki multzokaria, ‘belar ugariko tokia’.

Belascoain

- B.F. Belascoain.- Belar - sko - gain. Encima del sitio de pastos.
- **Oharra:** osagaiak *Belasko*, euskaraz *Berasko*, + *-ain* dira, hots, ‘*Berasko* izeneko pertsonaren dermioa edo tokia’ (ikus *Aizoain*, *Garinoain*, *Muniain*... sarreak). Beraz, alde batera uztekoa da B. Fagoagak aipatzen duen etimologia. Euskaraz dagokion izena *Beraskoain* da.

Belate

- B.F. Belate.- Belar - ate. Puerto de pastos.
- **Oharra:** toponimo honen osaerari dagokionez, batzuen ustez lehenbiziko osagaia *belar* (ikus *Belagua* sarrera) da, bertze batzuentzat, berriz, *bele* ‘tamaina handiko hegazti orojalea, burua, hegoak eta buztana beltzak dituen (Corvus sp.)’. Bigarren osagaia *ate* da, ‘ataka’ edo ‘harratea’.

belater Ikus bereter

Belatza

- B.F. Belaza.- Belar - za. Lugar de hierba.
- **Oharra:** *belatz* berez ‘hegazti harrapari moko-laburra’ da, baina tradizioa duen antroponimoa ere bada, hots, pertsona bati aplikatutako izena, + *-a* artikulua. Beraz, baztertzekoa da izen horren oinarria *belar* dela uste izatea.

beldur

- B.F. Bildurra.- Bildur, beldur (miedo) - a. “D. Bildur lo levava por la cabeza mia” (Berceo).
- **Oharra:** *beldur* ‘egiazko nahiz irudipenezko arriskuaren aurrean sortzen den urduritasunezko egoera’, ‘izua’, ‘ikara’; *bildur* aldaera ere ezaguna da, batik bat Gonzalo de Berceoek jadanik XII. mendean deabruari “Don Bildur” deitzen diolako.

Beltza

- B.F. Belza.- Belz (negro) - a. El negro. Don Johan Beltza (Estella).
- **Oharra:** *beltz* ‘kolore guzietan ilunena’ + *-a* artikulua. Aldi berean, *Beltza* tradizioa duen antroponimoa da, Lizarrako adibideak argi adierazten duen bezala, eta hainbat deituratan eta oikonimotan egiaztatzen dena (ikus, erraterako, *Beltzarena* eta *Baltzategi* sarrerak).

Beltzarena

- B.F. Beltzarena.- Belza - r - en - a. La del negro.
- **Oharra:** *Beltza* antroponimoa + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, hots, *Beltza* izeneko pertsonari dagokion ondasuna, etxea normalean.

Beltzunegi Ikus Belzunce

Belzunce

- B.F. Belzunce, Belzunegui, Bezunartea?
- **Oharra:** B. Fagoagak hiru sarrera horiek jarraian eman zituen, inolako azalpenik gabe. *Beltzuntze* eta *Beltzunegi* izenen kasuan, zalantza handirik gabe, erran daiteke izenaren osaeraren bi lehenbiziko elementuak *beltz* + *un(e)* direla, ‘toki beltza’ alegia. Azkeneko elementua, berriz, toki ugaritasunezko *-tze* atzizkia da lehenbiziko izenean eta *-egi* toki atzizkia bigarrenean. *Bezunartea* izenaren oinarritzko erreferentzia *pezoin* ‘lurrezko hesia’ da, ohikoa

den *p-* eta *b-* herskariaren txandaketagatik *bezoin* bihurtua, + *arte* ‘bitartea’ + *-a* artikulua, hau da, ‘lurrezko hesien tartea’. Txulapain ibarreko herriaren izendapen ofiziala *Belzunce* / *Beltzuntze* da.

Bengoa

- B.F. Bengoa.- Be - en - go - a. El de más abajo.
- **Oharra:** *bebengo* ‘azpikoena’ > *bengo* bilakatua + *-a* artikulua.

Bengotxea

- B.F. Bengochea.- Bengo - eche - a. La casa de más abajo.
- **Oharra:** *bengo* (ikus *Bengoa* sarrera) + *etxe* + *-a* artikulua, hau da, ‘alderik baxuenean dagoen etxea’.

Bera

- B.F. Bera.- Be - r - a. Abajo, bajo, pueblo bajo.
- **Oharra:** zenbaiten ustez, *Bera* izena *behere*-tik ‘behealde’ eratorritakoa da, baina gehiago dira (horien artean J. Caro Baroja) Goi Erdi Aroz geroztik, bai Euskal Herrian, bai Euskal Herritik kanpo dokumentatutako *Vera* edota *Bera* pertsona izena dela uste dutenak. P. Salaberri ere iritzi horretakoa da.

berar beltza

- B.F. Berar belza.- Hierba negra. (Hierba que empleaban los brujos para hacer los polvos maléficos).
- **Oharra:** *berar* (ikus *berar haundia* sarrera) + *beltz*, hots, kolore beltzari dago-kion adjektiboa + *-a* artikulua.

berar haundia

- B.F. Berar aundia.- Berar, belar (hierba) - aundi - a. Hierba grande.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *berar* da, zabalduago dagoen *belar* ‘landare txiki, berde eta zurtoin-biguna, gehienetan urterokoa’ izenaren aldaera, eta bigarren osagaia *haundi* adjektiboa, anitzez lehenago dokumentatzen den *bandi*-ren aldaera, + *-a* artikulua.

Beratza

- B.F. Beraza.- Berar - za. Sitio de hierbas, prado, soto.
- **Oharra:** itxuraren arabera, ematen du *beratz* ‘biguna’ adjektiboa + *-a* artikulua direla izen honen osagaiak. P. Salaberriek eta I. Salaberriek, ordea, diote bertze kasu batzuetan bezala (ikus *Guridi*, *Gogortza* sarrerak) ageri ez den

izenen bati (*lur, toki* erraterako) erreferentzia egiten dion toponimoa izaten ahal dela. Deitura ezaguna da.

Beratzaluze

- B.F. Berazaluce.- Beraza - luce. Prado largo.
- **Oharra:** (ikus *Beratz* sarrera) + *luze* adjektiboa, ‘luzera gainerako dimentsioak baino handiagoa duen tokia’.

Berekotxea

- B.F. Berecochea.- Bere, bera (abajo) - co - eche - a. La casa de abajo.
- **Oharra:** *behere* > *bere* elkarketan hartzen duen aldaera + *-ko* ‘nongo’ adierazten duen toki atzizkia ‘beheitikoa’ + *etxe* + *-a* artikulua, hots, ‘beheitiko aldean dagoen etxea’.

bereter

- B.F. Bereterra, Belaterra.- (Codigus Calistianus). Sacerdote, monaguillo.
- **Oharra:** *bereter* ‘apeza’, ‘abadea’.

Bereterbide

- B.F. Bereterbide.- Bereter - bide. (El camino del cura, del viático, etc.).
- **Oharra:** *bereter* ‘apeza’, ‘abadea’ + *bide* hitz arrunta, ‘apezaren bidea’, ‘abadearen bidea’.

Bereterretxe

- B.F. Bereterreche.- Bereter - eche. La casa del cura.
- **Oharra:** *bereter* ‘apeza’, ‘abadea’ + *etxe*, ‘apezaren etxea’, ‘abadearen etxea’.

Berraondo

- B.F. Berraondo.- Berro - ondo. Junto al lugar húmedo.
- **Oharra:** *berro* (ikus *Berro* sarrera) > *berra-* elkarketan hartzen duen aldaera, + *ondo* ‘aldamena’.

Berro

- B.F. Berroa.- Berro (berro, Bot.). Lugar húmedo.
- **Oharra:** Narbarteko Jose Maria Lakoizketa botanikari ospetsu zenak zioen lapurteraz deitzen den *berro* toki hezeetako landarea dela eta honen izen zientifikoa *Nasturtium officinale* eta gaztelaniazkoa “mastuerzo acuático” direla. Horretaz gain, kontuan izan behar da *berro* nahiko hitz arrunta dela

toponimian ‘labakia’ adierazteko, hots, ‘lur ebakia’ edo ‘lantzeko prestatzen den lurra’, gaztelaniaz “rotura” deitzen zaiona.

Berroeta

- B.F. Berroeta.- Sitio de berros. Lugar húmedo.
- **Oharra:** *berro* (ikus *Berro* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia.

Berrotaran

- B.F. Berrotaran.- Berroeta - aran. Vega del lugar húmedo.
- **Oharra:** *berro* (ikus *Berroeta* sarrera) + *haran* ‘ibarra’.

Bezunartea Ikus Belzunce

biarra Ikus behar

Bidart Ikus Bidarte

Bidarte

- B.F. Bidarte, Bidart.- Bide (camino) - arte. Entre caminos.
- **Oharra:** *bide* hitz arrunta > *bida-* elkarketan hartzen duen aldaera + *arte* ‘bitartea’, hots, *Bidarte* > *Bidart* eratorria apokopeagatik, bertze zenbait izenetan gertatu ohi den bezala (ikus, erraterako, *Barrikart* eta *Bidaur* sarrerak).

Bidaur Ikus Bidaurre

Bidaurre

- B.F. Bidaur, Bidaurre.- Bide - aurre. Delante, enfrente del camino.
- **Oharra:** *bide* hitz arrunta > *bida-* elkarketan hartzen duen aldaera + *aurre* ‘aitzineko aldea’, batzuetan *Bidaur* bilakatua apokopeagatik (ikus, adibidez, *Barrikart* eta *Bidart* sarrerak); beraz, ‘bidearen aitzineko aldea’. Gesalatz ibarrean dagoen kontzejuaren izendapen ofiziala *Vidaurre* da, euskaraz dagokiona, ordea, *Bidaurre*.

Bidegain

- B.F. Bidegain.- Bide - gain. Encima del camino.
- **Oharra:** *bide* hitz arrunta + *gain* ‘toki goia’, hots, ‘bidearen goiko aldea’.

Bidegorrieta

- B.F. Bidegorrieta.- Bide - gorri - eta. Sitio de caminos rojos.

- **Oharra:** *bide* hitz arrunta + *gorri*, kolore gorria adierazten duen adjektiboa + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia; hortaz, ‘bide gorriaren tokia’.

bigo

- **B.F.** Bigo.- Bi (dos) - go, co. De dos. “Horca de dos puntas que se usa en las eras para remover la paja” (Iribarren).
- **Oharra:** *bigo* J.M. Iribarrenek Aezkoan, Estellerrian eta Nafarroako erdialdean jasotako hitza da, euskaraz arruntago den *sarde*-ren parekoa. Ikus *sarde* sarrera.

Bikondo

- **B.F.** Bicondo.- Bica, ica, iga (cuesta muy pendiente) - ondo. Junto a la cuesta.
- **Oharra:** *pika*, *ika* ‘aldapa’ edo ‘malda’ren erreferentzia dira, alde batera utzi gabe *pikondo* ‘klima epeletako zuhaitz edo zuhaixka, hosto handi gingildunak dituen eta fruitutzat pikua ematen duena (*Ficus carica*)’ izenaren erreferentzia eta horren aldaera ezaguna den *bikondo*. Arizkunen eta Erratzun, erraterako, badira *Bikondoa* izeneko toponimoak.

bildur Ikus **beldur**

birika

- **B.F.** Birica.- Pulmón, longaniza inferior.
- **Oharra:** *birika* ‘airea arnasten duten animalien eta gizakien arnaste organoa, gehienetan bi errai berdinez osatua’, bai eta ‘birikia, hestebete arrunta’ ere.

biscorrico Ikus **bizkor**

bitxi

- **B.F.** Bichi (raro). Estella.
- **Oharra:** *bitxi* ‘ohikoa ez dena, ohiko gauzetatik at dagoena’.

bizkar

- **B.F.** Bizcarra.- Bizcar (cima, loma, espalda) - a.
- **Oharra:** *bizkar*, bertzeak bertze ‘giza gorputzaren atzeko aldea, besaburuetatik gerrirako zatia bereziki’ nahiz ‘animalia batean gainaldea, lepotik isatsera’ da, bai eta ‘mendi baten gainaldea, bereziki zabala dena’ ere. *-a* artikularekin, *Bizkarra* alegia, toponimo eta deitura gisa ere ezaguna da.

Bizkarra Ikus **bizkar**

Bizkarreta

- B.F. Biscarret.- Biscar, bizcar (cima, loma) - eta. Situado en la loma.
- **Oharra:** *bizkar* (ikus *bizkar* sarrera) + *-eta* tokia adierazten duen atzizkia, hots, ‘gainaldean dagoen tokia’. Izen hori duen Erroibarko kontzejuaren izendapen ofiziala *Bizkarreta-Gerendiain* da.

Bizkarrondo

- B.F. Bizcarrondo.- Junto a la cima.
- **Oharra:** *bizkar* (ikus *bizkar* sarrera) + *ondo* ‘aldamena’; beraz, ‘bizkarraren aldamena’.

bizkor

- B.F. Bizcor, Biscorrigo.- Fuerte.
- **Oharra:** *bizkor* ‘bizitasun handikoa’, ‘kementsua’; *biscorrigo* gaztelaniak, *-z-* > *-s-* aldaketarekin eta *-ico* atzizki txikigarria gehituz, bereganatu duen forma da, euskaraz erabiltzen den *bizkortxo* adierazteko.

Bolibar

- B.F. Bolibar.- Bolu (molino) - ibar. Vega del molino.
- **Oharra:** *bolu* (ikus *Bolinaga* sarrera) + *ibar* ‘harana’, hau da, ‘errotaren ibarra’ edota ‘errotaren harana’.

Bolinaga

- B.F. Bolinaga.- Bolin (molino) - aga. Sitio del molino.
- **Oharra:** *bolu* ‘errotat’ > *bolin-* elkarketan hartzen duen aldaera + *-aga* toki atzizkia; beraz, ‘errotat dagoen tokia’.

Borda

- B.F. Borda.- Caserío, cubierto para ganado.
- **Oharra:** *borda* ‘basetxe arrunta’; baita, ‘mendian edo basoan, abereak-eta gordetzeko eraikina’. Deitura gisa ere ezaguna da.

Bordandia Ikus **Bordazar**

Bordatxipi Ikus **Bordazar**

Bordazar

- B.F. Bordandia, Bordachipi, Bordazar.
- **Oharra:** hiru izenetan *borda* (ikus *Borda* sarrera) da lehenbiziko osagaia. Hurrengo osagaiak adjektibo arrunt hauek dira hurrenez hurren: *bandi* + *-a* artikulua, *txipi* ‘txikia’ + *-a* artikulua eta *zabar* ‘aspaldikoa’, ‘lehenagokoa’ > *zar* bilakatua.

bruka Ikus **buruxka****burtxin** Ikus **burtzin****burtzin**

- B.F. Burchin.- Burdin (hierro). Bártulo de cocina (Salinas).
- **Oharra:** *burtzin* ‘bertzuna’, ‘errautsa jasotzeko pala’; *burtxin* J.M. Iribarrenek Iruñerrian eta Estellerrian jasotako aldaera da.

buruka Ikus **buruxka****buruko**

- B.F. Buruco.- Buru - co. De la cabeza. Toca...
- **Oharra:** *buruko* ‘burua estaltzeko erabiltzen den jantzi edo zapia’.

burute

- B.F. Burute.- Buru - te. Rodete, rollo que solían llevar en la cabeza para llevar peso.
- **Oharra:** *burute* ‘buruan zamaren bat eramateko jartzen den ehunez edo espartuz egindako biribilkia’.

buruxka

- B.F. Buruca, Bruca.- buru (cabeza) - ca. Espigas que quedan después de la recolección (Burlada, Añorbe).
- **Oharra:** *buru*, bertzeak bertze, ‘zerbaiten amaierako gunea edo zatia’ + *-xka* atzizki txikigarria; *buruka* eta *bruka* J.M. Iribarrenek Añorbe herrian jasotako aldaerak dira.

buruzare

- B.F. Buruzare.- Buru - zare (cesto). Cesto para llevar en la cabeza.
- **Oharra:** Nafarroan ‘saski handia’ri ematen zaion izena da *buruzare*.

Bustindui Ikus Buztindoi

Bustintze Ikus Buztintze

buztin

- B.F. Buztin.- Arcilla.
- **Oharra:** *buztin* ‘batez ere aluminio silikatoz osatutako lurra, gehienetan zurixka edo gorrixka, uretan bustita hagitz bigun eta malgu bihurtzen dena eta, horregatik, ontziak, teilak, adreiluak eta kidekoak egiteko erabiltzen dena’.

Buztinaga

- B.F. Buztinaga.- Buztin - aga. Sitio arcilloso. (La casa del Ilmo. Irigoyen).
- **Oharra:** *buztin* (ikus *buztin* sarrera) + *-aga* toki atzizkia, ‘buztin tokia’ alegia. Erratzuko *Buztinaga* etxeok izan ziren bi apezpiku. Bata, Juan Lorentzo Irigoien Dutari (1712-1778) ospetsua, bertzeak bertze, Belateko priorrea izan zena eta 1768tik aitzina Iruñeko apezpikua. 1777an “Seminario Conciliar” izeneko apezgaitegia sortu zuen Iruñean. Bertzea, Migel Jose Irigoien Dolarea (1785-1852), Zamorako eta Calahorrako apezpikua hurrenez hurren.

Buztindoi

- B.F. Buztindoi, Bustinduy. Ver Buztinaga.
- **Oharra:** *buztin* (ikus *buztin* sarrera) + *-doi* toki atzizki multzokaria; *bustindui* aldaera da, erdararen eraginez *-zt-* > *-st-* bilakatua eta *-doi* atzizkiaren pareko den *-dui* aldaera daramana.

Buztingorri

- B.F. Buztingorri.- Arcilla roja.
- **Oharra:** *buztin* (ikus *buztin* sarrera) + *gorri*, hau da, kolore gorria adierazten duen adjektiboa, hots, ‘buztin gorriko tokia’.

Buztintza

- B.F. Buztintza.- Sitio arcilloso.
- **Oharra:** *buztin* (ikus *buztin* sarrera) + toki ugaritasunezko *-tza* atzizkia. Ikus *Buztintze* sarrera.

Buztintze

- B.F. Buztince, Bustince. Ver Buztinaga.

- **Oharra:** *buztin* (ikus *buztin* sarrera) + *-tze* toki ugaritasunezko atzizkia (ikus *Buztintza* sarrera). *Bustintze* forma erdarak eragindako *-zt-* > *-st-* aldaeraren ondorioa da.

cabias Ikus **habia**

charduqui Ikus **iharduki**

cascar Ikus **kaskatu**

chirdilar Ikus **txirdiletan** (aritu)

chiricome Ikus **txorikume**

chirrin Ikus **txirrio**

chorchi Ikus **zortzi**

cunchar Ikus **kutsatu**

Dagerre

- B.F. Daguerre.- De Aguerre.
- **Oharra:** *Dagerre* (ikus *Agerre* sarrera). Erdarazko *de* preposizioaren aglutinazioa da hainbat deituratako hasieran ageri den *D'* hori, Ipar Euskal Herrikoetan bereziki, bai eta Baztango zenbaitetan ere: *Dagerre*, *Daranatz*, *Durruti* eta abarretan.

Danboriena

- B.F. Danboriena.- Dambori, dambolin (tamborilero) - en - a. La del tamborilero.
- **Oharra:** *danbolin* 'txistuaren lagungarri, hari eusten dion besotik zintzilikaturik, zotz bakar batez jotzen den danborra, ohikoa baino luzeagoa eta meharragoa' bai eta 'danbolin jotzailea' ere; *danborin* aldaera da, eta *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, hots, 'danbolinaren etxea'. Etxe-izenetan bi aldaerak ageri dira, erraterako, *Danboriarena* Arizkunen eta Iturenen, *Danboliñenea* Elizondon eta bertze herri anitzetan ere.

dena ona

- B.F. Dena ona.- Dena (todo) - ona. Todo bueno.

- **Oharra:** *dena* ‘guztia’; *ona*, bertzeak bertze ‘espero bezain egokia edo onuragarria’, ‘ederra’.

Dendariarena

- B.F. Dendariarena.- Dendari (costurera, sastre, tendero) - arena. La del costurero.
- **Oharra:** *dendari* ‘denda jabea’, ‘dendako langilea’, baina Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ‘jostuna’ ere bai, + *-arena* jabetza adierazten duen atzizkia; hortaz, ‘jostunaren etxea’ seguruenik.

Dendariena

- B.F. Dendariena.- Dendari - en - a. La de las costureras.
- **Oharra:** *dendari* (ikus *Dendariarena* sarrera) + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘jostunaren etxea’ alegia.

Dolagarai

- B.F. Dolagaray.- Dolare - garay. Dolare superior.
- **Oharra:** *dolare* (ikus *Dolarea* sarrera) + *garai* ‘altua’ > *dolagarai* bilakatua haplogiaren eraginez.

Dolarea

- B.F. Dolarea.- Dolare (lagar) - a. El lagar.
- **Oharra:** *dolare* ‘mahats aleak, sagarrak eta kidekoak, zukua ateratzeko, zantpatzen diren tresna; tresna hori dagoen tokia’ + *-a* artikulua.

Dolaretxea

- B.F. Dolarechea.- Dolare - eche - a. La casa del lagar.
- **Oharra:** *dolare* (ikus *Dolarea* sarrera) + *etxe* hitz arrunta + *-a* artikulua; hortaz, ‘dolarea dagoen etxea’.

Dolaretxipi

- B.F. Dolarechipi.- Lagar pequeño.
- **Oharra:** *dolare* (ikus *Dolarea* sarrera) + *txipi* ‘txikia’.

Donamaria

- B.F. Donamaria.- Dona (santa) - Maria. Santa María.
- **Oharra:** *dona* ‘santa’ + *Maria*, Jesu Kristoren Ama. Toponimoari dagokionez, mendeetan zehar Artze, Askarraga, Donamaria, Gaztelu eta Igurin tokiak

Ibargoiara izeneko ibarrekoak ziren (“lugares” izendatuak gaztelaniazko agirietan), baina XIX. mendetik honat Ibargoiara izendapena galdu da eta gaur egun toki horien artean osatzen duten udalaren izendapen ofiziala *Donamaria* da, nahiz eta *Donamaria-Gaztelu* ere erabiltzen den.

Donezar

- B.F. Donezar.- Done, de domne (santo) - zar. San (Juan) Viejo.
- **Oharra:** *done* ‘san’ + *zabar* ‘aspaldikoa’, ‘lehenagokoa’ > *zar* bilakatua. Ematen duenez, Nafarroa Garaian ezagunak diren *Donazar* eta *Donezar* deiturak Nafarroa Behereko *Donazabarre* (*Saint-Jean-le-Vieux*) herri izenetik ateratakoak dira.

Doneztebe

- B.F. Doneztebe.- Done - Eztebe. San Esteban.
- **Oharra:** *done* ‘san’ + *Eztebe* pertsona izena. Toponimoari dagokionez, gaur egun Malerreka izenaz ezagutzen den ibarraren izendapen historikoa “Santesteban de Lerín” izan zen. *Doneztebe* euskal izendapena, ordea, mendeetan zehar eta orain ere, gaztelaniazko Santesteban herri izenari dagokio, ez ibarrari. Izen hori daraman Malerrekako herriaren izendapen ofiziala *Doneztebe / Santesteban* da.

Doniane

- B.F. Doniane.- Done - Joane. San Juan.
- **Oharra:** *Done Joane* > *Donibane* > *Doniane* bilakaeraren ondorioz sortutako aldaera.

Donostia

- B.F. Donostia.- Done - Ostia, Don Ostian, Done Bastian, Done Sebastián. San Sebastián.
- **Oharra:** ikertzaile batzuek defendatu izan dute *Donostia* izenaren oinarrian latinezko *ostium* (*ostia*, pluralean) dagoela, hots, ‘atea’, ‘sarrera’, ‘ibai ahoa’, ‘bokalea’, alegia, itsas portuarekin zerikusia duen hitza dela, eta teoria horretan oinarritzen da B. Fagoagaren azalpena. Kontua da, bertze ikertzaile anitzek, K. Mitxelena buru, teoria hori erabat baztertuz, oinarria latinezko *Done Sebastiani* (San Sebastián) dela defendatzen dutela, eta ondoren izen horrek izandako bilakaera honela gertatu izanen zela > **Donasebastiani* > **Donasa(b)astiai* > **Donasastia* > **Donastia* > *Donostia*.

Dorrea

- B.F. Dorrea, Torrea.- Torre, casa-torre. Casa.
- **Oharra:** *dorre* ‘eraikin garaia eta meharra, aunitzetan eliza edo gaztelu bati buru ematen diona, edo babesgarri edo talaia bezala jasotzen dena’ + *-a* artikulua; *torrea* aldaera da. Etxe-izenetan bi aldaerak ikusten ahal dira, erraterako, *Dorrea* Iruritan, Amaiurren, Lesakan eta bertze herri batzuetan; *Torrea*, berriz, Abaurregainean, Hondarribian eta bertze zenbaitetan.

Dorreberria

- B.F. Dorreberria.- Torre nueva.
- **Oharra:** *dorre* (ikus *Dorrea* sarrera) + *berri* adjektiboa + *-a* artikulua.

Dorregarai

- B.F. Dorregaray.- Torre superior.
- **Oharra:** *dorre* (ikus *Dorrea* sarrera) + *garai* ‘altua’.

Dorremotz

- B.F. Dorremotz.- Dorre - motz (corto). Torre corta.
- **Oharra:** *dorre* (ikus *Dorrea* sarrera) + *motz* ‘ohi edo behar den bezain luzea ez dena’, ‘laburra’.

Dorretxipia

- B.F. Dorrechipia.- Torre pequeña.
- **Oharra:** *dorre* (ikus *Dorrea* sarrera) + *txipi* ‘txikia’ + *-a* artikulua.

Echabarri

- B.F. Echabarri.- Eche - berri.
- **Oharra:** *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *berri* adjektiboa > *barri* bilakatzen dena Euskal Herriaren mendebaldean batik bat. Ikus *Etxeberria* sarrera. Allin ibarreko kontzejuaren izen ofiziala *Echávarri* da, eta euskaraz dagokiona *Etxabarri*.

Echagüe

- B.F. Echagüe.- Eche - gune. Paraje de casas.
- **Oharra:** *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *gune* ‘tokia’, ‘aldea’, ‘eremua’ > *güe* bilakatua, bokalen arteko *-n-* galtzearen ondorioz; hortaz, ‘etxe tokia’. Orbaibarko kontzejuaren izen ofiziala *Echagüe* da, eta euskaraz dagokiona *Etxague*.

Egia

- B.F. Egua.- Egui (ladera, colina) - a.
- **Oharra:** jatorriz *begi* ‘mendiaren hegala’ + *-a* artikulua da, baina deitura gisa *Egia* formaz ezaguna dena.

Egiarena

- B.F. Egiarena.- Egui (verdad) - arena. La de la verdad.
- **Oharra:** *begi* ‘mendiaren hegala’ + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia; hortaz, *Egia* abizena duen pertsonaren etxeari paratutako izena da; ez, seguruenik ere, B. Fagoagak izenaren oinarritzat proposatzen duen *egia* hitza, ‘arrazoiaren arabera ezin ukatu den gauza’.

Egiarte

- B.F. Egiarte.- Egui - arte. Entre colinas, ¡La verdad en medio!
- **Oharra:** *begi* ‘mendiaren hegala’ + *arte* ‘bitartea’, hau da ‘mendiaren hegala bitartekoa’. Honetan ere (*Egiarena* sarreran bezala) baztertzekoa da erratzuarrak aipatzen duen bigarren erranahia.

Egiguren

- B.F. Egiguren.- Egui - guren. Término de la ladera.
- **Oharra:** *begi* ‘mendiaren hegala’ + *guren* ‘ederra’, hots, ‘mendi hegal ederra’.

Egilatz

- B.F. Eguilaz.- Egui - latz (áspero). Ladera áspera.
- **Oharra:** *begi* ‘mendiaren hegala’ + *latz* ‘lakatza’, ‘zakarra’, leuna ez dena.

Egiluz

- B.F. Eguluz.- Egui - luze. Ladera larga.
- **Oharra:** *begi* ‘mendiaren hegala’ + *luze* adjektiboa ‘hedadura handia edo ohiko baina handiagoa duena’ > *luz* bilakatua apokopeagatik.

Egurrola

- B.F. Egurrola.- Egur (leña) - ola. Lugar de leña.
- **Oharra:** *egur* ‘zura’, bai eta ‘su egiteko erabiltzen diren zuhaitzaren enbor edo adar zati handia’ ere, + *ola* ‘txabola’, ‘burdinola’.

Egurtza

- B.F. Egurza, Egurze.- Egur - za, ze. Lugar de leña.

- **Oharra:** *egur* (ikus *Egurrola* sarrera) + *-tza* edo *-tze* toki ugaritasunezko atzizkiak. Beraz, ‘egur ugariko tokia’.

Egurtze Ikus Egurtza

Eguzkiagerre

- B.F. Eguzquiagerre.- Orientado al sol.
- **Oharra:** *eguzki* izen arrunta + *agerre* ‘nabaria’, ‘ezkutua ez dena’; horren arabera, ‘eguzkiak ematen duen toki nabarian dagoena’ edo ‘eguzki aldera begira (hegoaldera, alegia) dagoen tokia, etxea normalean.

Eguzkitza

- B.F. Eguzquiiza, Iguzquiiza.- Eguzki (sol) - za. Sitio de sol.
- **Oharra:** *eguzki* izen arrunta (*iguzki* aldaera bat da) + *-tza* toki ugaritasunezko atzizkia, hau da, ‘eguzkiak anitz ematen dion tokia’. Izendapen ofizialtzat *Igúzquiiza* duen udalari euskaraz dagokiona *Iguzkitza* da.

Eiharalar

- B.F. Eyaralar.- Eyara - larre. La dehesa del molino.
- **Oharra:** *eihara*, lehenbiziko osagaia, *eibera* ‘errotar’ izenaren aldaera da, eta bigarrena *larre* ‘abereak bazkatzen diren belardia’ > *lar* bilakatua apokopeagatik; beraz, ‘errotako larrea’.

Eiherabide

- B.F. Eyerabide.- Eyera, Eyara (molino) - bide. Camino del molino.
- **Oharra:** *eibera* ‘errotar’ + *bide* izen arrunta ‘errotara doan bidea’.

Elarre

- B.F. Elarre. Ver Larre.
- **Oharra:** *Elarre* Erratzuko toponimo bat da. Lehenbiziko osagaia *elar* ‘txilarrar’ izaten ahal dela ematen du, eta bigarrena *larre* ‘belardia’, hots, *elar* + *larre* > *elarre* bilakatuta haplologiaren eraginez.

Eleta

- B.F. Eleta.- Ele (rebaño, ganado, cuento) - eta. Sitio de ganados.
- **Oharra:** erranahiari dagokionez, nahiko izen iluna da. Toponimoa den aldetik, pentsaezina da, alde batetik, B. Fagoagak aditzera ematen duen gisan, *ele* hori ‘ipuina’ edo ‘esamesa’ izatea, eta, bertze aldetik, animalien multzoa

adierazteko, *eli* hitzak agertu beharko luke, ez *elek*. Dena dela, *Heleta* Nafarroa Behereko herri baten izena da, eta *Eleta* abizen ezaguna Nafarroa Garaian.

Elgeta

- B.F. Elgueta.- Elgue (campo cultivado) - ta.
- **Oharra:** *elge* (*elke* bezala) ‘lur landua’, ‘alorra’ + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘lur landuko tokia’.

Elgorriaga

- B.F. Elgorriaga. Elorriaga? O Lur - gorri - aga. Sitio de tierra roja.
- **Oharra:** ikus *Elorriaga* sarrera. K. Mitxelenaren ustez, segur aski, hasierako *elborri* hitz hasperenduna *elgorri* bilakatu izanen zen, eta hortik, *Elgorriaga*, ‘elorri ugariko tokia’ beraz. B. Fagoagak ematen duen bigarren interpretazioa, ordea, (*lur* + *gorri*) ez da aintzat hartzekoa.

Elizaga

- B.F. Elizaga.- Lugar de la iglesia.
- **Oharra:** *eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ + *-aga* toki atzizkia, ‘eliza dagoen tokia’ alegia.

Elizagarai

- B.F. Elizagaray.- Parte superior de la iglesia.
- **Oharra:** *eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ + *garai* ‘altua’, hots, ‘altuera nabaria duen eliza’; ez, ordea, B. Fagoagak dioen elizaren goiko aldea.

Elizaintzin Ikus Elizaitzin

Elizaitzin

- B.F. Elizaintzin.- Eliz - aintzin. Enfrente de la iglesia.
- **Oharra:** *eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ + *aitzin* (ez *aintzin*) ‘aurrea’; beraz, ‘elizaren aitzineko edo aurreko aldea’.

elizakoak

- B.F. Eliceoak.- Eliz (iglesia) - e - ko - ak. Los de la iglesia, los últimos sacramentos.
- **Oharra:** *Eliza* ‘Jesu Kristoren erlijioari jarraikitzen zaizkion sinestunen bilkura’, bai eta ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ ere; *elizakoak* ‘Eliza katolikoko eta ortodoxoko sakramentuak’ (eukaristia eta oliadura) gaixoei ematen zaizkienak.

Elizalde

- B.F. Elizalde.- Al lado de la iglesia.
- **Oharra:** *eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ + *alde* ‘aldamena’, hau da, ‘elizatik hurbil dagoena’.

Elizari

- B.F. Elizari.- Eliz - iri. Cerca de la iglesia o casa de la iglesia.
- **Oharra:** *eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ + *-iri* atzizkia ‘ondoan’ edo ‘hurbil’, hots, *elizairi* > *elizari* bilakatua *-i-* bokalen disimilazioagatik; beraz, ‘elizaren ondoan dagoena’ edo ‘elizatik hurbil dagoena’, ez preseski B. Fagoagak dioen ‘elizaren etxea’. Ikus *Gortari*, *Lastiri*, *Mugairi*, *Zubiri* sarrerak.

Elizegi

- B.F. Elizegui.- Ladera de la iglesia.
- **Oharra:** *eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ + *-egi* toki atzizkia edo *begi* ‘mendi hegala’, beraz ‘eliza dagoen tokia’ edo ‘eliza dagoen mendi hegala’.

Elizetxe

- B.F. Elizeche.- Casa de la iglesia o casa parroquial.
- **Oharra:** *eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ + *etxe*, ‘elizaren etxea’, norma-lean ‘parrokiako apezaren etxebizitza’.

Elizondo

- B.F. Elizondo.- Junto a la iglesia.
- **Oharra:** *eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ + *ondo* ‘aldamena’. Ikus *Elizalde* sarrera.

Elizpuru

- B.F. Elizpuru.- Encima de la iglesia.
- **Oharra:** *eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ + *buru* ‘goiko aldea’ > *puru* bilakatua *z-*ren ondotik; beraz, ‘elizaren goiko aldea’, ez nahitaez elizaren gainean dagoena.

elkartasun

- B.F. Alcartasuna.- Elcar (mutuo) - tasun (cualidad abstracta) - a. Mutuedad, hermandad.
- **Oharra:** *elkartasun* ‘lagunen artean elkarrekin aritzeko edo elkarri laguntzeko sortzen den batasuna’; *alkartasun* aldaera da.

Elorca Ikus Lorca

Elordi

- B.F. Elordi.- Elorri (espino) - di. Sitio de espinos, espinal.
- **Oharra:** *elorri* ‘zenbait zuhaixka mota arantzatsuri ematen zaien izena’, amaierako *-i* bokalaren sinkopagatik > *elor-* bihurtua + *-di* atzizki multzokaria, *-doi* eta *-dui*-ren aldaera; beraz, ‘elorri ugariko tokia’.

Elordui

- B.F. Elorduy. Ver Elordi.
- **Oharra:** ikus *Elordi* sarrera.

Elorga Ikus Elorriaga

elorri zuri

- B.F. Elorritzuri.- Elorri - zuri. Espino blanco.
- **Oharra:** *elorri* (ikus *Elordi* sarrera) + *zuri* adjektiboa, hau da, ‘kolore zuriko loreak dituen elorria (*Crataegus laevigata* eta *Crataegus monogyna*)’.

Elorriaga

- B.F. Elorriaga, Elorga.- Elorri (espino) - aga. Sitio de espinos, espinal.
- **Oharra:** *Elorriaga: elorri* (ikus *Elordi* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia; *Elordi* bezala, *Elorga* ere sinkoparen ondorioz bilakatutako aldaera da.

Elorrieta

- B.F. Ver Elorriaga, Elorga.
- **Oharra:** *Elorrieta: elorri* (ikus *Elordi* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia. *Elorta*, sinkopagatik sortutako aldaera da (*Elorga* aldaera bezala, ikus *Elorriaga* sarreran).

Elorrio

- B.F. Elorrio.- Elorri - o ?
- **Oharra:** *elorri* (ikus *Elordi* sarrera) + *-a* artikulua, segur aski, erromantzearen eraginez *-o* bilakatua. Ikus *Altzo* sarrera.

Elorta Ikus Elorrieta

Elortegi

- B.F. Elortegui.- Sitio de espinos.

- **Oharra:** hasierako osagaia *elorri* da (ikus *Elordi* sarrera), eta bigarrena *-tegi* tokizko atzizkia; beraz, ‘elorri tokia’.

Elorz

- B.F. Elorz, Elorza.- Sitio de espinos.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *elorri* (ikus *Elordi* sarrera) da eta bigarrena *-tze* ugaritasunezko atzizkia, apokopeagatik *-tz* bilakatua batean, eta *-tza* aldaera bertzean, ‘elorri ugariko tokia’ bietan. Lehenbiziko toponimoari dagokionez, zehaztu behar da ibarraren izen ofiziala *Valle de Elorz / Elortzibar* dela eta kontzejuarena *Elorz / Elortz*.

Elortza Ikus Elorz

Elosegi

- B.F. Elosegui.- Elosique (endrina, ciruelo silvestre con espinas). Sitio de endrinos.
- **Oharra:** K. Mitxelenaren iritiz, hasierako *elos-* osagaia (bertze zenbait toponimotan ere ageri dena –ikus *Elosiaga* sarrera–) *elorri* ‘zenbait zuhaixka mota arantzatsuri ematen zaien izena’ hitzaren aldaera izan daiteke. Bigarrena, berriz, *-egi* toki atzizkia edo *hegi* ‘mendi hegala’; beraz, ‘elorri tokia’ edo ‘elorrria duen mendi hegala’.

Elosiaga

- B.F. Elosiaga, Elosua. Ver Elosegui.
- **Oharra:** *Elosiaga*-ri dagokionez, osagaiak *elos-* (ikus *Elosegi* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia dira. *Elosua*-ren kasuan, bigarren osagaia *-zu* ugaritasunezko atzizkia + *-a* artikulua dirateke, kontuan izanik *elorri* lehenbiziko osagaiaren amaierako *-i* bokalaren sinkoparen ondoren gauzatutako *-rz-* > *-s-* aldaketa nahiko ezaguna dela euskaraz, *Elorzua* > *Elosua* alegia. Ikus *Latasa* eta *Lizaso* sarrerak.

Elosua Ikus Elosiaga

Eltzaburu

- B.F. Elzaburu.- ¿Lezaburu? ¿Parte superior del río?
- **Oharra:** agiri zaharretako lekukotasunetan, toponimo honen lehenbiziko osagaia *ęa-* edo *etza-* dira, deus ikustekorik ez dutenak zenbaitek aipatzen duten *eltze* > *eltza-* edota *leza-*rekin; bigarren osagaia *buru* ‘goia’, ‘goiko aldea’ da.

eltzeondoko

- B.F. Ziendoco.- Elze (puchero) - ondo - co. Lo de junto al puchero, hierro para sujetar los pucheros (Arlegui).
- **Oharra:** *eltze* ‘janariak egosteko-eta erabiltzen den ontzia, altua eta bi esku-leku dituen’ + *ondoko* ‘aldamenekoa’, hots, ‘eltze burdina’. B. Fagoagak aipatzen duen *ziendoco*, J.M. Iribarrenek Nafarroako zenbait herritan jasotako aldaeratako bat da, *ciendoco*, *cendoco* eta *zondoco*-rekin batera.

Enekorena

- B.F. Enecorena.- Eneco (Ignacio) - rena. La de Eneco.
- **Oharra:** *Eneko*, Iruñeko Erresumako lehenbiziko erregearen izena, arras ezaguna eta erabilia zen Euskal Herrian. Izen horren erdarazko ordaina *Iñigo* da. Loiolako santu ezagunaren izena *Eneko* zen, gaztelaniaz *Iñigo* ere erabilia. Jesusen Lagundiaren fundatzaile izan zenak, ordea, geroago *Ignazio* hartu zuen izentzat, Antiokiako *Ignazio* santuaren omenez, ez *Eneko*-ren erdarazko ordaina delako, zenbaitek dioten bezala. Bigarren osagaia jabetza adierazten duen *-rena* atzizkia da; beraz, ‘Enekoren etxea’.

Enekotena

- B.F. Enecotena.- Necot (diminutivo de Eneco) - ena. La de Enecot.
- **Oharra:** ikus *Enekorena* sarrera. *Eneko* izenaren aldaera txikigarria den *Enekot* + *-ena* jabetza atzizkia dira osagaiak, hau da, ‘Enekoten etxea’.

epaitza

- B.F. Epaitz.- Epai (corte de la leña, poda). “El epaitz de la leña”.
- **Oharra:** *epaitza* ‘ebakitzea’, ‘ebakia’. Nafarroako zenbait herritan, oraindik ere, *epaitza* deitzen zaio ‘herriko oihanetik herritar bakoitzari ematen zaion urteko egur parte’-ri.

Equiza

- B.F. Equiza.- Equi (sol) - za. Sitio de sol.
- **Oharra:** *eki* ‘eguzkia’ + *-tza* ugaritasunezko atzizkia, ‘toki eguzkitsua’. Herriaren izendapen ofiziala *Equiza* / *Ekiza* da.

Erburu

- B.F. Erburu.- Erri - buru. Parte superior del pueblo.

- **Oharra:** *berri* ‘biztanlegunearen dermioa’ elkarketan *er-* aldaera hartzen duena (*Ergoiena* izenean bezala) + *buru* ‘goia’ bai eta ‘bukaera’ ere, hau da, ‘herriaren goiko aldea’ edo ‘herriaren bukaera’.

erchemines Ikus **hertze min**

Ergoiena

- B.F. Ergoyena.- Erri - goyen - a. Pueblo el más alto, Pueblos altos.
- **Oharra:** *berri* ‘biztanlegunearen dermioa’ > *er-* elkarketan hartzen duen aldaera (ikus *Erburu* sarrera) + *goien* ‘goitikoena’ + *-a* artikulua; hortaz, ‘goitien dagoen herria edo lurra’.

Errasti

- B.F. Errasti.- Erratz (codeso, piorno, arbusto leguminoso, material de escobas) - ti (sitio de).
- **Oharra:** *erratz* ‘ezkata moduko hostoak dituen zuhaixka erraboilduna, hostoen gainean bola gorritxoak ematen dituen (*Ruscus aculeatus*)’ + *-ti* atzizki multzokaria, *errasti* > *errasti* bilakatua; beraz, ezaguna den *-zt-* > *-st-* pausogatik, ‘erratz ugari dagoen tokia’.

Erratzu

- B.F. Errazquin, Erratzu.- Erratz (ver Errasti) - zu.
- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera berean eman zituen bi toponimoak, baina ez dirudi lotura handirik duten. *Erratzu:* lehenbiziko osagaia *erratz* (ikus *Errasti* sarrera) da eta *-zu* ugaritasunezko atzizkia bigarrena. *Errazkin:* lehenbiziko osagaiak itxuraz *erratz* dela ematen badu ere, nahiko toponimo iluna da bere osotasunean.

Erratzuriz

- B.F. Errazuriz.- Erratz - uri, iri (casa, cerca de, pueblo). Casa de sitio de codesos.
- **Oharra:** agiri zaharretako lekukotasunak *Erratzuriz* formaren alde mintzo dira, bai oikonimoetan, bai deituretan. Erraterako, Baztango Udaleko Artxiboan, 1693., 1762., 1766. eta 1850. urteetan Arizkungo *Errazuriz* etxe-izena ageri da, eta 1689.ekoan ere bai «Pedro de *Errazuriz* xurado de Arizcun». Horien arabera, izenaren osagaiak *erratz* (ikus *Errasti* sarrera) + *zuri* koloreari dagokion adjektiboa + *-itz* ugaritasunezko atzizkia dira,

Erratzuritz alegia, ‘erratz zuri ugariko tokia’. Bai *Errazuriz*, bai *Erraxuriz* aldaera hipokoristikoa (gaztelaniazko agirietan *Errajuriz* gisa ere transkribatua ageri dena) zenbait deituratan lekukotzen dira, batik bat Arantzako parrokiako XVII-XVIII. mendeetako Hildakoen Liburuetan: Martin de *Errajuri* (1644), Miguel *Errazuriz* (1607, 1611), Martin de *Errajuriz* (1675), Juana de *Erraçuriz* (1680), Maria de *Errazuriz* (1700), Cathalina de *Errajuriz* (1701), Margarita de *Errazuriz* (1703), Aipatutako lekukotasun historikoen argitan, ematen du gaur egun ezagunagoa den *Erratxuriz* (-tx- duen aldaera) berri samarra dela. Azkenik, erabat baztertzekoak dira B. Fagoagak bigarren osagaian ikusten dituen *uri* eta *iri* erreferentziak.

Errazkin Ikus Erratzu

Errea

- B.F. Errea.- Erre (quemar, quemado) - a. El quemado.
- **Oharra:** *erre* ‘zerbait edo norbait suaren bidez ahitu edo erabat hondatu’ + *-a* artikulua.

Erregerena

- B.F. Erregerena.- Erregue - rena. La del rey (tierra, montes).
- **Oharra:** *errege* ‘erreinu bateko buru den gizona’ + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia; beraz, ‘erregearen etxea’ edo ‘erregearen ondasuna’. *Erregerena* izeneko mendia Baztango udalerriak Eugiko kontzejuarekin batera duen elkarrekikoa (“*facería*”) da.

Errekabaster Ikus Errekabazter

Errekabazter

- B.F. Errekabaster.- Erreka (regata, río) - bazter (orilla). Orilla del río.
- **Oharra:** *erreka* ‘etorri txikiko ur-lasterra’ + *bazter* ‘ertza’, ‘muga’. *Errekabaster* erdarak bere ahoskerara egokitutako aldaera da.

Errekalde

- B.F. Recalde.- Erreca (regata, arroyo, río, álveo del río) - alde. Hacia o junto a la regata.
- **Oharra:** *erreka* ‘etorri txikiko ur-lasterra’ (*ibai* edo *ugalde* baino txikiagoa eta *lats* edo *errekasto* baino handiagoa) + *alde* ‘hurbileko alderdia’, hots, ‘errekaren aldamera’; *Rekalde* aferesiagatik sortutako aldaera da.

Errekarte

- B.F. Recarte.- Erreca - arte. Entre ríos o arroyos.
- **Oharra:** *erreka* ‘etorri txikiko ur-lasterra’ + *arte* ‘bi gauzen bitarteko eremua’, ‘bitartea’; *Rekarte* aferesiagatik sortutako aldaera da.

Errekondo

- B.F. Recondo.- Errecaondo. Junto a...
- **Oharra:** *erreka* ‘etorri txikiko ur-lasterra’ + *ondo* ‘aldamena’; *Rekondo* aferesiagatik sortutako aldaera da.

Erremondegi

- B.F. Recarte.- Erreca - arte. Entre ríos o arroyos.
- **Oharra:** *Remón*, *Ramón* gizon izenetik sortutako deitura da, segur aski; euskaraz *e-* protesiagatik *Erremon* eta *Erramun* aldaerak hartu dituztenak, + *-tegi* jabetza adierazten duen atzizkia, *-degi* bilakatua *-n-* hotsaren ondotik; beraz, ‘Erremonen etxea’. Aezkoa ibarreko oikonimian ezagunak dira *Erremondegi* eta *Erremondegikoa*, gaztelaniaz *Remondegui* izendatuak.

Erretzubi

- B.F. Errezubi, Arratzubi.- Erregue (rey) - zubi (puente). Puente del rey (II25).
- **Oharra:** *Erretzubi*: *errege* ‘erreinu bateko buru den gizona’ > *erret-* elkarketan hartzen duen forma + *zubi* izen arrunta, hots, ‘erregearen zubia’. B. Fagoagak sarrera berean eman zuen *Arratzubi* toponimoaren lehenbiziko osagaia, ordea, *harri* da, ‘harrizko zubia’ alegia.

Erribera

- B.F. Erribera.- Erri - bera (bajo). Pueblo bajo, tierra llana.
- **Oharra:** itxuraren arabera, osagaiak *berri* + *bebera* ‘beheitikoa’ > *bera* eratorria direla badirudi ere, segur aski, gaztelaniazko “*ribera*” izena euskarak bere fonetikara egokitutakoa izanen da.

Erriberri

- B.F. Erriberri.- Erri - berri. Pueblo nuevo.
- **Oharra:** *berri* ‘biztanlegunearen dermioa’ + *berri* adjektiboa; hots, ‘herri berria’, bai eta ‘lurrealde berria’ edo ‘dermio berria’ ere. Olite hiria *Erriberri* izenez ere ezaguna da aspalditik, nahiz eta elkarren artean, erranaharen

aldetik, zerikusirik ez duten izendapenak izan. Hiriaren izendapen ofiziala *Olite / Erriberri* da.

Erroibar

- B.F. Erroibar.- Erro - ibar. Valle de Erro.
- **Oharra:** hasierako osagaia, *Erro* alegia, antroponimo bat izan liteke, bigarre-na berriz *ibar* 'harana'; hartara, 'Erro izenekoaren harana' izanen genuke.

Errotabarri

- B.F. Errotabarri.- Errota (molino) - barri. Molino nuevo.
- **Oharra:** *errota* 'alea ehotzeko tresna' bai eta 'tresna hori dagoen etxea' ere + *berri* adjektiboa > *barri* aldaera hartzen duena Euskal Herriaren mendebaldean.

Errotaldea

- B.F. Errotaldea.- Errota - alde - a. El lado o cercanía del molino.
- **Oharra:** *errota* (ikus *Errotabarri* sarrera) + *alde* 'aldamena', 'alderdia' + *-a* artikulua, 'errota dagoen alderdia' alegia.

Errotamunoa

- B.F. Errotamunoa.- Errota - muno (colina) - a. La colina del molino.
- **Oharra:** *errota* (ikus *Errotabarri* sarrera) + *muino* 'inguruko eremutik goratzen den lur zatia, mendia baino txikiagoa', *muno* aldaera ere hartzen duena, + *-a* artikulua.

Errotazar

- B.F. Errotazar.- El molino viejo.
- **Oharra:** *errota* (ikus *Errotabarri* sarrera) + *zabar* adjektiboa > *zar* bilakatua, 'aspaldiko errota', 'lehenagoko errota'.

Errotazelaia

- B.F. Errotacelaya.- Errota - zelai (llano, llanura). La llanura del molino.
- **Oharra:** *errota* (ikus *Errotabarri* sarrera) + *zelai* 'landa laua edo lau samarra, batez ere belarra duena' + *-a* artikulua, hots, 'errota aurkitzen den toki zelaia'.

Esabier Ikus Jabier

Esandi Ikus Eseberri

Esarte Ikus Eseberri

Eseberri

- B.F. Eseverri, Esandi, Esarte.- Echeverri, Echandi, Echarte.
- **Oharra:** K. Mitxelena dioenez, *etxe* eta *e(t)se* [*e(t)sa*- elkarketan hartzen duen aldaera] gauza bera dira, eta toponimo eta deitura ugariren sortzailer izan dira, horien arten *E(t)seberri* edo *Etxeberri*, *E(t)sandi* edo *Etxandi* eta *E(t)sarte* edo *Etxarte*.

eskerrik asko

- B.F. Esquerricasco.- Esquer (gracia) - ic - asko (mucho). Muchas gracias.
- **Oharra:** *eskerrik asko* ‘eskerrak emateko erabiltzen den esapidea’.

eskualdun Ikus euskaldun

Eskubi

- B.F. Escubi.- Derecho, mano derecha.
- **Oharra:** *eskubi* ‘eskuina’.

Eskujuri Ikus Eskuxuri

Eskuxuri

- B.F. Escujuri.- Escu (mano) - juri, zuri, xuri (blanco). Manos blancas.
- **Oharra:** *esku* ‘giza besoaren amaierako zatia, ukitzeko eta gauzak hartzeko erabiltzen dena, eta bortz hatz dituen’ + *xuri* (kolore zuria adierazten duen adjektiboaren aldaera txikigarria edo hipokoristikoa) gaztelaniak *juri* gisa ere bereganatu duena (ikus, erraterako *Xuriko* sarrera).

Espelosin Ikus Ezpelosin

Esteribar

- B.F. Esteribar.- Estera (piedra de afilar, acequias profundas) - ibar. Valle de...
- **Oharra:** izenaren bigarren osagaia *ibar* ‘harana’ da; lehenbizikoa, ordea, ez da hain argia; gainera, dokumentu zaharretan *ester-* eta *ezter-* aldaerak ageri dira, eta gaur egun *ester-* (*Esteribar*) bada ere erabilera arrunta, oraintsu arte euskaldunen artean *ezter-* (*Ezteribar*) ere erabili izan da, Perpetua Saraguetak erraterako.

esti

- B.F. Esti.- ¡Atrás! (a los bueyes).
- **Oharra:** *esti* ‘idiei eta behiei atzera eragiteko agindu hitza’.

Etxabakoitz

- B.F. Echabacoiz.- Eche - bacoitz (uno, único, cada uno). Casa única.
- **Oharra:** *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *bakoitz* ‘bakarra’.

Etxabe

- B.F. Echabe.- Eche - be. Casa de la parte inferior.
- **Oharra:** *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *behere* > *be* bihurtua. ‘Etxearen beheko aldean dagoena’; ez, ordea, beheko aldean dagoen etxea.

Etxaburu

- B.F. Echaburu.- Casa, cabeza, casa madre.
- **Oharra:** *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *buru* ‘goia’, ‘etxearen goiko aldea’; ez, ordea, etxe nagusia. Ikus *Etxenagusia* sarrera.

Etxaide

- B.F. Echaide.- Eche - aide ? ¿Casa pariente?
- **Oharra:** *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *bide* izen arrunta > *ide* eratorria haplologiaren eraginez. Hori dela eta, *Etxaide* = ‘etxe(ra)ko bidea’; beraz, B. Fagoagak ematen dion erranahitik urrunxko.

Etxaleku

- B.F. Echalecu.- Eche - lecu (lugar). ¿Lugar de casas?
- **Oharra:** *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *leku* ‘etxe tokia’ (ikus *Echagüe* sarrera).

Etxamendi

- B.F. Echamendi.- Eche - mendi. ¿La casa del monte? (Contra sintaxis).
- **Oharra:** *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *mendi*. Izen konposatuetan *mendi* hitza lehen osagai gisa gehiagotan ikusten bada ere, hala nola *Mendiburu*, *Mendieder*, *Mendillorri*, *Mendizorrotz*. . . toponimoetan, hagitx normala da bigarreanean ere agertzea; horren lekuko dira *Etxamendi* ez ezik, *Arizmendi*, *Ezurmendia*, *Gaztelumendi*, *Urrizmendi*, *Zubimendi* eta bertze anitz ere.

Etxandia

- B.F. Echarria.- Eche - andi - a. Casa grande.
- **Oharra:** *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *handi* neurriari edo bolumenari dagokion adjektiboa + *-a* artikulua.

Etxarren

- B.F. Echarren.- Eche - barren. Casa de la parte inferior.
- **Oharra:** *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *barren* ‘beheitikoa’; hortik, haplogogiaren ondorioz sortutako *etxarren* ‘beheitiko aldean dagoen etxea’.

Etxarri

- B.F. Echarri.- Eche - barri (casas nuevas). Etxe - arri (¿casas de piedra?).
- **Oharra:** K. Mitxelenak, inolako zalantzarik gabe, lehenbiziko aukeraren alde egiten du, hau da, *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *barri*, *etxabarri* alegia, > *etxarri* bilakatua haplogogiaz (ikus *Echabarri* sarrera). Iker-tzaile errenteriarrek, gainera, *barri*-ren aukera erabat baztertzen du.

Etxarte

- B.F. Echarte.- Eche - arte. Entre casas.
- **Oharra:** *etxe* > *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *arte* ‘bitartea’; beraz, ‘etxeen arteko espazioa’.

Etxauri

- B.F. Echaui.- Ach, aitz - uri ? ¿Pueblo de la peña?
- **Oharra:** izenaren lehenbiziko osagaia *etxe* dela ematen du, *etxa-* elkarketan hartzen duen aldaera (ez B. Fagoagak aipatzen duen *haitz* edo toponimian ezaguna den *atx-* aldaera). Bigarren osagaiari dagokionez, itxuraz, *uri* ‘hiria’ hitzari egiten diola erreferentzia badirudi ere, hagitx zalantzarikoa da, hain zuzen ere, ‘hiri’-ren erreferentzia izatekotan, eremu honetako toponimian *iri* gisa agertu beharko lukeelako, eta ez Euskal Herriaren mendebaldeko toponimian ohikoa den *uri*.

Etxebeltz

- B.F. Echebelz.- Eche - belz. Casa negra.
- **Oharra:** *etxe* + *beltz*, hots, kolore beltza adierazten duen adjektiboa, B. Fagoagaren sortetxearen izena, hain zuzen ere, *Etxebeltzea* da. Hortik bertakoei paratzen zaien *Etxebeltz* izendapena, deitura ere bilakatu dena. Ikus *Etxebeltz* sarrera.

Etxeberea

- B.F. Echeberea.- Eche - bere - a. Casa de la parte inferior.
- **Oharra:** *etxe + bebere* > *be* bihurtua + *-a* artikulua, hau da, ‘etxearen beheko aldean dagoena’, ez B. Fagoagak uste izan zuen ‘beherean dagoen etxea’.

Etxeberria

- B.F. Echeberria.- Eche - berri - a. La casa nueva.
- **Oharra:** *etxe + berri* adjektiboa + *-a* artikulua. Ikus *Echabarri* sarrera.

Etxebertz

- B.F. Echeberz.- Eche - berze (otra). Casa otra, accesoria, nueva.
- **Oharra:** *etxe + bertze* ‘besteá’ hots, ‘etxe nagusiaren menpeko den bigarren etxe bat’ > *Etxebertzea*, alegia. Hortik bertakoei paratzen zaien *Etxebertz* izendapena, deitura ere bilakatu dena. Ikus *Etxebeltz* sarrera.

Etxebeste

- B.F. Echebeste.- Eche - beste.
- **Oharra:** *etxe + beste*. Ikus *Etxebertz* sarrera.

Etxegarai

- B.F. Echegaray.- Casa situada en la parte superior.
- **Oharra:** *etxe + garai* ‘altua’, hots, ‘etxe altua’ edo ‘altuera nabaria duen etxea’; ez, ordea, goiko aldean dagoen etxea.

Etxegoien

- B.F. Echegoyen.- Casa de la parte más alta.
- **Oharra:** *etxe + goien* ‘goitikoa’, ‘toki altuan dagoen etxea’ alegia.

etxeko jaun

- B.F. Echeco jauna.- El señor de la casa.
- **Oharra:** *etxeko jaun* edo *etxejaun* ‘etxearen buru den gizona, gehienetan familiako aita’.

etxekoandre

- B.F. Echeco andrea.- Eche - co - andre - a. La señora de la casa.
- **Oharra:** *etxekoandre* ‘etxea zuzentzen duen emakumea, gehienetan familiako ama’.

Etxenagusia

- B.F. Echenagusia.- Eche - nagusi (jefe, principal). La casa principal.
- **Oharra:** *etxe* + *nagusi* ‘(garrantziaren arabera) lehena dena’ + *-a* artikulua.

Etxenike

- B.F. Echenique.- Eche - nique? ¿?
- **Oharra:** ikus *Etxenikerena* sarrerako oharrean emandako azalpena.

Etxenikerena

- B.F. Echeniquerena.- Echenique - rena. La de Echenique.
- **Oharra:** Baztanen batez ere, nahiko ezagunak dira *Etxenikerena* eta horretatik bilakatu diren *Etxenikenea* eta *Etxenikea* etxe-izenak. Lehenbiziko osagaia *etxe* da; bigarrenari dagokionez, erran izan da *-ika* edo *-ik(b)e* ‘malda’ edo ‘aldapa handia’ adierazten duen atzizkia izaten ahal dela, baina ikertzaile adituen artean, oraingoz behintzat, nahiko ilun ikusten den kontua da. (Ikus *ika* sarrera). Amaierako osagaia *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia da. *Etxenike*, berriz, aipatutako etxe horietakoren batean sortu edo bizi (izan) direnei eman ohi zaien izendapena da, deitura ere bilakatu dena.

Etxerri

- B.F. Echerri.- Eche - berri. Casa nueva.
- **Oharra:** *etxe* + *berri* adjektiboa > *etxerri* bilakatu haplologiagatik. (Ikus *Etxarri* sarrera).

Etxesuri Ikus Etxexuri**Etxeto**

- B.F. Echeto.- Eche - to. Casa pequeña.
- **Oharra:** *etxe* + *-to* atzizki txikigarria, ‘etxe txikia’ beraz. *Etxetoa* izeneko oikonimoak ezagunak dira, bertzeak bertze, Baztango zenbait herritan, eta *Etxeto* bertan sortu edo bizi (izan) direnei eman ohi zaien izendapena, deitura gisa ere ezaguna dena.

Etxetxipia

- B.F. Echechipia.- Casa pequeña.
- **Oharra:** *etxe* + *txipi* ‘txikia’ + *-a* artikulua.

Etxexuri

- B.F. Ehexuri, Echesuri.- Eche - zuri. Casa blanca.
- **Oharra:** *etxe* + *zuri*, kolore zuria adierazten duen adjektiboaren *xuri* aldaera hipokoristikoa; *suri* erdararen eraginez sortutako aldaera da (*Xurio* > *Surio*, *Zokoa* > *Sokoa* eta abar bezala).

Etxezarreta

- B.F. Echezarreta.- Eche - zar - eta. Sitio de casas viejas.
- **Oharra:** *etxe* + *zabar* adjektiboa ‘aspaldikoa’, ‘lehenagokoa’ > *zar* bilakatua + *-eta* toki atzizkia, ‘etxe zaharra dagoen tokia’.

euli

- B.F. Uli.- Mosca.
- **Oharra:** *euli* ‘aho xurgatzailea eta bi hego garden dituen intsektua, udan, pertsonak eta abereak bizi diren lekuetan ugaria dena (*Musca domestica*, etab.)’; zenbait tokitan, Baztanen eta Malerrekan erraterako, aferesiagatik sortutako *uli* aldaera erabiltzen da.

Eunate

- B.F. Eunate.- Eun (cien) - ate (puerta). ¿Cien puertas?
- **Oharra:** J.M. Jimeno Juríoren azterketen arabera, XII. mendean geroztik dokumentatzen den Izarbeibarko eliza horren izena *Onate* omen zen, geroago *Unate* bilakatua. Segur aski, *ona* adjektiboa, antroponimo bihurtua, izanen da oinarritzko erreferentzia eta toponimoaren lehenbiziko osagaia; bigarrena, berriz, *ate* ‘ataka’, ‘pasabidea’. Gainera, Artaxoako aztertzaileak dioenez, XX. mendean hasi zitzaion *Eunate* deitzen, uste oker batean oinarrituta, alegia, ‘ehun ate’ erran nahiko zuelakoan. Beraz, *Eunate* herri etimologiaz sortutako izendapen modernoa da.

Euskal Herria

- B.F. Euscalerria.- Euskal (vasco) - erri - a. El pueblo vasco.
- **Oharra:** *euskal* + *herri* + *-a* artikulua ‘euskararen herria’, hots, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa izeneko lurraldeek osatzen duten Euskal Herria.

euskal jai

- B.F. Euscaljai.- Euskal (vasco) - jai (fiesta, festejo). Festejo vasco.

- **Oharra:** *euskal* ‘*euskara* izenak hitz-elkarketan hartzen duen era’ + *jai* ‘zerbait ospatzeko egiten den ekitaldi eta josteta’.

euskaldun

- **B.F.** Euscalduna, Escualduna.- Vascongado. Euskera (el idioma vasco) - dun (el que tiene). El que tiene el euskera.
- **Oharra:** *euskara* edo *eskuara* + *duna* ‘duena’, hau da, ‘euskara duena, euskara dakiena, euskaraz egiten duena’.

Ezkerra

- **B.F.** Ezquerria.- Ezquer (mano zurda, zurdo) - a.
- **Oharra:** *ezker*, gorputzari dagokionez, ‘bihotza dagoen aldea’ gehienetan, *eskuin*-aren antonimo gisa, ezkerreko eskua adierazteko erabiltzen dena, + *-a* artikulua.

Ezkerrena

- **B.F.** Ezquerrena.- Ezquer - en - a. La del zurdo.
- **Oharra:** *ezker* (ikus *Ezkerra* sarrera) + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, alegia, ‘*ezker* izengoitizat duen pertsonaren etxea’.

Ezkiaga

- **B.F.** Ezquiaga.- Ezqui - aga. Sitio de tilos.
- **Oharra:** *ezki* (ikus *Ezkieta* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia.

Ezkibel Ikus Aizkibel

Ezkieta

- **B.F.** Ezquieta.- Ezqui (tilo, álamo, chopo) - eta. Sitio de tilos, etc.
- **Oharra:** *ezki* ‘zuhaitz garaia eta adaburu-biribila, hosto zabalak eta horzdu-nak, eta lore usaindunak dituen (*Tilia*)’ + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, hots, ‘ezki aunitz dagoen tokia’.

ezkur

- **B.F.** Ezcurra.- Bellota, árbol (arcaico).
- **Oharra:** *ezkur* ‘haritzaren, artearen eta kideko zuhaitzen fruitua’. *-a* artikulua-ekin, *Ezkurra*, herri izen nahiz deitura ezaguna da.

Ezkurdia

- B.F. Ezkurdia.- Ezcurra - di - a. Sitio de árboles o de bellotas.
- **Oharra:** *ezkur* (ikus *ezkur* sarrera) + *-di* atzizki multzokaria + *-a* artikulua, hau da, ‘ezkur anitz dagoen tokia’.

Ezkurra Ikus ezkur**ezpata dantza**

- B.F. Ezpatadanza.- Ezpata - danza. La danza de las espadas.
- **Oharra:** *ezpata dantza* ‘ezpatarekin dantzatzen den euskal dantza’.

Ezpeldi

- B.F. Ezpeldi, Ezpeldoi.- Ezpel (boj) - doi, di. Bojeral.
- **Oharra:** *ezpel* ‘zuhaixka hosto-iraunkorra, eskulangintzan erabiltzen den zur gogor eta trinkoa duena (*Buxus sempervirens*)’ + *-doi* atzizki multzokaria, edo *-di* haren aldaera; beraz, *Ezpeldi* eta *Ezpeldoi* ‘ezpel ugariko tokia’.

Ezpeldoi Ikus Ezpeldi**Ezpeleta**

- B.F. Ezpeleta. Ver Ezpeldoi.
- **Oharra:** *ezpel* (ikus *Ezpeldi* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘ezpel tokia’ alegia.

Ezpelosin

- B.F. Ezpelosin, Espelosin.- Ezpel - osin (pozo, sima, barranco). Barranco de bojes.
- **Oharra:** *ezpel* (ikus *Ezpeldi* sarrera) + *osin* ‘uraren eraginez sortutako sakontasun handia’, ‘leizea’, ‘amildegia’. Gaztelaniak *-zp-* > *-sp-* bere ahoskerara egokitzearen ondorioa da *Espelosin* aldaera, batik bat abizenetan finkatu dena.

Ezponda

- B.F. Ezponda.- Ezpondón, ribazo.
- **Oharra:** *ezponda* ‘aldapan dagoen lurzatia, bereziki, harresi baten modura moldatutakoa, lurrak beherantz lerra ez daitezen’.

Ezpondaburu

- B.F. Ezpondaburu.- Parte superior del ribazo.

- **Oharra:** *ezponda* (ikus *Ezponda* sarrera) + *buru* ‘goia’, bai eta ‘bukaera’ ere; hortaz, ‘ezpondaren goiko aldea’ edo ‘ezpondaren akabera’.

ezten

- B.F. Ezten.- Aguijón. “El abia les pica a los bueyes con el ezten”.
- **Oharra:** *ezten* ‘zenbait intsektuk sabelaldearen muturrean duten arantza modukoa’.

Ezurmendia

- B.F. Ezurmendia.- Ezur (hueso) - mendi - a. Monte de huesos.
- **Oharra:** *hezur* eta *mendi* hitz arruntak + *-a* artikulua dira bere osagaiak; beraz, hezurak aurkitzen diren mendi tokiari ematen zaion izendapena, deitura gisa ere ezaguna dena. Ikus *Asurmendi* sarrera.

Fagoaga

- B.F. Fagoaga.- Fago, bago, pago (haya) - aga. Sitio de hayas.
- **Oharra:** *pago* (bai eta *fago* eta *bago* aldaerak ere) ‘basoko zuhaitz handia, enborra zuzena, azala leuna eta iluna, hostoak erorkorrak eta zura zuria, arina eta sendoa dituen (*Fagus sylvatica*)’ + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘pago tokia’, alegia. Ikus *Pagoaga* sarrera.

fardel

- B.F. Fardel.- Mal vestido, descuidado.
- **Oharra:** *fardel* ‘zapi edo zatar batez biltzen diren gauzen multzo edo bilduma, bereziki bidaldirako eramaten direnena’, bai eta ‘baldarki janzen dena, arlotea’ ere, *mutil fardela* erraterako.

Fuenterrabía Ikus **Hondarribia**

furrunda

- B.F. Furrundiar.- Furrunda (ruido). Meter ruido.
- **Oharra:** *furrunda* ‘burrumba’, ‘zarata handia’; gaztelaniak izen honetatik sortutakoa da J.M. Iribarrenek Nafarroako zenbait herritan jasotako “furrundiar” aditza.

furrundiar Ikus **furrunda**

gabon

- B.F. Gabon, gabona.- gau (noche) - on - a. Buenas noches. Noche Buena.

- **Oharra:** *gau on* = *gabon* ‘gauaz agur egiteko erabiltzen den esapidea’ da. *Gabonak* pluralean eta letra larriz ‘Eguberriak’ dira Hego Euskal Herrian batik bat.

Gaintza

- **B.F. Gainza.**- Gain (cima) - za. Sitio de cimas o altozano.
- **Oharra:** *gain* ‘gailurra’ edo ‘goian dagoen tokia’ + ugaritasuna edo tokia adierazten duen *-tza* atzizkia; beraz, ‘gailur batean dagoen tokia edota dermioa’.

Galar

- **B.F. Galar.**- Gari (trigo) - lar, larre (campo, monte). Campo triguero (en el escudo de la Cendea hay una espiga).
- **Oharra:** K. Mitxelenak dioenez, *galar* ‘zuhaitzean berean lehortutako egurra’ da, hots, ‘zuhaitz iharra’. Horren arabera, deigarria da B. Fagoagak *Galar* eta *Galartza* toponimoak *gari* izenean oinarritu izana eta soilik *Galarregi* lotzea Mitxelenaren iritziarekin.

Galarregi

- **B.F. Galarregui.**- Galar (leño seco, carbón de castaño) - egui. Ladera de...
- **Oharra:** *galar* (ikus *Galar* sarrera) + *-egi* toki atzizkia edo *hegi* ‘mendi hegala’, hots, ‘zuhaitz iharrak dauden tokia’ edo ‘zuhaitz iharrak dauden mendi hegala’.

Galarreta

- **B.F. Galarreta.**- Galar - eta. Ver Galarregi. Sitio de...
- **Oharra:** *galar* (ikus *Galar* sarrera) + *-eta* toki atzizkia.

Galartza

- **B.F. Galarza.** Ver Galarregi. (Estos toponímicos podrían venir de *gari* ‘trigo’).
- **Oharra:** *galar* (ikus *Galar* sarrera) + *-tza* ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘zuhaitz ihar anitz aurkitzen diren tokia’. Alde batera uztekoa da B. Fagoagak uste izan zuen *gari* ‘ogia’ hitzarekiko lotura.

galbizar

- **B.F. Galpizarres, Galpizar.**- Gari - bizar (barba). Barbas del trigo.
- **Oharra:** *gari* ‘ogia’ + *bizar* ‘gari landareen buruan sortzen diren izpiak’ > *galbizar* bilakatua *-r-* eta *-l-* kontsonanteen txandaketagatik eta *-i-* bokalen erredukzioagatik, ‘gariaren bizarra’. *Galpizarres* gaztelaniak bereganatutako forma da, amaieran *-es* plurala gehituz.

Gallegorena

- B.F. Gallegorena.- Gallego - rena. La del gallego. Callorena, Callonea (ejemplo de contracción en el euskera).
- **Oharra:** *gallego* gaztelaniazko forma da. Hortik *Gallegorena*, hots, *gallego* ‘gallego’ + *-rena* euskaraz jabetza adierazten duen atzizkia, ‘galiziarraren etxea’ alegia. *Kalloreña* eta *Kallonea* aldaeretan bilakaera hauek ageri dira: alde bate-tik, hasierako *g-* kontsonante herskaria *k-* biguna bihurtu izana, eta, bertze-tik, haplogogiaren eraginez sortutako murrizketak.

galpizar Ikus **galbizar***galpizarres* Ikus **galbizar****Gamio**

- B.F. Gamio.- Camio (camino).
- **Oharra:** *kamio* ‘bidea’ eta *Kamioa* etxe izen ezaguna ere bada, eta *Gamio* aldaera arrunta, bereziki Baztango etxe eta borda izenetan. Horietakoren batean sortu edo bizi (izan) direnei jarri ohi zaie *Gamio* izendapena, deitura gisa ere ezaguna dena.

ganbara

- B.F. Gambarote.- Gambarara (cuarto, aposento, desván).
- **Oharra:** *ganbara* ‘teilatupeko solairua’, ‘sabaia’. Baztanen eta Ipar Euskal Herrian ‘gela’ edo ‘logela’ da.

ganbela

- B.F. Gambella.- Gamella (artesa, pesebre).
- **Oharra:** *ganbela* ‘etxe abereei janaria jartzen zaien aska’.

Ganboa

- B.F. Gamboa.- Manantial de aguas medicinales. “Ego sum Gamboa”.
- **Oharra:** toponimian badira ur sendagarriei (*ganbo urari* edo *kanbo urari*) erreferentzia egiten dieten hainbat lekukotasun. Horietako bat da Lapurdiko *Kanbo* (*Cambo-les-Bains*) herriaren izena.

gantxigor

- B.F. Chanchigorri, Galchigor.- Ganz (manteca) - xigor (tostado). Chicharrón, residuo de la grasa del cerdo.

- **Oharra:** *gantxigor* ‘txerriaren gantza frijitu ondoren gelditzen diren hondakin txigortuak’; beraz, *gantz* ‘gai koipetsua’ + *txigor* ‘idortua’; *gantxigor*, bertzeak bertze, Baztanen erabiltzen den aldaera da, eta *txantxigorri* J.M. Iribarrenek Nafarroako zenbait herritan jaso.

Garaikotxea

- **B.F.** Garaicochea.- Garai - co - eche - a. La casa de arriba.
- **Oharra:** *garai* ‘altua’ + *-ko* leku genitiboa + *etxea*, hau da, ‘toki altuan dagoen etxea’.

Garaioa

- **B.F.** Garayoa.- Garai - oa, co - a. El de arriba, pueblo alto.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *garai* ‘altua’ da, eta bigarrena, ikertzaile aditu batzuen arabera, *-oa* toki atzizkia agian, baina ziurtasun handirik gabe.

Garate

- **B.F.** Garate.- Garo (helecho) - te. ¿Sitio de helechos?. O Gara (elevación, altura) - te. ¿Sitio elevado?
- **Oharra:** *gara* ‘altua’ + *ate* ‘ataka’, ‘pasabidea’; beraz, ‘goian dagoen atea’, ‘mendiko pasabidea’ edo ‘ataka’. Baztertzekoa da, B. Fagoagaren *garo-* edo *iratz-*arekiko erreferentzia.

Garbalena

- **B.F.** Garbalena.- Garbal (calvo, despejado, esclarecido) - ena. La de...
- **Oharra:** *garbal* ‘soila’ + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia; horren arabera, ‘soila izengoitizat duen pertsonaren etxea’.

Garbizu

- **B.F.** Garbizu.- Garbi (limpio) - zu. Sitio limpio.
- **Oharra:** *garbi* inolako zikintasunik ez duenari dagokion adjektiboa + *-zu* toki ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘toki garbia’. Horretatik ateratako *Garbiso* forma antroponimo gisa ere erabili izan da.

Garcés Ikus Gartzia

gardacho

- **B.F.** Gardacho.- Lagarto.
- **Oharra:** *gardacho* ‘musker’ mota bati Nafarroan eta Araban ematen zaion izena da.

garikota

- B.F. Garicota.- Colleja Bot. Raíces de campo inculto de trigo.
- **Oharra:** J.M. Iribarrenek dioenez, Nafarroako zenbait tokitan, hala nola Iruñerrian eta Añorben, galsoroetako ezpondetan ateratzen diren belar-lan-dareei ematen zaien izena da *garikota*.

Garinoain

- B.F. Garinoain.- Gari (trigo) - no - gain. ¿Encima del campo triguero?
- **Oharra:** K. Mitxelenak aditzera ematen duenez, *Galindo* izenaren aldaera da *Garindo* edo *Garino* (-l- eta -r- kontsonanteak bokalen artean doazenean ohiko duten txandaketaren ondorioz); bigarren osagaia -ain atzizkia da, antroponimoei lotua doanean jabetza adierazten duena, beraz, ‘*Garino* izeneko pertsonaren dermioa edo tokia’ (ikus lan honetan ageri diren *Aizoain*, *Andoain*, *Belascoain*. . . sarrerak). Alde batera uztekoa da, beraz, B. Fagoagak toponimo honi ematen dion *gari* hitzarekiko lotura.

Garisoain

- B.F. Garisoain.- Gari (trigo) - so - zu - gain. ¿Encima del campo triguero?
- **Oharra:** ikus *Garinoain* sarrera. Hark bezala, *Garisoain* izenak ere pertsona baten dermioa edo tokia erran nahiko duela dirudi, nahiz eta ez den argi ikusten *Gariso* zein izenaren erreferentzia izan daitekeen. Dena dela, kasu honetan ere ematen du *gari* hitzarekin zerikusirik ez duen toponimoa dela.

Gartzia

- B.F. Garcés, García.- ¿de Artza (oso)? Arza, Garza. . .
- **Oharra:** Erdi Aroko *Garçea* izenetik eratorritako pertsona izena zein deitura da *Gartzia*. Izen honen euskal patronimikoa da *Gartzeitz* eta gaztelaniazkoa *Garcés*.

Gartziandia

- B.F. Garciandia.- Garzia - andia. García el grande.
- **Oharra:** *Gartzia* pertsona izena + *handi* adjektiboa + -a artikulua, ‘Gartzia handia’.

Gartziarena

- B.F. Garciarena.- La de García.
- **Oharra:** *Gartzia* pertsona izena + -rena jabetza atzizkia, ‘Gartziaren etxea’.

Gartzitorena

- B.F. Garzitorena.- Garzi - to - ren - a. La de García pequeño.
- **Oharra:** *Gartzia* pertsona izena + *-to* atzizki txikigarria + *-rena* jabetza atzizkia, ‘Gartzia txikiaren (edo semearen) etxea’.

Gastearena

- B.F. Gastearena.- Gazte (joven) - arena. La del joven.
- **Oharra:** hasierako osagaia *Gastea* da, Erdi Aroan dokumentatzen den pertsona izena, itxuraz *Gartzea*-ren aldaera eta *gaztea* euskal izenondo ezagunarekin lotua dagoena; amaierako osagaia *-rena* jabetza atzizkia da, hau da, ‘*Gastea* izeneko pertsonaren etxea’.

Gatzaga

- B.F. Gatzaga.- Gatz (sal) - aga. Sitio de sal. Salinas.
- **Oharra:** *gatz* ‘gai zuria, urkorra, zapore bizikoa, itsasoko uretan edo lurrazalean aurkitzen dena, eta janariak ontzeko eta usteldu gabe atxikitzeko erabiltzen dena’ + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘gatz tokia’ alegia.

Gatzarri

- B.F. Gatzarri.- Gatz - arri. Piedra de sal.
- **Oharra:** *gatzarri* ‘animaliei gatz jartzen zaien harria’. *Gatzarri* eta *Gatzarrieta* hagitx toponimo arruntak dira Nafarroan.

Gaztanbide

- B.F. Gaztambide.- Gaztañ, gaztain (castaño, castaña) - bide. Camino del castañal.
- **Oharra:** *gaztaina* ‘gaztainondoak’ > *gazan-* elkarketan hartzen duen aldaera + *bide* izen arrunta, ‘gaztainondoak dauden tokira doan bidea’.

Gaztañaga

- B.F. Gaztañaga. Ver Gaztambide.
- **Oharra:** *gaztaina* ‘gaztainondoak’ > *gaztañ-* (*-in-* > *-ñ-* palatalizazioaren ondorioz) elkarketan hartzen duen aldaera + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia; hortaz, ‘gaztainondoak dauden tokia’.

Gaztelu

- B.F. Gaztelu.- Castillo.

- **Oharra:** *gatzelu* ‘harresiz, murre gotorrez, dorrez eta kidekoen babestu eta sendotutako eraikina edo eraikin multzoa’.

Gatzelumendi

- B.F. Gatzelumendi.- Monte del castillo.
- **Oharra:** *gatzelu* (ikus *Gatzelu* sarrera) + *mendi* izen arrunta, ‘gatzelua edo gatzeluak dituen mendia’.

Gatzelupe

- B.F. Gatzelupe.- Gatzelu - pe. Debajo del castillo.
- **Oharra:** *gatzelu* (ikus *Gatzelu* sarrera) + *bebe* ‘beheitikoa’, ‘zola’ > *pe* bilakatua; beraz, ‘gatzeluaren beheitikoa aldea’ edo ‘gatzeluaren zola’.

Gatzeluzar

- B.F. Gatzeluzar.- Castillo viejo.
- **Oharra:** *gatzelu* (ikus *Gatzelu* sarrera) + *zabar* > *zar* ‘aspaldikoa’, ‘lehenagokoa’.

Giltxaurdi

- B.F. Giltxaurdi.- Giltchaur, inchaur (nuez, nogal) - di. Sitio de nogales.
- **Oharra:** *intxaur* ‘intxaurrondo’ hitzaren aldaera da *giltxaur*, Baztanen batik bat arrunta dena, + *-di* atzizki multzokaria, hau da, ‘intxaurrondo anitz dagoen tokia’.

Goenaga Ikus Goienaga

Gogortza

- B.F. Gogortza.- Gogor (duro) - za. ¿Sitio duro?
- **Oharra:** *gogor* ‘irtoa’ adjektibo arrunta + *-tza* ugaritasunezko atzizkia ‘ir-motasun handiko (lurra, tokia)’. Ematen duenez, ageri ez den izenen bati (*lur*, *toki*, erraterako) erreferentzia egiten dion toponimoa da. Ikus *Beratzza*, *Guridi* sarrerak.

Goia

- B.F. Goia.- Goy - a. El alto, la casa alta.
- **Oharra:** *goi* ‘goitikoa’, ‘goiko aldea’ + *-a* artikulua, ‘goiko aldean dagoena, etxea erregulariki’. Bazen, erraterako, XVI. mendeaz geroztik, behinik behin, *Goia* izeneko etxea Urdazubin.

Goiburu

- B.F. Goiburu.- Goi - buru. Parte superior de lo alto, del monte.
- **Oharra:** *goi* ‘goitikoa’, ‘goiko aldea’ + *buru* ‘amaiera’. Toponimoari dagokionez, ‘goiko aldearen bukaera’ erran nahi du, *goiburu* hitz arrunta ere ezaguna baita, helburuaren edota lemaren ordain gisa erabiltzen dena.

Goiena

- B.F. Goyena.- Goi - en - a. La más alta.
- **Oharra:** *goien* ‘garaiena’ + *-a* artikulua, ‘alde garaienean dagoena’.

Goienaga

- B.F. Goyenaga, Goenaga.- Situada en lo más alto.
- **Oharra:** *goien* (ikus *Goiena* sarrera) edo *goen* aldaera (*Goenaga* formaren kasuan) + *-aga* toki atzizkia; hortaz, *Goienaga* nahiz *Goenaga*, ‘alde garaienean dagoena’, etxea normalean.

Goieneta

- B.F. Goyeneta.- Situada en lo más alto.
- **Oharra:** *goien* (ikus *Goiena* sarrera) + *-eta* toki atzizkia, ‘alde altuenean dagoena’.

Goienetxe

- B.F. Goyeneche.- La casa de más arriba.
- **Oharra:** *goien* (ikus *Goiena* sarrera) + *etxe* ‘alde altuenean dagoen etxea’. Normalena da *Goienetxea* etxean sortu edo bizi (*izan*) direnei jarritako izendape-na izatea *Goienetxe*, deitura gisa ere hain ezaguna dena.

Goikoa

- B.F. Goicoa.- Goi - co - a. La de lo alto.
- **Oharra:** *goi* ‘goitikoa’, ‘goiko aldea’ + *-ko* toki genitiboa + *-a* artikulua, ‘goiko aldean dagoena’, auzoa edo etxea normalean, herri anitzetan bai baitira *Goikoa* izeneko etxeak, bai eta abizenak ere.

Goikoetxea

- B.F. Goicoechea.- Goi - co - eche - a. La casa de lo alto.
- **Oharra:** ikus *Goikoa* sarrera, + *etxea* ‘goiko aldean dagoen etxea’.

Goldaratzena

- B.F. Goldarazena.- Goldaraz - ena. La de Goldaraz.

- **Oharra:** *Goldaratz* Nafarroako Imotz ibarreko herri izena, eta, herri izen anitz bezala, familiako deitura ere badena, + *-ena* jabetza atzizkia; beraz, ‘*Goldaratz* deitura duen pertsonaren etxea’.

golde

- B.F. Golde.- Arado antiguo.
- **Oharra:** *golde* ‘lurra iraultzeko lanabesa, burdinazko pieza zorrotz bat edo gehiago dituen eta abereek edo traktore batek herrestan eramaten dutena’.

Goñi

- B.F. Goñi.- Goñ, goy, goi, - iri. Pueblo de lo alto (Goi ni. En alto yo).
- **Oharra:** dokumentazio zaharrenean, XIII. mendeaz geroztikoan behinik behin, bi modutara ageri da Nafarroako ibar ezagun honen izena, *Goñerri* eta *Goñi*, bai eta geroago *Goñibar* ere. Ikertzaile adituek, oraino behintzat, ez dute batere argi ikusi izendapen horren hasierako *Goñ-* osagaiaren etimologia, eta erabat baztertzekotzat jo dute herri etimologiaz asmatutako *Goi ni*, B. Fagoagak ere egokitzen ematen duena.

Gorospe

- B.F. Gorospe.- Gorosti (acebo) - pe. Acebal.
- **Oharra:** itxuraz *gorosti*-rekin (ikus *Gorostiaga* sarrera) zerikusia duela ematen badu ere, K. Mitxelenaren iritziz, ez da alde batera uztekoa *goros-* hori *gurutz* hitzaren erreferentzia izatea (okzitanierako *crotz* formatik > **gorotz* > *goros-* bilakatu izana, alegia) + *behe* ‘beheitikoa’ > *pe* bilakatu. Horren arabera, ‘gurutzearen behea edo zola’ izanen litzateke.

Gorostiaga

- B.F. Gorostiaga.- Gorosti (acebo) - aga. Acebal.
- **Oharra:** *gorosti* ‘zur gogorreko zuhaitz edo zuhaixka, ertz arantzaaduneko hosto distiratsu eta iraunkorrak, eta fruitu txiki biribil gorriak dituen (*Ilex aquifolium*)’ + *-aga* toki ugartasunezko atzizkia, hau da, ‘gorosti tokia’.

Gorostidi

- B.F. Gorostidi. Ver *Gorostiaga*.
- **Oharra:** *gorosti* (ikus *Gorostiaga* sarrera) + *-di* atzizki multzokaria, ‘gorosti ugariko tokia’.

Gorostieta

- B.F. Gorostieta. Ver Gorostiaga.
- **Oharra:** *gorosti* (ikus *Gorostiaga* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia.

Gorostitza

- B.F. Gorostiza. Ver Gorostiaga.
- **Oharra:** *gorosti* (ikus *Gorostiaga* sarrera) + *-tza* ugaritasunezko atzizkia.

Gorostizu

- B.F. Gorostizu. Ver Gorostiaga.
- **Oharra:** *gorosti* (ikus *Gorostiaga* sarrera) + *-zu* ugaritasunezko atzizkia.

Gorria

- B.F. Gorria.- Gorri (rojo) - a. El rojo.
- **Oharra:** *gorri*, kolore gorria adierazten duen adjektiboa da, nahiz eta toponimian toki soil edota landarerek gabekoaren ordain gisa ere erabiltzen den (ikus *Aizkorri* sarrera) + *-a* artikulua.

Gorriti

- B.F. Gorriti.- Gorri (rojo) - ti. ¿El sitio rojo?
- **Oharra:** toponimo honen osagaiak, itxuraz, *gorri*, kolore gorria adierazten duen adjektiboa + *-ti* atzizki multzokaria direla ematen badu ere, hagitx zalantzakotzat jotzen dute etimologia hori zenbait ikertzaile adituk, horien artean K. Mitxelenak.

Gorritxo

- B.F. Gorricho.- Gorri (rojo) - cho. El rojillo.
- **Oharra:** *gorri*, hau da, kolore gorriari dagokion adjektiboa + *-txo* atzizki txikigarria.

Gorritz

- B.F. Gorriz. Ver Gorria.
- **Oharra:** osagaiak *gorri*, hots, kolore gorria adierazten duen adjektiboa + *-tz* ugaritasunezko atzizkia direla ematen du, baina ez da argi ikusten *gorri* horrek zehazki zeri egiten dion erreferentzia, kolore gorriari, landarerek gabeko toki bati ala, beharbada, antroponimoren bati. Azkeneko hori izatekotan, *-tz* atzizkia latinezko genitibotik sortutakoa litzateke, patronimikoa

alegia, gisa horretako zenbait antroponimotan gertatzen den bezala, hala nola *Marti* > *Martitz*, *Peru* > *Peritz*, *Gartzea* > *Gartzeitz* eta abar.

Gortari

- B.F. Gortari.- Gorta (sel, ejido, cuadra) - iri. La casa del ejido, del sel.
- **Oharra:** *gorta* ‘ukuilua’ + *-iri* zerbaiten ondoan edo zerbaitetik hurbil dagoela adierazten duen atzizkia, *gortairi* > *gortari* bilakatua bokalen disimilazioagatik, ‘kortaren edo ukuiluaren ondoan dagoen tokia’, *Elizari* ‘elizaren ondoan’, *Zubiri* ‘zubiaren ondoan’, *Lastiri* ‘erreka txikiaren ondoan’, *Mugairi* ‘mugaren ondoan’ eta abar diren bezala. Hori horrela, ez dute elkarrekin deus ikustekorik *-iri* atzizkiak eta *biri* ‘herri’ edota ‘etxe’ erranahia duen izenak. Horregatik, *Gortari* ‘kortaren edo ukuiluaren ondoan dagoen tokia’ da, eta ez B. Fagoagak uste izan zuen ‘kortaren edo ukuiluaren etxea’.

goxo

- B.F. Goxo.- Dulce, sabroso.
- **Oharra:** *goxo* ‘gozoa’, ‘gozotasuna’, ‘goxokia’; *gozo* hitzaren aldaera adierazkorra da.

Guesalaz

- B.F. Guesalaz.- Guezal (salitre, sal) - lats (río, arroyo). Río de sal. O Guezal - az. Sitio de salitre.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *gesal* ‘ur gazia’ edo *gezal* aldaera da; amaierakoa, *lats* ‘erreka txikia’ > *latz* bilakatua izan daiteke, bai eta *-tze* ugaritasunezko atzizkiaren *-tz* aldaera ere; hortaz, ‘ur gazia daraman erreka’ edo ‘ur gazia duen tokia’. Ibarren izendapen ofiziala *Guesálaz* / *Gesalatz* da.

Gurbitzu

- B.F. Gurbitzu.- Gurbi (acerolillo, cierta planta botánica) - zu. Sitio de...
- **Oharra:** *gurbitz* ‘hosto luzangak eta lore zuria dituen zuhaixka, marrubiarren antzeko fruituak, jateko onak, ematen dituenena (*Arbutus unedo*)’ + *-zu* ugaritasunezko atzizkia.

Guridi

- B.F. Guridi.- Guri (blando) - di. ¿Sitio blando?
- **Oharra:** M. Gorrotategik eskura jarritako datuen arabera, *Guridi* deitura tradizio luzekoa da, XVI. mendean geroztik, behinik behin, dokumentatzen

baita zenbait herritan, hala nola Legazpin, Deban, Seguran, Arrasaten... Horretaz gain, Legazpiko Brinkola auzoan gaur den egunean ere ezaguna da *Guriditegi* etxe-izena. Itxuraren arabera ematen du *guri* 'leuna', 'biguna' adjektiboaz + *-di* atzizki multzokariaz osatutako izena dela, baina, segur aski, ageri ez den izenen bati (*lur*, *toki*, erraterako) erreferentzia egiten dion toponimoa izanen da. Ikus *Beratza*, *Gogortza* sarrerak.

Gurpide

- B.F. Gurpide.- Egur (leña) - bide. Camino de la leña. O Gurdi (carro) - bide. ¿Camino de carro?
- Oharra: B. Fagoagak zalantzan ematen duen bigarren aukera da, hain zuzen ere, izen honi dagokiona, hau da, *gurdi* 'nekazaritza-orga, endaitza eta zurezko gurpil beteak dituen' + *bide* izen arrunta > *gur dibide* alegia, *gurpide* bilakatua, batetik, *-di-* silabaren galera gertatu delako haplologiagatik eta, bertzetik, *r*-ren ondotik izandako *bide* > *pide* aldaketagatik.

Gurutzarri

- B.F. Gurucharri.- Gurutz - arri. ¿Piedra de cruz? ¿Calvario?
- Oharra: *gurutze* (ikus *Gurutzeaga* sarrera) > *gurutz* forma txikigarri edo hipokoristikoa + *barri*, hots, 'bidegurutzeko edo bidebanatzeko tokiko harria'.

Gurutxeta

- B.F. Gurucheta.- Gurutz - eta. Sitio de cruces.
- Oharra: *gurutz* (ikus *Gurutzarri* sarrera) + *-eta* toki atzizkia, 'gurutze tokia' edo 'elkarguneko tokia'.

gurutze bidea

- B.F. Gurutzbidea.- Via Crucis.
- Oharra: *gurutze bide* 'Jesu Kristoren nekaldia irudikatzen duten hamalau gurutze edo irudiz seinalatutako bidea edo ibilbidea' + *-a* artikulua.

Gurutzeaga

- B.F. Gurutzeaga.- Gurutze (cruz) - aga. Sitio de cruces.
- Oharra: *gurutze* 'Jesu Kristo hil zen gurutzea edo bertze gurutzeren bat irudikatzen duen oroitari edo apaingarria' + *-aga* toki atzizkia, 'gurutze tokia' alegia (ikus *Krutxaga* sarrera). Toponimian *gurutze* hitzak 'elkargune' ere adierazten du, 'bide elkargunea' alegia. Ikus *Gurutxeta*.

gurutzezain

- B.F. Gurutzezai.- Guardián de la cruz, crucífero.
- **Oharra:** *gurutze* (ikus *Gurutzeaga* sarrera) + *zain* ‘zaintzailea’, ‘jagolea’, hots, ‘gurutzea zaintzen duen pertsona’.

gutxi

- B.F. Guchi.- Poco.
- **Oharra:** *gutxi* ‘kopuru txiki zehaztugabea adierazten duen hitza’.

habe

- B.F. Abea, abia.- Tábano, mosca maligna que espanta al ganado vacuno.
- **Oharra:** *habe*, bertzeak bertze, ‘ezpara’, ‘ezpata’ (*Tabanidae* familiako intsektua) izenen ordaina ere bada, batik bat, Ipar Euskal Herrian.

habia

- B.F. Cabias, Kabia, Kafia.- Nido.
- **Oharra:** *habia* ‘hegaztiek arrautzak erruteko, txitatzeke eta umeak hazteko egiten duten babesgunea’; *kabia*, berriz, aldaera da, bai eta Baztanen erabiltzen den *kafia* edo *kafie* ere; *cabias*, berriz, gaztelaniak bereganatu duen forma da, amaieran *-as* artikulua plurala gehituz.

haga

- B.F. Aga.- Palo largo para diversos usos.
- **Oharra:** *haga* ‘pieza zuzena, luzea eta mehea, gehienetan zurezkoa, eskuz erabil daitekeena’.

hago isilik

- B.F. Ago ixilik. Auxili.- Ago-ixilik (callando). Estáte callando.
- **Oharra:** *hago isilik* ‘pertsona batek bertze bati isilik egoteko ematen dion agindua’.

hamaiketako

- B.F. Amaiketaco.- Amaica, ameca (once) - eta (plural) - co. De las once.
- **Oharra:** *hamaiketako* ‘goizeko hamaikak aldean egiten den otordu arina’. Ikus *hamarretako*.

hamarreko

- B.F. Amarreco.- Amar (diez) - e - co. Lo de diez.

- **Oharra:** *hamarreko* ‘hamar gauzak osatutako multzoa’ eta mus karta-jokoan ‘bortz banako balio duen tantoa’.

hamarretako

- **B.F.** Amarretaco.- Amar (diez) - eta - co. Lo de las diez.
- **Oharra:** *hamarretako* ‘goizeko hamarrak aldean egiten den otordu arina’. Ikus *hamaiketako*.

harako

- **B.F.** Araco.- Ara (allá) - co. El de allá, el de marras.
- **Oharra:** *harako* ‘hura’, ‘hango hura’, ‘delakoa’ adierazten duen adjektiboa.

Haran

- **B.F.** Arana.- Aran (valle, vega, ciruela) - a. La vega.
- **Oharra:** B. Fagoagak hitz honi ematen dizkion erranahiak zehaztu beharrik dira grafiaren aldetik, hots, *baran* ‘ibarra’ri edota ‘landa’ri dagokiona da; *aran*, ordea, fruitua edo zuhaitza izendatzekoa. Deitura gisa ere ezagunak dira *Aran*, *Arana*, *Haran* eta *Harana* aldaerak.

hargin

- **B.F.** Arguin.- Arri - guin (suf. agente). El que trabaja con piedra, cantero.
- **Oharra:** *hargin* ‘eraikuntzarako harria lantzea ogibide duen pertsona’, bai eta ‘igeltseroa’ ere zenbait tokitan, Baztanen erraterako.

hartzain

- **B.F.** Aurzaya, Orzaya.- Aur (niño) - zai (guardián). El que guarda al niño, niñera.
- **Oharra:** *hartzain* ‘haurrak zaintzen dituen pertsona, bereziki lanbidez’; *orzaya* J.M. Iribarrenek Estellerrian jasotako aldaera da.

hertze min

- **B.F.** Erchemines.- Erze (intestino) - min (hiel, lengua). Lengua-intestinos, corada.
- **Oharra:** J.M. Iribarrenek Iruñerrian eta inguruko bertze ibar batzuetan bildu zuen aldaera *ercemiñes* da “intestino delgado de cordero o carnero que se emplea para hacer longanizas”. B. Fagoagak dioen *erchemines* gauza bera dela dirudi. Hala izatera, ematen du *beste mehea* edo *hertze mehea* izanen dela hitz horren jatorrizko erreferentzia, eta ez ‘behazuna’ edota ‘mingaina’.

hoberen

- B.F. Oberena.- Obe (mejor) - r - en (más) - a. La más mejor, la mejor.
- **Oharra:** *hoberen* ‘onena’ (ikus *onen* sarrera). *Oberena*, horrela idatzia (*hoberen* + *-a* artikulua, alegia), Iruñeko kirol elkarte ezagun baten izena da.

hondar

- B.F. Ondarra, ondarras.- Ondar (arena, playa, restos, último)...
- **Oharra:** egileak aipatzen duen bezala, erranahi hauek ditu *hondar* hitzak: a) ‘itsaso edo ibaien ertzean edo hondoa, eta basamortuetan ere, metatzen diren material gogor xeheen multzoa’ (harea), b) ‘jaten edo erabiltzen den zerbaitetik gelditzen den gauza’ (hondakina), c) ‘erabat hondatu edo desagertu den zerbaitetik gelditzen den gauza’ (azkena). *-as* amaiera gehituz, sortu du gaztelaniak “ondarras” hitza.

Hondarribia

- B.F. Ondarrabia. Fuenterrabía.- Ondarra - di - a. Sitio de arenas, playas...
- **Oharra:** *hondar* ‘itsaso edo ibaien ertzean edo hondoa metatzen diren material gogor xeheen multzoa’, ‘harea’ alegia, + *ibi* ‘uraren sakontasun txikiagatik, oinez pasatzen ahal den tokia’ + *-a* artikulua. Beraz, erratzuarrak ematen duen *Ondarrabia* formaren amaierako *-rrabia* erdarazko *Fuenterrabia*-ren nahasketa bertzerik ez da, eta aipatzen duen *-di* atzizkiak ez du inolako tokirik *Hondarribia* izenean. Herriaren izendapen ofiziala *Hondarribia* da.

hondartza

- B.F. Ondarza.- Sitio de arena, playa.
- **Oharra:** *hondar* (ikus *hondar* sarreraren a) atala) + *-tza* ugaritasunezko atzizkia.

hondealan

- B.F. Ondalan.- Ondo (fondo) - lan (trabajo). Labor honda.
- **Oharra:** *hondealan* ‘lurra sakon iraultzea, lurra ateraz lurzoruan zuloak eta lubakiak egitea’. B. Fagoagak dioen *ondalan* forma Azkuek eta J.M. Iribarrenek jaso zuten.

hormatxori

- B.F. Ormachori.- Orma (pared, hielo) - chori, zori (pájaro). Pájaro de paredes, gorrión.

- **Oharra:** *horma* ‘pareta, bereziki lodia’ + *txori* ‘tamaina txikiko hegazia’ > *bormatxori* ‘txolarrea’.

hozka

- B.F. Osca.- Endedura, muesca.
- **Oharra:** *hozka* ‘hozkada’. Nafarroako gaztelanian nahiko arrunta da “osca” aldaera entzutea.

Hualde Ikus Ugalde

Huarte Ikus Ugarte

hur Ikus ur

hura Ikus ur

busmear Ikus *usnatu*

ibar

- B.F. Ibarra.- El valle, la vega.
- **Oharra:** *ibar* ‘harana’. -a artikularekin, *Ibarra* toponimo nahiz deitura ezaguna da.

Ibarbia

- B.F. Ibarbia.- Ibar - be - a. Debajo de la vega, parte inferior de...
- **Oharra:** B. Fagoagak proposatzen duen bertsua dio A. Irigoienek ere, aipatzen duenean -*bi* ‘lurra’- edo ‘zola’-ren erreferentzia izaten ahal dela eta, horren arabera, *Ibarbia* ‘ibarraren lurra’ edo ‘ibarraren zola’. Pentsa liteke, bertzalde, K. Mitxelenak, galdera gisa, ohartarazten duena «Se puede preguntar si *bia* no será una adaptación del latín *via*, del cual *bide* sería un derivado» alegia, *ibar* + *via* > *Ibarbia*, edo *ibar* + *bide* + -a > *ibarbidea*, haplologiatik *Ibarbia* bilakatua.

Ibarburu

- B.F. Ibarburu.- Parte superior de la vega.
- **Oharra:** *ibar* ‘harana’ + *buru* ‘ibarraren goiko aldea’ edo ‘ibarraren bukaera, azkena’.

Ibargoiti

- B.F. Ibargoiti.- Ibar - goiti. Valle alto.
- **Oharra:** *ibar* ‘harana’ + *goiti*, ‘goiko aldean dagoen harana’. Ikus *Arangoiti* sarrera.

Ibarguren

- B.F. Ibarguren.- Ibar - guren. Límite de la vega o valle lozano.
- **Oharra:** *ibar* ‘harana’ + *guren* ‘ederra’; beraz, ‘haran ederra’. Ikus *Aranguren* sarrera.

Ibarluze

- B.F. Ibarluze.- Vega larga.
- **Oharra:** *ibar* ‘harana’ + *luze* adjektiboa ‘luzera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen harana’. Ikus *Araluze* sarrera.

Ibarra Ikus *ibar*

Ibarrola

- B.F. Ibarrola.- ¿Sitio de vegas? ¿Ferrería del valle?
- **Oharra:** *ibar* ‘harana’ + *ola* ‘artzain txabola’ nahiz ‘burdinola’; hots, ‘haranean aurkitzen den txabola’ edo ‘haranean aurkitzen den burdinola’.

Ibarrondo

- B.F. Ibarrondo.- Junto al valle o junto al río.
- **Oharra:** *ibar* ‘harana’ + *ondo* postposizioa, ‘haranaren aldamera’ alegia.

Ibarzabal

- B.F. Ibarzabal.- Vega ancha.
- **Oharra:** *ibar* ‘harana’ + *zabal* adjektiboa, hau da, ‘zabalera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen harana’.

Ibero

- B.F. Ibero.- I (agua) - bero (caliente). Agua caliente.
- **Oharra:** toponimo honetaz B. Fagoagak proposatzen duena bat dator K. Mitxelenaren iritziarekin, alegia, lehenbiziko osagaia *i-* izaten ahal dela, hau da, *ur* ‘ura’ hitzaren aldaera, eta bigarrena *bero* adjektiboa.

Idoate

- B.F. Idoate.- Idoi - te. Sitio de pozas...

- **Oharra:** *idoi* (ikus *Idoi* sarrera) + *ate* ‘atea’, ‘ataka’, hau da ‘zingirako pasabidea’.

Idoi

- B.F. Idoi.- I - doi. Sitio de agua, poza, charco. Nuestra Señora de Idoia o del pantano (Madrazo).
- **Oharra:** *idoi* ‘zingira: ura pilatzen den sakonunea, maiz abereen edanleku izaten dena’.

Idozin

- B.F. Idozin.- Idoi - z - in, un. Ver Idoi.
- **Oharra:** kontuan izanik herri izen horren XI. mendeko *Idozain* eta *Ydoziain* lekukotasunak, ematen du *-ain* atzizkitik eratorria dela egungo *-in* aldaera; kasu horretan, hasierako osagaia antroponimoren baten erreferentzia izanen litzateke, eta ez *idoi* edo *zingira* batena. Ibargoitiko kontzeju horren izendapen ofiziala *Idocin* da, eta euskaraz ematen zaiona *Idotzin*.

Iguzquiza Ikus Eguzkitza

iharduki

- B.F. Charduqui, Xarduqui.- Hablar, hablador.
- **Oharra:** *iharduki* ‘mintzatu’, ‘hitz egin’, ‘jardun’; *txarduki* eta *xarduki* (eta *jar-duki* ere bai) euskalkietako aldaerak dira.

ika

- B.F. Ica, iga, ique, bica, pica.- Cuesta muy pendiente.
- **Oharra:** Azkuek, Astarloari jarraikiz, dioenaren arabera, *ika* ‘malda’ edo ‘aldapa’ handiaren ordain gisa hartu izan da, eta hori da, hain zuzen ere, B. Fagoagak azaldutakoa. Baina *-ika* euskal toponimian zenbait izenetan ageri den atzizkia bada ere (ikus, hartara, *Etxenikerena* eta *Zabaldika* sarrerak), ikertzailerik adituenean, hala nola K. Mitxelenak, A. Irigoienek, J. Gorrotxategik... ez dute batere argi zein den benetako erranahia, ez eta euskal atzizkia ote den ere.

ikatz

- B.F. Icaza.- Icatz - a. Carbón.
- **Oharra:** *ikatz* ‘errekin beltz eta trinkoa, gehienbat karbonoz osatua, landare etorkia duena’.

Ikazbaltzeta

- B.F. Icazbaltzeta.- Icatz - balz, belz - eta. Sitio de carbón negro.
- **Oharra:** *ikatz* (ikus *ikatz* sarrera) + *beltz* adjektiboa > *baltz* aldaera hartu ohi duena Euskal Herriko mendebaldean + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘ikatz tokia’ alegia.

Ikaztegieta

- B.F. Icaztegieta.- Icatz - tegui - eta. Sitio de depósito de carbón.
- **Oharra:** *ikatz* (ikus *ikatz* sarrera) + *-tegi* toki atzizkia, hau da, *ikaztegi* ‘ikatz (egiten) den tokia’ + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘ikaztegia edo ikaztegiak aurkitzen diren tokia’.

Ilardia

- B.F. Ilardia.- Ver Ilarratz.
- **Oharra:** hasierako osagaiak izan litezke *ilar* ‘baratzeko landare lekaduna, hazi biribil berdeak eta jateko onak ematen dituen (*Pisum sativum*)’ edota *txilar* ‘landa edo larreko zuhaixka adartsua, zur-gogorra eta sustrai-lodia, loreak arrunt txikiak eta zuriak edo arrosak, mordoetan dituen (*Fam. Ericaceae*)’, eta amaierako osagaiak *-di* atzizki multzokaria + *-a* artikulua. K. Mitxelenak ohartarazten du zail dela *ilar-/illar-, inar-/iñar-, irar-, idar-* hasiera duten zenbait toponimotan zeren erreferentzia zehatza den bereiztea. Bere ustez, erreferentziarik ohikoena ‘txilarra’ da. Beraz, kontuan izatekoa da ohar hori hiztegi honetako *Ilardia, Ilarratz, Ilarregi, Iñarra, Iñarbil, Iñarbegi* eta *Illarramendi* sarreretan.

Ilarratz

- B.F. Ilarraz.- Ilar, illar, iñar (brezo, alubia, arveja) - a - z. Sitio de brezo.
- **Oharra:** *ilar* (ikus *Ilardia* sarrera) + *-tz(e)* ugaritasunezko atzizkia.

Ilarregi

- B.F. Ilarregui.- Ladera o colina de brezos.
- **Oharra:** *ilar* (ikus *Ilardia* sarrera) + *-egi* toki atzizkia, edo agian *hegi* ‘mendi hegala’.

ilindia Ikus **ilinti****ilinti**

- B.F. Ilindia.- Enfermedad del maíz, caries o tizón del trigo.

- **Oharra:** *ilinti* ‘landareen gaitza’, ‘ikatz’ (*ilindi* da Baztanen Gorosurretak bildutako aldaera).

Illarramendi

- B.F. Illarramendi.- Monte de brezos.
- **Oharra:** *ilar* (ikus *Ilardia* sarrera) > *illar* palatalizazio automatikoagatik + *mendi* izen arrunta.

Inda

- B.F. Inda.- Calle, vereda.
- **Oharra:** *inda* ‘karrika’, ‘bidexka’.

Indabe

- B.F. Indabe.- Debajo de la calle.
- **Oharra:** *inda* ‘karrika’, ‘bidexka’ + *bebere* ‘beheitiko aldea’ > *be* eratorria, hau da, ‘karrikaren beheitiko aldea’.

Indaburu

- B.F. Indaburu.- Parte superior de la calle.
- **Oharra:** *inda* ‘karrika’, ‘bidexka’ + *buru*, alegia, ‘karrikaren goiko aldea’ edo ‘karrikaren amaiera’.

Indakotxea

- B.F. Indacochea.- Inda - co - eche - a. La casa de la calle.
- **Oharra:** *inda* ‘karrika’, ‘bidexka’ + *-ko* toki genitiboa + *etxea*; beraz, ‘karrikako etxea’.

Indart

- B.F. Indart.- Entre la calle.
- **Oharra:** *inda* ‘karrika’, ‘bidexka’ + *arte* ‘tartekoa’ > *indart* bilakatua ezaguna den apokopearen eraginez. Ikus *Barrikart*, *Bidart* eta abar.

Indatxiki

- B.F. Indachiqui, Indachiquia.- Calle pequeña. Inda pequeño.
- **Oharra:** *inda* ‘karrika’, ‘bidexka’ + *txiki*, ‘karrika txikia’.

Ingurutxo

- B.F. Ingurucho.- Inguru (derredor, círculo). Baile en rueda.

- **Oharra:** *inguru* ‘bira’ + *-txo* atzizki txikigarria, ‘biran egiten den dantza mota’.

Intsausti

- B.F. Insausti.- Intsusti ¿Sitio de sauces? Intzaurti. ¿Sitio de nogales?
- **Oharra:** ematen duenez, toponimo honen erreferentziazko osagaia *intxaur* ‘intxaurrondo’ da, nahiz haren aldaera diren *intsaure* eta *intzaur* + *-ti* atzizki multzokaria. Ezaguna den *-r* > *-s* aldaketaren ondorioz sortutakoa da *intsaus* forma, *sagastiren* kasuan *sagar-* > *sagas-* gertatu bezala. Ikus *Sagasti* sarrera.

Intxaurdi

- B.F. Inchaudi. Ver Intxaurraga.
- **Oharra:** *intxaur* ‘intxaurrondo’ zuhaitza + *-di* atzizki multzokaria, ‘intxaurrondo ugariko tokia’.

Intxaurraga

- B.F. Inchaurreaga.- Inchaure, gilchaure (nogal, nuez) - aga. Sitio de...
- **Oharra:** *intxaur* ‘intxaurrondo’ zuhaitza + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia.

Intxaurrondo

- B.F. Inchaurreondo.- Junto a los nogales.
- **Oharra:** *intxaurrondo* ‘zuhaitza’ edo ‘intxaurren tokiaren aldamera’.

Intxusta

- B.F. Inchusta.- Intsusa (sauce). Sitio de sauces.
- **Oharra:** *intsusa* ‘*Caprifoliaceae* familiako zuhaixka, zur arrunt arina eta usain txarreko hostoak dituen, ginbail moduko bat eratzen duten lore txiki zuriak ematen dituen (*Sambucus* sp.)’ + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, *intsuset* alegia. Honetatik eratorritakoak dira *intxuset* lehendabizi, *-ts-* > *-tx-* aldaeragatik, eta *Intxusta*, deitura gisa ezaguna, ondoren *-e-* bokala erortzearen ondorioz.

Intza

- B.F. Inza.- Ii, iñ (junco, mimbre) - za. Sitio de...
- **Oharra:** Nafarroako Arantz ibarrean dagoen *Intza* herri izenari dagokionez, lehenbiziko osagaia *ibi* ‘zurtoin luzeak eta malguak dituen belar landarea’ dela dirudi, ‘oso toki heze eta bustietan hazten dena (*Juncus* sp.)’; *ibi* forma,

**ini* forma zaharretik ateratakoa denez gero, mantentzen da *-n-* kontsonantea *Intza* toponimoan. Amaierako osagaia *-tza* ugaritasuneko atzizkia da, ‘ihi anitz dagoen tokia’.

Intzaurti Ikus Intsausti

Intziarte Ikus Aintziarte

inurri

- B.F. Chinurri, Zinurri.- Hormiga.
- **Oharra:** *inurri* ‘gorputza hiru ataletan banatua duen intsektu txikia, arrez, emez eta langilez osatutako talde handiak eratuz inurritegian bizi dena (*Formicidae*)’; *txindurri*, *txingurri*, *txinurri*, *xinaurri*, *xinurri*, *zinaurri*, *zinurri* eta abar tokian tokiko aldaerak dira.

Iñarbegi

- B.F. Iñarbegi.- Iñar - egui. Ladera de brezos.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *iñar* (ikus *Iñarra* sarrera) da; bigarrenari dago-kionez, M. Belaskok bi aukera apuntatzen ditu: *begi* ‘txilardiko iturburua’ edo **bebe* + *begi* > *begi* bilakatua, baina *begi*-ren adiera izanen lukeena, ‘txilardiko mendi hegala’ alegia.

Iñarbil

- B.F. Iñarbil.- Sitio de brezos.
- **Oharra:** *iñar* (ikus *Iñarra* sarrera) + *biribil* ‘borobila’ adjektiboa > *bil* bilakatu, hau da, ‘txilar biribila’.

Iñarra

- B.F. Iñarra, Iñarrea.- Brezo...
- **Oharra:** *iñar* ‘ainarra’, ‘txilarra’ (ikus *Ilardia* sarrera) + *-a* artikulua. *Iñarra* nahiz *Iñarrea* etxe izen nahiz deitura ezagunak dira.

Iñarrea Ikus Iñarra

Iparburu

- B.F. Iparburu.- Colina al norte, orientada al norte.
- **Oharra:** *ipar* ‘iparralde’ + *buru*, ‘ipar aldera dagoen tokiaren goiko zatia edo bukaera’.

Iparragirre

- B.F. Iparragirre.- Ipar (norte, cierzo) - aguirre. Aguirre del cierzo. Patente al cierzo.
- **Oharra:** *ipar* ‘iparraldea’ + *agirre* ‘toki ageria’ (ikus *Agerre* sarrera); beraz, ‘ipar partera begira dagoen toki nabaria’ (etxea normalean).

ipuru

- B.F. Ipuro.- Enebro.
- **Oharra:** *ipuru* ‘nekostaren (pinu mota baten) familiako zuhaixka, hosto-zorrotza, arras urrintsuak diren fruitu beltz edo moreak ematen dituen (*Juniperus communis*)’.

ipuruko

- B.F. Ipuruco.- Idi (buey) - buru (cabeza) - co. Lo de la cabeza del buey, frontal.
- **Oharra:** *ipuruko* ‘kopetakoa, idiei eta behiei, uztartzean, kopetan jartzen zaiena’.

Iputzarena

- B.F. Iputzarena, Iputzenea.- Iputz, Guiputz (guipuzcoano) - arena. La del guipuzcoano.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *iputz* gentilizioa da, *giputz*-aren parekoa. Bigarren osagaia *-arena* jabetza adierazten duen atzizkia; beraz, *Iputzarena* eta horren bilakaera den *Iputzenea* etxe-izenak dira, ‘gipuzkoarraren etxea’ alegia.

Iputzenea Ikus **Iputzarena****Irabia**

- B.F. Irabia.- Ira (helecho, ¿árbol?) - be - a. Parte inferior del helechal, del bosque.
- **Oharra:** Aezkoa ibarrean kokatzen den urtegiatik hain ezaguna den *Irabia* izena, zenbaiten ustez, bertze izenen batetik eratorritako forma da. Nolanahi ere, ematen du gaur egun ezagutzen dugun *Irabia* aldaeraren lehenbiziko osagaia *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ dela eta bigarrena *bebe* ‘beheko alderdia’, ‘azpia’ > *be* bilakatua + *-a* artikulua; azkenik, *-bea* > *-bia* aldaera, amaierako *-a* bokalaren aitzinean euskaraz ohikoa den *-e-* > *-i-* ixtearen ondorio da.

Iraburu

- B.F. Iraburu.- Parte superior de... , o cima de helechos.
- **Oharra:** *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ + *buru* ‘goreneko alderdia’, hots, ‘iratze tokiaren gaina’.

Iraeta

- B.F. Iraeta.- Ira - eta. Sitio de helechos.
- **Oharra:** *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ + *-eta* toki atzizkia, ‘iratze tokia’.

Iragi

- B.F. Iragi.- Ira - egui. Ladera o colina de helechos.
- **Oharra:** *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ + *-egi* toki atzizkia edota *begi* ‘mendi hegala’.

Iragorri

- B.F. Iragorri.- Helechos rojos.
- **Oharra:** *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ + *gorri*, kolore gorria adierazten duen adjektiboa.

Irala

- B.F. Irala, ¿Iraga?.- Sitio de helechos.
- **Oharra:** *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ + *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ > *Irala* bilakatua. Ikus *Iraola* sarrera.

Irantzu

- B.F. Iranzu.- Ira - zu. Sitio de helechos.
- **Oharra:** itxura batez, toponimo honen osagaiak *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ + *-zu* toki ugaritasunezko atzizkia izan litezke, baina Erdi Aroaz geroztik ageri den *iran-* hasierako osagaiak zalantzan jartzen du itxurazko interpretazio hori.

Iraola

- B.F. Iraola.- Sitio de helechos.
- **Oharra:** *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ + *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’.

irasko

- B.F. Irasco.- Choto. (Iribarren).
- **Oharra:** J.M. Iribarrenek dio Nafarroako zenbait tokitan aker zikiratuari *irasko* izena ematen zitzaiola. Oraindik ere bizirik dirauen izena da euskara galdua dagoen tokietan, hala nola Goñi herrian.

Irastortza

- B.F. Irastorza.- Irastor - za. Sitio de helechos.
- **Oharra:** *irastor* ‘iratze saila’ + *-tza* ugaritasunezko atzizkia > *irastortza* eratorria, ezaguna den *-zt-* > *-st-* bilakaeraren ondorioz.

Irati

- B.F. Irati.- Ira - ti. ¿Sitio de helechos? ¿de árboles?
- **Oharra:** *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ + *-ti* atzizki multzokaria, ‘iratze ugari duen tokia’.

Iratxe

- B.F. Irache.- Ira - che, tze, tza. Sitio de helechos ¿o de árboles?
- **Oharra:** *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ + *-tze* toki ugaritasunezko atzizkia *-tze* bilakatua.

Iratzeburu

- B.F. Iratzeburu.- Iratze (helecho) - buru. Cima de helechos.
- **Oharra:** *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ + *-tze* ugaritasunezko atzizkia + *buru* ‘goreneko alderdia’; beraz, ‘iratze ugariko tokiaren gaina’. Ikus *Iraburu* sarrera.

Iratzoki

- B.F. Irazoqui.- Iratz - toki. Helechal.
- **Oharra:** *iratze* ‘ira’, ‘garoa’ + *toki* ‘lekua’, *iratzetoki* alegia, > *iratzoki* bilakatua haplologiagatik, ‘iratze ugariko tokia’.

Irazelai

- B.F. Irazelai.- Ira - zelai. Llanura de helechos, helechal.
- **Oharra:** *ira* ‘iratzea’, ‘garoa’ + *zelai* ‘landa laua’, hau da ‘iratze toki laua’. ‘Iralekua’ izendatzeko, Baztanen *irazelai* erabiltzen da eta bertze eremu batzuetan *iratzelai*.

Iriarte

- B.F. Iriarte.- Iri (ciudad, pueblo, casa) - arte. Entre el pueblo.
- **Oharra:** *biri* ‘hiria’, ‘hiribildua’ da, eta toponimian ‘auzoa’ edo ‘etxea’ ere bai, + *arte* ‘bitartea’. Beraz, *Iriarte* izendapenak herriaren ‘erdi aldean dagoen auzoa edo etxea’ adierazten du, hots, goiko edo beheko aldean daudenetik bereizten duena; erraterako, Malerrekako Zubieta herrian badira *Irigoiena*, *Iriarte* eta *Iribarrena* izeneko etxeak.

Iriberry

- B.F. Iriberry.- Pueblo nuevo, villa nueva.
- **Oharra:** *biri* (ikus *Iriarte* sarrera) + *berri* adjektiboa.

Iribertegi

- B.F. Iribertegi.- Iriberry - tegui. Casa de Iriberry.
- **Oharra:** ikus *Iriberry* sarrera, > *Iriber-* elkarketan hartzen duen aldaera + *-tegi* toki atzizkia, ‘biztanle entitate berria edo etxe berria dagoen tokia’.

Irigarai

- B.F. Irigaray.- Parte superior del pueblo, casa que está en la parte alta.
- **Oharra:** *biri* (ikus *Iriarte* sarrera) + *garai* ‘altua’; ez ordea, B. Fagoagak ematen dion erranahia, hots, ‘goitiko aldean dagoena’, hori *Irigoi*en izenari baitagokio.

Irigibel

- B.F. Iriguibel.- Detrás del pueblo.
- **Oharra:** *biri* (ikus *Iriarte* sarrera) + *gibel* ‘atzeko aldea’.

Irigoi

- B.F. Irigoyen.- Parte superior del pueblo, casa que está en la parte alta.
- **Oharra:** *biri* (ikus *Iriarte* sarrera) + *goien* ‘goitikoa’, ‘goitiko aldean dagoena’.

Iriondo

- B.F. Iriondo.- Junto al pueblo.
- **Oharra:** *biri* (ikus *Iriarte* sarrera) + *ondo* postposizioa ‘alboa’, ‘aldamena’.

Irizar

- B.F. Irizar.- Pueblo viejo, casa vieja.
- **Oharra:** *biri* (ikus *Iriarte* sarrera) + *zabar* adjektiboa ‘aspaldikoa’, ‘lehenagokoa’ > *zar* bilakatua.

irrintzi

- B.F. Irrintzi.- Relincho, grito estridente sonoro y prolongado, en general señal de alegría.
- **Oharra:** *irrintzi* ‘zaldiaren oihua’, bai eta ‘euskal oihu berezia, zolia eta luzea, batez ere dei gisa edo alaitasun adierazpen bezala egiten dena’.

Iruña Ikus Iruña

Iruñea

- B.F. Iruña.- Iri - goyen - a. ¿Ciudad alta? En Baztan Irigoyen se dice Iruin, Iru-onak. Las tres buenas.
- **Oharra:** Nafarroako hiriburuari dagokionez, iritzirik adostuena da *Iruñea* dela euskaldunek erabilitako izena eta *Iruña* gaztelaniaz erabilitakoa. Halaaber, zenbait ikertzaile adituk diote hasierako *Irun*-ek lotura izan dezakeela *hiri* ‘biztanle entitatea’, ‘hiria’, ‘hiribildua’, ‘kastroa’, ‘gotorlekua’ adierazten duten izenekin, oin bereko bertze hainbat toponimo nagusi ezagunek duten bezala, hala nola Gipuzkoako *Irun*, Nafarroako *Irunberri*, *Iruñela*, Arabako *Iruña* eta abarrek. Zail da ulertzea zer dela-eta lotzen duen B. Fagoagak *goien* osagaia toponimo honetan. Nafarroako hiriburuaren izendapen ofiziala *Pamplona / Iruña* da, euskaraz dagokiona, ordea, *Iruñea*.

Iruña de Alava

- B.F. Iruña de Alava.- Despoblado, antes ciudad. Está en un cerro.
- **Oharra:** ikus *Iruña* sarrera. Arabako lurraldean dagoen herriaren izendapen ofiziala *Iruña Oka / Iruña de Oca* da.

Irunberri

- B.F. Irunberri.- Irigoyen - berri (nuevo pueblo alto). Lumbier.
- **Oharra:** *Irun* (ikus *Iruñea* sarrera) + *berri* adjektiboa. *Iruñea* sarreran aipatu bezala, *Irun*-ek *hiri*-rekin lotura izan dezake, ez ordea B. Fagoagak dioen *Irigoien*-ekin.

Iruñeko

- B.F. Iruñaco.- Iruña - co. De Pamplona.
- **Oharra:** *Iruñe(a)* + *-ko* ‘nongo’ adierazten duen toki genitiboa.

iruñseme

- B.F. Iruñseme.- Iruñ - seme (hijo). Hijo de Pamplona. Pamplonica.
- **Oharra:** *Iruñ-* (ikus *Iruñea* sarrera) + *seme*. Hiri honetako herritar izena edo gentilizio arrunta *iruindar* bada ere, maila apalago batean *iruñseme*, *iruñxeme* eta *iruñseme* ere ezagunak dira.

Irura

- B.F. Irura.- ¿Bosque, monte, vega, valle?

- **Oharra:** K. Mitxelenaren ustez, *irura*, erranahiaren aldetik, ‘haran’ edo ‘ibar’ hitzen parekoa litzateke, baina P. Salaberrik eta L.M. Zalduak diotenaren arabera, hitz arrunt gisa ez dago ongi lekukotua.

irurai Ikus irurazain

irurazain

- B.F. Irurazai, irurai. Guardamontes.
- **Oharra:** *irurazain* ‘basozaina’ izenetik ateratako aldaerak dira *irurazai* eta *irurai*.

Irureta

- B.F. Irureta, Irurita.- Irura - eta. Sitio de bosque? Sitio de vegas.
- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera berean eman zituen bi izen horien hasierako osagaia *irura* (ikus *Irura* sarrera) dela dirudi; amaierakoari dagokionez, lehenbiziko izenean *-eta* toki ugaritasunezko atzizki arrunta dugu, bigarrean ageri den *-ita*, ordea, ez da erraz azaltzekoa toponimian.

Irurita Ikus Irureta

Isasti

- B.F. Isasti.- Isats (retama) - ti. Sitio de retama.
- **Oharra:** *isats* edo *itsa(t)s* (ikus *Itsaso* sarrera) + *-ti* atzizki multzokaria ‘isats ugariko tokia’.

Istilart

- B.F. Istilart.- Istil (charco, fango) - arte. Entre charcos.
- **Oharra:** *istil* ‘lohia’, ‘lokatza’, ‘putzua’ + *arte* ‘bitartea’ > *istilart* bilakatua apokopeagatik (ikus *Barrikart*, *Bidart*, *Indart*... sarrerak); beraz, ‘putzu tarteko eremua’.

Itsaso

- B.F. Ichaso.- Mar. Itsas.- Isats (retama) - so, zu. Sitio de retamas.
- **Oharra:** B. Fagoagak ematen duen sarrera honetan argi adierazten ez dituen bi izen bereizi behar dira. Alde batetik, *Itsaso* toponimo ezaguna (Nafarroako *Itsaso* eta Gipuzkoako *Itsaso* eta *Itsasondo* herrien izenak); horien osagaiak *i(t)sats* ‘zuhaixa lekadun lore-horia, abar mehe eta malgu ugari, eta hosto gutxi dituen (*Cytisus scoparius*)’ + *-so* atzizki handigarria dira (azken hau, segur

aski ugartasunezko *-tsu*, *-zu* atzizki ezagunen aldaera dena); beraz, 'i(t)sats tokia'. Bertze aldetik, *itsaso* izen arrunta, hau da, 'lurrazalaren zatirik handiena estaltzen duen ur gazizko hedadura zabala' (*Kantauri itsasoa* erraterako).

Itsasondo

- B.F. Isasondo.- Junto a sitio de retamas.
- **Oharra:** ikus *Itsaso* sarrera, + *ondo* 'aldamena'; beraz, 'isats tokiaren ondoko alderdia'.

Iturbe

- B.F. Iturbe.- Debajo de la fuente.
- **Oharra:** *iturri* 'lur azpitik azaleratzen den ura; ur hori ateratzen den tokia' > *itur-* elkarketan hartzen duen aldaera + *bebe* 'beheitikoa' > *be* bilakatua, hau da, 'iturriaren beheitiko aldean dagoena'.

Iturbide

- B.F. Iturbide.- Camino de la fuente.
- **Oharra:** *itur-* (ikus *Iturbe* sarrera) + *bide* izen arrunta, 'iturrirako bidea'.

Iturburu

- B.F. Iturburu.- Encima de la fuente.
- **Oharra:** *iturburu* 'lur azpiko ura azaleratzen den tokia' (ikus *Iturrama* sarrera); hortaz, ez da B. Fagoagak dioen 'iturriaren gainean dagoena'.

Iturgaitz

- B.F. Iturgaitz.- Iturri - gaitz (malo, difícil). Fuente mala (Abal gaitz).
- **Oharra:** *itur-* (ikus *Iturbe* sarrera) + *gaitz* 'txarra' normalean, baina baita 'handia' ere batzuetan.

Iturmendi

- B.F. Iturmendi.- Monte de la fuente.
- **Oharra:** *itur-* (ikus *Iturbe* sarrera) + *mendi* izen arrunta, 'ur ugari edo iturriak dituen mendia'.

Iturralde

- B.F. Iturralde.- Iturri - alde.- Hacia la fuente.
- **Oharra:** *itur* (ikus *Iturbe* sarrera) + *alde* 'aldamena', 'ondoa', hau da, 'ura ateratzen den tokiaren aldamena'.

Iturrama

- B.F. Iturrama.- Iturri - ama. La madre de la fuente, el manantial.
- **Oharra:** *itur-* (ikus *Iturbe* sarrera) + *ama*, 'iturburua' alegia. Ikus *Iturburu* sarrera.

Iturrarte

- B.F. Iturrarte.- Entre fuentes.
- **Oharra:** *itur-* (ikus *Iturbe* sarrera) + *arte* 'bitartea', 'iturrien bitarteko eremua'.

Iturregi

- B.F. Iturregui.- Ladera de la fuente.
- **Oharra:** *itur-* (ikus *Iturbe* sarrera) + *-egi* toki atzizkia edota *begi* 'mendi hegala', hots, 'iturria dagoen tokia' edo 'iturria dagoen mendi hegala'.

Iturreta

- B.F. Iturreta.- Sitio de la fuente.
- **Oharra:** *itur-* (ikus *Iturbe* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, 'iturri tokia'.

Iturria

- B.F. Iturria.- La fuente.
- **Oharra:** *iturri* (ikus *Iturbe* sarrera) + *-a* artikulua.

Iturriaga

- B.F. Iturriaga.- Sitio de la fuente.
- **Oharra:** *iturri* (ikus *Iturbe* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, 'iturri tokia'. Ikus *Iturreta* sarrera.

Iturrigarai

- B.F. Iturrigaray.- Encima de la fuente.
- **Oharra:** *iturri* (ikus *Iturbe* sarrera) + *garai* 'altua', hots 'iturri altua'; ez erratzuarrak dioen 'iturriaren gaineko aldea', erranahi hori *Iturgoien* izenari baitagokio.

Iturrino

- B.F. Iturrino.- Sitio de la fuente.
- **Oharra:** *iturri* (ikus *Iturbe* sarrera) + *-no* atzizki txikigarria, hots, 'iturri txikia', ez B. Fagoagak dioen 'iturri tokia'.

Iturriondo

- B.F. Iturriondo.- Junto a la fuente.
- **Oharra:** *iturri* (ikus *Iturbe* sarrera) + *ondo* ‘hurbileko alderdia’, hau da ‘iturriaren aldamera’.

Iturriotz

- B.F. Iturriotz.- Iturri - otz (frío). Fuente fría.
- **Oharra:** *iturri* (ikus *Iturbe* sarrera) + *hotz*; hortaz, ‘beroa’ren antonimoa.

Iturzulo

- B.F. Iturzulo.- Agujero de la fuente, hondonada de la fuente.
- **Oharra:** *itur-* (ikus *Iturbe* sarrera) + *zulo* ‘zerbaiten azalean edo gainaldean gertatzen den irekidura edo sakonunea’.

Itzainzaldia

- B.F. Itzainzaldia.- Itzain, idi - zain (boyero) - zaldia (prado, soto). Soto de los boyeros (Santacara).
- **Oharra:** *itzain* ‘idiak zaintzen eta gidatzen dituen pertsona; gurdia gidatzen dituen pertsona’ + *zaldia* ‘ibai edo erreken ondoan izaten diren arboladietan azienda atsedenean egoten den basoa’ (ikus *Zaldia* sarrera) + *-a* artikulua; beraz, ‘idi zaintzailearen edo zaintzaileen zaldia’.

Iza

- B.F. Iza.- Iz (agua, junco) - a / I - za. Balsa.
- **Oharra:** *ibi* ‘zurtoin luzeak eta malguak dituen belar landarea, hagitx toki heze eta bustietan hazten dena (*Juncus* sp.)’, elkarketan *i-* aldaera hartzen duena + *-za* ugaritasunezko atzizkia, beraz, ‘ihi landare ugari dagoen tokia’. Izen hori daraman Nafarroako ibarraren izendapen ofiziala *Iza* / *Itza* da.

Izaga

- B.F. Izaga.- ¿Iz - aga? ¿Sitio de aguas? / ¿Izai - aga? ¿Sitio de pinabetes? / ¿Aitz - aga? ¿Sitio de peñas?
- **Oharra:** toponimo honen hasierako osagaiari dagokionez, zenbait aukera aipatzen dira; K. Mitxelenaentzat oinarrian *ibi* landarea (ikus *Iza* sarrera) egon liteke edo *ebiza* ‘animaliak harrapatzea edo hiltzea helburu duen jardura’. M. Belaskoren iritziz, *baiz* (ikus *Aitzarte* sarrera) ere egon liteke.

Amaierako osagaia *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia da. Euskaraz dagokion izendapena *Itzaga* da.

Izagaondoa

- B.F. Izagaondoa.- Junto a Izaga.
- **Oharra:** *itzaga* (ikus *Izaga* sarrera) + *ondo* ‘hurbileko alderdia’ + *-a* artikulua, ‘Izaga mendiaren aldamera’. Ibarraren izendapen ofiziala *Izagaondoa* da, euskaraz dagokiona, ordea, *Itzagaondoa*.

izar

- B.F. Izarra.- Izar (estrella) - a. La estrella.
- **Oharra:** *izar* ‘zeruan distiratzten ikusten den zernahi argizagi, Eguzkia edo Ilargia izan ezik’.

Izeidi

- B.F. Izadi.- Izai, izei (abeto, pinabete) - di. Bosque de abetos.
- **Oharra:** *izei* ‘pinuaren familiako zuhaitz handia, zurtoina zuzena eta abarrrak zeharretara dituen, berez, mendi goretan hazten dena (*Abies* sp., *Pseudotsuga* sp. eta *Picea* sp.)’ + *-di* atzizki multzokaria, ‘izei ugariko tokia’.

Izeidoi

- B.F. Iceidoi.- Icei (abeto, pinabete) - doi. Lugar de...
- **Oharra:** *izei* (ikus *Izeidi* sarrera) + *-doi* atzizki multzokaria, hau da, ‘izei ugariko tokia’.

Izeta

- B.F. Iceta.- Iz (agua, junco grande) - eta. Sitio de aguas o...
- **Oharra:** segur aski, *i(b)i* ‘zurtoin luzeak eta malguak dituen belar landarea, hagitx toki heze eta bustietan hazten dena (*Juncus* sp.)’; alde batera utzi gabe K. Mitxelena dioen bezala, *izei* (ikus *Izeidi* sarrera) ere izaten ahal dela toponimo honen erreferentzia, + *-tza* ugaritasunezko atzizkia, *-tz* bilakatua, + *-eta* toki atzizkia; beraz, ‘ihi edota izei ugariko tokia’.

Izpegi

- B.F. Aitzpegui, Izpegui.- Aitz - pe - egui (suf.). Ladera de debajo de la peña.
- **Oharra:** agiri zaharretako lekukotasunen argitan, oraingoz egiaztatzerik ez bada ere, litekeena dirudi B. Fagoagak azaltzen duena, hots, **Ai(t)zpegi* > *Izpegi* bilakaera aferesiaren ondorioz gertatu izana. Horren arabera, hauek

izanen lirateke *Izpegi* izenaren osagaiak: *aizpe* (ikus *Aizpea* sarrera) + *hegi* ‘mendi hegala’; bere osotasunean ‘haitzaren azpiko mendi hegala’ adieraziko luke.

Izpurua

- B.F. Izpurua.- ¿Iz - buru - a? ¿Encima de la balsa? / ¿Aitz - burua? ¿Sobre peñas?
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia, segur aski, *haitz* da (ikus *Aitzarte* sarrera), *iz*-bilakatua diptongoaren murrizketagatik, + *buru* ‘goiko alderdia’ > *puru* eratorria *z*-ren ondotik, + *-a* artikulua; hortaz, ‘haitzaren gaineko kaxkoa edo punta’.

Izu

- B.F. Izu.- I - zu. Sitio acuoso.
- **Oharra:** *ibi* (ikus *Iza* sarrera) + *-zu* ugaritasunezko atzizkia, ‘ihi izeneko landare ugariko tokia’.

Izurdiaga

- B.F. Izurdiaga.- Iz - ur (agua) - di - aga. Sitio de aguas.
- **Oharra:** egungo *Izurdiaga* toponimoaren lekukotasun zaharra, *Guizirudiaga*, oinarriztat hartuz, hauek dira, K. Mitxelenaren iritziz, osagaiak: *giza* ‘gizakiari dagokiona adierazten duena’ + *irudi* ‘itxura’ + *-aga* toki atzizkia, ‘gizakiaren itxura duen tokia’ alegia.

Jabier

- B.F. Esabier, Sabier, Jabier.- Esa, echa, eche (casa) - bier, berri. Casa nueva.
- **Oharra:** (ikus *Eseberri* sarrera). *Jabier* izena *E(t)seberri*-tik sortutako aldaera da, bilakaera hau izan duena: *E(t)se*, > *e(t)sa*- elkarketan hartzen duen forma, + *berri*, hots, *E(t)saberri*, aferesiagatik *Saberri* edo *Xaberri* aldaera bihurtutakoa. Azken horretatik ateratakoa da *Xabier*, eta gaztelaniaz *Jabier*, aldaketa hauen ondorioz: *x-* > *j-* bilakaeragatik (*Xaberri* > *Jaberri*), eta erdararen eraginez *-e-* azentuduna > *-ie-* diptongo bihurtu izanagatik (hots *Xaberri* > *Xabierri* eta *Jaberri* > *Jabierri*). Azkenik, apokopearen eraginez amaierako *-i* bokala galdu izanak (hau da, *Xabierri* > *Xabier* eta *Jabierri* > *Jabier*) eman zituen egun arruntak diren *Xabier* eta *Jabier* formak. Herriaren izendapen ofiziala *Javier* da.

jai alai

- B.F. Jai alai.- Festejo alegre.

- **Oharra:** *jai* ‘zerbait ospatzeko egiten diren ekitaldi eta jostetak’ + *alai* adjektiboa ‘alaitasuna adierazten duena’; beraz, ‘josteta alaitsua’. Zenbait herritako pilotalekuei jarri ohi zaien izena da *Jai Alai*.

Jauregi

- B.F. Jauregui.- Jaun - degui, tegui. Casa del señor, palacio.
- **Oharra:** *jaun* ‘gizartean aintzat hartzeko maila edo ohorea duen gizonezkoa’ > *jaur-* elkarketan hartzen duen aldaera + *-egi* toki atzizkia, ‘jaunaren etxea’, ‘palazioa’ alegia.

Jauregiberri

- B.F. Jauregiberri.- Palacio nuevo.
- **Oharra:** *jauregi* (ikus *Jauregi* sarrera) + *berri*, ‘palazio berria’.

Jauregizar

- B.F. Jaureguizar, Jaunzar.- Palacio viejo.
- **Oharra:** *jauregi* (ikus *Jauregi* sarrera) + *zabar* ‘lehenagokoa’, ‘aspaldikoa’ > *zar* bilakatua, ‘palazio zaharra’.

Jauregizuri

- B.F. Jaureguizuri.- Palacio blanco.
- **Oharra:** *jauregi* (ikus *Jauregi* sarrera) + *zuri*, hau da, kolore zuria adierazten duen adjektiboa.

Jaurena

- B.F. Jaurena.- Jaun - en - a. La del señor.
- **Oharra:** *jaun* (ikus *Jauregi* sarrera) + *-arena* jabetza adierazten duen atzizkia, *Jaunarena* alegia, haplologiaz *Jaurena* bilakatua, beraz, ‘jaunaren etxea’.

Jaurola

- B.F. Jaurola.- Jaun - ola. Sitio o casa del señor.
- **Oharra:** *jaun* (ikus *Jauregi* sarrera) + *ola* ‘burdinola’ segur aski, ‘jaunaren burdinola’ alegia. Baztango Elbeten ezaguna da *Jaurola* etxe-izena.

Juanbeltz

- B.F. Juanbelz.- Juan el negro.
- **Oharra:** *Juan*, pertsona izena + *beltz*, hots, kolore beltza adierazten duen adjektiboa; hortik *Juanbeltz* izengoiti ezaguna.

Juanena

- B.F. Juanena.- La de Juan.
- **Oharra:** *Juan*, pertsona izena + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Juanen etxea’.

Juanikotena

- B.F. Juanicotena.- La de Juanicot.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia, *Juanikot*, *Juan* izenaren aldaera hipokoristikoa edo txikigarria da; bigarren osagaia *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia da, hau da, ‘Juanikoten etxea’.

Juanko

- B.F. Juanco.- Juanito.
- **Oharra:** *Juan*, pertsona izena + *-ko* atzizki txikigarria, ‘Juan txikia’.

Juankorena

- B.F. Juancorena.- La de Juanco.
- **Oharra:** ikus *Juanko* sarrera + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Juan txikiaren etxea’.

Juanmartiñena

- B.F. Juanmartiñena.- La de Juan Martín.
- **Oharra:** osagaiak hauek dira: *Juan* + *Martin* pertsona izenak + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, *-in-* > *-iñ-* palatalizazio automatikoa barne, ‘Juan Martinen etxea’.

Juriko Ikus Xuriko

kabia Ikus habia

kafia Ikus habia

kaiku

- B.F. Caicu.- Cuevo de madera para la leche.
- **Oharra:** *kaiku* ‘ardi esnea biltzeko erabiltzen den zurezko ontzia, euskarri bakarreakoa’.

Kallonea Ikus Gallegorena

Kalorena Ikus Gallegorena

Kareaga

- B.F. Careaga.- Care (cal) - aga. Sitio de cal.
- Oharra: *kare* ‘kaltzio oxidoa (CaO)’ edo ‘gisu’ Nafarroan, + *-aga* toki atzizkia, hots, ‘kare edo gisu tokia’.

karraka

- B.F. Carraca.- Matraca, pelma (Iribarren).
- Oharra: *karraka* ‘altzairuzko lanabesa, ildo modukoak edo pikorrak dituen, metalak edo zura higatzeko, berdintzeko edo leuntzeko erabiltzen dena’, bai eta ‘karrakatzean ateratzen den hotsa’ ere, neketsu egiten den soinua, alegia.

Karrika

- B.F. Carrica.- Calle, camino, entre cercas.
- Oharra: *karrika* ‘kalea’, bereziki Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian arrunta den aldaera, deitura gisa ere ezaguna dena.

karrika dantza

- B.F. Carricadanza.- Danza de la calle en fila con pañuelos.
- Oharra: *karrika* ‘kalea’ + *dantza* hitz arrunta, hau da, ‘kalean dantzan egiten den ibilbidea’.

Karikaburu

- B.F. Carricaburu.- Carrica - buru. Extremo de la calle.
- Oharra: *karrika* ‘kalea’ + *buru* ‘goiko aldea’ edo ‘bukaera’. Deitura gisa ere ezaguna dena.

kaskatu

- B.F. Cascar.- Pegar, golpear (Iribarren).
- Oharra: *kaskatu* ‘kolpe bat edo kolpeak eman, jo’. Latineko *quassare* edo *quassicare* aditzetik hartutako mailegua da, gaztelaniak *cascar* hartu duena.

kasko

- B.F. Casco.- Pedazo, trozo (Iribarren).
- Oharra: *kasko*, bertzeak bertze, ‘puska’ da, hots, ‘gauza edo gauzaki batetik bereizia izan den zatia’, bai eta ‘gainaldea’ ere toponimian, ‘mendi kaskoa’ alegia.

kizkurту

- B.F. Quiscorear.- Socarrar, tostar el cerdo.
- **Oharra:** *kizkurту* ‘erre’, baita ‘kizkur bihurtu’ ere. Gaztelaniak aditz hori bereganatu du eta “quiscorear” bihurtu, hagitz arrunta dena Nafarroan.

koka

- B.F. Coca.- Golpe con el nudillo del dedo (Iribarren).
- **Oharra:** Nafarroako zenbait tokitan (Erronkaribarren, Zaraitzun, Erroibarren, Baztanen. . .) *koka* deitzen zaio ‘eskuko hatz koskorrarekin bertze bati buruan (normalean) ematen zaion kolpea’.

kolko

- B.F. Colco.- Seno, interioridad.
- **Oharra:** *kolko* ‘jantziaren eta bularraren arteko hutsunea’, bai eta ‘pertsone baten barnea edo gogoa’ ere.

Kondearena

- B.F. Condearena.- Conde - arena. La del conde.
- **Oharra:** *konde* ‘nobleen hurrenkeran, markes tituluaren azpiko titulua duen gizonezkoa’; antzina ‘konderri bateko jauna’ + *-arena* jabetza adierazten duen atzizkia, hots, ‘kondearen etxea’.

kondepekoak

- B.F. Condepecoac.- Conde - pe - co - ac. Los de debajo del conde.
- **Oharra:** *konde* (ikus *Kondearena* sarrera) + *peko* ‘azpikoa’, ‘mendekoa’ + *-ak* pluraleko artikulua; beraz, ‘kondearen menpe dauden pertsonak’.

Kortabarria

- B.F. Cortabarria.- Corta (sel, cuadra) - barri, berri - a. Sel nuevo.
- **Oharra:** *korta* ‘ukuilua’, ‘heia’ + *berri* adjektiboa > *barri* Euskal Herriaren mendebaldean hartzen duen aldaera + *-a* artikulua, ‘ukuilu edo heia berria’ alegia.

Kortabitarte

- B.F. Cortabitarte.- Corta - bi - tarte. Entre dos seles.
- **Oharra:** *korta* ‘ukuilua’, ‘heia’ + *bitarte* ‘bi gauza edo uneren arteko tartea’, hots, ‘bi ukuilu arteko tartea’.

Kortazar

- B.F. Cortazar.- Sel viejo.
- **Oharra:** *korta* ‘ukuilua’, ‘heia’ + *zabar* ‘aspaldikoa’, ‘lehenagokoa’ > *zar* bilakatu.

kozkor

- B.F. Cozcor.- Orujo de la uva, panoja del maíz, corteza del pan, vigor, fuerza (Muez).
- **Oharra:** *kozkor* edo *koskor*, bertzeak bertze, ‘artaburu aletuaren kozkorra’, ‘ogi puska’ edo ‘ogiarene muturra’ dira, bai eta ‘ume aski hazia’ ere. Nafarroan gaztelaniaz ere erabiltzen da “cozcor” hitza, batik bat pertsona baten ‘indarra’, ‘kemena’ edo ‘adorea’ adierazteko.

Krutzaga

- B.F. Cruchaga.- Guruzeaga.
- **Oharra:** (ikus *Gurutzeaga* sarrera). Lehenbiziko osagaiak bilakaera hau izan du: *gurutze* > *gurutz-* (apokopeagatik) eta *krutz-* (hasierako *g-* > *k-* kontsonanteen trukaketa gehi *-u-* bokalen disimilazioagatik), eta hortik *krutz-* aldaera hipokoristikoa. Bigarren osagaia *-aga* toki atzizkia da.

kutsatu

- B.F. Cunchar.- Contagiar una enfermedad, transmitir a otro un mal (Iribarren).
- **Oharra:** *kutsatu* ‘garbia ez den edo ez-garbitzat hartzen den zerbaitek zikindua gertatu’ edo ‘izaki bizidun batek bertze bati eritasun bat itsatsi’. Aditz horretatik eratorria da J.M. Iribarrenek Iruñerrian gaztelaniaz erabiltzen dela dioen “cunchar” hitza.

Labeaga

- B.F. Labeaga.- ¿Olabeaga?
- **Oharra:** *labe* ‘beroaren bidez gauzak edo gaiak berotzeko, egosteko, erretzeko, kiskaltzeko, urtzeko edo eraldatzeko erabiltzen den tresna edo eraikuntza’ + *-aga* toki atzizkia, ‘labe tokia’ alegia; B. Fagoagak dioen *Olabeaga* izenarekin ez du loturarik, azken honen oinarria ez baita *labe* izena, *ola* baizik. Ikus *Olabe* sarrera.

lacho Ikus **latz**

lagunarte

- B.F. Lagun Artea.- Lagun (compañero) - arte - a. La entre compañeros.
- **Oharra:** *lagunarte* ‘lagunekin izatea’, ‘laguntzea’, ‘toki batean geratzen diren lagunen multzoa’, ‘lagunen arteko elkarte’. -a artikularekin, *Lagunartea*, erabiltzen da zenbait izenburutan.

lahar Ikus **larre****lamia** Ikus **lamina****lamina**

- B.F. Lamia.- Personaje femenino de la mitología vasca.
- **Oharra:** *lamina* ‘euskal mitologiako izakia, emakume itxura duena eta ahate oinak dituen’.

Landabere

- B.F. Landabere.- Landa (pieza, campo, llano) - bere (bajo). Debajo del llano.
- **Oharra:** *landa* ‘lantzeko on den lur eremua’ + *bebere* ‘beheitikoa’ > *bere* eratorria, ‘lantzeko on den lur eremuaren beheitiko alderdia’.

Landaburu

- B.F. Landaburu.- Parte superior del llano.
- **Oharra:** *landa* ‘lantzeko on den lur eremua’ + *buru* ‘goreneko alderdia’, alde batera utzi gabe ‘amaiera’, ‘azkeneko parte’ ere izaten ahal dela; beraz, ‘landaren goreneko alderdia’ edo ‘landaren bukaera’.

Landagarai

- B.F. Landagaray, Landacochea, Landaldea, Landaluce, Landazabal, Landazuri, Landeta, Landeche.
- **Oharra:** B. Fagoagak hasierako osagaia *landa* ‘lantzeko on den lur eremua’ duten zortzi izen horiek sarrera berean sartu zituen, izen horien gainerako osagaien azalpenik eman gabe. Honako hauek dira hurrenez hurren: *landagarai* ‘landa altua’, *landakotxea* (*landa* + *-ko* toki genitiboa + *etxea*) ‘landan dagoen etxea’, *landaldea* ‘landaren aldamera’, *landaluze* ‘luzera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen landa’, *landazabal* ‘zabalera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen landa’, *landazuri* ‘kidekoak baino kolore argiagoa duen landa’, *landeta* ‘landa tokia’, *landetxe* ‘landan eraikitako etxea, bereziki lantzeko lurrez inguratua dena’.

Landakotxea Ikus Landagarai

Landaldea Ikus Landagarai

Landaluze Ikus Landagarai

Landazabal Ikus Landagarai

Landazuri Ikus Landagarai

Landeretx Ikus Landerretxe

Landerretxe

- B.F. Landerreche, Landerech.- Lander (pobre, extranjero) - eche. Casa de los pobres, de los peregrinos.
- **Oharra:** hasierako osagaia *lander* ‘behartsua’ edo ‘pobrea’ da, alde batera utzi gabe ‘erromesa’, ‘atzerritarra’ erranahia ere baduela; bigarren osagaia *etxe* izen arrunta da; beraz, ‘behartsuaren etxea’ edo agian ‘kanpotik etorritakoaren etxea’. *Landeretx* apokopeagatik sortutako aldaera da.

Landeta Ikus Landagarai

Landetxe Ikus Landagarai

Landibar

- B.F. Landibar.- Landa - ibar. Vega de piezas.
- **Oharra:** itxuraz, *landa* ‘lantzeko on den lur eremua’ + *ibar* ‘harana’ dira Urdazubiko auzo izen honen osagaiak eta, horren arabera, ‘lantzeko lur ona duen harana’. Kontua da, auzo izen honen lekukotasun zaharrenei erreparatuta, jatorrizko izendapena *Labandibar* dela, haplologiagatik *Landibar* bilakatua. Beraz, *laba(i)n* ‘irristakorra’ + *ibar* dira jatorrizko izenaren osagaiak, ‘haran irristakorra’ alegia.

langar

- B.F. Langarra.- Niebla lluviosa. Langarrear.
- **Oharra:** *langar* ‘lanbroa’, ‘curi lanbroa’.

lantxurda Ikus lantzurda

lantzurda

- B.F. Lanchurda.- Cierta clase de escarcha.
- **Oharra:** *lantzurda* ‘hotz handia egiten duenean, zuhaitzen adarretan bereziki, ikusten diren elur maluta txiki izoztuak’, bai eta ‘euri lanbroa’ ere; *lantxurda* aldaera da.

Lardizabal

- B.F. Lardizabal.- Lar - di - zabal. Pastizal ancho.
- **Oharra:** hasierako osagaia ez dirudi erratzuarrak dioen *larre* denik, *lahar* baizik, hau da ‘arrosaren familiako landarea, zurtoin luze arantzadunak eta lore zuri edo arrosak dituen, eta fruitutzat masusta ematen duena’. Hurrengo osagaiak *-di* atzizki multzokaria + *zabal* adjektiboa dira. Beraz, ‘aski zabala den lahar ugariko tokia’ adierazten du.

Larra Ikus Larre**Larrabazter**

- B.F. Larrabazterra.- Larra - bazter - a. Extremo del campo.
- **Oharra:** *larre* ‘abereak bazkatzen diren belardia’ > *larra-* elkarketan hartzen duen aldaera + *bazter* ‘ertza’, ‘muga’, bai eta ‘aldea’, ‘alderdia’ ere + *-a* artikulua, hau da, ‘larrearen ertza’ edo ‘larrearen aldea’.

Larrabe

- B.F. Larrabe.- Larra - be. debajo del campo.
- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrabazter* sarrera) + *bebe* ‘beheitikoa’ > *be* bilakatua, hau da, ‘larrearen beheko aldean dagoena’.

Larrabetzu

- B.F. Larrabezua.- Larra - be - zu - a. Situado debajo del pastizal.
- **Oharra:** A. Irigoienen arabera, Bizkaiko herri izen honen osagaiak *larrabe* (ikus *Larrabe* sarrera) + *-zu* ugaritasun atzizkia (bertan *-tzu* ahoskatzen dena) dira.

Larrabide

- B.F. Larrabide.- Camino del...
- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrabazter* sarrera) + *bide* ‘larreko bidea’.

Larraburu

- B.F. Larraburu.- Parte superior del...

- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrabazter* sarrera) + *buru* ‘larrearen goiko alderdia’ edo ‘larrearen amaierako zatia’.

Larraga

- B.F. Larraga.- Sitio de corralizas.
- **Oharra:** hasierako osagaiak, itxuraz bederen, ematen du *larre*-ri ‘abereak bazkatzen diren belardia’ edo *labar*-i ‘sasia’ egiten diela erreferentzia, eta bigarren osagaia *-aga* toki atzizkia dela. Badira, aldi berean, erromatarren garaiko *Tarraga* toki izenetik eratorria izaten ahal dela defendatzen dutenak, baina oraingoz iritzi hori bermatzen duen inolako ziurtasunik gabe.

Larragoien

- B.F. Larragoien.- Parte superior del campo.
- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrabazter* sarrera) + *goien* ‘larrearen parterik altuena’.

larrain

- B.F. Larrain.- Era.
- **Oharra:** *larrain* ‘garia eta gainerako laboreak eultzitzen diren leku laua, lurra trinkoa eta, anitzetan, lauzatua duena’, edota ‘landa’, ‘eremua’.

Larraingoa

- B.F. Larraingoa.- La de eras, sitio de eras.
- **Oharra:** *larrain* (ikus *larrain* sarrera) + *-go* atzizki txikigarria + *-a* artikulua, ‘larrain txikia’.

Larrantxiki

- B.F. Larrainchiquis.- Eras pequeñas, (depósito de basura en Pamplona).
- **Oharra:** *larrain* (ikus *larrain* sarrera) + *txiki* adjektiboa ‘ohiko tamaina edo neurria iristen ez duen larraina’. Iruñean jasotako *Larrainchiquis* gaztelaniak *-s* plurala gehituz bereganatutako forma da.

Larrainchiquis Ikus **Larrantxiki**

Larrantzar

- B.F. Larrantzar.- ¿Eras viejas? Larrain -za. Lugar de encima del campo.
- **Oharra:** *larrain* (ikus *larrain* sarrera) + *zabar* ‘lehenagokoa’, ‘aspaldikoa’ *tzar* bilakatua *-n*-ren ondotik ‘larrain zaharra’. B. Fagoagak ematen duen bigarren adiera lekuz kanpokoa da.

Larrakotxea

- B.F. Larracochea, Larrache, Larreche.- Casa del...
- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrabazter* sarrera) + *-ko* toki genitiboa + *etxea*, ‘larrean dagoen etxea’.

Larralde

- B.F. Larralde.- Al lado del campo.
- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrabazter* sarrera) + *alde* ‘ondua’, hau da, ‘larrearen alde-mena’.

Larramendi

- B.F. Larramendi.- Monte de pastos.
- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrabazter* sarrera) + *mendi*, ‘larre mendia’.

Larranbebere

- B.F. Larranbebere, Larrainbebere.- Larrain - behere, beere. Debajo de las eras.
- **Oharra:** segur aski, *larrain* (ikus *larrain* sarrera) > *larran*- bihurtua *-ai-* > *-a-* diptongoaren murrizketaren ondorioz + *behere* ‘beheitikoa’ > *bebere* bilakatua; beraz, ‘larrainaren beheitiko aldea’.

Larranegi

- B.F. Larranegui.- Ladera de eras.
- **Oharra:** *larrain* (ikus *larrain* sarrera), *larran* bilakatua *-ai-* > *-a-* diptongoaren murrizketaren ondorioz, + *-egi* toki atzizkia, ‘larrain tokia’.

Larrañaga

- B.F. Larrañaga.- Sitio de eras.
- **Oharra:** *larrain* (ikus *larrain* sarrera), *-in-* > *-ñ-* palatalizazio automatikoagatik *larrañ* bilakatua + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘larrain tokia’.

Larrañeko zabala

- B.F. Larrañecozabala.- La llanura de las eras (Villamayor).
- **Oharra:** *larrain* (ikus *Larrañaga* sarrera) + *-eko* ‘nongo’ toki genitiboa + *zabal* adjektiboa + *-a* artikulua, ‘larrainak duen zabalera dimentsioa’.

Larrañeta

- B.F. Larrañeta.- Sitio de eras.

- **Oharra:** *larrain* (ikus *Larrañaga* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘larrain tokia’.

Larraona

- **B.F.** Larraona.- Larra - on - a ¿Prado bueno? Larre - gune. Sitio de pastos.
- **Oharra:** itxuraz, *larre* ‘abereak bazkatzen diren belardia’ + *on* adjektiboa + *-a* artikulua dira Ameskoa ibarretako herri izen honen osagaiak. Lekukotasun zaharrenak kontuan izanik, ordea, P. Salaberrik dio oinarrian dagoena antroponimo edo jainkoren baten izena dela (*Larrabe* segur aski). Horretatik sortutakoa da *Larrabona*, hots, *Larrabe* + *ona* > *-oa* edutezko genitiboaren aldaera izan daitekeena, **Larragona* > *Larragoa* bilakatua (euskaraz ezagunak diren *-b-* hasperenduna *-g-* bihurtzearen eta bokalen arteko *-n-* galtzearen ondorioz). Azalpen honen arabera, *Larrabe* delakoaren herria edota dermioa izanen litzateke *Larraona* edota *Larragoa*, eta, horren arabera, alde batera uztekoa aipatutako itxurazko interpretazioa. Euskaraz dagokion izendapena *Larragoa* da.

larrapo Ikus zapo

Larratz

- **B.F.** Larratz.- Sitio de pastizales.
- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrabazter* sarrera) + ugaritasunezko *-tz(a)* atzizkia, ‘larre tokia’ alegia, bai eta ‘lugorria’ edo ‘eremu landugabea’ ere K. Mitxelena-ren iritziz.

Larratza

- **B.F.** Larraza.- Sitio de pastizales.
- **Oharra:** ikus *Larratz* sarrera + *-a* artikulua.

Larraun

- **B.F.** Larraun.- Monte de pastos. Sitio de pastos.
- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrabazter* sarrera) + *gune* > *un(e)* ‘tokia’, ‘aldea’, ‘eremua’, hau da ‘larre tokia’.

Larrauri

- **B.F.** Larrauri.- Larre - uri, iri. Casa o pueblo de campo.
- **Oharra:** *Larre* (ikus *Larrabazter* sarrera) + *uri* Euskal Herriko mendebaldean erabiltzen den *biri* ‘biztanlegune’ edo ‘etxe’, izenaren aldaera, segur aski ‘larrean dagoen etxea’ adierazten duena.

Larraya

- B.F. Larraya.- Larra - di - a. Sitio de pastizales.
- **Oharra:** izen honen oinarrian, beharbada, *larrain* ikus liteke, hau da, ‘garia eta gainerako laboreak eultzitzen diren leku laua, lurra trinkoa eta, anitze-tan, lauzatua duena’, edota ‘landa’, ‘eremua’. Abiapuntu horretatik, pentsa liteke *larrain* > *larrai* aldaera (*artzain* > *artzai*, *arrain* > *arrai* eta abarretan bezala) eta *-a* artikulua ditugula. Ez da, ordea, interpretazio fidagarria, bertzeak bertze, XII. menderako ageri direlako *Larraia* edota *Larraya* formak (ez, ordea, **Larraina*). Dena dela, fidagarritasunik batere gabeko interpretaziotzat jo daiteke B. Fagoagak izenaren osagaien artean sartzen duen *-di* atzizki multzokaria. Euskaraz dagokion izena *Larraia* da.

Larre

- B.F. Larre, Lar, Larra.- Campo de pastoreo, prado, dehesa, zarza.
- **Oharra:** B. Fagoagak hiru izen horiek sarrera berean eman bazituen ere, oinarri desberdinekoak dira. Izan ere, *larre* ‘abereak bazkatzen diren belardia’ da; *labar*, ordea, ‘arrosaren familiako landarea, zurtoin luze arantzadunak eta lore zuri edo arrosak dituena, eta fruitutzat masusta ematen duena’, ‘sasia’ alegia. Azkenik, *larra* izenaren osagaiak *labar*-tik eratorritako *lar* aldaera + *-a* artikulua dira. Bertzalde, bada Nafarroako Pirinioetan *Larra* izeneko toponimoa, baina erratzuarrak emandako gaztelaniazko ordainak ikusita, iruditzen zaigu ez zuela toponimo hori hizpide. Horretaz gainera, M. Belaskoren iritziz, aspaldi dokumentatutako Pirinioetako *Larra* toponimoaren erreferentziazko izena *Arra* (zubereraz ‘ibar txikia’) da, eta izen horri *La* gaztelaniazko artikulua gehituz sortutakoa orain ezagutzen denaren jatorrizko forma, hots, *La Arra* > *Larra*. Halaber, *Larre* toponimo eta deitura ezaguna da.

Larrea

- B.F. Larrea.- El pastizal.
- **Oharra:** *larre* ‘abereak bazkatzen diren belardia’ hesiz itxi edo inguratu ga-bea + *-a* artikulua.

Larregain

- B.F. Larregain.- Larre - gain. Encima del campo.
- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrea* sarrera) + *gain* ‘toki goia’, hau da, ‘larrearen gain-lurra’.

Larregi

- B.F. Larregui.- Larre - egui. Ladera de pastos.
- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrea* sarrera) + *-egi* toki atzizkia edo *begi* ‘mendi hegala’.

Larrei

- B.F. Larrey, Larruy.- Sitio de pastos.
- **Oharra:** (ikus *Larregi* sarrera); euskaraz ohikoa den bokalen arteko *-g-* konsonantearen erortzearen ondorioz sortu dira *Larrei* edota *Larrui* aldaerak.

Larreina

- B.F. Larreina.- ¿Larraina? ¿La era?
- **Oharra:** Iruñean ezaguna da “La Cuesta de la Reina” (hala izendatua, bide hori 1560. urtean Isabel de Valois printzea Iruñean sartzeko ireki zutelako). Bide horren ondoan dago 1933. urtean eraiki zuten kiroldegia, zeini *Larraina* izena jarri zitzaion, ondoko Taconera parkean garai batean larrainak izan zirelako, eta arrazoi horrengatik pentsatu zelako *larraina* izanen zela (*Cuesta de La Reina*-ren jatorrizko izena. Beraz, ez dira gauza bera Iruñeko *La Reina* eta *Larraina* toponimoak.

Larrinpe

- B.F. Larrimpe.- Larrain - pe. Debajo de las eras.
- **Oharra:** *larrain* (ikus *larrain* sarrera), *-ai-* diptongoa *-i-* murriztearen ondorioz, *larrin* bihurtua + *bebe* ‘beheitiko alderdia’ > *pe* bilakatua, ‘larrainaren beheitiko aldea’.

Larrondo

- B.F. Larrondo.- Junto al . . .
- **Oharra:** *larre* (ikus *Larrabazter* sarrera) + *ondo* ‘hurbilekoa’; hortaz, ‘larrearen aldamera’.

Larrui Ikus Larrei**Lasarte**

- B.F. Lasarte.- Entre arroyos.
- **Oharra:** *lats* ‘ur-laster txikia’ + *arte* ‘bitartea’. Gipuzkoako herri izenari dagokionez, euskaldunen artean ere *Lasarte* da ahoskatzen den forma, nekez *Latsarte*.

Laset

- B.F. Laset.- Lats - eta. Sitio de arroyos.
- **Oharra:** ematen duenez, osagaiak *lats* ‘ur-laster txikia’ > *las* bilakatua + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia dira; *Laset* bihurtua apokopeagatik.

Lastiri

- B.F. Lastiri.- Lats - iri. Casa junto al arroyo.
- **Oharra:** *lats* ‘ur-laster txikia’ + *-iri* ‘aldea’, ‘ondoa’ adierazten duen atzizkia, *Lastiri* > *Lastiri* bilakatua metatesiagatik, hau da, ‘errekastoaren ondoa’. *-iri* atzizkia da, ez B. Fagoagak dioen *biri* izena. Ikus *Elizari*, *Gortari*, *Mugairi*, *Zubiri* sarrerak.

Latadi

- B.F. Latadi.- Lata (ancho) - di. Sitio ancho, planicie.
- **Oharra:** ematen duenez, hauek dirudite osagaiak: *lata* ‘teilatuetan, teilen euskarri gisa ezartzen den ohol mehe eta luzea’ + *-di* atzizki multzokaria. *Latadia* Arizkungo etxe baten izena ere bada.

Latasa

- B.F. Latasa.- Lats - za. Sitio de arroyos.
- **Oharra:** M. Belaskoren ustez, Nafarroa Behereko *Latartza* izenarekin izan dezake lotura, izandako **Latarza* > *Latasa*, *-rz-* > *-s-* aldaketaren ondorioz (ikus *Lizaso* sarrera). Horren arabera, oinarrizko erreferentzia *lata* ‘teila-tuetan, teilen euskarri, ezartzen den ohol mehe eta luzea’ izanen litzateke. B. Fagoagak ematen duen ordaina oinarririk gabekoa dirudi.

Lategi

- B.F. Latadi.- Lata (ancho) - egui. Ladera ancha.
- **Oharra:** itxuraren arabera, hauek lirateke osagaiak: *lata* (ikus *Latadi* sarrera) + *-egi* toki atzizkia. *Lategi* Gipuzkoako Urnietako auzo baten izena da.

lats

- B.F. Lasa.- Lats (arroyo) - a. Arroyo.
- **Oharra:** *lats* ‘ur-laster txikia’. *-a* artikuluaarekin, *Latsa*, deitura ezaguna da.

Latsa Ikus **lats****Latsaga**

- B.F. Lasaga.- lats - aga. Sitio de arroyos.

- **Oharra:** *lats* ‘ur-laster txikia’ + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘erreka txikiak dauden tokia’.

Latsagabaster Ikus Latsagabazter

Latsagabazter

- **B.F.** Lasagabaster.- Lats - aga - baster. Extremo del campo acuoso.
- **Oharra:** ikus *Latsaga* sarrera + *bazter* ‘ertza’, ‘muga’ edo ‘aldea’ nahiz ‘alderdia’, *baster* bihurtua, erdararen eraginez ohikoa den *-zt-* > *-st-* dela eta; beraz, ‘erreka txikiak dauden alderdia edo muga’.

latz

- **B.F.** Lacho.- Latz, lach (áspero, flaco).
- **Oharra:** *latz* ‘zimurrez, pikorrez edo irtengunez betea dagoelako edo gogorra delako, ukimenari atsegin ez zaiona’, bai eta ‘atsegina edo gozoa ez dena, gogorra, nekagarria’ ere. J.M. Iribarrenen arabera, gaztelaniaz erabiltzen den “lacho” euskarazko *latz* hitzaren aplikazioa da, Nafarroan honako adierazpen hau duena: “persona flaca, pálida, deslucida, esmirriada” edota “chico escuálido”.

Lazagurria

- **B.F.** Lazagurria.- Latsa - gurri, gorri - a. Río rojo.
- **Oharra:** lekukotasun zaharren arabera, *Elizagorria* (*eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ + *gorri* adjektiboa + *-a* artikulua) izenetik sortutakoa da *Lazagurria*, aldaketa hauek medio direla: aferesiagatik *e-* bokalaren erortzea, *-liza-* > *-laza-* bokalen asimilazioagatik eta *gorria* > *gurria* bilakaera. Beraz, toponimo honen lehenbiziko osagaia *eliza* da, ez B. Fagoagak uste izan zuen *latsa*. Euskaraz dagokion izena *Elizagorria* da.

Lazkao

- **B.F.** Lezcano, Lazkano.- Lezka - no. Sitio de juncos.
- **Oharra:** Gipuzkoako herri izen hau *Lazkao* da euskaraz. Bere etimologiari dagokionez, P. Salaberriren eta L.M. Zalduaren ustez antroponimo batean oinarritutako izena da. Hala izatera, baztertzekoa litzateke B. Fagoagaren azalpena.

Legarda

- **B.F.** Legarda.- Legar - di - a. Sitio de...
- **Oharra:** zalantzazko azalpena da egile erratzuarrak egiten duena, hain zuzen ere, herri izen horri dagokion dokumentazio zaharretan, oraingoz

behintzat, ez delako aurkitu *-di* atzizkia duen lekukotasunik. Izan ere, XI. menderako erabat errotua ageri da *Legarda* herri izena eta, gainera, izen hori bertze zenbait tokitako toponimia txikian ere aspalditik dokumentatua da, hala nola Mendabian, Lizasoainen, Gasteizen eta abarretan. K. Mitxelena-ren ustez, *-da* zenbait izenetan ageri den atzizkia da: *Leunda*, *Muskilda*, *Zirarda*... , baina oraingoz zehaztu ez dena.

Legardeta

- B.F. Legardeta.- Legar - eta. Sitio de...
- **Oharra:** ikus *Legarda* sarrera + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia.

Legarra

- B.F. Legarra.- Legar (arena, piedrecilla menuda, guija) - aga.
- **Oharra:** *legar* 'ibai eta itsasoen ertzetako harri koskorra, eta, bereziki, horien multzoa; harri xehatua, bideetan-eta ezartzen dena', baita 'harea' ere, + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, 'legar tokia'.

Legarrea

- B.F. Legarrea.- Sitio de...
- **Oharra:** *legar* (ikus *Legarra* sarrera) + *-ean* 'non' adierazten duen atzizkia > *-ea* bilakatua, *Legarrea* alegia. Bilakaera hori ezaguna da bertze zenbait toponimo nahiz etxe-izenetan, erraterako, *zabal* + *-ean* > *Zabalean* > *Zabalea*.

Legarreta

- B.F. Legarreta.- Sitio de...
- **Oharra:** *legar* (ikus *Legarra* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia.

Legorburu

- B.F. Legorburu.- Legor (seco) - buru. Cima del terreno seco.
- **Oharra:** *lebor* izenaren aldaera da *legor* 'urik ez duena, bustirik ez dagoena', 'idorra' + *buru* 'goiko aldea'; beraz, '(toki) lehorraren goiko aldea'.

Leizaran

- B.F. Leizaran.- Leiza - aran. Valle de Leiza.
- **Oharra:** *Leitza* Nafarroako herria + *baran* 'ibarra', 'Leitzako ibarra'.

Ieka

- B.F. Leca.- La vaina de las legumbres.

- **Oharra:** *leku* ‘babarrunen, ilarren eta kideko landareen haziak gordetzen dituen estalkia’.

Lekueder

- B.F. Lecueder.- Leku (sitio) - eder. Sitio hermoso.
- **Oharra:** *leku* ‘tokia, espazioaren zati jakina’ + *eder* adjektiboa ‘bere itxura edo eragatik, ikusmenari-edo, guztiz atsegina edo miresgarria gertatzen zaiona’, hau da, ‘toki arras atsegin edo miresgarria’, bai eta ‘toki handia’ ere. Ikus *Tokieder* sarrera.

Lekunberri

- B.F. Lecumberri.- Leku - berri. Sitio nuevo, pueblo nuevo.
- **Oharra:** *leku* (ikus *Lekueder* sarrera) + *berri* adjektiboa ‘toki berria’ edo ‘labakia’ alegia. Zenbaiten iritziz, jatorrizko izendapena **Lekuonberri* (*leku* + *on* + *berri*) da, baina oraingoz ez da aurkitu hori ziurtatzen ahal duen lekukotasunik.

Lekuona

- B.F. Lecuona.- Sitio bueno.
- **Oharra:** *leku* (ikus *Lekueder* sarrera) + *on* adjektiboa + *-a* artikulua, ‘toki egokia, ederra’.

lera

- B.F. Lera.- Especie de trineo que arrastra por el suelo.
- **Oharra:** *lera* ‘gurpilik gabeko orga, bi albo oholen bidez irristatzen dena, elur gainean ibiltzeko, edo toki aldatasuetan zerbait garraiatzeko erabiltzen dena’.

Lerdoi

- B.F. Lerdoi.- Ler (pino) - doy. Sitio de..., pinar.
- **Oharra:** *ler* ‘pinua’ + *-doi* atzizki multzokaria, ‘pinu ugariko tokia’.

Lerga

- B.F. Lerga.- Ler - ga, aga? ¿Sitio de pinos?
- **Oharra:** P. Salaberriren iritziz, izen honen osagaiak hauek lirerateke, segur aski: *ler* ‘pinua’ + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, hots, ‘pinu ugariko tokia’. Ikus *Lerdoi*.

Lerruz

- B.F. Lerruz.- Ler - uz. ¿Sitio de pinos?
- **Oharra:** litekeena da izenaren lehenbiziko osagaia *ler* ‘pinua’ izatea; bigarrrena, berriz, oraingoz argitu ez den zerbait da. Kontzeju honen izendapen ofiziala *Lerruz* / *Lerrutz* da.

Lertxundi

- B.F. Lerchundi.- Lerchun (tiemblo, Bot., grulla) - di. Sitio de tiemblos.
- **Oharra:** *lertxun* ‘makalaren familiako zuhaitz azal-leuna, haize leunaren eraginez dardaratzen diren hosto txortzen-luzeak dituen’ + *-di* atzizki multzokaria, ‘lertxun tokia’ alegia. Ikusten denez, B. Fagoagak bi izen nahasi ditu, azaldu dugun *lertxun* zuhaitza eta toponimo honekiko erabat baztertzeakoa den *lertsun* hegaztiaren izena, hots, ‘kurrilo mota arruntena, gorputzeko lumak hauskarak, buru aldekoak gorri-beltzak bi zerrenda zurirekin, eta isatsenkoak motots antzera dituen’.

Lesaka

- B.F. Lesaca.- Leze, Liza (río) - ga, aga. Sitio de riachuelos.
- **Oharra:** Egileak ematen duen azalpena erabat lekuz kanpokoa da; izan ere, *Lesaka* herri izena, Erdi Aroaz geroztik *Lesaca*, *Lessaca* edo *Lesaqu*a gisa dokumentatua ageri da eta bere hasierako osagaia beti *le(s)sa-* da (inoiz ez *leza-* edo *liza-*) eta amaierakoa *-ca*, *-qua* (inoiz ez *-(a)ga*).

Lezaburu

- B.F. Lezaburu.- Leza (cueva, río) - buru. Encima del río, del sitio acuoso.
- **Oharra:** *leize* ‘haitzulo guztiz sakona; sakontasun handi eta arriskutsua’ + *buru* ‘goreneko alderdia’ edo ‘bukaera’; *leze* aldaera da eta *leza-* elkarketan hartzen duen forma; beraz, ‘leizearen goiko aldea edo amaierako parte’; ez, ordea, leizearen gainean dagoena.

Lezaeta

- B.F. Lezaeta.- Sitio de...
- **Oharra:** *leize* (ikus *Lezaburu* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘leize tokia’.

Lezaun

- B.F. Lezaun.- Leza - un, une. Espacio de cuevas o ríos.

- **Oharra:** *leize* (ikus *Lezaburu* sarrera) + *gune* > *un(é)* ‘tokia’, ‘aldea’, ‘eremua’, hau da, ‘leize tokia’.

leze

- **B.F.** Lezea.- Leze (cueva, sima) - a. La cueva.
- **Oharra:** *leize* ‘haitzulo guztiz sakona; sakontasun handi eta arriskutsua’ eta izen horren aldaera da *leze*. -a artikuluekin, *Lezea*, deitura ezaguna da.

Lezea Ikus leze

Lezeaga

- **B.F.** Lezeaga.- Sitio de cuevas.
- **Oharra:** *leze* (ikus *leze* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘leize tokia’.

Lezealdea

- **B.F.** Lezialdea.- Al lado de las cuevas.
- **Oharra:** *leize* (ikus *leze* sarrera) + *alde* postposizioa ‘hurbileko alderdia’ + *-a* artikulua; beraz, ‘leizearen aldamena’.

Lezeta

- **B.F.** Lezeta.- Sitio de cuevas.
- **Oharra:** (ikus *leze* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘leize tokia’.

Lezkairu

- **B.F.** Lezcairu.- Lezca (junco) - ¿iru, iri? ¿Sitio de juncos?
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *lezka* ‘kanaberaren zurtoinaren antzeko zurtoina duen belar landarea (*Typha sp.*)’ dela dirudi; amaierakoa, berriz, oraingoz ezezaguna bada ere, ematen du ‘tokia’ren adierazle izan daitekeela.

Lizaberria

- **B.F.** Lizaberria.- Eliza - berria. Iglesia nueva.
- **Oharra:** *eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ > *liza*- bilakatua aferesiagatik, hau da, *e-* bokala erortzearen ondorioz, + *berri* adjektiboa, ‘eliza berria’, alegia. Ikus *Lazagurria* / *Elizagorria* sarrera.

Lizaga

- **B.F.** Lizaga: Liz, lez (río) - aga. ¿Sitio de río? Eliz - aga. ¿Sitio de iglesia?

- **Oharra:** itxura guziaren arabera, erreferentziarik egokiena B. Fagoagak ematen duen bigarrena da, hots, *eliza* ‘parrokia’ edo ‘elizaren eraikina’ > *liza-* bihurtua aferesiagatik + *-aga* toki atzizkia; beraz ‘eliza dagoen tokia’. Ikus *Elizaga* sarrera.

Lizarbe

- B.F. Lizarbe.- Debajo del fresno.
- **Oharra:** *lizar* ‘olibondoaren familiako zuhaitz handi eta hostotsua, hosto-erorkorra, zura argia, gogorra eta malgua duena (*Fraxinus* sp.)’ + *bebe* ‘behekoa’ > *be* bilakatua; beraz, ‘lizarraren beheko aldean dagoena’.

Lizardi

- B.F. Lizardi, Lizarreta, Lizarza, Lizarzu.- Sitio de fresnos.
- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera berean emandako lau izen horietako lehenbiziko osagaia *lizar* da (ikus *Lizarbe* sarrera); bigarren osagaiak honako hauek dira hurrenez hurren: *-di*, *-eta*, *-tza* eta *-zu* toki atzizkiak eta, multzokariak ere badirenez gero, ‘lizar tokia’ ez ezik ‘lizar ugari dagoen tokia’ ere adierazten dute.

Lizarmeaka

- B.F. Lizarmeaca.- Lizar - meaca (collado, desfiladero, quijada). Collado de fresnos.
- **Oharra:** *lizar* (ikus *Lizarbe* sarrera) + *mehaka* ‘bide meharra, bereziki mendi artekoa’, nahiz Baztanen ‘mendien arteko lepoa’ ere baden.

Lizarraga

- B.F. Lizarraga.- Lizar (fresno) - aga. Sitio de fresnos.
- **Oharra:** *lizar* (ikus *Lizarbe* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, hau da, ‘lizar tokia’.

Lizarragabengoa

- B.F. Lizarragabengoa.- Lizarraga - be - en - go - a. Lizarraga el de más abajo.
- **Oharra:** ikus *Lizarraga* sarrera + *bebengo* ‘beheitikoa’ + *-a* artikulua; beraz, ‘beheko aldean dagoen Lizarraga’.

Lizarralde

- B.F. Lizarralde.- Hacia los fresnos.

- **Oharra:** *lizar* (ikus *Lizarbe* sarrera) + *alde* ‘hurbileko alderdia’, hots, ‘lizarra-
ren aldamera’.

Lizarreta Ikus Lizardi

Lizarribar

- B.F. Lizarribar.- Vega de fresnos.
- **Oharra:** *lizar* (ikus *Lizarbe* sarrera) + *ibar* ‘harana’, hau da, ‘lizarrak dituen
ibarra’.

Lizarriturri

- B.F. Lizarriturri.- Fuente de los fresnos.
- **Oharra:** *lizar* (ikus *Lizarbe* sarrera) + *iturri* ‘ura ateratzen den tokia’; beraz,
‘lizar tokiko iturria’.

Lizarrondo

- B.F. Lizarrondo.- Junto a la fresnada.
- **Oharra:** *lizar* (ikus *Lizarbe* sarrera) + *ondo* ‘hurbileko alderdia’, ‘aldamera’.

Lizartza Ikus Lizardi

Lizartzu Ikus Lizardi

Lizaso

- B.F. Lizaso.- Liza - so. Sitio de regatas.
- **Oharra:** *lizar* (ikus *Lizarbe* sarrera) + *-zu* toki ugaritasunezko atzizkia *-so*
bilakatua *-rz-* > *-s-* aldaeragatik (ikus *Latasas* sarreran). B. Fagoagak ematen
duen azalpena baztertzekoa litzateke.

Lizaur

- B.F. Lizaur.- Liza - aurre. Enfrente del río.
- **Oharra:** K. Mitxelenaren arabera, toponimo honen osagaiak hauek izanen
lirateke: *leize* (ikus *leze* sarrera) > *liz(e)-* eratorria diptongoaren murrizketa-
gatik, + *aurre* ‘alde nagusia’, *lizaur* bilakatua apokopeagatik; beraz, ‘leizearen
aurrea’.

Lizoain

- B.F. Lizoain.- Liza - gain. Encima del río.

- **Oharra:** *-ain* atzizkiaz amaitutako izenek normalean pertsona baten jabetza adierazten dute (ikus, erraterako *Andoain, Ansoain, Garinoain, Muniain* sarre-
rak). Toponimo hau ere aipatutakoen antzekoa litzateke, argi ikusten ez bada ere zein izeni egiten dion erreferentzia hasierako *Lizo-* horrek. B. Fa-
goagaren azalpena alde batera uztekoa iruditzen zaigu.

Lizondo

- B.F. Lizondo.- Liza - ondo. Junto al río (etimología del pueblo de Elizondo).
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *eliza* da, bertze zenbaitetan bezala (ikus *Lazaгурria, Lizaberria* eta *Lizaga* sarre-
rak) *liza-* bilakaturia, + *ondo* ‘hurbileko alderdia’, hau da, ‘elizaren aldamera’. Horretaz gainera, ikusirik Baztango herriburuaren leku-
kotasun zaharrenak, eta ugariak gainera, *Eliçaondo* edota *Eliçondo* direla, zail egi-
ten da ulertzea zertan oinarritu zen erratzuarra aipatzen duen etimologiarako.

Loiarte

- B.F. Loyarte.- Loi - arte. Entre barro.
- **Oharra:** *lobi* ‘urezko eta hauts edo lurrezko nahastura, leku jakin batean, euria egitean, erraterako, eratzen dena’, ‘lokatza’ + *arte* ‘bitartea’.

Loidi

- B.F. Loidi.- Loi (barro) - di. Sitio de barro.
- **Oharra:** *lobi* (ikus *Loiarte* sarrera) + *-di* atzizki multzokaria; beraz, ‘lohi edo lokatz anitz dagoen tokia’.

Loigorri

- B.F. Loigorri.- Barro rojo.
- **Oharra:** *lobi* (ikus *Loiarte* sarrera) + *gorri*, kolore gorria adierazten duen ad-
jektiboa.

Loiola

- B.F. Loitegui, Loiti, Loizaga, Loizu, Loiola. Sitio de barro.
- **Oharra:** egileak multzo honetan sartutako borts sarreretako lehenbiziko osa-
gaia *lobi* ‘lokatza’ da. Bigarrenei dagokienez, ez dira denak zehaztasun berekoak, *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ *Loiola*-ren kasuan, *-tegi* tokia adierazten duen atziz-
kia *Loitegi*-rean; azkenik, *-aga*, *-ti*, *-tza* eta *-zu* ugaritasunezko atzizkiak gaine-
raoetan, kontuan hartuz horietako bi biltzen dituela *Loitzaga* toponimoak.

Loitegi Ikus Loiola

Loiti Ikus **Loiola****Loitzaga** Ikus **Loiola****Loizu** Ikus **Loiola****Loperena**

- B.F. Loperena.- Lope - r - en - a. La de Lope.
- **Oharra:** *Lope* pertsona izena + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, 'Loperen etxea'. Ikus *Lopetegi*.

Lopetegi

- B.F. Lopetegui.- Casa de Lope.
- **Oharra:** *Lope* pertsona izena + *-tegi* jabetza adierazten duen atzizkia, 'Loperen etxea'. Ikus *Loperena*.

Lorca

- B.F. Lorca, ¿Elorca?, Elorga, ¿Elorriaga? - Sitio de endrinos, espinos.
- **Oharra:** B. Fagoagak, zalantzarekin bazen ere, multzo berean sartu zituen lau izen horiek. Baina ematen duenez, lehenbiziko biak (*Lorca*, *Elorca*) ez dirudi euskal jatorrizko toponimoak direnik (*Lorca* Nafarroako herri izena izateaz gainera, Murtziako hiri izena ere bai baita), ez eta zerikusirik ote dutenik ere bertze biekin. Izan ere, *Elorriaga* (ikus *Elorriaga* sarrera) izenaren osagaiak *elorri* 'zenbait zuhaixka mota arantzatsuri ematen zaien izena' + *-aga* toki ugartasunezko atzizkia dira, eta agian haplologiagatik bihurtutakoa da *Elorga* aldaera. Deierriko kontzejuaren izendapen ofiziala *Lorca / Lorka* da.

lore

- B.F. Lorea.- Lore - a. La flor.
- **Oharra:** *lore* 'hainbat landareren zati koloretsu eta, anitzetan, usaintsua, ernaltze organoak dauzkana', bai eta 'loreak, bereziki apaingarritarako, ematen dituen landarea'. *-a* artikularekin, *Lorea*, pertsona izen eta deitura ezaguna da.

Lorea Ikus **lore****Lubeltza**

- B.F. Lubelza.- Lur (tierra) - belz - a. Tierra negra.

- **Oharra:** *lur* ‘lurraren azalaren zati biguna, landareak hazteko balio duena’ + *beltz*, kolore beltza adierazten duen adjektiboa + *-a* artikulua > *lubeltza* eratorria, *lur* hitzak elkarketan *-r* galtzearen ondorioz.

Luquin

- **B.F.** Luquin. ¿Castrum Lucianum? / Amatriain. ¿Emeterianum? Barañáin ¿Veranianum? Beriáin ¿Marianum? (Caro Baroja). Sed contra: Muniain, Lizoain, Guerendiain Ainzoin, Larrain etc. ain = gain.
- **Oharra:** Nafarroan ugariak dira *-ain* amaiera duten herri izenak eta, normalean, antroponimoren bati egiten diote erreferentzia, delako pertsona horren jabetza adieraziz. Ikusten denez, B. Fagoagak ezagutu ezagutzen zuen C. Barojaren iritzia, baina ez zuen onartzen nonbait; izan ere, sarrera honetan emandako izen batzuk (¿? galdera ikurrak daramatzatenak) zalantzazkotzat jotzen zituen, eta bertze batzuk, ordea (galdera ikurrik ez dutenak) euskarazko *gain* ‘toki goia’-rekin lotzen, horien artean erranahi horrekin inolako zerikusirik ez duen *larrain* hitza. Euskaraz dagokion izena *Lukin* da.

luze

- **B.F.** Luzea.- Luze - a. El largo o casa larga.
- **Oharra:** *luze* ‘hedaduraz mintzatuz, luzera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duena’, eta ‘pertsonen edo behetik gora hedatzen diren gauzez mintzatuz, garaia, altua dena’. *-a* artikuluekin, *Luzea*, deitura eta toponimo ezaguna da.

Luzea Ikus luze

Luzuriaga

- **B.F.** Luzuriaga.- Lur - zuri - aga. Lugar de tierra blanca.
- **Oharra:** *lur* ‘lurraren azalaren zati biguna, landareak hazteko balio duena’ + *zuri*, hau da, kolore zuria adierazten duen adjektiboa > *luzuri* eratorria, *lur* hitzak elkarketan *-r* galtzearen ondorioz + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘lur zuria tokia’.

macarroso Ikus makar

Madariaga

- **B.F.** Madariaga.- Madari (pera, peral silvestre) - aga. Sitio de...
- **Oharra:** *madari* ‘udarea’ + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘udare tokia’.

Maisterra Ikus **maizter****Maisterrena** Ikus **Maizterrena****Maistruarena**

- B.F. Maistruarena.- Maistru - arena. La del maestro.
- **Oharra:** *maistru* ‘lehen irakaskuntzako irakasle gizona’koa, *maisu* izenaren aldaera + *-arena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘maisuaren etxea’.

Maisuetxe

- B.F. Maisueche.- Maisu - eche. La casa del maestro.
- **Oharra:** *maisu* ‘lehen irakaskuntzako irakasle gizona’koa + *etxe*, ‘maisuaren etxea’. Ikus *Maistruarena* sarrera.

maizopil

- B.F. Maizopil.- Maiz - opil (torta). Torta de maíz. Torpe, obtuso.
- **Oharra:** *maiz* ‘artoa’ Nafarroako zenbait tokitan + *opil* ‘irinezko oreka labearen erreta egiten den ogi modukoa, biribila eta txikia’, *artopil* alegia, ‘artoarekin irinarekin egiten den opila’.

maizter

- B.F. Maisterra.- Maister (inquilino, zagal mayor)... (S. XII).
- **Oharra:** *maizter* ‘baserri, lur, etxe edo bizileku bat errentan hartzen duen pertsona’; *maister* aspalditik errotutako aldaera da, eta hortik ezaguna den *Maisterra* deitura.

Maizterrena

- B.F. Maisterrena.- La del... .
- **Oharra:** *maizter* (ikus *maizter* sarrera) + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘maizterrenaren etxea’. *Maisterrena* ere, *Maisterra* bezala, aspalditik errotutako aldaera da.

makar

- B.F. Macarra, macarroso.- Legaña, legañoso.
- **Oharra:** *makar* ‘betazal ertzetan pilatzen den malko lehortua’. J.M. Iribarrenek Iruñean gaztelaniazko hizkeran erabiltzen diren “macarra” eta “macarroso” jaso zituen.

Makatzaga

- B.F. Macazaga.- Macatz (árbol frutal bravío) - aga. Sitio de...
- **Oharra:** *makatz* ‘fruta arbola txertatu gabea’ + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia.

malda

- B.F. Malda.- Cuesta. Zarza.
- **Oharra:** *malda* ‘aldapa’.

Malerreka

- B.F. Malerreca.- Mala (tierra arrastrada por un torrente, tierra húmeda y fértil) - erreca. Regata de...
- **Oharra:** *mala* Zuberoan ‘errekaren jalkina’ da, hots, ‘urak, haizeak edo kanpoko bertze higatzaile batzuek utzitako gaiez (hondarrez, buztinez...) eraturako metaketa’, *limo*-aren sinonimotzat jo daitekeena, alegia ‘ibaietako urek ibai hondoan edo ertzetan uzten duten lohi modukoa, materia organikoetan aberatsa dena’. R.M. Azkuek dio *mala* ‘uholde batek arrastaka eramandako lurra’ dela. Horiek dira, hain zuzen ere, B. Fagoagak jasotako erranahiak. Horren arabera, Nafarroako ibar ezagunaren lehenbiziko osagaia *mala* izanen litzateke eta *erreka* bigarrena, elkarketan *Malerreka* egiten duena, hau da, ‘arrastaka eramandako lurra duen erreka’. *Malerreka* da ibarraren izendapen ofiziala. Bide batez, alde batera uztekoak dira, herri etimologiaz sortu eta zenbaitek erabiltzen dituzten **Maldaerreka* edota **Malderreka* ustezko izenak.

Malkarra

- B.F. Malcarra.- Paja de habas, veza (Iribarren). Cuesta.
- **Oharra:** *malkar* ‘aldapa pikoa eta latza; toki aldapatsua, haitzez betea’ + *-a* artikulua. Toponimian nahiko arrunta da erranahi horrekin. J.M. Iribarrenek Iruñerrian jasotako *malcarra*-ren berri ematen du bere erranahia “paja de habas” edo “veza” dela adieraziz, baina kontua da horren euskarazko ordaina *zalke* dela.

Malkartegi

- B.F. Malcartegui.- Sitio de malcarra.
- **Oharra:** *malkar* (ikus *Malkarra* sarrera) + *-tegi* leku atzizkia ‘toki aldapatsua eta zakarra’. J.M. Iribarrenek *malcartegui* ere jaso zuen Añorben “pajar de malcarra” adierarekin.

mami

- B.F. Mami.- Meollo del pan, del hueso, de la carne, cuajada.
- **Oharra:** *mami* ‘ogiaren, fruituen edo aleen barrualdea osatzen duen gai biguna, azalak estaltzen duena’, bai eta ‘hezurren aitzineko haragia’ ere, eta Gipuzkoan batik bat ‘gaztanbera’, ‘gatzatua’ ere bai.

mandar

- B.F. Mandarra.- Delantal para trabajar.
- **Oharra:** *mandar* ‘mantala’.

Mañeruko

- B.F. Mañeruco.- Mañeru - co. De Mañeru.
- **Oharra:** *Mañeru* Nafarroako herria + *-ko* ‘nongo’ adierazten duen genitibo atzizkia.

Mariategi

- B.F. Mariategi.- La casa de María.
- **Oharra:** *Maria* pertsona izena + *-tegi* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Mariaren etxea’.

Marigorta

- B.F. Marigorta.- Mari - gorta, corta. El sel de María, la casa de...
- **Oharra:** *Mari(a)* pertsona izena + *gorta* edo *korta* ‘ukuilua’ > *Marigorta*, gaur egun familia-deitura gisa ezaguna.

Marimartinena

- B.F. Marimartinena.- Mari - Martin - en - a. La de Mari Martín.
- **Oharra:** *Mari(a)* + *Martin* pertsona izenak + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Maria Martinen etxea’. Kontuan izan behar da, euskaldunen artean, XVI. eta XVII. mendeetan batik bat, erabat arrunta zela gizon izen bati *Mari-* aitzinetik paratzea emakume izena bihurtzeko, hala nola *Mari-migel*, *Marimartin*, *Mariesteban* eta abar. Izen horiek geroago *Mikaela*, *Martina*, *Estefania* gisa normalizatu izan ziren eta *Marimartinena*, berriz, *Martinarena*.

Mariñelarena

- B.F. Mariñelarena.- Mariñel (marinero) - a - r - en - a. La del marinero.
- **Oharra:** *marinel* ‘itsasontzian, eskuzko lana egiten duen langilea; lanbidez itsasoan ibiltzen den pertsona’, *-in-* > *-iñ-* palatalizazio automatikoagatik

mariñel aldaera hartzen duena, + *-arena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘marinelaren etxea’.

Mariskorena

- B.F. Mariskorena.- La de Marisco (diminutivo).
- **Oharra:** *Mari(a)* pertsona izena + *-sko* atzizki txikigarria + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Maria txikiaren etxea’.

Maritorea

- B.F. Maritorea.- La de Marito (diminutivo).
- **Oharra:** *Mari(a)* pertsona izena + *-to* atzizki txikigarria + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Maria txikiaren etxea’.

Markotegi

- B.F. Marcotegui.- La casa de Marco.
- **Oharra:** *Marko* pertsona izena + *-tegi* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Markoren etxea’.

Martiarena

- B.F. Martiarena.- Marti - arena. La de Martí, Martín.
- **Oharra:** *Marti* pertsona izena + *-arena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Martiren etxea’.

Martikorena

- B.F. Marticorena, Martinicorena.- La de Martinico.
- **Oharra:** *Marti* pertsona izena + *-ko* atzizki txikigarria + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Marti txikiaren edo Martikoren etxea’. *Martinikorena* (*Martin* + *-iko* + *-rena*) aldaera da.

Martikotena

- B.F. Marticotena.- La de Marticot (diminutivo).
- **Oharra:** *Martiko* pertsona izena (ikus *Martikorena* sarrera) + *-ot(ē)* atzizki txikigarria + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Marti txikiaren edo Martikoten etxea’.

Martinena

- B.F. Martinena.- La de Martín.
- **Oharra:** *Martin* pertsona izena + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Martinen etxea’.

Martingorena

- B.F. Martingorena.- La de Martingo.
- **Oharra:** *Martin* pertsona izena + *-ko* atzizki txikigarria > *-go* bilakatua *n-*kontsonantearen eraginez, + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Martin txikiaren etxea’.

Martinikorena Ikus Martikorena**Matxinandiarena**

- B.F. Machinandiarena.- Machin - andi - arena. La de Machín (Martín) el grande.
- **Oharra:** *Matxin*, *Martin* pertsona izenaren aldaera txikigarria + *bandi* adjektiboa ‘ohiko tamaina, neurria, gaintzen duena’ edota ‘bere prestutasunagatik-edo, gizartean maila gora duena edo iritsi duena’, normalean izengoitzat paratua, + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Matxin handiaren etxea’.

Matxinbarrena

- B.F. Machinbarrena.- Machin - Barrena (nombre y apellido).
- **Oharra:** *Matxin* (ikus *Matxinandiarena* sarrera) + *barren* ‘beheitiko alderdia’ + *-a* artikulua. *Matxinbarrena* izeneko etxea, Ultzamako Alkotz herrian, 1726an behinik behin, dokumentatzen da eta, horretaz gain, familia-deiturara gisa ere ezaguna da.

Matxiñena

- B.F. Machiñena.- La de Machín.
- **Oharra:** *Matxin* (ikus *Matxinandiarena* sarrera), *Matxiñ* bihurtua, *-in-* > *-iñ-* palatalizazio automatikoagatik, + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Matxiñen etxea’.

Matxinot

- B.F. Machinot.- Diminutivo de Machín.
- **Oharra:** *Matxin* (ikus *Matxinandiarena* sarrera) + *-ot(e)* atzizki txikigarria, ‘Matxin txikia’.

mazela

- B.F. Mazela.- Carne del papo del cerdo, carrillo.
- **Oharra:** *masaila* izenaren aldaera da *mazela*, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian erabiltzen da eta erranahi hauek ditu: ‘aurpegiaren alboko alde,

sudurraren eta belarriaren artean dagoena, begi azpitik kokotseraino hedatzen dena' eta mendiez mintzatuz 'alboa', 'aldatsa' edota 'hegala'.

Mendavia Ikus Mendibe

mendi

- B.F. Mendia.- Mendi (monte) - a. El monte.
- **Oharra:** *mendi* 'inguruko eremutik nabarmen goratzen den lurzatia'. -a artikularekin, *Mendia*, deitura ezaguna da.

Mendia Ikus mendi

Mendiaga

- B.F. Mendiaga.- Sitio de montes.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, 'mendi tokia'.

Mendialdea

- B.F. Mendialdea.- Hacia el monte.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *alde* 'hurbileko alderdia' + *-a* artikulua, 'mendiaren aldamera'.

Mendiaran

- B.F. Mendiaran.- Mendi - aran. ¿Vega de montes? ¿Ciruela de monte?
- **Oharra:** toponimo honen osagaiak *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *baran* 'ibarra', dira seguruenik, hau da, 'mendi tokiko ibarra', alde batera utzi gabe B. Fagoagak *basaran* 'larrean hazten den zuhaixka arantzatsua' edo 'landare horren fruitua, txikia eta latza' izenarekin ikusten dion parekotasuna.

Mendiarte

- B.F. Mendiarte, Mendarte. Entre montes.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *arte* 'bitartea', hots, 'mendien bitarteko eremua'.

Mendibe

- B.F. Mendibe, ¿Mendavia? - Debajo del monte.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *bebe* 'beheitikoa' > *be* bilakatua, 'mendiaren beheko aldean dagoena'. *Mendavia* toponimoak, ordea, ez dirudi *Mendiberekin* erlaziorik duenik B. Fagoagak uste izan zuen bezala.

Mendibil

- B.F. Mendibil.- Junto a..., debajo de...
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *biribil* ‘borobila’ > *bil* bilakatua, ‘mendi borobila’ alegia; beraz, zerikusirik ez B. Fagoagak ematen dion erranahiarekin.

Mendiburu

- B.F. Mendiburu.- Parte superior del monte.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *buru* ‘goreneko alderdia’.

Mendiburutegia

- B.F. Mendiburutegia.- La casa de Mendiburu.
- **Oharra:** ikus *Mendiburu* sarrera, familia-deitura eratorria, + *-tegi* jabetza adierazten duen atzizkia + *-a* artikulua, ‘*Mendiburu* deitura duen pertsonaren etxea’.

Mendieta

- B.F. Mendieta.- Sitio de montes.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezkoa atzizkia, ‘mendi tokia’. Ikus *Mendiaga*.

Mendigaña

- B.F. Mendigaña.- Mendi - gain - a. Parte superior del monte.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *gain* ‘gailurra’, ‘toki gora’ > *gañ* bihurtua *-in-* > *-ñ-* palatalizazio automatikoagatik, + *-a* artikulua.

Mendigatxa

- B.F. Mendigacha.- Mendi - gaitz - a. Monte malo.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *gaitz* ‘gaiztoa’ edo ‘hagitz handia’ (*gatx* Erronkaribarko aldaera da) + *-a* artikulua.

mendigoizale

- B.F. Mendigoizale.- Mendi - goi - zale (aficionado). Aficionado a las alturas de los montes, montañero.
- **Oharra:** *mendigoizale* (ikus *mendi* sarrera) + *goi* ‘leku gora’ + *zale* ‘zerbait hagitz gogoko duena’, hau da, ‘mendizalea’.

Mendigorria

- B.F. Mendigorria.- Monte rojo.

- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *gorri* ‘kolore gorrikoa’ edota ‘landarerik gabekoa’, ‘soila’ + *-a* artikulua.

Mendiguren

- B.F. Mendiguren.- Límite del monte, monte lozano.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *guren* ‘ederra’.

Mendikoa

- B.F. Mendikoa.- La del monte.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *-ko* ‘nongo’ adierazten duen genitibo atzizkia + *-a* artikulua.

Mendilibarri

- B.F. Mendilibarri.- Mendi - iri - barri, berri. Villa nueva del monte.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *biri* ‘hiria’, ‘herria’ > *ili* eratorria, ezaguna den *-r-* eta *-l-* kontsonanteen txandaketagatik (ikus *Belascoain* sarrera), + *barri* adjektiboa, *berri*-ren ohiko aldaera, batik bat Euskal Herriko mendebaldean, bai eta Ameskoa ibarretako toponimian ere; beraz, ‘mendiko hiri edo herri berria’.

Mendiluze

- B.F. Mendiluze.- Monte largo.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *luze* adjektiboa, ‘luzera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen mendia’.

Mendiola

- B.F. Mendiola.- Sitio de montes.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *ola*, ‘mendiko burdinola’ nahiz ‘mendiko artzain txabola’.

Mendiondo

- B.F. Mendiondo.- Junto a...
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *ondo* ‘hurbileko alderdia’, hau da, ‘mendiko aldamena’.

Mendizabal

- B.F. Mendizabal.- Monte ancho.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *zabal* adjektiboa, ‘zabalera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen mendia’.

Mendizorrotza

- B.F. Mendizorrotza.- Mendi - zorrotz (agudo, afilado) - a. Monte agudo.
- **Oharra:** *mendi* (ikus *mendi* sarrera) + *zorrotz* 'punta edo ertza mehea duena' + *-a* artikulua.

Merkapide

- B.F. Mercapide.- Merca, mercatu (mercado) - bide. Camino del mercado.
- **Oharra:** toponimo honen osagaiak *merkatu* 'erosteko eta saltzeko toki jakin eta ageria' eta *bide* izen arrunta dira, *merkatubide* alegia, *merkapide* eratorria *-b* > *-p*- bilakaeragatik eta haplologiagatik.

Merkatondoa

- B.F. Mercatondoa.- Junto al mercado.
- **Oharra:** *merkatu* 'erosteko eta saltzeko toki jakin eta ageria' + *ondo* 'hurbileko alderdia' + *-a* artikulua 'merkatuaren aldamera'.

mezeta

- B.F. Mezetas.- Meza (misa). Fiestas.
- **Oharra:** izen honen osagaiak *meza* 'Kristoren heriotza ospatzeko egiten den elizkizuna' + *-eta* ugaritasunaren adierazlea direla dirudite, gaztelaniak be-reganatzean *-s* pluraleko amaiera gehitu ziena. Nafarroako mendialdeko herritan bereziki, garai batean herriko bestak zirela eta, egiten ziren meza eta hauen ondoko ospakizunei ematen zitzaien *mezeta* izena. J.M. Iribarrenek dioen bezala, Nafarroan gaztelaniaz *-s* plurala gehituz, *mezetas*, erabiltzen da. Zenbaitetan, ospakizun horietan sortzen ziren iskanbila edota abusuen-gatik debekatu ere egin izan ziren. Bertzalde, K. Mitxelena dio Bizkaian ezagutzen den *Mezeta* abizenak ez duela 'meza'rekin zerikusirik, *Meatzeta*-tik ateratakoa dela dirudielako.

mezetas Ikus *mezeta*

micbarro Ikus *muxar*

Migelena

- B.F. Migelena.- La de Miguel.
- **Oharra:** *Migel* pertsona izena + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, 'Migelen etxea'.

mihura

- B.F. Miura. Muérdago. Nombre de la casa.
- **Oharra:** *mibura* ‘landare bizkarroia, sagarrondoaren, udareondoaren eta bertze zenbait zuhaitzen enbor-adarretan hazten dena, fruitutzat ur likatsu batez betetako aleak ematen dituen (*Viscum album*)’. B. Fagoagak dioen etxe-izena ez ezik, familia-deitura ere bada, *Miura* formarekin; erraterako, Urdazubin erabat errotua ageri da XVI. menderako.

Mikelarena

- B.F. Miquelarena.- La de Micaela. La de Miquele.
- **Oharra:** *Mikel* pertsona izena + *-arena* jabetza adierazten duen atzizkia ‘Mikelen (ez Mikaelaren, ikus *Mikele* sarrera) etxea’.

Mikele

- B.F. Miquele.- Miguel. “Miquele Basoco” (siglo XII).
- **Oharra:** *Mikele*, azken mende hauetan emakumezkoen izentzat ematen bada ere, Erdi Aroaz geroztik eta zenbait mendez gizonezkoen izena zen.

Mikelena

- B.F. Miquelena.- La de Miguel.
- **Oharra:** *Mikel* pertsona izena + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Mikelen etxea’.

Milutze

- B.F. Miluze.- Mi (lengua) - luze. ¿Lenguas largas? / Zubi (puente) - luze. ¿Puente largo? Zubiluze, Biluze, Miluze.
- **Oharra:** B. Fagoagak bere egiten dituen ustezko interpretazioak nahiko hedatuak izan badira ere, azalpenik egokiena P. Salaberrik proposatutakoa da. Azken honen arabera, toponimoaren osagaiak honako hauek dira: lehenbizikoa *mihilu* edo *milu*, hots, ‘ginbaildunen familiako landarea, anisaren antzeko ahogozoa duena, eltzekari gisa edo gozagarritzat erabiltzen dena (*Foeniculum vulgare* subsp. *Vulgare* var. *Azoricum*)’, bigarrena *-tze* atzizki multzokaria.

min

- B.F. Mina.- Min (¿planta?, dolor, lengua, picante, amargo).
- **Oharra:** *min* hitz arrunt gisa hagitz ezaguna da, eta B. Fagoagak dioen bezala, erranahi franko ditu, bertzeak bertze, ‘oinazea’, janariez eta edariez mintzatuz ‘garratza’, ‘mingotsa’, Bizkaian ‘mihia’, eta abar.

Mindegia

- B.F. Mindegua.- Min - tegui - a. Sitio de plantas, vivero.
- **Oharra:** *mintegi* edo *mindegi* ‘lursaila, bertze toki batean birlandatuko diren landareen haziak eriteko prestatzen dena’ + *-a* artikulua. *Mindegia* familia-deitura gisa ezaguna da.

Minondo

- B.F. Minondo.- Min + -ondo. Junto al vivero.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaiak *min* forma baldin badu ere, K. Mitxelenaren iritziz, izen horren oinarria *mea* da, hau da, ‘lurraren azala osatzen duen gai ez-organikoa, bereziki ustiatzeko onuragarri dena’. Bigarren osagaia *ondo* ‘aldamena’; beraz, ‘mearen aldamena’.

Mintegiaga

- B.F. Mintegiaga.- Mintegui - aga. Sitio de viveros.
- **Oharra:** *mintegi* (ikus *Mindegia* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘landare haziak eritein diren tokia’.

mintxagarri

- B.F. Minchagarri.- ¿Min - sagar? (manzano, manzana). Pachaca, manzana silvestre, agría.
- **Oharra:** B. Fagoagak ez du argitzen non jasotako hitza den. J.M. Iribarrenek dio erdarazko *minchar* aditzaren euskarazko ordaina ‘jatea’ dela Estellerrian.

Mitxelena

- B.F. Michelena.- Michel - en - a. La de Michel, Miguel.
- **Oharra:** *Mitxel*, *Mikel* pertsona izenaren aldaera hipokoristikoa edo txikigarria + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Mitxelen etxea’.

Mitxeltorena

- B.F. Mitxeltorena.- Michel - to - rena. La de Michelto (diminutivo).
- **Oharra:** *Mitxel* (ikus *Mitxelena* sarrera) + *-to* atzizki txikigarria + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, hots, ‘Mitxel txikiaren etxea’.

Mitxeltxipirena

- B.F. Michelchipirena.- La de Miguel Chipi.
- **Oharra:** *Mitxel* (ikus *Mitxelena* sarrera) + *txipi* ‘txikia’ + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Mitxel txikiaren etxea’.

Miura Ikus mihura

moldakaitz

- B.F. Moldegaitz.- Torpe (Iribarren).
- **Oharra:** *moldakaitz* (Baztanen *moldekaitz*) ‘antze edo trebetasunik ez duena’, ‘traketsa’, ‘fardela’, bai eta ‘moldatzen zaila dena, ia ezin moldatuzkoa’ ere.

mozkor

- B.F. Mozcorra.- Mozcor (borracho, borrachera) - a.
- **Oharra:** *mozkor* ‘maiz mozkorturik egoten dena; mozkorturik dagoena’, bai eta ‘mozkortzearen ondoriozko egoera’ ere.

mozorro

- B.F. Mozorro.- Disfrazado, espantapájaros.
- **Oharra:** *mozorro* ‘antza aldatzeko, aurpegia estalduz, jartzen den irudi mar-gotua’, ‘txoriak uxatzeko jartzen den trapuzko pertsona irudia’.

Muertza Ikus Mugertza

Mugarrieta

- B.F. Mugarrieta.- Muga - arri - eta. Sitio de mugas. Irumugarrieta.
- **Oharra:** *mugarri* ‘lurralde edo jabetza baten muga adierazteko ipintzen den harri edo seinalea’ edo ‘bide bateko bitarteak adierazteko ipintzen den harri edo seinalea’ + *-eta* toki atzizkia.

Mugertza

- B.F. Muguerza, muerza.- Muguer (sílice, pedernal) - za. Sitio de sílices.
- **Oharra:** *muger* ‘malkartsua’ + *-tza* ugaritasunezko atzizkia, edo, agian, *muga* (ikus *Mugueta* sarrera) + *ertz* ‘zerbaiten bukaera’, + *-a* artikulua. *Muertza* aldaera, euskaraz arrunta den bokal arteko *-g-* erortzearen ondorioz sortua da, eta deitura ezaguna da. *Mugertza* nahiz *Muertza* deitura ezagunak dira.

Mugueta

- B.F. Mugueta.- Muga - eta. ¿Sitio de mugas?
- **Oharra:** *muga* ‘zerbait amaitzen den tokia edo unea’ edo ‘bi lurralde bereizten dituen marra’ + *-eta* toki atzizkia. Longida ibarreko kontzejuaren izendapen ofiziala *Mugueta* / *Mugeta* da.

Muñagorri

- B.F. Muñagorri.- Muño - gorri. Colina roja.
- **Oharra:** (ikus *Munoa* sarrera), lehenbiziko osagaia *muño* > *muña*- elkarketan hartzen duen aldaera da, eta bigarrena *gorri* ‘kolore gorria’ nahiz ‘toki soila’ edo ‘landaredirik gabea’. Ikus *Mendigorria* sarrera.

Muneta

- B.F. Muneta.- Mune, muño (colina) - eta. Sitio de colinas.
- **Oharra:** *muno* (ikus *Munoa* sarrera) > *mun*- elkarketan hartzen duen aldaera + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘muino ugariko tokia’.

Muniain

- B.F. Muniain.- Muno - ain, gain. Encima de la colina.
- **Oharra:** Nafarroan ugariak dira *-ain* amaiera duten herri izenak eta, normalean, antroponimoren bati egiten diote erreferentzia, delako pertsona horren jabetza adieraziz, kasu honetan, seguruenik, *Munio* deitutako pertsonarena. Ikus *Ansoain*, *Garinoain* eta abar sarrerak.

Munoa

- B.F. Munoa, Muñoa.- La colina.
- **Oharra:** *muino*, *muno* ‘inguruko eremutik goratzen den lur zatia, mendia baino txikiagoa’ + *-a* artikulua; *muño* aldaera euskaraz arrunta den *-in-* > *-ñ-* bilakaeraren ondorioa da. *Munoa* nahiz *Muñoa* deitura ezagunak ere badira.

Muñoa Ikus Munoa**Munutze**

- B.F. Munuze.- Muno - ze. Sitio de colinas.
- **Oharra:** bere osagaiak, segur aski, *muno* (ikus *Munoa* sarrera) > *munu* bokalen asimilazioagatik, + *-tze* atzizki multzokaria dira, ‘muino ugariko tokia’, alde batera utzi gabe, K. Mitxelenaren iritziz, *Munu(t)za* pertsona izena ere izaten ahal denaren erreferentzia.

Murieta

- B.F. Murieta.- Muri, buru (colina, altura) - eta. Sitio de colinas.
- **Oharra:** B. Fagoagak ematen duen azalpenaren arabera, lehenbiziko osagaia *muru* (*ez*, *ordea*, *muri* edo *buru*) izan beharko luke. Baina herri izen honen lekukotasun zaharrena *Morieta* dela kontuan izanik (K. Mitxelenaren ustez,

**Moreeta*-tik ateratakoa), lehenbiziko osagaia *more* ‘toki urtsua’ izanzen litzateke eta bigarrena *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, *Murieta* bilakatua, bokalen disimilazioaren ondorioz.

Muru

- B.F. Muru.- Colina.
- **Oharra:** toponimo honen erreferentzia *mur* ‘harresia’ da segur aski, baina agian ‘muinoa’, ‘burua’, ‘gaina’ ere bai.

Muruarte

- B.F. Muruarte.- Entre colinas.
- **Oharra:** *mur* (ikus *Muru* sarrera) + *arte* ‘bitartea’.

Murube

- B.F. Murube.- Debajo de la colina.
- **Oharra:** *mur* (ikus *Muru* sarrera) + *bebe* ‘beheitikoa’ > *be* bilakatua, hots, ‘muruaren beheitiko aldea edo zola’.

Murugarren

- B.F. Murugarren.- Muru - garren, barren? Debajo de la colina.
- **Oharra:** *mur* (ikus *Muru* sarrera) + *barren* hasiera batean, *garren* bilakatua *-b-* eta *-g-* kontsonanteen arteko txandaketaren ondorioz, segur aski; horren arabera, ‘beheko aldean dagoen Muru’.

Murutze

- B.F. Muruze.- Sitio de colinas.
- **Oharra:** *mur* (ikus *Muru* sarrera) + *-tze* atzizki multzokaria, ‘muru ugariko tokia’.

Muruzabal

- B.F. Muruzabal.- Altura ancha.
- **Oharra:** *mur* (ikus *Muru* sarrera) + *zabal* adjektiboa, ‘ohiko hedadura baino handiagoa duen murua’.

mustur

- B.F. Mustur.- Mutur (hocico, morro, casco de).
- **Oharra:** *mutur*, eta mendebaldeko euskaran honen aldaera den *mustur*, erranahi franko duen hitza da, hala nola ‘ugaztunetan, aurpegiaren zati irtena,

ahoa eta sudurra dauzkana’, ‘giza aurpegiaren ezpain alde’, ‘zerbait amaitzen den zatia’, ‘ertzeko zatia’, ‘zerbaiten zatia’, ‘zenbait gauzatan, elkarrengandik urrutien dauden bi puntuetako bakoitza’.

mutiko alai

- B.F. Mutico Alayak.- Mutil (mozo) - co (diminutivo) - alayak. Los chicos alegres.
- **Oharra:** *mutiko* ‘mutil koskorra’ + *alai* ‘alaitasuna edo umore ona duena’. *Mutiko Alaiak*, Iruñeko lagunarte edo “peña” bat da, bere garaian *Mutbiko Alaiak* izendatua.

Mutiko Alaiak Ikus mutiko alai

muxar

- B.F. Muxar, micharro.- Marmota, mamífero roedor, lirón.
- **Oharra:** *muxar* ‘ugaztun karraskari txikia, saguaren antzekoa, buztan iletsua eta begi biribil-biribilak dituena, negua lotan igarotzen duena’; “micharro” J.M. Iribarrenek Beire herrian jasotako aldaera da.

naba

- B.F. Naba.- Llanura rodeada de montañas.
- **Oharra:** *naba* ‘zelaia’, ‘toki laua’.

Nabarkorena

- B.F. Nabarra: Nabar (llanura rodeada de montañas... pardo, abigarrado, de varios colores, viruela) - co - rena. La del picado de viruela.
- **Oharra:** *nabar*- lehenbiziko elementuari dagokionez, ikus *Nabarra* sarrera. Gainerako osagaiak *-ko* atzizki txikigarria + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia dira; beraz, ‘*nafarko* izendatutako baten etxea’? Ikus *Nabarlatz* sarrera.

Nabarlatz

- B.F. Nabarlaz.- Nabar - latz, lats. Riachuelo de llanuras rodeada de montañas.
- **Oharra:** Luzaideko toponimoari dagokionez, testigantzarik zaharrenak *nauarr olatze* 1259koa eta *navarr olatze* 1284koa dira; hortaz, *nafar* deitutako baten *olatze* ‘burdindegi multzoa’ edo ‘saroï multzoa’ da, *nabarlatz* bilakatua; ez B. Fagoagak *-lats* hitzean oinarrituz– dioen ‘erreka’ edo ‘latsa’.

Nabarra

- B.F. Nabarra.- Nabar (Ilanura rodeada de montañas) - a. La llanura rodeada de montañas. Cfr. Nabarlaz, Zuaznabar.
- **Oharra:** antza denez, *nabar-* hasierako osagaiak ‘eremuaren kolorea’ edo ‘mendien arteko ordokia’ adierazten du. Horren erreferentzia da, dirudieenez, *nafar* ‘eremu horretako biztanlea’, hots, ‘gentilizioa’ eta hortik *Nafarroa* (*nafar* + *-oa* ‘lurraldea adierazten duen atzizki toponimikoa’), beraz, ‘nafarren lurraldea’. Erdarak *Nafarroa* hori *Nabarra* edo *Navarra* bilakatu du, jatorrizko *nabar-* hitzaren *-b-* mantenduz eta batere arrunta ez den amaierako *-oa* > *-a* bihurtuz.

Nabarrera

- B.F. Nabarrera.- Nabar, nafar, napar (navarro) - iri - a. La ciudad de los navarros.
- **Oharra:** *nabar* (ikus *Nabarra* sarrera) + *-eria* atzizki multzokari ezaguna, bai euskaraz (*biztanleria*, *gazteria*, *gizateria*, *umeteria*...), bai erdaraz (*judería*, *morería*, *gitanería*...). B. Fagoagak dioen *hiri* edota *biribildu* hitzarekin zerikusirik ez du.

Nabaz

- B.F. Nabaz.- Naba - z. Sitio llano rodeado de montañas.
- **Oharra:** *naba* ‘zelaia’, ‘toki laua’ + *-tz(ē)* ugaritasunezko atzizkia; beraz, ‘zelai ugariko tokia’. Txulapain ibarreko herriaren izendapen ofiziala *Navaz* da, euskaraz dagokiona, ordea, *Nabatz*.

Nafarruri

- B.F. Nafarruri.- Nafar - uri, iri (pueblo). Pueblo de los navarros.
- **Oharra:** *nafar* (ikus *Nabarra* sarrera) + *uri* Euskal Herriko mendebaldean *hiri* izenaren ohiko aldaera.

ñaka

- B.F. Ñacada.- Ñaca (jugarreta). (Monreal).
- **Oharra:** *ñaka* ‘hozkada’, ‘hozka egiteko keinua’ Nafarroa Beherean batik bat. B. Fagoagak dioen “jugarreta”, ordea, *ñako* da.

Narbarte

- B.F. Narbarte.- Naba - arte. Entre llanuras rodeadas de montes.

- **Oharra:** ematen duenez, *naba* ‘zelaia’, ‘toki laua’ + *arte* ‘bitartea’ > *nabarte* hasieran, geroago erreperkusioz gehitutako *-r-* kontsonantearen ondorioz sortutako *Narbonate* aldaera bilakatua.

Nikolaurena

- B.F. Nicolaurena.- La de Nicolau.
- **Oharra:** hasierako osagaia *Nikolau* da, *Nikolas* izenaren Erdi Aroko aldaera, eta amaierakoa *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Nikolasen etxea’ alegia.

Oberena Ikus hoberen

Ofizialdegi

- B.F. Oficialdegui.- La casa del oficial.
- **Oharra:** *ofizial* ‘armadako buruzagia’ + *-tegi* jabetza atzizkia > *-degi* bihurtua *-l-* hotsaren ondotik; beraz, ‘ofizialaren etxea’.

Oianburu

- B.F. Oyamburu.- Oyan (bosque) - buru. Parte superior del bosque.
- **Oharra:** *oiban* ‘basoa’, ‘zuhaitzez jantzitako lur eremua’ + *buru* ‘goreneko alderdia’ edo ‘amaiera’, hots, ‘oihanaren goiko aldea edo amaiera’.

Oianeder

- B.F. Oyaneder.- Bosque hermoso.
- **Oharra:** *oiban* ‘basoa’, ‘zuhaitzez jantzitako lur eremua’ + *eder* adjektiboa ‘oihan handia’ edo ‘arras polita’ edo ‘arras ona’.

Oianguren

- B.F. Oyanguren.- Límite del bosque.
- **Oharra:** *oiban* ‘basoa’, ‘zuhaitzez jantzitako lur eremua’ + *guren* ‘ederra’.

Oiarbide

- B.F. Oyarbide.- ¿oyan? - bide. Camino del bosque.
- **Oharra:** *oiban* ‘basoa’, ‘zuhaitzez jantzitako lur eremua’ > *oibar-* elkarketan hartzen duen aldaera + *bide* izen arrunta, ‘oihanerako bidea’ alegia.

Oiartzabal

- B.F. Oyarzabal.- Bosque ancho.

- **Oharra:** *oiban* > *oibar-* (ikus *Oiarbide* sarrera) + *zabal* adjektiboa, ‘zabalera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen oihana’.

Oiartzun

- B.F. Oyarzun.- Oyan - ¿zu?. Sitio de bosques.
- **Oharra:** P. Salaberriren eta L.M. Zalduaren iritziz, toponimo honen osagaiak honako hauek dira: *oiban* > *oibar-* elkarketan hartzen duen aldaera + *-tsu* edo *-zu* toki ugaritasunezko atzizkiak + *-un* lokatiboa seguruenik ere; beraz, *Oiartzun* ‘oihan franko duen tokia’.

Oieregi

- B.F. Oyaregui, Oyeregui.- Vertiente del bosque.
- **Oharra:** B. Fagoagak dioen bezala, ematen du toponimo honen lehenbiziko osagaia *oiban* dela, eta *oibar-* elkarketan hartzen duen aldaera. Bigarren osagaia *begi* ‘mendi hegala’ nahiz *-egi* toki atzizkia izan daitezke, hots, *Oi(b)aregi* > *Oi(b)eregi* bilakatua bokal asimilazioagatik segur aski, kon-tuan izanik XVII. mendeko dokumentazioan hiruzpalau aldiz ageri dela *Oyaregui* aldaera. Badira, hala ere, lehenbiziko osagaia *Oier* pertsona izena edota *oiber* ‘toki okerra’ izaten ahal dela defendatzen dutenak.

Oihenart

- B.F. Oyenart.- Oyan - arte. Entre el bosque.
- **Oharra:** *oiban* ‘basoa’, ‘zuhaitzez jantzitako lur eremua’ + *arte* ‘bitartea’ *Oibe-narte* bilakatua eta, azkenik, *Oibenart* apokopeagatik.

oilategi

- B.F. Ollategui.- Sitio de las gallinas.
- **Oharra:** *oilo* ‘etxeko hegaztia, hegan egiten ez duena’ (ahoskeran, palatalizazio automatikoagatik, *ollo* bihurtua eta *olla-* elkarketan hartzen duen aldaera) + *-tegi* toki atzizkia, ‘oiloak egoten diren tokia’.

oilo zorri

- B.F. Ollachorri.- Ollo (gallina) - chorri, zorri (piojo). Piojo de gallina.
- **Oharra:** *oilo* ‘etxeko hegaztia, hegan egiten ez duena’ + *zorri* ‘intsektu bizkarroia, odola xurgatuz bizi dena (*Pediculus humanus*)’; *ollatxorri* ahozko aldaera da, aldaketa hauek dituen: *oilo* > *ollo* palatalizazio automatikoa, elkarketan hartzen duen *olla-* aldaerarekin + *txorri*, *zorri*-ren aldaera txikigarria.

Okiñena

- B.F. Oquiñena, Oguiñena.- Oquin, ogui (pan) - kin (suf. agente) (panadero) - en - a. La del panadero.
- **Oharra:** *okin* ‘lanbidez ogia egin edo saltzen duen pertsona’ + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, hau da, ‘okinaren etxea’. *Okiñena* aldaera *-in-* > *-iñ-* palatalizazio automatikoaren ondorioa da.

Olabarrieta

- B.F. Olabarrieta.- Ola (fábrica, ferrería, batán, ballueca, choza, tabla, sitio de) - barri - eta. Sitio de...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ seguruenik, ‘txabola’ ere izaten ahal dela baztertu gabe, + *barri* adjektiboa, *berri*-ren mendebaldeko aldaera, + *-eta* toki atzizkia; beraz, ‘burdinola berria dagoen tokia’.

Olabe

- B.F. Olabe.- Ola - be. Debajo de...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *bebe* ‘beheitikoa’ > *be* bilakatua, ‘burdinolaren nahiz txabolaren beheitiko aldea’. Herriaren izendapen ofiziala *Olave* / *Olabe* da.

Olaberri

- B.F. Olaberri.- Ferrería nueva (Eugui).
- **Oharra:** *olaberri* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *berri* adjektiboa.

Olabide

- B.F. Olabide.- Camino de...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *bide* izen arrunta, ‘olara doan bidea’, alegia.

Olaeta

- B.F. Olaeta.- Sitio de ferrería.
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *-eta* toki atzizkia, ‘burdinolaren edo txabolaren tokia’.

Olaetxea

- B.F. Olaetxea.- La casa de la ferrería, casa de tabla.
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *etxe* izen arrunta + *-a* artikulua, ‘burdinolako etxea’; ez, ordea, B. Fagoagak dioen ‘oholez egindako etxea’.

Olagibel

- B.F. Olaguibel.- Detrás de...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *gibel* ‘atzeko aldea’.

Olague

- B.F. Olagüe.- Ola - ¿gune? ¿Sitio de ferrerías, de chozas?
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *gune* ‘tokia’, ‘aldea’, ‘eremua’ > *gue* bilakatua, bokalen arteko *-n-* sudurkaria erortzearen ondorioz; beraz, ‘burdinolak edota txabolak dauden eremua’.

Olaibar

- B.F. Olaibar.- Valle de...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *ibar* ‘harana’, hots, ‘burdinolak edo txabolak dituen ibarra’.

Olaiturri

- B.F. Olaiturri.- La fuente de...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *iturri* izen arrunta, hau da, ‘burdinolako edo txabolako iturria’.

Olaiz

- B.F. Olaiz.- Sitio de...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *-itz* atzizki multzokaria, gaztelaniaren eraginez *Olaiz* bilakatua. Euskaraz dagokion izena *Olaitz* da.

Olamendi

- B.F. Olamendi.- Monte de...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *mendi* izen arrunta; beraz, ‘burdinolak edo txabolak dauden mendia’.

Olano

- B.F. Olano.- Sitio de...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *-no* atzizki txikigarria, ‘ola txikia’ alegia, ez B. Fagoagak dioen ‘olen tokia’.

Olarte

- B.F. Olarte.- Entre...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *arte* ‘bitarteko eremua’.

Olaso

- B.F. Olaso.- Camino de...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *-so* atzizki handigarria, *Olano*-ren antonimoa.

Olatzaran

- B.F. Olazarán.- Valle de...
- **Oharra:** *olatz* (ikus *Olaz* sarrera) + *baran* ‘ibarra’, hots, ‘burdinola edo txabola ugari duen ibarra’.

Olaz

- B.F. Olaz.- Sitio de...
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *-tz(a)* edo *-tz(é)* toki ugaritasunezko atzizkia, gaztelaniaren eraginez *Olaz* bilakaturia. Euskaraz dagokion izena *Olatz* da.

Olazabal

- B.F. Olazabal.- Ferrería ancha.
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *zabal* ‘zabalera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duena’.

Olazar

- B.F. Olazar.- Ferrería vieja.
- **Oharra:** *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *zabar* ‘lehenagokoa’, ‘aspaldikoa’ > *zar* bihurtua.

Olaztxipi

- B.F. Olaztxipi.- Olaz pequeño.
- **Oharra:** *olatz* (ikus *Olaz* sarrera) + *txipi* ‘txikia’.

Olegi

- B.F. Olegui.- Ladera del batán (máquina y edificio para golpear el paño).
- **Oharra:** ematen duenez, osagaiak *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’ + *begi* ‘mendi hegala’ edo *-egi* toki adierazten duen atzizkia dira. Kontuan izatekoa da *Olegi*, bertzeak bertze, B. Fagoagaren herriko, Erratzuko, toponimoa ere badela.

olio

- B.F. Olio.- Aceite.

- **Oharra:** *olio* ‘zenbait landare, animalia edo meatatik ateratzen den gai koi-petsua’.

Olite

- B.F. Olite. ¿Olío - te? Sitio de aceites.
- **Oharra:** Nafarroako hiri izen hau jatorri ezezaguneko izateaz gain, argi dagoena da ez dela euskal jatorrikoa. Hiriaren izendapen ofiziala *Olite* / *Erriberri* da. Ikus *Erriberri* sarrera.

ollatxorri Ikus oilo zorri

ondalan Ikus hondealan

ondarras Ikus hondar

Ondarreta

- B.F. Ondarreta.- Sitio de arenas, playa.
- **Oharra:** *bondar* ‘itsaso edo ibaiaren ertzean edo hondoan metatzen diren material gogor xeheen multzoa’, ‘harea’ alegia + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia. *Ondarreta*, bertzeak bertze, Donostiako toponimo ofiziala da.

Ondarroa

- B.F. Ondarroa.- Sitio de arenas, playa.
- **Oharra:** *bondar* (ikus *Ondarreta* sarrera) + *-oa*. Amaiera honi dagokionez, bi aukera aipa daitezke; alde batetik, *aboa* > *-oa* bilakatua, hots, ‘legarraren ahoa’; bertze aldetik, *-oa* ‘lurraldea adierazten duen atzizki toponimikoa’ zenbait toponimotan ageri dena (ikus *Nafarroa* sarrera). *Ondarroa* Bizkaiko herri entzutetsuaren izena da.

Ondarrola

- B.F. Ondarrola.- ¿Sitio de arenas? (barrio de Valcarlos y Arnegui).
- **Oharra:** berez Nafarroa Behereko Arnegi herriko auzoa da *Ondarrola*. P. Salaberriren eta P. Kaminoren iritziz, toponimo horren osagaiak *bondar* ‘hondoa’, ‘zola’ eta *ola* ‘burdinola’ dira seguruenik, eta ‘beheitiko aldean dagoen burdinola’ adierazten du.

onen

- B.F. Onena.- On - en - a. El, la, lo más bueno.

- **Oharra:** *onen* ‘hoberena’. Ikus *hoberen* sarrera.

ongietorri

- B.F. Ongui etorri.- Ongui (bien) - etorri (venir, venido). Bien venido!
- **Oharra:** *ongietorri* ‘norbait etortzean hartzen den poza adierazteko egiten den agurra’.

orbel

- B.F. Orbel.- Hojas secas.
- **Oharra:** *orbel* ‘zuhaitzetatik eroritako hosto ihartuen multzoa’.

orde

- B.F. Ordea.- Compensación, pan que se devuelve en compensación.
- **Oharra:** *orde* ‘ordaina’, ‘zerbaiten ordez itzultzen dena’, baina ez ogia nahitaez. Nafarroan gaztelaniak bereganatutako “la ordea” hitza arrunta da.

Ordoki

- B.F. Ordoqui.- Llanura, planicie.
- **Oharra:** *ordoki* ‘eremu laua, berdina’.

Ormaetxea

- B.F. Ormaetxea.- Casa de paredes (de piedra).
- **Oharra:** *horma* ‘pareta bereziki lodia’ + *etxe* ‘bizitzeko eraikina’ + *-a* artikulua, ‘pareta lodiko etxea’.

Ormazabal

- B.F. Ormazabal.- Paredes anchas.
- **Oharra:** *horma* ‘pareta bereziki lodia’ + *zabal* adjektiboa, hau da, ‘zabalera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen pareta’.

Orreaga

- B.F. Orreaga. Roncesvalles.- Orre (enebro) - aga. Sitio de enebros.
- **Oharra:** ikertzaileen iritziak ez datoz bat izen honen nondik norakoarekin. Lehenbiziko osagaia, batzuentzat, *Orreaga* egungo izenean argi ageri den *orre* da ‘nekostaren familiako zuhaixka, hosto-zorrotza, arras urrintsuak diren fruitu beltz edo moreak ematen dituen (*Juniperus communis*)’, ‘ipurua’. Bertze batzuentzat, P. Salaberrirentzat erraterako, toponimo horren lekukotasun zaharrenek, *Oriarriaga*-k eta *Orierriaga*-k, *orre* ez den bertze zerbait adierazten

dute, ematen duenez *ori + barri* eta *ori + herri*. Amaierako osagaia *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia da. Izendapen ofiziala *Orreaga / Roncesvalles* da.

ortots

- B.F. Ortots.- Orzi - ots (voz, ruido). Trueno, voz de Dios.
- **Oharra:** *ostots* ‘trumoiá’ da, eta *ortots* Nafarroako zenbait eremutan, bertzeak bertze, Baztanen, Malerrekan eta Bortzirietan erabiltzen den aldaera da.

ortzadar

- B.F. Orzadar.- Orzi - adar (cuerno). Arco iris.
- **Oharra:** *ostadar* ‘Erromako zubia’ da, eta *ortzadar* Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian erabiltzen den aldaera da.

ortzegun

- B.F. Orzegun.- Orzi - egun (día). Jueves, día de Dios.
- **Oharra:** *ostegun* ‘astearren laugarren eguna’ da, eta *ortzegun* Nafarroan eta Lapurdin arrunta den aldaera.

Ortzi Ikus Urtzi

orzaya Ikus **hautzain**

osasun

- B.F. Osasuna.- Osasun (salud) - a.
- **Oharra:** *osasun* ‘eritasunik gabeko egoera; izaki bizidun batek une jakin batean duen egoera fisikoa edo psikikoa’. *-a* artikularekin, *Osasuna*, Nafarroako kirol elkarte ezagun baten izena da.

Osasuna Ikus **osasun**

osca Ikus **hozka**

osin

- B.F. Osina.- Osin (pozo profundo, sima) - a.
- **Oharra:** *osin* ‘urak, bereziki ibaietan, sakontasun handia duen tokia’, bai eta ‘leizea’ eta ‘amildegia’ ere.

Osinaga

- B.F. Osinaga.- Sitio de...

- **Oharra:** *osin* (ikus *osin* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia.

Osinalde

- **B.F.** Osinalde.- Osin - alde. Hacia el pozo profundo o la sima.
- **Oharra:** *osin* (ikus *osin* sarrera) + *alde* postposizioa; ‘osinaren aldamera’.

otabera

- **B.F.** Otaberak.- Ote (argoma) - bera (blando). Aliaga blanda.
- **Oharra:** *otabera* ‘otearen antzeko landare arantzatsua (*Genista hispanica*)’. Gaztelaniak bereganatzean pluraleko *-s* forma gehitu dio amaieran: “otaberak”.

otaberak Ikus *otabera*

Otadui

- **B.F.** Otaduy.- Ote - dui. Sitio de argomas o aliagas.
- **Oharra:** *ote* ‘*Ulex* generoko zuhaixken izena (*Ulex* sp.)’ > *ota-* elkarketan hartzen duen aldaera + *-dui* atzizki multzokaria; ‘ote ugariko tokia’.

otamen

- **B.F.** Otamen.- Bocado que se toma a las cinco o a las diez.
- **Oharra:** *otamen* ‘mokadua edo jatordu nagusietatik kanpo egiten den janaldi arina’.

Otamendi

- **B.F.** Otamendi.- Monte de aliagas.
- **Oharra:** *ote* (ikus *Otadui* sarrera) + *mendi* izen arrunta, hots, ‘oteak dituen mendia’.

Otano

- **B.F.** Otano, Otaola, Otaza, Otazu, Oteiza. Sitio de argomas o aliagas.
- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera berean emandako bortz izen horien lehenbiziko osagaia *ote* da ‘*Ulex* generoko zuhaixken izena (*Ulex* sp.)’ (ikus *Otadui* sarrera). Amaierakoak, ordea, bereizi beharrekoak dira: *-no* atzizki txikigarria, *ola* ‘burdinola’ edo ‘txabola’, *-tza* eta *-zu* ugaritasunezko atzizkiak.

Otaola Ikus Otano

Otatza Ikus Otano

Otazu Ikus Otano

Otegi

- B.F. Otegui.- Ote - egui. Ladera de argomas o aliagas.
- **Oharra:** *ote* ‘*Ulex* generoko zuhaixken izena (*Ulex* sp.)’ + *begi* ‘mendi hegala’ edo *-egi* toki atzizkia; beraz, ‘ote tokia’.

Oteitza Ikus Otano

Otelarre

- B.F. Otelarre.- Campo de argomas.
- **Oharra:** *ote* ‘*Ulex* generoko zuhaixken izena (*Ulex* sp.)’ + *larre* ‘abereak bazkatzen diren belardia’. Toponimian ezagunak dira *Otelarre* eta *Otalarre*.

Otondo

- B.F. Otondo.- Junto argomas o aliagas.
- **Oharra:** *ote* ‘*Ulex* generoko zuhaixken izena (*Ulex* sp.)’ > *ot-* elkarketan hartzen duen aldaera + *ondo* ‘aldamena’.

Otxoa

- B.F. Otxoa.- Otso (lobo) - a. El lobo. Cfr. Lupus, Lope, López.
- **Oharra:** *otso* ‘ugaztun haragijalea, txakur handi baten antzekoa, mutur-zorrotza eta belarri-zuta, ilea gris iluna eta isatsa luze iletsua dituen (*Canis lupus*)’ + *-a* artikulua. Jatorri horretatik dator Erdi Aroz geroztik ezaguna den *Otso* pertsona izena, gaztelaniazko *Lope*-ren kidea. Gaur egun ezagunagoa da deituratzat erabiltzen den *Otxoa* aldaera hipokoristikoa edo txikigarria.

Otxotorena

- B.F. Ochotorena.- Otso (lobo) - to (diminutivo) - rena. La de Ochoto, del lobezno.
- **Oharra:** *otxo* (ikus *Otxoa* sarrera) + *-to* atzizki txikigarria + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Otso txikiaren etxea’.

ozalan Ikus auzolan

Ozcoidi

- B.F. Ozcoidi.- ¿Atz, aitz (peña) - di? ¿Sitio de encima de la Peña o monte?

- **Oharra:** amaiarako osagaia *-di* atzizki multzokaria izanen da; hasierakoa, ordea, ez dirudi erratzuarrak dioen (*b*)*aitz* denik; izan ere, toponimo honen Erdi Aroaz geroztiko lekukotasunen artean ez da inoiz ageri hasieran *atz-*edo *aitz-* forma, *orzay-* eta *orzoy-* baizik. Urraulgoitiko kontzejuaren izen ofiziala *Ozcoidi* da, euskaraz dagokiona, ordea, *Ozkoidi*.

Pabolatza

- B.F. Pagolaza.- Pago, bago (haya) - latz - a. Regata de hayas.
- **Oharra:** hauek dira osagaiak: *pago* ‘basoko zuhaitz handia, enborra zuzena, azala leuna eta iluna, hostoak erorkorrak eta zura zuria, arina eta sendoa dituen (*Fagus sylvatica*)’, *-g-* / *-b-* txandakatzearen ondorioz *pabo-* aldaera hartu duena, + *ola* ‘burdinola’ nahiz ‘txabola’ + *-tza* ugaritasunezko atzizkia. B. Fagoagak ‘erreka’rekin lotzen du, kontuan izan gabe, hala izatera, *lats* agertu beharko lukeela, ez *latz*.

Pabollet

- B.F. Pabollet.- Pago - eta. Sitio de hayas.
- **Oharra:** ikus *Pabolatza* sarrera. Erratzuarrak dioen *pago* zuhaitza + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia baino zerbait gehiago sartzen da izen honen osagaietan, agian *ola* ‘burdinola’ edota ‘artzain txabola’ tartekatua, elkarketan *ol-* aldaera hartu eta *oll-* bilakatua palatalizazio automatikoagatik, eta amaierako *-eta* toki atzizkia *-et* eratorria apokopeagatik.

Pagadi

- B.F. Pagadi, Bagadi.- Pago, bago (haya) - di. Sitio de hayas.
- **Oharra:** *pago* (ikus *Pabolatza* sarrera) > *paga-* elkarketan hartzen duen aldaera + *-di* atzizki multzokaria, hots, ‘pago ugariko tokia’. *Bagadi* aldaera ezaguna da, batik bat Nafarroako zenbait eremutan, Baztanen eta Malerrekan erraterako.

Pagoaga

- B.F. Pagoaga.- Sitio de hayas.
- **Oharra:** *pago* (ikus *Pabolatza* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘pago ugariko tokia’. Ikus *Fagoaga* sarrera.

Pagogaña

- B.F. Pagogaña.- Pago - gain - a. Cima de hayas.

- **Oharra:** *pago* (ikus *Pabolatza* sarrera) + *gain* ‘gailurra’, ‘toki gora’, *gañ* bilakatua *-in* > *-ñ* palatalizazio automatikoagatik, + *-a* artikulua; hortaz, ‘pago tokia-
ren gaineko alderdia’.

Pagola

- B.F. Pagola.- Sitio de hayas.
- **Oharra:** *pago* (ikus *Pabolatza* sarrera) + *ola* ‘burdinola’ edo ‘artzain txabola’.

pattar

- B.F. Patarra, Patxarra.- Aguardiente u otro licor fuerte.
- **Oharra:** *pattar* ‘ardoaren edo bertze zenbait gairen destilaziotik ateratzen den edari bizia’; *patxarra* aldaera da, J.M. Iribarrenek Nafarroako zenbait herritan jaso.

patxaka Ikus basaka

patxaran

- B.F. Pacharan.- Baso (bosque) - aran (ciruela). Ciruela silvestre.
- **Oharra:** *patxaran* ‘basaraneekin egindako edari bizia’.

patxarra Ikus pattar

Paularena

- B.F. Paularena.- La casa de Paula, Pabla.
- **Oharra:** *Paula* emakume izena + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, hots, ‘Paularen etxea’.

Paulorena

- B.F. Paulorena.- La casa de Paulo, Pablo.
- **Oharra:** *Paulo* gizon izena + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, hau da, ‘Pauloren etxea’. Ikus *Paulotegia* sarrera.

Paulotegia

- B.F. Paulotegia.- La casa de Paulo, Pablo.
- **Oharra:** *Paulo* gizon izena + *-tegia* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Pauloren etxea’. Ikus *Paulorena* sarrera.

Pedrorena

- B.F. Pedrorena.- Pedro - rena. La casa de Pedro.

- **Oharra:** *Pedro* gizon izena + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Pedroren etxea’. Abizen gisa, ezagunagoa da *Pedroarena* aldaera.

Perotxegi

- B.F. Perochegui.- Peroch - egui, tegui. La casa de Peroch, Pedro.
- **Oharra:** *Pero* edo *Pedro* gizon izenaren txikigarri edo hipokoristikoa da *Perotx*, eta *-egi* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Perotxen etxea’. Ikus *Perotxena* sarrera.

Perotxena

- B.F. Perochena.- La casa de Peroch.
- **Oharra:** *Perotx* (ikus *Perotxegi* sarrera) + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Perotxen etxea’.

Perugorria

- B.F. Perogorria.- Peru - gorria. La casa de Peru, Pedro rojo.
- **Oharra:** *Peru* gizon izena + *gorri*, kolore gorria adierazten duen adjektiboa izengoitizat aplikatua + *-a* artikulua, ‘Peru gorriaren etxea’.

Perurena

- B.F. Perurena.- La casa de Peru.
- **Oharra:** *Peru* gizon izena + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Peruren etxea’.

petral

- B.F. Petrala.- Viga, cincha.
- **Oharra:** *petral* hitzak, izen gisa, baditu B. Fagoagak eman dizkion bi erranahiak, hots, ‘teilatuauren zurajejan, luzetara jartzen den haga nagusia, gapirioei eusten diena’ eta ‘zamarien sabela inguratzen duen hedea, zela edo basta irmoago lotzeko erabiltzen dena’. Baina, horietaz gain, adjektibo gisa ‘lotsagabea’, ‘bazter-nahaslea’ ere bada, eta egitekoez, arazoez edo pertsoenez mintzatuz, ‘guztiz gogaikarria gertatzen dena’ ere bai, adibidez, *gizon petrala*, *neska petrala*, *ume petrala*, bai eta, zentzu berean gauzez mintzatuz ere, *baize petrala* erraterako.

Petrina Ikus Petrirena

Petrirena

- B.F. Petrirena, Petrina.- La casa de Petri, Pedro.

- **Oharra:** *Petri* gizon izena + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Petriren etxea’; *Petrina* haplologiagatik sortutako aldaera da.

Pierresena

- **B.F.** Pierresena.- La casa de Pierres, Pedro.
- **Oharra:** *Pierres* gizon izena + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Pierresen etxea’.

Pikabea

- **B.F.** Picabea.- Pica, bica, iga (cuesta muy pendiente) - be - a. Debajo de la cuesta.
- **Oharra:** izen honen lehenbiziko osagaia izan daiteke *piku* ‘pikondoia’ edo *piko* ‘toki aldapatsua’ > *pika-* elkarketan hartzen duen aldaera; bigarren osagaia *bebe* ‘beheitikoa’ > *be* bilakatua + *-a* artikulua. Beraz, ‘pikondo baten beheko aldean dagoena’ edota ‘toki aldapatsu baten beheko aldean dagoena’.

Pikamendi

- **B.F.** Picamendi.- Monte de cuestras muy pendientes.
- **Oharra:** *piko* edo *piku* (ikus *Pikabea* sarrera) > *pika-* elkarketan hartzen duen aldaera + *mendi* izen arrunta, hots, ‘aldapa handiak dituen mendia’ seguruenik edo, agian, ‘pikondoak dituen mendia’.

Pikaondo

- **B.F.** Picaondo, Bicaondo, Bicondo.- Junto a la cuesta.
- **Oharra:** *piko* edo *piku* (ikus *Pikabea* sarrera) > *pika-* elkarketan hartzen duen aldaera + *ondo* ‘hurbileko alderdia’; beraz, ‘aldapa handien aldamera’ edo ‘pikondoan aldamera’.

pilotazale

- **B.F.** Pelotazale.- Pelota - zale (aficionado). Aficionado a la pelota.
- **Oharra:** *pilota*, edo izen horren *pelota* aldaera, ‘jolasean ibiltzeko erabiltzen den bola, gai elastikoz egina’ + *zale* ‘zerbait arras gogoko duena’ hau da ‘pilota jokoaren zalea den pertsona’.

piper-opil

- **B.F.** Piperropil, piporropil.- Piper (pimiento, calva) - opil (torta, bollo). Cierta empanada de fiestas.

- **Oharra:** *piper-opil*, zenbait herritan, Gipuzkoan eta Nafarroan bereziki, egiten den opil mota bat da. Hitz beraren bertze aldaera bat da Nafarroan J.M. Iribarrenek jasotako *piporropil*. Bertze gauza bat da *piper egin*, erratzuarrak “calva” erdal ordainaren bidez aditzera ematen duena, hots, ‘eskola huts egin edo eskolara joan beharrean bertze nonbaitera joatea’.

piporropil Ikus **piper-opil**

pitar

- B.F. Pitarra.- Vinaza hecha con heces de uva y agua. Sidra hecha con agua y residuos de manzana.
- **Oharra:** *pitar*, ‘lehen hartziduraren hondakinez egindako sagardoa’, bai eta ‘sagardoa eta ura nahasiz egindako edari arina’ ere.

Polit

- B.F. Polit.- Bonito.
- **Oharra:** *polit* ‘itxura edo eite atsegingarria duena, halako edertasun bat duena’, bai eta ‘aski handia’ ere. Deitura gisa ere ezaguna da.

porrocar Ikus **porrokatu**

porrokatu

- B.F. Porrocar.- Porrocatu (despedazar, desmenuzar). (Monreal).
- **Oharra:** *porrokatu* ‘hautsi’, ‘xehatu’, ‘suntsitu’, ‘desegin’, gaztelaniak “porrocar” forma emanez bereganatu duena.

potxa

- B.F. Pochas, pocha.- Alubia seca.
- **Oharra:** Nafarroan, behinik behin, *potxa* babarrun zuri goiztiarra da, leka bigun denean biltzen dena (ez, behintzat, lehorra denean). B. Fagoagak aipatzen duenaz gain, kontuan izatekoa da badirela ‘mendi-zintzur’ edo ‘errekazintzur’ adierazten duten toponimoak, zenbaitetan *potxa* deituak, baina euskaraz *potxe* izendatzen direnak, bertzeak bertze, Nafarroako Aezkoa, Esteribar eta Ezkabarte ibarretan.

potxolo

- B.F. Pocholo.- Regordete, rechoncho.

- **Oharra:** *potxolo* ‘lodixkoa’, ‘gizentxo’, gizonaekoei aplikatua; emakumeez mintzatuz, *potxola* da ahoz erabiltzen dena.

quiscorrear Ikus **kizkurto**

Rekalde Ikus **Errekalde**

Rekarte Ikus **Errekarte**

Rekondo Ikus **Errekondo**

Remondegi Ikus **Erremondegi**

Rochapea

- B.F. Rochapea.- Rocha - pe - a. Debajo de la rocha, ¿roca? Jus la Rocha.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaiari dagokionez, jatorrizko *Rocha* izenari *a-* protesia aplikatuz, hartu zuen euskarak *Arrotxa* aldaera; bigarren osagaia *bebe* ‘beheitikoa’ da, > *be* eta honen aldaera den *pe* bilakatua + *-a* artikulua, ‘arrokaren beheko alderdia’. Iruñeko auzo horri euskaraz dagokion izena *Arrotxapea* da.

Rospide Ikus **Arrozpide**

sabai

- B.F. Sabayau.- Sabai (desván, pajar).
- **Oharra:** *sabai* ‘ganbara’, ‘eraikuntza baten goialdeko barrualdea’. Erdarak izen horretatik bereganatutako “sabayau” (< “sabayado”) aldaera erabat arrunta da Nafarroan gaztelaniaz.

sabayau Ikus **sabai**

Sabier Ikus **Jabier**

sagara

- B.F. Sagra.- Consagración, toque de campana alusivo a la consagración.
- **Oharra:** *sagara* ‘mezaren erdia, apezak ogia eta ardoa Jesu Kristoren gorputz eta odol bihurtzen dituen eta altxatzen dituen unea’, baita une horretan ezkila txikiaren jotzea ere.

Sagardia

- B.F. Sagardia.- Sagar (manzana, manzano). Manzanal.
- **Oharra:** *sagar* ‘sagarrondo edota honen fruitua’ + *-di* atzizki multzokaria + *-a* artikulua, ‘sagar tokia’. Toponimoa ez ezik, etxe-izena eta deitura ezaguna ere bada.

sagardo

- B.F. Sagardua.- Sagar (manzana, manzano) - ardo (vino) - a. Vino de manzana, sidra.
- **Oharra:** *sagardo* ‘sagarren zukua hartzituz egiten den edari alkoholaduna’ da; *sagardua* aldaera euskararen ahozko erabileran ohikoa den amaierako *-a* artikulua aitizineko *-o-* > *-u-* bihurtzearen ondorioa da.

Sagardoi

- B.F. Sagardoy, Sagarduy.- Manzanal.
- **Oharra:** *sagar* ‘sagarrondo edota honen fruitua’ + *doi* atzizki multzokaria, ‘sagar tokia’.

sagardua Ikus **sagardo****Sagarminaga**

- B.F. Sagarminaga.- Sagarmin (manzana silvestre) - aga. Sitio de...
- **Oharra:** *sagarmin* ‘sagarrondo txertatu gabea’ + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia.

Sagaseta

- B.F. Sagaseta, Sagasta.- Sagast, Sarasa, Saats (sauce) - eta. Sitio de...
- **Oharra:** B. Fagoagak izen horren osieran *sabats* edo *sagats* ‘*Salix* generoko zenbait zuhaitz edo zuhaixkaren izen arrunta’ + *-tz(e)* atzizki multzokaria + *-eta* toki atzizkia ikusten ditu; beraz, ‘sahats ugariko tokia’ (ikus *Sagasti* sarrera). K. Mitxelena eta P. Salaberri ere iritzi horretakoak dira. Bertzeren batek, M. Belaskok erraterako, lehenbiziko osagaian *sagar* ‘sagarrondo edota honen fruitua’ ikusten du. *Sagasta* haplologiagatik sortutako aldaera da.

Sagasta Ikus **Sagaseta****Sagasti**

- B.F. Sagasti.- Sagas - ti. Manzanal (variante de Sagardi).

- **Oharra:** erratzuarrak aipatzen duenaren ildotik, *Sagasti* toponimoa *Sagardi*-ren aldaera izan liteke (ikus *Sagardia* sarrera), ezaguna den *-r-* / *-s-* txandaketaren ondorioz, *intxaur* hitzetik *intxausti* atera den bezala (ikus *Intxausti* sarrera). Ez da, ordea, alde batera utzi behar izen horren osagaiak *sabats* edo *sagats* ‘*Salix* generoko zenbait zuhaitz edo zuhaixkaren izen arrunta’ + *-ti* atzizki multzokaria izaten ahal direla; beraz, ‘sagarrondo landatutako saila’ edo ‘sahatsez landatutakoa’.

Sagastibelza

- B.F. Sagastibelza.- Sagasti - belza. Manzanal negro.
- **Oharra:** *sagasti* (ikus *Sagasti* sarrera) + *beltza*, kolore beltza adierazten duen adjektiboa.

Sagastizabal

- B.F. Sagastizabal.- Manzanal ancho.
- **Oharra:** *sagasti* (ikus *Sagasti* sarrera) + *zabal* adjektiboa, ‘zabalera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen sagarrondo saila’.

Salaberri

- B.F. Salaberri.- Sala (cortijo, casa) - berri. Casa nueva.
- **Oharra:** *sala* ‘etxea’ + *berri* adjektiboa, hots, ‘etxe berria’. *Salaberria* izeneko etxeren batean sortu edo bizi (*izan*) direnei eman ohi zaien izendapena da *Salaberri*, deitura ere bilakatu dena.

Salazar

- B.F. Salazar.- Casa vieja.
- **Oharra:** itxuraren arabera, izen honen osagaiak *sala* ‘etxea’, ‘jauregia’ eta *zabar* > *zar* ‘aspaldikoa’, ‘lehenagokoa’ dira (*Salaberri* izenaren antonimoa, alegia). Baina hain ezaguna den Nafarroako *Zaraitzu* / *Salazar* ibarraren izenari dagokionez, R. González de Viñasprek argitu duenaren arabera, X. mendetik hasita ageri diren lekukotasunak *Saresaço*, *Saresazo*, *Saresazu*, *Sarasazo*, *Saraçaçu*, *Sarasaz*, *Sarasaiz*, *Çaraïçu*... dira, XVI. mende aldean **Sarasaizu*-tik atera izanen zen *Zaraitzu* bilakatu zen arte. Azken izendapen horren osagaiak *sarats* edo *sabats* ‘*Salix* generoko zenbait zuhaitz edo zuhaixkaren izen arrunta’ + *-tze* eta *-zu* ugaritasunezko atzizkiak direla dirudi, ibar hori izendatzeko XVI. mendera arte dokumentatu ez den *Salazar* izendapenaren osagaiekin bat egiten ez dutenak. Azkenik, argitzekoa ere bada, *Salazar* euskal itxurakoa

izan arren, jatorriz Gaztelan aspalditik errotutako izena dela, bai toponimo gisa, bai deitura gisa, eta, hori dela eta, segur aski, inposatu izanen zela *Zaraitzu* euskal izena ordezkatzera iritsi arte.

Salbide Ikus Zalbide

salda

- B.F. Salda.- Caldo.
- **Oharra:** *salda* ‘okela edo bertze jakiren bat egosiz egiten den zuku urtsua’.

Saltsamendi

- B.F. Salsamendi, ¿Sarasmendi?- Monte de...
- **Oharra:** B. Fagoagak, bertze zenbait ikertzailek bezala, ez du ikusten izen horrek zeri egiten dion erreferentzia. K. Mitxelenarentzat ere hagitx iluna da, eta galdera moduan dio ez ote duen zerikusirik izanen Azkuek Nafarroa Behe-rean eta Zaraitzun bildutako *salsarri* “cemento, cal muy hidráulica” izenarekin.

Sanjuanena

- B.F. Sanjuanena.- San Juan - en - a. La de San Juan.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *San Joan* > *San Juan* hagianimo edo santu izenean oinarritutakoa da, aspaldidanik familia deitura ere bilakatua dena, eta, bigarrena, *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia; beraz, ‘*San Juan* edota *Sanjuan* deituratzat duenaren etxea’ adierazten du.

Santsinena

- B.F. Sansinena, Sanzinena.- La de Sansín, Sanzín.
- **Oharra:** izen honen hasierako osagaia, *Santsin* da, oinarrian *Santxo* izenaren erreferentzia, eta K. Mitxelenak dioenaren arabera, *Santsin* gosedunaren izengoiti gisa erabilitakoa ere bai; amaierako osagaia *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia da; beraz, ‘Santsinen etxea’.

Santxotena

- B.F. Sanchotena.- Sanchot - en - a. La de Sanchot, Sancho.
- **Oharra:** *Santxot*, *Santxo* izenaren hipokoristikoa + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, hau da, ‘Santxoten etxea’.

Santzena

- B.F. Sanzena.- Sanz - en - a. La de Sanz.

- **Oharra:** *Santzo* pertsona izenetik, amaierako -o bokalaren erortzearen ondorioz, sortutakoa da *Santz*, patronimiko gisa ezaguna dena (eta gaur den egunean deitura modura ezagunagoa) + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia; beraz, ‘Santzen etxea’.

Sarasa

- B.F. Sarasa.- Sarats - a. Sitio de sauces.
- **Oharra:** *sabats* ‘*Salix* generoko zenbait zuhaitz edo zuhaixkaren izen arrunta’ (*sarats* izen horren aldaera da) + *-a* artikulua. Nafarroako Itza zendeako herriaren izen ofiziala *Sarasa* da, euskaraz dagokiona, ordea, *Saratsa*.

Sarasate

- B.F. Sarasate.- Sarats - ate, ¿eta? Sitio de sauces.
- **Oharra:** *sarats* (ikus *Sarasa* sarrera) + *ate*, hau da ‘Sarasarako atea, pasabidea, ataka’. Izan ere, *Sarasate* Itza zendeako bertze herri bat da, *Sarasa* izenekotik hurbil dagoena. Izen ofiziala *Sarasate* da, euskaraz dagokiona, berriz, *Saratsate*.

Sarasatz

- B.F. Sarasatz.- Sitio de sauces.
- **Oharra:** ikus *Salazar* sarrera. Sarrera horretan ageri diren lekukotasunetako bat da *Sarasatz* aldaera, osagaitzat *sarats* (ikus *Sarasa* sarrera) + *-tz(é)* ugaritasunezko atzizkia dituen.

Sarasibar

- B.F. Sarasibar.- Saras - ibar. Vega de sauces.
- **Oharra:** *sarats* (ikus *Sarasa* sarrera) + *ibar* ‘harana’ > *Saratsibar*, hau da, ‘sarat sak dituen harana’. Esteribarko kontzejuaren izendapen ofiziala *Sarasibar* da.

Saratsola

- B.F. Sarasola.- Sitio de sauces.
- **Oharra:** *sarats* (ikus *Sarasa* sarrera) + *ola* ‘burdinola’ edo ‘artzain etxola’.

Saratsua

- B.F. Sarasua.- Abundancia de sauces.
- **Oharra:** *sarats* (ikus *Sarasa* sarrena) + *-zu* toki ugaritasunezko atzizkia, *saratsu* bilakatua + *-a* artikulua.

Sarbil

- B.F. Sarbil.- Sarrío - ¿bil? Junto al sitio de corrales.
- **Oharra:** *sarri* ‘osatzen duten unitate berdinen artean tarte txikia duena, eremu txikian unitate aunitz dituena’, ‘abarrarte’, ‘basoarte’ + *biribil* ‘borobila’ > *bil* bilakatua. Beraz ‘sarritasun borobila’ eta ez, inola ere, B. Fagoagak hartzen dion antza, hots, ‘korrare edota saroi baten ondoan’ dagoen zerbait.

sarde

- B.F. Sarde.- Púa de palo de dos puntas.
- **Oharra:** *sarde* ‘gider luzea eta burdinazko bi hortz zorrotz edo gehiago dituen lanabesa, soroan eta ukuiluan lastoa, belarra, simaurra eta kidekoak jasotzeko edo biltzeko erabiltzen dena’.

Sario Ikus Saroi**Saro Ikus Saroi****Sarobe Ikus Saroi****Saroe Ikus Saroi****Saroi**

- B.F. Saroy, Sarobe, Saroe, Saro, Sario.- Corral con choza para el ganado, sel, majada, dehesa.
- **Oharra:** *saroi* ‘ardien bazkalekua eta batik bat gaeuz biltzen diren tokia, non artzainek ere izaten duten aterpea’. Izen horrek baditu zenbait aldaera Nafarroako toponimian: *Saro, Saroi, Sarobe, Sario, Sare...*

Saroiandi

- B.F. Saroyandi.- Sel grande.
- **Oharra:** *saroi* (ikus *Saroi* sarrera) + *handi* adjektiboa.

Sarriguren

- B.F. Sarriguren.- Sarrío - guren. Límite del sel, sel lozano.
- **Oharra:** *sarri* ‘osatzen duten unitate berdinen artean tarte txikia duena, eremu txikian unitate aunitz dituena’, ‘abarrarte’, ‘basoarte’ + *guren* ‘ederra’, hau da, ‘sarritasun ederra’. Ez du, hortaz, zerikusirik erratzuarrak dioen ‘korrare’ edo ‘saroi’rekin.

Saseta

- B.F. Saseta, Sasieta.- Sasi (zarza) - eta. Sitio de zarzas.
- **Oharra:** B. Fagoagak bi toponimo ezberdin eman zituen sarrera berean. Alde batetik, *Saseta* Trebiñuko toponimoa dena, ongi dokumentatua Erdi Aroaz geroztik, baina hasieran *sasi-* formako lekukotasun bakar bat ere ez duena. Hortaz, bere erreferentzia ezin da oinarritu, inola ere, *sasi* (ikus *Sasiain* sarrera) hitzean. Inguru hartako toponimia aztertu duten R. González de Viñaspre eta E. Martínez de Madina ikertzaileek, aukeren artean, *sarats* eta *saçar* (ikus *Sagaseta* sarrera) ikusten dituzte eta bigarrenaren alde egiten dute. Bertze aldetik, *Sasieta* dugu eta horren lehenbiziko osagaia *sasi* da, eta bigarrena *-eta* toki atzizkia; beraz, ‘sasi tokia’.

Sasiain

- B.F. Sasiain.- Sasi - gain. Encima del zarzal.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *sasi* da ‘arrosaren familiako landarea, zurtoin luze arantzadunak eta lore zuri edo arrosak dituen eta fruitutzat masusta ematen duena’, eta bigarrena *gain* ‘toki goia’, ‘gailurra’ *sasiain* bilakatua, segur aski, bokalen arteko *-g-* erortzearen ondorioz; beraz, ‘sasiaren gaineko aldea’.

Sasieta Ikus **Saseta****Sasiondo**

- B.F. Sasiondo.- Junto al zarzal.
- **Oharra:** *sasi* (ikus *Sasiain* sarrera) + *ondo* ‘hurbileko tokia’, hots, ‘sasi tokia-
ren aldamera’.

saskino

- B.F. Sasquino, sasquiño.- Sasqui (cesta) - no (suf. diminutivo). Cestito.
- **Oharra:** *saski* ‘gauzak eramateko ontzia, berez zumitzez egina, gehienetan euskarririk gabea’, ‘zareto mota bat’ + *-no* atzizki txikigarria, zenbaitetan *saskiño* bilakatua, *-in-* > *-iñ-* ahozko palatalizazio automatikoagatik.

saskiño Ikus **saskino****saskito**

- B.F. Sasquito.- Sasqui - to. Medida de granos.

- **Oharra:** *saski* (ikus *saskino* sarrera) + *-to* atzizki txikigarria ‘saski txikia’, ‘neurri ontzia’ adierarekin. Nafarroako zenbait tokitan, Baztanen erraterako, ezaguna da ‘saskito dantza’.

serora

- **B.F.** Serora.- Mujer que está al cuidado de la iglesia.
- **Oharra:** *serora* ‘apezari elizkizunetan laguntzeaz, eliz jantziak zaintzeaz eta eliza txukun edukitzeaz arduratzen den emakumea’, eta zenbait tokitan ‘moja’ edota ‘lekaimea’ ere bai.

seta

- **B.F.** Seta.- Obstinación.
- **Oharra:** *seta* ‘asmo, erabaki edo iritzi bati, amore eman gabe eusten dionaren jarrera’.

Setoain

- **B.F.** Setuain.- ¿Soto - gain? Encima del soto.
- **Oharra:** *-ain* atzizki azkarraren izenek normalean pertsona baten jabetza adierazten dute (ikus, erraterako *Andoain*, *Ansoain*, *Garinoain*, *Muniain*... sarrerak). *Setoain* ere horien antzekoa litzateke, argi ikusten ez bada ere zein izeni egiten dion erreferentzia hasierako *Seto-* horrek. Erratzuarraren azalpena alde batera uztekoa iruditzen zaigu. *Setuain* azken mende pare batean gertatutako aldaera dela ematen du, lekukotasunen arabera, *-oa-* > *-ua-* bilakaera nahiko berria baita.

Simonena

- **B.F.** Simonena.- La de Simón.
- **Oharra:** *Simon* gizon izena + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Simonen etxea’.

Soalar Ikus Soralarre

Solozabal Ikus Sorozabal

Soraburu

- **B.F.** Soraburu.- Soro - buru. Parte superior del... , cima del hierbín.
- **Oharra:** *soro* ‘belardia’, bai eta ‘lantzen den lurra’ eta ‘alorra’ ere, > *sora-* el-karketan hartzen duen aldaera + *buru* ‘goreneko aldea’, hau da, ‘belardiaren edo alorraren goreneko alderdia’.

soraio

- B.F. Sorayo.- Cerdo enfermo del cisticerco, despreocupado.
- **Oharra:** *soraio* ‘sentiberatasunik gabea’, bai eta ‘zistizerkosiak jotako zerria’ ere Baztanen.

Soralarre

- B.F. Soralarre, Soalar.- Monte de hierbín.
- **Oharra:** *soro* (ikus *Soraburu* sarrera) + *larre* ‘abereak bazkatzen diren belardia’; *Soalar*, bokalen arteko *-r-* erortzearen gehi *larre* > *lar* apokopearen ondorioz sortutako aldaera da.

Soraluze

- B.F. Soraluze.- Prado o pieza largos.
- **Oharra:** *soro* (ikus *Soraburu* sarrera) + *luze* adjektiboa, ‘luzera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen belaia edo alorra’.

soro

- B.F. Soroa.- Soro (hierbín, prado, pieza).
- **Oharra:** *soro* ‘belardia’, bai eta ‘lantzen den lurra’ eta ‘alorra’ ere. *-a* artikularekin, *Soroa*, deitura ezaguna da.

Soroa Ikus **soro****Soroeta**

- B.F. Soroeta.- Sitio de prados, piezas o hierbín.
- **Oharra:** *soro* (ikus *soro* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia; hau da, ‘belai edo alor anitzeko tokia’.

Sorola

- B.F. Sorola.- Sitio de prados, piezas o hierbín.
- **Oharra:** *soro* (ikus *soro* sarrera) + *ola* ‘burdinola’ ala ‘artzain txabola’.

Soromendi

- B.F. Soromendi.- Monte de prados, piezas o hierbín.
- **Oharra:** *soro* (ikus *soro* sarrera) + *mendi* izen arrunta; beraz, ‘belaiak edo alorrak dituen mendia’.

Sorondo

- B.F. Sorondo.- Junto a prados, piezas o hierbín.

- **Oharra:** *soro* (ikus *soro* sarrera) + *ondo* ‘hurbileko alderdia’, hots, ‘belaiaren edo alorraren aldamera’.

Sorozabal

- B.F. Sorozabal, Solozabal.- Prado, pieza o hierbín ancho.
- **Oharra:** *soro* (ikus *soro* sarrera) + *zabal* adjektiboa, ‘zabalera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duen belai edo alorra’. *Solozabal* -r- eta -l- txandatzearen ondorioz sortutako aldaera da.

Sotilarena

- B.F. Sotillarena.- Sotil (elegante, dócil, astuto) - arena. La casa del. . .
- **Oharra:** *sotil* ‘itxura ederrekoa’, ‘trebea’ + *-rena* jabetza adierazten duen atzizkia; beraz, izengoitizat edo deituratztat *Sotil* duen pertsonaren etxea.

Subiza

- B.F. Subiza.- Zubi (puente) - za. ¿Sitio de puentes?
- **Oharra:** *zubi* ‘ibai, errepide eta kidekoen gainetik pasatzeko eraikuntza’, aspalditik *subi-* aldaerarekin ere dokumentatua ageri dena (erraterako, Nafarroako Galar zendeko *Subiza* herria) + *-tza* ugaritasunezko atzizkia, ‘zubi tokia’, gaztelaniaren eraginez *-za* eratorria. Beraz, ‘zubi tokia’. Euskaraz dagokion izena *Subitza* da.

sugandila

- B.F. Sugandila, sugandilla, sumanguilla.- Lagartija.
- **Oharra:** *sugandila* ‘muskerraren itxurako narrastia, hura baino txikiagoa eta eskuarki arrea’. *Sumangilla* aldaera da.

sumangilla Ikus sugandila

Sumusu Ikus Zubimusu

talo

- B.F. Talo.- Torta de maíz (Burlada).
- **Oharra:** *talo* ‘arto-irinez egindako opila, mehea eta biribila’.

tarrata Ikus zarrata

tartail

- B.F. Tartallo, tartalla.- Viejo, estropeado.

- **Oharra:** *tartail* ‘arlotea’, ‘baldresa’. J.M. Iribarrenek Nafarroan gaztelaniaz erabiltzen diren *tartallo* eta *tartalla* jaso zituen, zerbait lehertua, hondatua edo zahartua dagoela adierazten dutenak.

tartalla Ikus **tartail**

tartallo Ikus **tartail**

Tellagorri

- B.F. Tellagorri.- Tella (teja) - gorri. Tejas rojas.
- **Oharra:** *teila* ‘eraikinak estaltzeko erabiltzen diren buztin errezko piezetako bakoitza’ > *tella* aldaera hartzen duena -il- > -ll- palatalizazio automatikoa-gatik, + *gorri*, kolore gorria adierazten duen adjektiboa.

Telleria

- B.F. Telleria.- Tejería.
- **Oharra:** *teileria* ‘teilak eta adreiluak egiten diren etxea edo lantegia’ > *telleria* aldaera hartzen duena -il- > -ll- palatalizazio automatikoa-gatik. *Telleria* Urdazubiko auzo baten izena ere bada, monasterioko *teileria* zenarena, alegia.

Telletxea

- B.F. Tellechea.- Tella (teja) - etxe - a. La casa de tejas o tejería.
- **Oharra:** *teila* ‘eraikinak estaltzeko erabiltzen diren buztin errezko piezetako bakoitza’ + *etxe* izen arrunta + -a artikulua. Ikus *Telleria* sarrera.

Telletxipi

- B.F. Tellechipi.- Tella (teja) - txipi. Tejería pequeña.
- **Oharra:** *teileria* (ikus *Telleria* sarrera) + *txipi* ‘txikia’ > *telletxipi* bilakatua haplogiaz, ‘teileria txikia’.

Tokieder

- B.F. Toquieder.- Toqui (sitio) - eder. Sitio hermoso.
- **Oharra:** *toki* ‘espazioaren zati jakina’, ‘lekua’ + *eder* adjektiboa, hots, ‘bere itxura edo eragatik, ikusmenari-edo, guztiz atsegina edo mirezgarria gertatzen zaion tokia’. Ikus *Lekueder* sarrera.

Tomasena

- B.F. Tomasena.- Tomás - en - a. La de Tomás.

- **Oharra:** *Tomas* gizonezkoen izena + *-ena* jabetza adierazten duen atzizkia, ‘Tomasen etxea’.

torralda

- B.F. Torralda.- Rastrero, especie de rastrillo.
- **Oharra:** ez dakigu euskal izena ote den.

torraldear

- B.F. Torraldear.- Arrastrarse.
- **Oharra:** ez dakigu B. Fagoagak jasotako aditz horrek euskal oinarria ote duen.

Torrea Ikus Dorrea

totolo

- B.F. Totolo.- Gordinflón, torpón.
- **Oharra:** *totolo* ‘ergela’.

tupina

- B.F. Tupin.- Marmita.
- **Oharra:** *tupina* ‘eltzea’.

Turrillas

- B.F. Turrillas.- ¿iturri + iri? Pueblo de fuente o cerca de la fuente.
- **Oharra:** herri izen horren Erdi Aroko lekukotasunak (*Torrellas*, *Torrillas*, *Turrillas*) kontuan izanik, ez dirudi *iturri* hitzaren erreferentzia direnik. Hurbi-lagokoa dirudi latinezko *turris* ‘dorrea’ hitzaren erreferentzia.

txabola

- B.F. Chabola.- Cabaña, choza.
- **Oharra:** *txabola* ‘mendiko edo landako etxe txikia, abereak eta tresnak gordetzeko erabiltzen dena’.

txanda

- B.F. Chanda.- Tanda.
- **Oharra:** *txanda* ‘era bereko egite sail edo hurrenkera batean, norbaiti edo zerbaiti dagokion unea’, ‘aldia’.

txantxabiskor Ikus txantxabizkor

txantxabizkor

- B.F. Chanchabiskor.- Juego de niños con huesecillos (con la taba).
- **Oharra:** *txantxa* ‘asmo txarrik gabe egiten dena’, ‘broma’ + *bizkor* ‘bizitasun handikoa’, ‘arina’; *biskor* gaztelaniaren eraginez sortutako aldaera da, ohikoa den *-zk-* > *-sk-* bihurtzearen ondorioz (ikus *Amezkoa* sarrera).

txantxigorri Ikus **gantxigor****txapar**

- B.F. Chapar, Chaparro.- Roble pequeño, hombre pequeño.
- **Oharra:** *txapar* ‘artearen antzeko zuhaitz edo zuhaixka (*Quercus coccifera*)’ edo ‘abaritza’; *txaparro* gaztelaniak, *-o* amaiera emanez, bereganatu duen aldaera da, *azkarro*, *txarro*, *zakarro* (ikus *azkar*, *txar* eta *zakar* sarrerak) eta bertze zenbait hitzekin gertatzen den bezala.

txaparro Ikus **txapar****txapel**

- B.F. Chapela.- Chapel, zapel - a. Sombrero, boina.
- **Oharra:** *txapel* ‘artilezko buru estalki biribila eta zapala, atal bakarreakoa, aunitzetan beltza’; *kapela* eta *bonet* ere deitzen zaio, nahiz eta toki batzuetan ez diren gauza bera, Baztanen erraterako.

txapelatx Ikus **zapelatz****txapelatz** Ikus **zapelatz****txapelgorri**

- B.F. Chapelgorri.- Boina colorada.
- **Oharra:** *txapel* (ikus *txapel* sarrera) + *gorri*, kolore gorria adierazten duen adjektiboa.

txar

- B.F. Charro.- Mal genio, flaco (Iribarren).
- **Oharra:** *txar* ‘gaiztoa, zintzotasunaren aurkako’ bai eta ‘txikia, ezdeusa, balio gutxikoa’ ere; *charro* gaztelaniak, *-o* akabaila emanez, bereganatutako aldaera da, bertze zenbait kasutan gertatzen den bezala, hala nola *azkarro*, *txaparro*, *zakarro* (ikus *azkar*, *txapar* eta *zakar* sarrerak).

txarduki Ikus **iharduki****txarrantxa**

- B.F. Charrancha.- Estaca, sostén para... , carda, freno, collar de hierro.
- **Oharra:** *txarrantxa* ‘lihoa orrazteko eta garbitzeko eskuila, burdinazko hortzak dituena’. Baztanen bertze erranahi hauek ere baditu: ‘mandoei kokots inguruan paratzen zaien uhalaren burdina’ eta ‘behiak garbitzeko burdinazko eskuila’.

txarro Ikus **txar****txekor**

- B.F. Chocorro.- Chocor, checor (novillo, ternero).
- **Oharra:** *txekor* ‘txahal arra, zezen gaztea’, ‘zekorra’; *txokorro* J.M. Iribarrenek Iruñerrian eta Erroibarren jasotako aldaera da, gaztelaniak bereganatutakoa -o amaiera gehituz eta -e- > -o- bokalen asimilazioa eginez, *txaparro*, *azkarro*, *zakarro* eta abar bezala.

txerritegi

- B.F. Cherritegui.- Cherri, cerri (cerdo) - tegui. Cuadra del cerdo.
- **Oharra:** *txerri* ‘urdea’ + *-tegi* toki atzizkia, ‘zerrien tokia’.

txerrizain

- B.F. Cherrizai.- Guarda de puercos.
- **Oharra:** *txerrizain* edo *urdezain* ‘zerriak zaintzen dituen pertsona’.

txiki

- B.F. Chiqui, Chipi.- Pequeño.
- **Oharra:** *txiki* ‘ohiko tamaina, neurria, indarra edo garrantzia iristen ez duena’ bai eta ‘dagokion heldutasuna iritsi ez duena’ ere; *txipi* aldaera da.

txilibitu

- B.F. Chulubita.- Silbato. “Chulubita, malubita, salte, salte bien bonita” (Cizur Menor).
- **Oharra:** *txilibitu* ‘xistuaren edo flautaren antzeko musika-tresna txikia’; *txulubita* aldaera bat da; Baztanen *txulubite* eta *xulubite* erabiltzen dira, baita *zulubite* ere.

txinge Ikus **txingo**

txingelka Ikus **txingo**

txingo

- B.F. Chingue, Chingo, Chinguilca.- Andar sobre un pie.
- **Oharra:** *txingo*, *txingoan*, *txingoka* ‘oin bakar baten gainean’; *txingelka* (*txingilka*), bertzeak bertze, Baztanen erabiltzen den aldaera da, eta *txinge* J.M. Iribarrenek Añorbe herrian jasotakoa.

txintxo Ikus **zintzo**

txintxur Ikus **zintzur**

txinurri Ikus **inurri**

txipa

- B.F. Chipa.- Bermejuela, pececito.
- **Oharra:** *txipa* ‘ezkailua’.

txipi Ikus **txiki**

txirdil

- B.F. Chirdil.- Racimos que quedan después de la vendimia.
- **Oharra:** *txirdil* ‘mahats-bilketaren ondotik gelditzen diren mahats-mordoak’, J.M. Iribarrenek Iruñerrian eta Erriberan jasotako hitza.

txirdiletan (aritu)

- B.F. Chirdilar.- Recoger los racimos que quedan después de la vendimia (Pamplona).
- **Oharra:** *txirdiletan* (ikus *txirdil* sarrera) ‘mahats-bilketaren ondotik gelditzen diren mahats-mordoak jaso’. Hitz horretatik eratorria da J.M. Iribarrenek Iruñerrian gaztelaniaz erabiltzen dela dioen “chirdilar” aditza.

txirimiri Ikus **zirimiri**

txirrika

- B.F. Chirrica, Zirrica.- Rueda para sacar agua (Ororbía).
- **Oharra:** *txirrika* ‘ardatz batean kokatutako gurgila, uztaiaren ildoan soka, kate edo uhal bat daramana, eta zamak jasotzeko edo indarra transmititzeko erabiltzen dena’.

txirrio

- B.F. Chirrin, zirrin.- Vencejo.
- **Oharra:** *txirrio* edo *sorbeltz* ‘enararen antzeko txori luma-beltza (*Apus apus*)’ da; J.M. Iribarrenek bildutako aldaerak dira *chirrin* (Odieta ibarrean) eta *zirrin* (Obanos, Barasoain eta Estellerian).

txistor

- B.F. Chistor.- Longaniza, chorizo, cuarto de la nuez, naranja, ajo...
- **Oharra:** B. Fagoagak emandako gaztelaniazko ordainak ikusirik, beharrezkoa da bereizketa egitea: *txistor* da ‘lukainka baino meheagoa den hertze-betea’; *zizter*, ordea, janariez mintzatuz, ‘zattia’ edo ‘puska’; eta baratxuriez, laranjez edo kideko fruituez mintzatuz, ‘atala’.

txistu

- B.F. Chistu.- Silbato, silbido.
- **Oharra:** *txistu* ‘haizezko euskal musika-tresna, aurrealdean bi zulo eta atzean bat dituen zurezko hodi batez eta aho batez osatua, gehienetan danbolina lagun duela jotzen dena’, bai eta ‘ezpainetan irekidura mehar bat eratuz eta bertatik airea jaurtiz ateratzen den soinua’, eta ‘haizearen mugimendu azkarraren ondorioz zenbait egoeratan sortzen den soinua’ ere, alde batera utzi gabe, ‘listua’ edo ‘tua’ ere badela.

txistulari

- B.F. Chistulari.- El que toca el chistu.
- **Oharra:** (ikus *txistu* sarrera), *txistulari* ‘txistua jotzen duen musikaria’.

txita

- B.F. Chita.- Polluelo.
- **Oharra:** *txita* ‘hegaztien ume jaio berria, bereziki oiloena’.

txitazare

- B.F. Chitazare.- Chito - zare. Cesto de los polluelos (Ororbia).
- **Oharra:** *txita* (ikus *txita* sarrera) + *zare* ‘otarrea’, ‘saskia’, hots, ‘txiten saskia’.

txitxi

- B.F. Chichi.- Carne (infantil).

- **Oharra:** *txitxi* ‘haragi edo arrain zatia’ haurren hizkeran bereziki, baina ez modu eksklusiboan, helduen artean ere erabiltzen baita, bai haragia, bai gizentasuna aipatzeko.

txoko

- B.F. Choco, Zoco.- Rincón.
- **Oharra:** *zoko*-ren aldaera adierazgarria da *txoko* (ikus *Zoko* sarrera).

txokorro Ikus **txekor****txoriburu**

- B.F. Choriburu.- Zori - buru. Cabeza de pájaro.
- **Oharra:** *txoriburu* ‘buruarina, zentzu gutxikoa’.

txorikume

- B.F. Chirricumes, Chiricome.- Chori, zori (pájaro) - kume (cría). Crías de pájaro.
- **Oharra:** *txori* ‘tamaina txikiko hegaztia’ + *kume* ‘umea’, hau da, *txorikume* ‘txoriaren umea’. *Chirricumes* eta *Chiricome* ageri dira B. Fagoagaren hiztegian, bigarrena behinik behin, J.M. Iribarrenek horrela jasoa Artaxoan eta Larragan.

txulo Ikus **zulo****txulubita** Ikus **txilibitu****txungur**

- B.F. Chungur, Zungur.- Hueso del pernil.
- **Oharra:** *txungur* ‘urdaiazpikoaren hezurra’; *zungur* (eta *xungur* ere) aldaerak dira. Zenbait tokitan *xungur* txerriaren bizkarrezurra da.

Ualde Ikus **Ugalde****ubide**

- B.F. Urbide.- Camino del agua, canal.
- **Oharra:** *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *bide* > *ubide* bilakatua hitz arrunt gisa, ura eramateko gizakiak egindako bidea adierazteko, hots, ‘kanala’.

Ugalde

- B.F. Ugalde, Hualde, Ualde.- Ur (agua, río) - alde. Al lado del río.

- **Oharra:** *ur* 'isurkari koloregabe, usaingabe eta zaporegabea, ibaiak, aintzirak eta itsasoak betetzen dituena' > *ug-* bihurtua bigarren osagaia bokalez hasten delako + *alde* 'hurbileko alderdia'; beraz, 'ur tokiaren aldamera'. Kontuan izatekoa da, Nafarroako zenbait tokitan, hala nola Baztango hegoaldean eta Malerrekan, ibaiari *ugalde* deitzen zaiola. *Hualde* gaztelaniaz erabili ohi den aldaera da, hasierako *H*-rekin eta bokalen arteko -g-rik gabe.

Ugarte

- B.F. Ugarte, Huarte.- Ur - arte. Entre ríos, entre el río.
- **Oharra:** *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) 'ibai', 'ugalde' edo 'erreka' alegia, + *arte* 'bitartea', hots, 'bi uren artean aurkitzen den lur zatia'. Toponimian arruntak dira erranahi hori duten toki izenak; gaur egun, ordea, *uharte* edo *ugarte* ozeano, itsaso, aintzira edo ibai baten urek inguratzen duten lur eremu edota 'irla' izendatzeko erabiltzen den hitz arrunta da. *Huarte* gaztelaniaz erabili ohi den aldaera da, hasierako *H*-rekin eta bokalen arteko -g-rik gabe. Izen ofizialei dagokienez, *Uharte* da Baztango auzoa, *Uharte Arakil* Arakil ibarreko udalerrria eta *Huarte* / *Uharte* Iruñetik hurbil dagoen udalerrria.

Ugartemendia

- B.F. Ugartemendia.- Monte entre ríos.
- **Oharra:** *ugarte* (ikus *Ugarte* sarrera) + *mendi* izen arrunta + *-a* artikulua, 'urez inguratua dagoen mendia'.

Ugartetxe

- B.F. Ugartetxe.- Ugarte - eche. Casa entre ríos.
- **Oharra:** *ugarte* (ikus *Ugarte* sarrera) + *etxe* 'urez inguratua aurkitzen den etxea'.

Uharte Ikus Ugarte

Ujué

- B.F. Ujué, Uxue, Usua, Usoa, Ursua.- Paloma.
- **Oharra:** gaztelaniaz *Ujué* izenaz ezagutzen den herriaren euskal ordainik zaharrena *Uxue* da, *Usoa* eta *Usua* gisa ere ageri izan diren aldaerekin batera. *Ursua* formari dagokionez, alde batetik, ematen du Ipar Euskal Herrian ezaguna den *urzo* aldaeratik atera izan ahal dela eta, bertze aldetik, toponimo gisa ere ezaguna da. Ikus *Urtsua* sarrera. Herriaren izendapen ofiziala *Ujué* / *Uxue* da.

uli Ikus euli

Ulibarrena Ikus Uribarrena

Ulibarri Ikus Uribarri

Unanu

- B.F. Unanua.- Unanu (gamón, asfódelo. Bot.) - a.
- **Oharra:** *unanu* ‘larreko landarea, *Liliaceae* familiakoa, ezpata gisako hostoak eta lore zuriak buruxketan bilduak dituen (*Asphodelus albus*)’, ‘anbuloa’.
Unanu Nafarroako Ergoiena ibarreko herri baten izena ere bada.

ur

- B.F. Ur, ura.- Ur (agua) urra (avellano, avellana) ura (demostrativo de tercera persona).
- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera bakar batean sartu zituen hiru izen ezberdin, segur aski, bere garaian ez zegoelako erabakia bakoitzari dagokion grafia. Gaur egungo ortografiaren arauak kontuan izanik, honako hauek dira horietako bakoitzari dagokion idazkera eta definizioa: 1) *ur* ‘isurkari koloregabe, usaingabe eta zaporegabea, ibaiak, aintzirak eta itsasoak betetzen dituen’, 2) *bur* ‘hurritzaren fruitua, aski biribila, oskol leuna eta gogorra, eta mami lehor eta jateko ona dituen’. Horretaz gain, *-a* artikularekin, *Urra*, toponimoa den aldetik, *b-rik* gabe idazten dena, Nafarroako Amekoabarrenge herri baten izena ere bada. 3) *bura* ‘izenordain erakusleen singularreko hirugarren pertsona’.

Urbeltz

- B.F. Urbeltz.- Ur (agua) - belz. Río negro.
- **Oharra:** *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *beltz*, kolore beltza adierazten duen adjektiboa, ‘ur edo ugalde beltza’.

Urberoaga

- B.F. Urberoaga.- Ur - bero - aga. Sitio de aguas calientes.
- **Oharra:** *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *bero* ‘temperaturak gora egitean gauzatzen dena’ + *-aga* toki atzizkia, hau da, ‘ur bero tokia’.

Urbietta

- B.F. Urbietta, Urbizu.- Sitio de dos ríos.

- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera berean eman zituen toponimo horien hasiera-ko osagaiak *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *bi* zenbakiaren erreferentzia dira, hots, *bi erreka* edo *ugalderen adierazlea*. Amaierakoak, berriz, *-eta* eta *-zu* atzizkiak, tokia edota ugaritasuna adierazten dutenak; beraz, *Urbietta* eta *Urbizu* forma aldetik ezberdinak badira ere, erranahi aldetik nahiko berdinak dira.

Urbikain

- **B.F.** Urbicain.- *Ur - bi (dos) - gain*. Encima de dos ríos.
- **Oharra:** itxuraz ematen du B. Fagoagak aipatzen dituen osagaiak dituen izena dela, hots, *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *bi* (bi zenbakia) + *kain* (*gain* ‘toki goia’-ren aldaera), hau da, ‘bi erreka edo ugalde elkartzaren diren gaineko aldea’. Baina ez da alde batera utzi behar *Urbikain* Nafarroako Itzagaondoa ibarreko herri baten izena ere badela, eta anitz direla *-ain* atzizkia daramaten herri izenak eta horrelakoetan normalean pertsona baten jabetza adierazten dutela, *Ansoain*, *Garinoain*, *Muniain* eta abarretan bezala, nahiz eta kasu honetan ez den argi ikusten hasiera-ko *urbi-* osagaia zeren erreferentzia den.

Urbizu Ikus Urbietta

Urdanegi

- **B.F.** Urdanegi, Urdaneta, Urdaniz, Urdazubi, Urdanoz. De ur (agua, río) probablemente.
- **Oharra:** B. Fagoagak bortz toponimo horiek sarrera berean eman zituen, baina nonbait lehenbiziko silabari soilik erreparatu zion bortzen etimologia asmatu nahian, ez baita ikertzailerik bortz izen horietako bat bakarra ere *ur* hitzean oinarritzen dela defendatzen duenik. Ikertzaile gehienek arabera, izen horien oinarrian antroponimo bat dago, ematen duenez, *urde*-tik sortutako *urdain* ‘urdezain’ edo ‘txerrizain’ izengoitia, pertsona izen bilakatu. *Urdax* ere talde horretan sartzen dute, ematen duenez, *Urdaitz* izenetik eratorritako forma delako. Azkenik, jakina da *Urdazubi* formak ‘Urdax-ko zubia’ri egiten diola erreferentzia. Amaierako osagaiak *-egi*, *-eta*, *-i(t)z* eta *-o(t)z* atzizkiak dira. Herri izen ofizialei dagokienez, *Urdaitz* / *Urdániz* da Esteribarko kontzejuarena, *Urdazubi* / *Urdax* Xaretako udalarena eta *Urdanoz* Goñerriko kontzejuarena. Azken honi, euskaraz dagokiona *Urdotz* da.

Urdaneta Ikus Urdanegi

Urdaniz Ikus Urdanegi

Urdanoz Ikus Urdanegi

Urdazubi Ikus Urdanegi

Urdiain

- B.F. Urdiain.- Ur - di - ain, gain. ¿Encima del sitio de aguas?
- **Oharra:** (ikus *Urdanegi* sarrera). *Urdiain* toponimoaren kasuan ere antroponimo bat egon daiteke oinarrian, eta *-ain* atzizkia daramaten herri izenek bezala (ikus *Andoain*, *Garinoain*, *Muniain* eta abar), pertsona baten jabetza adieraziko luke.

Urdin

- B.F. Urdin.- Azul, pardo.
- **Oharra:** *urdin*, hitz arrunt gisa *azularen* sinonimotzat erabiltzen da; toponimoetan, ordea, ‘arrea’ adierazten du normalean, hots, ‘lur ilunaren kolorea’, egileak dioen gaztelaniazko kolore “pardo”a alegia. Horren adibide dira, erraterako, Almandozko *Arriurdin*, Zigako *Urdintz* eta bertze hainbat toponimo. Ileaz mintzatuz, berriz, kolorea galtzen hasia, baina erabat zuritu gabeari deitzen zaio *urdin*.

Urederra

- B.F. Urederra.- Ur - eder - a. Agua hermosa, fuente hermosa.
- **Oharra:** *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *eder* adjektiboa + *-a* artikulua; beraz, ‘bere itxura edo eragatik, ikusmenari-edo, guztiz atsegina edo miresgarria gertatzen den ura’, ‘ur arras ona’.

Urepel

- B.F. Urepel.- Ur - epel (tibio). Aguas tibias.
- **Oharra:** *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *epel* adjektiboa, ‘ur bero samarra, ez hotza eta ez beroa’.

Ureta

- B.F. Ureta.- Ur - eta. Sitio de aguas.
- **Oharra:** *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, hau da, ‘ur anitzeko tokia’.

Urgorri

- B.F. Urgorri.- Aguas rojas, río rojo.

- **Oharra:** *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *gorri*, kolore gorria adierazten duen adjektiboa.

Uria

- **B.F.** Uria.- Variante de iria. Ciudad, pueblo, casa.
- **Oharra:** *biri* izenak Euskal Herriko mendebaldean hartzen duen aldaera da *uri*, toponimian bereziki, eta *-a* artikulua da. Erranahiari dagokionez, kontuan izatekoa da *biri* izendapena historian zehar herri batzuei eman izan zaaien titulua dela, batzuetan *biria* dena (gaztelaniaz “ciudad” deitzen zaiona), bertze batzuetan, *biribildua* (gaztelaniazko “villa”). Oikonimian, ordea, *auzo*-aren edo *etxe*-aren erreferentzia ere izaten da zenbaitetan, erraterako, *Irigoien* herri bateko ‘goiko aldean dagoen auzoa edo etxea’, *Iriarte* ‘erdiko aldean dagoen auzoa edo etxea’ eta *Iribarren* ‘beheitiko aldean dagoen auzoa edo etxea’, Malerrekako Zubieta herrian egiaztatzen ahal den bezala.

Uriarte

- **B.F.** Uriarte, Iriarte.- Entre el pueblo.
- **Oharra:** *uri* (ikus *Uria* sarrera) + *arte* ‘bitartea’, hau da, ‘erdi aldeko auzoa edo etxea’ seguruenik. Ikus *Iriarte* sarrera.

Uribarrena

- **B.F.** Uribarrena, Ulibarrena.- Iribarren - a. Parte inferior de...
- **Oharra:** *uri* (ikus *Uria* sarrera) + *barren* ‘beheitiko alderdia’ + *-a* artikulua; beraz, ‘beheitiko aldeko populazio-gunea’ edo ‘beheitiko aldean dagoen auzoa edo etxea’. *Ulibarrena* aldaera da, *-r-* eta *-l-* kontsonanteak bokalen artean doazenean eman ohi den txandaketagatik.

Uribarri

- **B.F.** Uribarri, Ulibarri.- Iriberrri. Villa nueva.
- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera berean eman zituen bi izen horietako lehenbiziko osagaia, batean *uri* (ikus *Uria* sarrera) da, eta haren aldaera den *uli* bertzean, *-r-* eta *-l-* kontsonanteak bokalen artean doazenean eman ohi den txandaketagatik. Bigarren osagaia *barri* adjektiboa *berri*-ren aldaera Euskal Herriko mendebaldean. Ikus *Iriberrri* sarrera.

Uribe

- **B.F.** Uribe.- Parte inferior del pueblo.

- **Oharra:** *uri* (ikus *Uria* sarrera) + *bebe* ‘beheitikoa’ > *be* bilakatua, hau da, ‘populazio-gunearen nahiz auzoaren edo etxearen beheitiko aldea’.

Uriz

- B.F. Uriz.- De ur (agua) probablemente.
- **Oharra:** ematen duenez, *-i(t)z* amaiera duten zenbait herri izenek bezala (hala nola *Aniz*, *Aoiz* / *Agoitz*, *Astitz*, *Urdaitz* / *Urdániz*...), pertsona izen bati egiten ahal dio erreferentzia, nahiz eta ez den zehazki ageri zein izaten ahal den izen hori. Artzibarko kontzejuaren izendapen ofiziala *Úriz* / *Uritz* da.

Urkia

- B.F. Urkia.- Urqui (abedul) - a artikulua.
- **Oharra:** *urki* ‘eremu hotz eta epeletako zuhaitza, azala zurixka eta leuna, hostoak txikiak eta loreak gerbetan bilduak dituena’ + *-a* artikulua.

Urkiaga

- B.F. Urquiaga.- Sitio de abedules.
- **Oharra:** *urki* (ikus *Urkia* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, hots, ‘urki anitzeko tokia’.

Urkidi

- B.F. Urkidi, Urquiola, Urquiza, Urquijo, Urquizu.- Sitio de abedules.
- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera batean eman zituen borts izen horien hasierako osagaia *urki* (ikus *Urkia* sarrera) da; amaierakoak, ordea, elementu ezberdinak dira: *-di* atzizki multzokaria, *ola* ‘burdinola’ nahiz ‘artzain txabola’, *-tza* toki ugaritasunezko atzizkia, *-xo* atzizki txikigarria (gaztelaniaz euskarazko *-x-* soinua *-j-* gisa transkribatu izan dena, *Urquijo* erraterako), eta *-zu* ugaritasunezko atzizkia.

Urkiola Ikus Urkidi

Urkitza Ikus Urkidi

Urkitzaur

- B.F. Urquiza.- Urquiza - aurre. Delante de...
- **Oharra:** *urkitza* (ikus *Urkidi* sarrera) + *aurre* ‘aitzineko aldea’ > *aur* bilakatua apokopeagatik; beraz, ‘urki anitzeko tokiaren aitzineko aldea’.

Urkixo Ikus Urkidi

Urkizu Ikus Urkidi

Urkizuaran

- B.F. Urkizuaran.- Urquizu - aran. Vega de, sitio de abedules.
- **Oharra:** *urkizu* (ikus *Urkidi* sarrera) + *baran* ‘ibarra’; beraz, ‘urki ugariko ibarra’.

Urmendia

- B.F. Urmendia.- Ur - mendi - a. Monte de aguas.
- **Oharra:** *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *mendi* izen arrunta + *-a* artikulua, ‘ur mendia’ alegia.

Urmeneta

- B.F. Urmeneta.- Ur - mendi - eta. Monte de aguas.
- **Oharra:** P. Salaberrik komentatutakoaren arabera, azalpenik errazena da *Urmeneta* izena oraingoz lekukotasunik aurkitu ez den **Urmineta* (osagaiak *ur* + *min* + *-eta* izanzen zituen) formatik asimilazioz atera izatea, ziur jakin gabe *min* osagaiak ‘garratza’, ‘mingotsa’ edo horrelako zerbait adieraziko zuen.

Urola

- B.F. Urola.- Sitio de aguas.
- **Oharra:** *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *ola* ‘burdinola’, hau da, ‘ur tokiko burdinola’ seguruenik.

Urondo

- B.F. Urondo.- Junto al río.
- **Oharra:** *ur* (ikus *Ugalde* sarrera) + *ondo* ‘hurbileko alderdia’, hots, ‘ur tokia- ren aldamera’.

Uroz

- B.F. Uroz.- ¿De ur?
- **Oharra:** Nafarroan badira *-o(i)z* amaiera duten zenbait herri izen eta, uste denez, pertsona baten jabetza adierazten dute. Horien artean koka liteke *Urotz*, argi ikusten ez bada ere zein den erreferentziazko antroponimoa, *Ur?*, *Urus?*, *Urius?* Lizoainibarko kontzejuren izendapen ofiziala *Uroz* / *Urotz* da.

Urritza

- B.F. Urriza.- Urritz (avellano silvestre) - a.
- **Oharra:** *burritz* ‘*Corylaceae* familiako zuhaixka, fruitutzat hurra ematen duena (*Corylus avellana*)’ + *-a* artikulua. Horretaz gain, Nafarroako Imotz ibarrean bada *Urritza* izeneko herria, toponimoa den aldetik, *b*-rik gabe idazten dena.

Urrizate

- B.F. Urrizate, Urrizola, Urrizti.- Sitio de avellanos.
- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera berean eman zituen hiru izen horien hasierako osagaia *burritz* (ikus *Urritza* sarrera) da; amaierakoak, ordea, ezberdinak dira; lehenbizikoan *ate* ‘ataka’ edo ‘pasabidea’ dugu, bigarrenean *ola* ‘burdinola’ edo ‘artzain txabola’, eta hirugarrenean *-ti* atzizki multzokaria. Nafarroan badira *Urrizola* izeneko bi herri, Arakil eta Ultzama ibarretan, eta *Urrizate* auzoa Erratzun (Baztan).

Urrizola Ikus **Urrizate****Urrizelqui**

- B.F. Urrizelqui.- Urritz - ¿egui? Vertiente de avellanos.
- **Oharra:** *burritz* (ikus *Urritza* sarrera) + *elki*. Azken honi dagokionez, agian, izaten ahal da *ilki* ‘ateratakoa’ > *elki* bilakatua bokalen disimilazioagatik, edo *elke* ‘alorra’ > *elki* bihurtua arrazoi beragatik. Lizoainibarko kontzejuaren izendapen ofiziala *Urricelqui* / *Urrizelki* da.

Urrizti Ikus **Urrizate****Urroz**

- B.F. Urroz.- Ur - oz. ¿De ur?
- **Oharra:** *-o(t)z* amaiera duten zenbait herri izenetan bezala, hemen ere, pertsona baten jabetza izanen dela ematen du, nahiz eta ez den argi ikusten zein den erreferentziazko pertsona izena, *Ur?*, *Urrus?* Malerrekan dagoen herriaren izendapen ofiziala *Urroz* da, eta ofizialki *Urroz-Villa* deitutakoari euskaraz dagokiona *Urrotz*.

Urrutia

- B.F. Urrutia.- Urruti (arroyo). De ur - a. . .
- **Oharra:** B. Fagoagak bezala, *urruti* izenak *ura*-ri erreferentzia egiten diola defendatzen dutenak badira ere, ematen du zuzenagoa dela pentsatzea

‘harago’ edo ‘bertze alderdian’ dagoen zerbait adierazten duela; hortaz, *urruti* + *-a* artikulua ‘bertze alderdia’.

Ursua Ikus Ujué eta Urtsua

Urtsua

- B.F. Ursua.- Ur - su - a. Sitio húmedo, paloma.
- **Oharra:** osagaiak *ur* ‘isurkari koloregabea’ + *-tsu* ugaritasunezko atzizkia + *-a* artikulua dira. Toponimo gisa, ezaguna da *Urtsua* izena duen Arizkungo jauregia. Ikus *Ujué* / *Uxue* sarrera.

Urtzelai

- B.F. Urcelay.- Ur - zelai. Llano de aguas, o del río.
- **Oharra:** osagaiak *ur*- ‘isurkari koloregabea’ + *zelai* adjektiboa ‘toki laua edo lau samarra’ dira; *urtzelai* aldaera euskaraz arrunta den *-rz-* > *-rtz-* bilakaeraren ondorioa da.

Urtzi

- B.F. Urzia, Urzi, Orzi (Dios arcaico, trueno, firmamento). “Urzi vocant Deum” (s. XII).
- **Oharra:** *Urtzi* edo *Ortzi* aldaera, jainkoaren euskal izen zaharra da. Horretaz gainera, euskal mitologiako izakia ere bada, ekaitza eta harria ekartzen dituen.

Usategi

- B.F. Usategui.- Uso (paloma) - tegui. Palomar, palomera.
- **Oharra:** *uso* hegazti ezaguna > *usa-* elkarketan hartzen duen aldaera + *-tegi* toki atzizkia, ‘uso tokia’ alegia.

usnatu

- B.F. Usmear.- Olfatear, barruntar (Javier).
- **Oharra:** *usnatu* ‘zerbaiten usaina aditu edo hartu; zerbaiti usain egin’. J.M. Iribarrenen arabera, *usnatu*-tik ateratakoa da Nafarroan gaztelaniaz erabiltzen den *busmear* “acechar”.

Usoa Ikus Ujué

Usua Ikus Ujué

Uxue Ikus Ujué

xarduki Ikus iharduki

xintxo

- B.F. Xincho. -Juicioso, formal, sonido fino.
- **Oharra:** *zintzo* ‘bertute moralen edo egiaren arabera aritzen dena’ da, eta *xintxo* hitz horren aldaera hipokoristikoa.

xirimiri Ikus zirimiri

Xuriko

- B.F. Jurico, Xurico, Zurico.- Zuri - co. Blanquico.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *zuri* da eta haren aldaera txikigarria *xuri*, eta bigarrena *-ko* atzizki txikigarria. *Xuriko* pertsona bati aplikatutako izengoiti gisa, azalaren kolorearen erreferentzia ez ezik ‘faltsua’rena, ‘losintxaria’rena ere izaten ahal da. Gaztelaniak, euskarazko *x-* soinua transkribatu ezinean, *j-* letrarekin bereganatu izan du, *Jurico* transkribatuz.

Zabal

- B.F. Zabal.- Ancho.
- **Oharra:** *zabal* ‘albo batetik bertzera hedadura handia edo ohikoa baino handiagoa duena’, ‘zabalera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duena’. Horretaz gain, *Zabal*, Nafarroako Deierriko herri baten izena ere bada.

Zabala

- B.F. Zabala.- El ancho.
- **Oharra:** *zabal* (ikus *Zabal* sarrera) + *-a* artikulua. Hagitz hedatua den toponimoa eta deitura ere bada.

Zabalburu

- B.F. Zabalburu.- Encima de la planicie.
- **Oharra:** *zabal* (ikus *Zabal* sarrera) + *buru* ‘gorenko alderdia’ edo ‘amaiera’; beraz, ‘toki zabalaren gaineko aldea’ edo ‘toki zabalaren akabera’.

Zabaldika

- B.F. Zabaldica.- Zabal - di - :ga? Sitio ancho.
- **Oharra:** hasierako osagaia *zabal* (ikus *Zabal* sarrera) da; amaierakoa *-ika* dela nahiko garbi dago (ez B. Fagoagak dioen *-ga*). Izan ere, *-ika* euskal

toponimian zenbait izenetan ageri den atzizkia da, baina zenbait iker-tzaile adituk (K. Mitxelena, A. Irigoien, J. Gorrotxategi...) ez dute ba-tere argi zein den horren benetako erranahia, ez eta euskal atzizkia ote den ere. Erratzuarrak tartean *-di* atzizkia ikusten du, eta agian hala izan liteke, baina toponimoa, bere osotasunean, nahiko iluna iruditzen zaie adituak direnei ere.

Zabalegui

- B.F. Zabalegui. Vertiente ancha o altura ancha.
- **Oharra:** *zabal* (ikus *Zabal* sarrera) + *-egi* toki atzizkia, ‘toki zabala’ alegia. Elotzibarko kontzejuaren izendapen ofiziala *Zabalegui* da, eta dagokion euskal izena *Zabalegi*.

Zabaleta

- B.F. Zabaleta.- Sitio ancho.
- **Oharra:** *zabal* (ikus *Zabal* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘zabal-di nabaria’ edo ‘zabalera nabaria duen tokia’.

Zabalibar

- B.F. Zabalibar.- Vega de planicies.
- **Oharra:** *zabal* (ikus *Zabal* sarrera) + *ibar* ‘harana’, hau da, ‘zabaldiko harana’ edo ‘zabalera nabaria duen harana’.

Zabalza

- B.F. Zabalza, Zabaleta.- Sitio ancho.
- **Oharra:** *zabal* (ikus *Zabal* sarrera) + *-tza* toki ugaritasunezko atzizkia, hots, ‘zabalera handiko tokia’. Urraulgoitiko kontzejuari dagokion euskal izena *Zabaltza* da.

zabor

- B.F. Zaborra.- Escombros, residuos, pedruscos. (Monreal).
- **Oharra:** *zabor* ‘hondakina’.

zaingorri

- B.F. Zangorri.- Zain (raíz) - gorri. Raíz roja, hierba dañina.
- **Oharra:** *zaingorri* ‘belar landare zurtoin-gorrixka, sendagintzan erabiltzen dena, perrexilak bezalako hostoak dituen eta lore txiki arrosak ematen dituen (*Geranium robertianum*)’.

zakar

- B.F. Zacarro.- Zacar (feo, malo, escabroso, postilla).
- **Oharra:** *zakar* ‘inolako gozotasunik agertzen ez duen pertsona’, ‘latza’. Gaztelaniak, *-o* amaiera gehituz, euskal hitz hori bereganatu du gizonezkoiei aplikatzeko, *zakarro* alegia, bertze zenbait kasutan egin izan duen bezala, hala nola *azkarro*, *txarro*, *txaparro* (ikus *azkar*, *txar* eta *txapar* sarrerak).

zakarro Ikus **zakar****zakuto**

- B.F. Zacuto.- Zacu (saco) - to (diminutivo). Saco pequeño.
- **Oharra:** *zaku* ‘ehun edo paper latz eta gogorrez egindako zorroa, gehienetan handia eta sakona, goialdean itxi daitekeena’ + *-to* atzizki txikigarria; beraz, ‘zaku txikia’.

Zalbide

- B.F. Salbide.- *zaldi* (caballo) - bide? Camino de caballerías.
- **Oharra:** *zaldi* animalia ugaztunaren izen arrunta + *bide*, ‘zaldien bidea’ *zaldibide* alegia, haplogogiaren eraginez *zalbide* bilakatu dena; *salbide* erdararen eraginez sortutakoa aldaera da, *zubitza* > *subitza* gisakoa. Ikus *Subitza* sarrera.

Zaldain

- B.F. Zaldain.- Zaldu - gain. Encima del soto.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *zaldu* (ikus *Zaldua* sarrera) izaten ahal da, bigarrena, ordea, ez da hain argia. Toponimo gisa ageri da, erraterako, Arizkunen, Berroetan eta Bidarrain. Hitz arrunt gisa ‘oinezkoentzako zubi estu eta arina’ erranahiarekin definitzen du *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*.

Zaldibar

- B.F. Zaldibar.- Zaldu (bosque, selva, prado soto) - ibar. Vega de prados.
- **Oharra:** ikertzaile aditu batzuen iritziz, lehenbiziko osagaia *zaldu* (ikus *Zaldua* sarrera) izaten ahal da; bertze batzuen ustez, berriz, *zaldi* animalia; bigarren osagaia *ibar* ‘harana’ da; beraz, ‘zalduko ibarra’ edota ‘zaldiak dauden ibarra’.

zaldiko-maldiko

- B.F. Zaldico Maldico.- Zaldi (caballo) - co (diminutivo). Caballito. Maldico por sonsonete.

- **Oharra:** *zaldiko-maldiko* ‘jolas parkeetako plataforma biribil birakaria, gainean zaldiak, autoak eta bertzelako jarlekuak dituen eta jostagarritzat erabiltzen dena’, ‘tiobiboa’.

Zaldua

- B.F. Zaldua.- Zaldu (bosque, selva, prado soto) - a. “Soto uno qui dicitur aquer zaltua, saltus hircorum” (s. XII).
- **Oharra:** *zaltu* edo *zaldu*, latineko *saltus* hitzetik sortutakoak dira, gehienetan ‘ibai edo erreken ondoan izaten diren arboladietan azienda atsedenean egoten den basoa’ izendatzeko, gaztelaniaz “soto” erraten dena, + *-a* artikulua.

Zalduendo

- B.F. Zalduendo.- Zaldu - ondo. Junto al soto.
- **Oharra:** *Zalduendo* Arabako herri izena da, *Zalduendo* formarekin ere ageri dena, bai herri horretako dokumentazio zaharrear, bai gaur egun egiazta-tzen ahal diren zenbait deituratan; hortaz, osagaiak *zaldu* (ikus *Zaldua* sarre-ra) + *ondo* ‘hurbileko alderdia’ dira; beraz, ‘zalduaren aldamera’.

Zaldunbide

- B.F. Zaldunbide.- Zaldun (caballero) - bide. Camino de caballeros.
- **Oharra:** lehenbiziko osagaia *zaldun* ‘zaldi gainean doan edo ibiltzen den pertsona’ izan daiteke, bai eta ‘aitoren semea, batik bat maila apalenekoa’ ere, edota ‘zalduntza-ordena bateko kidea’; bigarren osagaia *bide* izen arrunta da.

zama

- B.F. Zama.- Carga (Monreal).
- **Oharra:** *zama* ‘abere, pertsona edo ibilgailu baten gainean garraiatzen edo zamatzen den gauza’.

Zamarbide

- B.F. Zamarbide.- Zamari (acémila, caballería de carga) - bide. Camino de caballerías, camino de herradura.
- **Oharra:** *zamari* ‘zamak garraiatzeko erabiltzen den zaldi, asto edo kidekoa’ > *zamar-* elkartetan hartzen duen aldaera + *bide* izen arrunta, hau da, ‘mandabidea’.

zambulu Ikus *zanbulu*

zampar Ikus *zanpatu*

zamucas Ikus *zamuka*

zamuka

- B.F. Zamucas.- Angarillas, jamugas, silla de tijera para montar.
- **Oharra:** *zamuka* ‘bastaren edo txalmaren azpiko babesgarria’; batez ere Ipar Euskal Herrian eta Baztanen erabiltzen den hitza da. J.M. Iribarrenek gaztelera erabiltzen duten “zamucas” aldaera jaso zuen Artatza herrian.

zanaboria Ikus *azenario*

zanbulu

- B.F. Zambalan, zambulu.- Columpio.
- **Oharra:** *zanbulu* ‘zabu egitea, kulunkatzea’. B. Fagoagak aipatzen duen “zambalan” hitzaren pareko dira J.M. Iribarrenek jaso zituen “cibirín” Añorben eta “zámbala” bertze zenbait tokitan.

zanpateko

- B.F. Zampataco.- Golpe.
- **Oharra:** *zanpateko* ‘zanpakoa’ edo ‘kolpea’.

zanpatu

- B.F. Zampar.- Pegar un palizón.
- **Oharra:** *zanpatu* ‘zapaldu’ edo ‘jipoitu’. Hitz horretatik eratorria da Nafarroan gaztelaniaz erabiltzen den “zampar” aditza.

zapelatz

- B.F. Chapelaza.- Halcón.
- **Oharra:** *zapelatz* ‘miruaren antzeko hegazti harraparia, isats-laburra, gainalde arre iluna eta azpialde argiagoa duena (*Buteo* sp.)’; *txapelatz* eta *txapelatx* aldaera txikigarriak dira.

zapo

- B.F. Arrapo, larrapo.- Sapo.
- **Oharra:** ohikoa den *zapo* ‘ornodun urlehortarra, igelaren antzekoa, baina gorputz lodiagoa eta azala garatxoz betea duena’ izenaren aldaera ezaguna da *apo* Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. B. Fagoagak aipatzen dituen

bertze bi aldaerak J.M. Iribarrenek Nafarroan jasotakoak dira: *arrapo*, bertzeak bertze, Iruñerrian eta Tafallerrian, eta *larrapo* Erronkaribarren eta Eguesibarren. Ikus *zarrapo* sarrera.

Zariquiegui

- B.F. Zariquiegui.- Zarica (retama) - egui. Ladera de retamas.
- **Oharra:** *zarika* ‘sahatsa’, ‘zumea’ + *-egi* toki atzizkia edo *hegi* ‘mendi hegala’; beraz, ‘sahats tokia’ edo agian ‘sahatsak dauden mendi hegala’ nahiz ‘sahats aldapa’. Dagokion euskal izena *Zarikiegi* da.

zarrakamalda

- B.F. Zarrakamalda.- Palo largo con gancho para cortar zarzas.
- **Oharra:** B. Fagoagak ematen duen erranahiarekin, bizirik dirauen hitza da *zarrakamalda* Erroibarren, behinik behin.

zarrako Ikus zarrapo

zarrapo

- B.F. Zarraco.- Sapo.
- **Oharra:** *zarrako* hitzak ‘zirrara bortitza’ erranahia du Leitzan erraterako, baina Nafarroako zenbait tokitan erratzuarrak dioen ‘apoa’ izendatzeko *zarrapo* erabiltzen da, ez *zarrako*.

zarrata

- B.F. Zarrata, tarrata.- Desgarrón.
- **Oharra:** *zarrata*, ‘urratua’; *tarrata*, bertzeak bertze, Baztanen erabiltzen den aldaera da.

zarratrako

- B.F. Zarratraco.- Desgarbado.
- **Oharra:** *zarratrako* ‘baldarki janzten dena’ edo ‘arlotea’ Nafarroako zenbait tokitan.

zarta

- B.F. Zarta, zartaco.- Bofetada.
- **Oharra:** *zarta*, *zartako* ‘masailekoa’, ‘zaplada’, ‘ukaldia’.

zartako Ikus zarta

Zazpiturrieta

- B.F. Zazpiturrieta.- Zazpi (siete) - iturri - eta. Sitio de las siete fuentes.
- **Oharra:** *zazpi* zenbakia + *iturri* ‘ura lur azpitik ateratzen den tokia’ + *-eta* toki atzizkia; beraz, ‘zazpi iturri dauden tokia’.

zelai

- B.F. Zelaya.- Zelai (llano) - a. El llano.
- **Oharra:** *zelai* ‘landa laua edo lau samarra, batez ere belarra duena’. *-a* artikularekin ere, *Zelaia*, toponimoa nahiz deitura hedatua da.

Zelaia Ikus zelai

Zelaieta

- B.F. Zelaieta.- Zelai (llano) - eta. Sitio llano.
- **Oharra:** *zelai* ‘landa laua edo lau samarra, batez ere belarra duena’ + *-eta* toki atzizkia, hots, ‘toki lau nabaria’.

zezensuzko

- B.F. Zezensusco.- Zezen (toro) - su (fuego) - ko. Toro de fuego. (Arrizko, de piedra).
- **Oharra:** *zezensuzko* ‘zezenaren zurezko irudia, bizkarraldean suziriak dituena eta jaietan jolaserako erabiltzen dena’.

ziape

- B.F. Ziape.- Mostaza, planta de los triguales.
- **Oharra:** *ziape* ‘azaren familiako belar landarea, janarien bizigarri gisa erabiltzen diren hazi txiki beltzak ematen dituena’.

Ziaurriz

- B.F. Ziaurriz.- Sitio de yezgos.
- **Oharra:** *zibaurri* (ikus *zibaurri* sarrera) + *-tz(e)* ugaritasunezko atzizkia ‘intsusa anitzeko tokia’. Odieta ibarreko kontzejuaren izendapen ofiziala *Ciáurriz* / *Ziaurriz* da.

ziendoco Ikus eltzeondoko

zihaurre Ikus zihaurri

zihaurri

- B.F. Ziaurre.- Yezgo, planta semejante al saúco.
- **Oharra:** *zihaurri* ‘anduraren edo intsusaren antzeko landarea, kiratsa dariona (*Sambucus ebulus*)’; Nafarroa Garaian *zihaurre* aldaera ere ezaguna da.

zikin

- B.F. Ziquiñoso.- Ziquin (sucio).
- **Oharra:** *zikin* ‘orbanak, hautsa, hondakinak edo itxura itsusten dion zerbait duena’; hitz horretatik ateratakoa da gaztelaniaz erabiltzen den “ziquiñoso” adjektiboa.

zimurrido Ikus **zimurtu****zimurtu**

- B.F. Zimurrido.- Zimur (arrugado).
- **Oharra:** *zimurtu* ‘zimurrak atera’, ‘zimurrez bete’; euskal aditz horri gaztelaniaz emandako partizipio forma da “zimurrido”.

zintzo

- B.F. Chincho, Zintzo.- Juicioso, formal, sonido fino.
- **Oharra:** *zintzo* ‘egiaren arabera jokatzeko duena’ edo ‘egiaren arabera aritzen dena’; *txintxo* aldaera adierazkorra da.

zintzur

- B.F. Chinchur, Zinzur.- Garganta. “Contraco chinchur”.
- **Oharra:** *zintzur* ‘eztarria’; *txintxur* aldaera adierazkorra da; *kontrako txintxur* ‘kontrako eztarria’.

zinurri Ikus **inurri***ziquiñoso* Ikus **zikin****zirikatu**

- B.F. Ziriquiar.- Revolver con un palo, tentar.
- **Oharra:** *zirikatu* ‘norbaitek zerbait egitera bultzatu’, bai eta ‘xaxatu’ eta ‘kilikatu’ ere; gaztelaniaz bereganatutako aditzaren forma da “ziriquiar”.

zirimiri

- B.F. Chirimiri, Xirimiri.- Lluvia menuda.

- **Oharra:** *zirimiri* ‘tanta guztiz xeheetan erortzen den euria’; *txirimiri* eta *xirimiri* aldaera adierazkorrak dira.

ziriquiar Ikus **zirikatu**

Ziriza

- B.F. Ziriza.- Ziri (junco, palito, cuña) - za. Sitio de juncos, juncal.
- **Oharra:** *ziri* ‘haga txiki baten edo zotz baten itxurako pieza luze eta mehea’ + *-tza* ugaritasunezko atzizkia; beraz, *ziri* ugariko tokia da Nafarroako Etxauribarko *Ziritza* herriaren izenak adierazten duena. Herri horren izendapen ofiziala *Ciriza* / *Ziritza* da.

zirrin Ikus **txirrio**

Zoko

- B.F. Zoco.- Rincón (Burlada).
- **Oharra:** *zoko* ‘bi pareta elkartzen diren aldea’, ‘bazter gorde eta ezkutua’, deitura ere izatera pasatu dena. Ikus *txoko* sarrera.

zolda

- B.F. Zolda.- Suciedad, mugre.
- **Oharra:** *zolda* ‘gauzei atxikitzen zaien zikintasuna’.

zortzi

- B.F. Zorci (ocho). Chorchi (soldado, Pamplona, Iribarren).
- **Oharra:** *zortzi* ‘zenbaki arrunta’ da, ‘zazpi eta bat, zortzi’. Gaztelaniaz “soldado” izendatzeko erabiltzen den “chorchi” izenak, ordea, ez dirudi euskarazko *zortzi*-rekin zerikusirik izan dezakeenik. Bertzelako oinarri batekoa da itxura guztiaren arabera. Izan ere, Espainiako Errege Akademiaren hiztegiak dio gaztelaniaz “soldado” izendatzeko erabiltzen diren “sorche” edo “sorchi” aldaerak ingeleseko “soldier” hitzaren sinonimotzat ematen direla. J.M. Iribarrenek “chorchi” jaso zuen Iruñean, baina egiaztatu dugu hitz horren erabilerak hedadura zabalagoa ere baduela, Izarbeibarren eta abarretan. Kontuan izatekoa da XIX. mendearen hasierako Independentziaren Gerra garaian nahiko finkoa izan zela armada ingelesaren presentzia, Iruñerrian bereziki, eta Wellington-en gidaritzapean parte hartze zuzena izan zuela Sorarengo eta abarretako guduetan. Hortik, beharbada, “chorchi” izenaren presentzia Nafarroan.

zortziko

- B.F. Zorzico.- Zortzi (ocho) - co. De ocho.
- **Oharra:** *zortziko*, adiera franko dituen hitza da, bertzeak bertze: a) zortzik osatutako gauza, b) zortzi lerro eta lau puntu dituen euskal bertso mota (zortziko handia, zortziko txikia), c) euskal erritmo mota, 5/8 konpasean idazten dena, eta erritmo horretan ondutako musika-lana, bai eta doinu horrekin dantzatzen den dantza ere.

Zozaia

- B.F. Zozaya.- Zuatx, zuaitz, zugaz (árbol) - di - z? Sitio de árboles
- **Oharra:** toponimo iluna. B. Fagoagak aipatzen duen etimologia alde batera uzteko modukoa da, ez baitira inondik ere ageri proposatzen dituen hiru osagaiak (ez *zubaitz* izena, ez *-di* atzizki multzokaria, ez *-tz(e)* ugaritasunezko atzizkia ere). Erran izan da, *zoza-* hasierako osagaia *zozo* (ikus *zozo* sarre-ra) hegaztiaren erreferentzia izaten ahal dela, baina K. Mitxelenak zalantzazko kontua dela dio. Dena dela, ez da erreferentzia ezezaguna; izan ere, Gipuzkoako Aia, Deba eta Ezkio-Itsaso herrietan badira *Zozabarro* izeneko toponimo nahiz etxe-izenak, eta Oronozko *Zozaia* auzotik nahiko hurbil dagoen Donamariako Artze auzoan ere bada etxalde bat XIX. mendetik gaur egun arte *Zaniberria* deitzen zaiona, baina XVII. mendean *Çoçanibar* eta XVIII.ean *Zozanibar* gisa dokumentatua ageri dena.

zozo

- B.F. Zozo.- Tordo, tonto.
- **Oharra:** *zozo*, 'urretxindorraren familiako txoria, luma beltzak eta moko laranja (arrak) edo lumadi arrea eta moko horixka (emeak) dituen'; pertsoneri aplikatuta 'ergela', 'inozoa'.

Zuasti

- B.F. Zuasti, Zugasti.- Zuatx, zugatz - ti. Sitio de árboles.
- **Oharra:** osagaiak honako hauek dira: lehenbizikoa *zubaitz* 'arbola', *zu(g)atz* bilakatua *ai-* > *a-* diptongoaren murrizketagatik, eta azkenik > *as-* eratorria; bigarrena *-di* atzizki multzokaria > *-ti* bilakatua *z-*ren ondotik; beraz, 'zuhaitz ugariko tokia'.

Zuaznabar

- B.F. Zuaznabar.- Zuatx - nabar. Llanura arbolada entre montañas. Árboles abigarrados de varios colores.

- **Oharra:** *zubaitz* ‘arbola’ (*aitz-* > *az-* bilakatua) + *nabar*, hots, ‘kolore arrea’ edo ‘mendien arteko ordokia’.

Zuazola

- B.F. Zuazola.- Sitio de árboles. Zuazpe, zazpe.- Debajo de los árboles.
- **Oharra:** B. Fagoagak sarrera berean eman zituen bi toponimo horien hasierako osagaia *zubaitz* ‘arbola’ da (ikus *Zuaznabar* sarrera); amaierakoa *ola* ‘burdinola’ edo ‘artzain txabola’ *Zuazola*-ren kasuan, eta *bebe* ‘beheitikoa’, *z*-ren ondotik *pe* bilakatua *Zuazpe*-rean, hots, ‘zuhaitzen beheko aldea edo zola’.

Zuazpe Ikus Zuazola

Zuaztoi

- B.F. Zuaztoi.- Sitio de árboles.
- **Oharra:** *zubaitz* ‘arbola’ (ikus *Zuasti* sarrera) + *-doi* atzizki multzokaria, *z*-ren ondotik *-toi* bilakatua, ‘zuhaitz anitz dagoen tokia’ alegia.

Zubeldia

- B.F. Zubeldia.- Zumel, zubel (carrasca, encina pequeña) - di - a.
- **Oharra:** *zurbeltz* ‘artea, pagoaren familiako zuhaitza’-ren aldaera da *zubel* edo *zumel* hasierako osagaia, eta ondorengoak *-di* atzizki multzokaria eta *-a* artikulua dira; beraz, ‘zurbeltz tokia’.

Zubeltzu

- B.F. Zubelzu.- Sitio de carrascas.
- **Oharra:** *zubel* (ikus *Zubeldia* sarrera) + *-zu* ugaritasunezko atzizkia, *-l* konsonantearen ondotik *-tzu* bihurtua; hots, ‘zurbeltz ugariko tokia’.

Zubiaga

- B.F. Zubiaga.- Zubi - aga. Sitio de puentes o del puente.
- **Oharra:** *zubi* ‘ibai, errepide eta kidekoen gainetik pasatzeko eraikuntza’ + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, hau da, ‘zubi tokia’.

Zubialde

- B.F. Zubialde.- Zubi - alde. Al lado del puente.
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Zubiaga* sarrera) + *alde* ‘hurbileko alderdia’, hau da, ‘zubia-
ren aldamera’.

Zubiate

- B.F. Zubiate.- Zubi - ate (puerta). Puerta del puente, junto al puente.
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Zubiaga* sarrera) + *ate* ‘sarrera’, ‘ataka’; hortaz, ‘zubirako pasabidea’.

Zubiaur

- B.F. Zubiaur, Zubiaurre; Zufiaur, Zufiaurre.- Zubi - aur, aurre. Enfrente del puente.
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Zubiaga* sarrera) edo *zufi* aldaera + *aurre* ‘aitzineko alderdia’ > *aur* bilakatua apokopeagatik, ‘zubiaren aitzineko aldea’ alegia.

Zubiaurre Ikus **Zubiaur****Zubiburu**

- B.F. Zubiburu.- Zubi - buru. Parte superior del puente.
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Zubiaga* sarrera) + *buru*, ‘zubiaren goreneko alderdia edo bukaera’.

Zubieta

- B.F. Zubieta.- Sitio del puente o de puentes.
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Zubiaga* sarrera) + *-eta* toki ugaritasunezko atzizkia, ‘zubi dagoen tokia’ edo ‘zubiak dauden tokia’.

Zubigarai

- B.F. Zubigarai.- Parte superior del puente.
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Zubiaga* sarrera) + *garai* ‘altua’, hau da, ‘zubi altua’, ez erratzuarrak dioen ‘zubiaren gaineko aldea’.

Zubikoa

- B.F. Zubikoa.- Zubi - co - a. La del puente.
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Zubiaga* sarrera) + *-ko* ‘nongo’ adierazten duen toki genitiboa edo atzizki txikigarria + *-a* artikulua; beraz, ‘zubiari dagokiona’ edo ‘zubi txikia’.

Zubillaga

- B.F. Zubillaga.- ¿Sitio de carrascas?
- **Oharra:** K. Mitxelenaren arabera, izen horren osagaiak honako hauek dira: *zubi* ‘ibai, errepide eta kidekoen gainetik pasatzeko eraikuntza’ + *bil* ‘biribila’

+ *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, hots, *Zubibilaga* > *Zubillaga* bilakatua haplologiaz; beraz, ‘zubi biribila dagoen tokia’, deus ikustekorik ez duena B. Fagoagak ematen dion erranahiarekin.

Zubimendi

- B.F. Zubimendi.- Monte sobre el puente.
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Zubiaga* sarrera) + *mendi*, ‘zubi dagoen tokiko mendia’.

Zubimusu

- B.F. Sumusu.- Zubi - musu (punta, cara). Punta del puente o cerca del puente.
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Subitza* sarrera) + *musu* ‘aurpegia’ edo ‘aitzina’, *zubimusu* > *subimusu* bilakatua igurzkarien asimilazioagatik, eta aldaera horretatik haplologiaz *sumusu*; beraz, ‘zubipunta’ edo ‘zubiaitzina’. Ikus *Zubipunta* sarrera.

Zubipunta

- B.F. Zubipunta.- Zubi - punta. Al extremo del puente.
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Zubiaga* sarrera) + *punta*, ‘zubiaren muturra’ edo ‘zubiaren aitzinaldea’ edo ‘zubiaren aldamera’ eta zenbaitetan, Erratzun erraterako, errekarari eta zubiari jota dagoen etxea da.

Zubiri

- B.F. Zubiri, Zubiria, Zufiria.- Zubi - iri. Pueblo o casa del puente (“Zubi iri pueblo sobre puente”, Moret siglo XI).
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Zubiaga* sarrera) + *-iri* atzizkia ‘ondoan’, ‘hurbil’, > *zubi-iri* bilakatua; beraz, ‘zubiaren aldamera’. Ez du, bada, deus ikustekorik erratzuarrak aipatzen duen *biri* ‘herri’, ‘auzo’ edota ‘etxe’ erranahiekin (ikus *Elizari*, *Gortari*, *Lastiri*, *Mugairi* sarrerak). *a-* artikulua daramaten *Zubiria* eta *Zufiria* aldaerak dira. Ikus *Zubiaur* eta *Zufiaur* sarrerak.

Zubiria Ikus Zubiri

Zubizarreta

- B.F. Zubizarreta.- Zubi - zar - eta. Sitio del puente viejo.
- **Oharra:** *zubi* (ikus *Zubiaga* sarrera) + *zabar* ‘lehenagokoa’, ‘aspaldikoa’ > *zar* bilakatua + *-eta* toki atzizkia, hau da, ‘aspaldiko zubi dagoen tokia’.

Zufiaur Ikus Zubiaur

Zufiaurre Ikus Zubiaur

Zufria Ikus Zubiri

Zugarramurdi

- B.F. Zugarramurdi.- Zugar - ¿?
- **Oharra:** toponimo honen lehenbiziko osagaia *zugar* da (ikus *Zugarrondo* sarrera) eta amaierakoa *-di* atzizki multzokaria. Tartean ageri dena *andur* ('ze-ken?') ote den galdera moduan aipatzen du K. Mitxelena.

Zugarrondo

- B.F. Zugarrondo.- Zugar, zuar, zumar (olmo) - ondo. Junto a los olmos.
- **Oharra:** *zumar* 'zuhaitz luzea, hosto horzdunak eta azpialdean iletsuak dituen (Ulmus sp.)' da eta *zugar* haren aldaera ezaguna Nafarroan bereziki, + *ondo* 'hurbileko alderdia'; hortaz, 'zumarren edo zugarren aldamera'.

Zugasti Ikus Zuasti

Zugatzaga

- B.F. Zugazaga.- Sitio de árboles.
- **Oharra:** *zubaitz* 'arbola' (ikus *Zuasti* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, hau da, 'zuhaitz ugariko tokia'.

Zuhatzu

- B.F. Zuazu.- Sitio de árboles.
- **Oharra:** *zubaitz* 'arbola' (ikus *Zuasti* sarrera) + *-zu* toki ugaritasunezko atzizkia, hots, 'zuhaitz ugariko tokia'.

zuhur

- B.F. Zurro.- Zur (avaro, agarrado, prudente).
- **Oharra:** *zubur* 'gauzak zentzuz eta neurriz pentsatu edo pisatu artean aritzen ez dena', bai eta 'zikoitza', 'zekena' ere. Nafarroan gaztelaniaz 'zikoitza' edo 'zekena' adierazteko *zubur* > *zur*-etik ateratako *zurro* hitza erabiltzen da, hots, amaieran -o gehituz, bertze zenbaitetan gertatzen den bezala, hala nola *azkarro* (ikus *azkar* sarrera), *txaparro* (ikus *txapar* sarrera), *zakarro* (ikus *zakar* sarrera) eta abarretan.

Zulaiabar

- B.F. Zulaiabar.- Zulo (agujero, barranco) - ibar. Vega de agujeros, barrancos.
- **Oharra:** *zulo* ‘irekidura’, ‘sakonunea’ > *zula-* elkarketan hartzen duen aldaera + *ibar*; beraz, ‘sakonuneak dituen harana’.

Zulaieta Ikus Zuloaga**zulo**

- B.F. Chulo, Zulo.- Agujero, hoyo.
- **Oharra:** *zulo* ‘zerbaiten azalean edo gainaldean gertatzen den irekidura edo sakonunea’; *txulo* aldaera txikigarri edo hipokoristikoa da.

Zuloaga

- B.F. Zuloaga, Zulaieta, Zulueta.- Sitio de agujeros o barrancos.
- **Oharra:** B. Fagoagak elkarrekin emandako hiru sarrera horietan lehenbiziko osagaia *zulo* ‘irekidura’, ‘sakonunea’ da, elkarketan *zula-* eta *zulu-* aldaerak hartzen dituen. Bigarren osagaiak ugaritasunezko toki atzizkiak dira, *-aga* batean, *-eta* bertze bietan.

Zulueta Ikus Zuloaga**Zumalakarregi**

- B.F. Zumalacárregui.- Zumalacar, zumelicar, zumerica (mimbre) - egui. Paraje de mimbres.
- **Oharra:** *zumalakar* ‘karraskilaren familiako *zuhaitza*, zur malgukoa (*Frangula alnus*)’ + *-egi* toki atzizkia.

Zumalde

- B.F. Zumalde.- Zume (mimbre) - alde. Al lado de los mimbres.
- **Oharra:** hasierako osagaia *zume* ‘*Salix* generoko *zuhaitza* edo *zuhaixka*’ da, bai eta ‘saskiak egiteko erabiltzen diren *zuhaixka* horren adar malguak (*Salix viminalis*)’ ere, Nafarroako zenbait eremutan, Baztanen erraterako, *zumerika* izendatzen dena. Amaierako osagaia *alde* postposizioa da; hortaz, ‘zumeriken aldamera’.

Zumaran

- B.F. Zumaran.- Vega de mimbres.

- **Oharra:** *zume* (ikus *Zumalde* sarrera) + *baran* ‘ibarra’; beraz, ‘zumerikak dau-den ibarra’.

Zumardi

- B.F. Zumardi.- Sitio de olmos.
- **Oharra:** *zumar* (ikus *Zugarrondo* sarrera) + *-di* atzizkia multzokaria, hau da, ‘zumar ugariko tokia’.

Zumarraga

- B.F. Zumarraga.- Sitio de olmos.
- **Oharra:** *zumar* (ikus *Zugarrondo* sarrera) + *-aga* toki ugaritasunezko atzizkia, hots, ‘zumar tokia’.

Zumeta

- B.F. Zumeta. Sitio de mimbres.
- **Oharra:** *zume* (ikus *Zumalde* sarrera) + *-eta* toki atzizkia, ‘zumerika ugariko tokia’ alegia.

zungur Ikus txungur

Zuriko Ikus Xuriko

zurro Ikus *zuhur*

Blas Fagoagaren euskara haren hiru sermoi nagusiren argitan

Hiru sermoi horiek, hurrenez hurren, Berroetan 1927an, Elizondon 1932an eta Orreagan 1934an egin zituen.

Hiru ataletan banatu eta modu honetara aurkeztu ditugu:

- Bakoitzaren hasieran, B. Fagoagak eskuz idatzitako orrialde baten fotokopia txertatu dugu: Berroetakoan eta Orreagakoan hasierako orrialdea eta Elizondokoan azkenekoa.
- Ondoren, sermoi bakoitzaren transkripzioa, bi zutabetan:
 - a. Ezkerreko zutabean, transkripzio literala, baina irakurketa errazte aldera, egokitzapen txiki hauek eginik: idatzi ohi zuen *r*'-ren ordez *rr*, *t*' bustiaren ordez *tt*, eta *i* bokalaren ondoko *ī* bustia *l*. Horrekin batera aipatu nahi dugu, haren letra moldea dela eta, zail egin zaigula zenbaitetan *a* eta *e* bokalen arteko bereizketa zehaztea, eta gauza bera *o* eta *u* bokalen artekoa, bai eta *r* eta *s* kontsonanteen artekoa ere.
 - b. Eskuineko zutabean, ezkerreko zutabeko testuaren gaur egungo transkripzioa, euskara arautuaren arabera egina.

a. Transkripzio literala

Berroetan, Euskeraren adixkideen bestan, egindako itzaldia, 1927-garreneko Uztaren 3 I-an

Blas Fagoaga A.M.D.G.

Sermón panegírico de San Ignacio de Loyola

Egun egokia autatu dute Euskeraren adixkideak San Ignacio eguna Euskal besta au Baztango basaburuan egiteko. San Ignazio eguna Euskal erri guzian egun aundi berexia da. San Ignazioren bestak Euskaldunen bestak batu eta berotzen ditu. Alderdi guzietan San Ignazioren abesti edo martxaren soñu sendo azkarrak euskaldunen biotzak pilpirazten ditu.

Ignazio abesten dute Gipuzkoarrak beren zaindari aundioni. Ignazio erantzuten dute beste euskalerriko alderdietako anaiak. Ignazio oyu egiten dute itxesoaren arateko aldetik Ameriketako zabal-mendietan barraiatuik dauden euskaldun langileak. Ignazio diote itsasoaren gañean dabilten euskaldun mariñelak. Ignazio otoitz egiten dute eguzkia sortzen den alderdietan Kristoren alde lan ta lan ari diren euskaldun misiolariak.

Ni, arratsalde unten, Ignazioren gain mintzatu goo nazaitzue egunari eta Euskal besta uni dagokion bezala. Bada Euskeraren adixkideen egiteko besta ok eratzean ezta bakarrik gure euskera xaar maitea zaintzea eta laguntzea; ezta ere

b. Gaur egungo euskara arautuaren araberakoa

Berroetan, Euskararen Adixkideen Bestan, egindako hitzaldia, 1927ko uztaren 3 In

Blas Fagoaga A.M.D.G.

San Ignazio Loiolakoa gorestekoa sermoia

Egun egokia hautatu dute euskararen adixkideek San Ignazio eguna euskal besta hau Baztango Basaburuan egiteko. San Ignazio eguna Euskal Herri guzian egun handi berexia da. San Ignazioren bestak euskaldunen bestak batu eta berotzen ditu. Alderdi guzietan San Ignazioren abesti edo martxaren soinu sendo azkarrak euskaldunen bihotzak pilpirazten ditu.

Ignazio abesten diote gipuzkoarrek beren zaindari handi honi. Ignazio erantzuten dute Euskal Herriko beste alderdietako anaiak. Ignazio oihu egiten dute itsasoaren harateko aldetik Ameriketako zabal-mendietan barraiatuik dauden euskaldun langileak. Ignazio diote itsasoaren gainean dabilten euskaldun marinelek. Ignazio otoitz egiten dute eguzkia sortzen den alderdietan Kristoren alde lan eta lan ari diren euskaldun misiolariak.

Ni, arratsalde honetan, Ignazioren gain mintzatu gogo natzaizue egunari eta euskal besta honi dagokion bezala. Bada euskararen adixkideen egiteko besta hauek eratzean ez da bakarrik gure euskara xaah maitea zaintzea eta laguntzea; ezta ere

aitzinekoen ganik artu gintuen euskaldun oitura garbiei begiratzea, euskaldun donutza, soñu, abestiak edatzea; gauza oien guzieren gain, gauza oiek guzieren baño lenago euskeraren adiskideen egitekoa da euskaldunen biotzetan bere ex sorteriaren ganako maitetasuna piztea sortu artean; bada gezurra iduri bealdin bada ere aunitz dire euskaldunak beren erria maite ez dutenak, euskaldun izateaz alketzen direnak, nonbait beren erria ttikia eta erremexa iduritzen zaie; oiei bear zaie burua argitu, oiei beren erria ezagüerazi bear zaie; oiei bear zaie erakutsi beren erria ttikia izan agatik aunitz gisetara aundia dela; eta ontarako biderik egokienetako bat da erakustea euskal erritik bertze edozein errietaik bezain gizon aundiak, mundu guziak agurtzen dituenak atra direla. Oietarik bat gure Ignazio. (Emen sar leiteke Don Kruz zenaren ele xarra, mendiak (...)).

Gizon baten aunditasuna neurtzeko ikusi bear da Jaungoikoak zer egiteko eman zion munduan, nola bete zuen eta zer ondorio on munduari ekarri dition. –Ikus dezagun laburki–.

Aditu izanen duzue an zeruan lenbiziko denboratan borroka izugarri bat izen zela. Luzifer aingeru guzieren artean ederrena, Jaungoikoak dundu zuen doai eta argitasunez arropuzturik, altxatu Jaungoikuaren kontra bere baitan erranez: *in coelum conscendam*, iganen naiz zeruaren gain-gaiñera –*Supra astra Dei exaltabo solium meum*– eta an nere tronua ezarriko dut

aitzinekoengandik hartu genituen euskaldun ohitura garbiei begiratzea, euskaldun doinutza, soinu, abestiak hedatzea; gauza horien guzieren gain, gauza horiek guziak baino lehenago euskararen adixkideen egitekoa da euskaldunen bihotzetan bere ex sorteriarenganako maitetasuna piztea sortu artean; bada gezurra iduri baldin bada ere, aunitz dira euskaldunak beren herria maite ez dutenak, euskaldun izateaz ahalketzen direnak, nonbait beren herria ttikia eta erromesa iduritzen zaie; horiei behar zaie burua argitu, horiei beren herria ezagutarazi behar zaie; horiei behar zaie erakutsi beren herria ttikia izanagatik aunitz gisetara handia dela; eta honetarako biderik egokienetako bat da erakustea Euskal Herritik bertze edozein herritarik bezain gizon handiak, mundu guziak agurtzen dituenak atera direla. Horietarik bat gure Ignazio. (Hemen sar leiteke don Kruz zenaren ele xaharra, mendiak (...)).

Gizon baten handitasuna neurtzeko ikusi bear da Jaungoikoak zer egiteko eman zion munduan, nola bete zuen eta zer ondorio on munduari ekarri dizkion. –Ikus dezagun laburki–.

Aditu izanen duzue han zeruan lehenbiziko denboretan borroka izugarri bat izan zela. Luzifer aingeru guzieren artean ederrena, Jaungoikoak dundu zuen dohain eta argitasunez harropuzturik, altxatu Jaungoikuaren kontra bere baitan erranez: *in coelum conscendam* –iganen naiz zeruaren gain-gainera–, *Supra astra Dei exaltabo solium meum* –eta han nire tronua

– *similis ero altissimo* – Yaungoikoaren pare izanen naiz –.

Eta olako gogoetakin arroturik oyu egin zuen *Non serviam* etzaitut zerbitzatuko, ez naiz ni zure menean egonen; aingeru talde aundia, aingeru txarrak, bereganatzen zituela – arritua gelditu zen zerua olako ausardiaz –.

Baño ara non zeruko bertze kantoin batetik entzuten da oyu aundi bat: *Quis sicut Deus*. Nor Yaungoikoa bezala oyu eder au bota duen Aingerua ezagutzen al duzue – Miguel zen, Miguel euskal erriko aingeru maite ezta. Yangoikoaren alde bandera goratuz. Aingeru talde andia ere bereganatu zuen. Eta orduantxe egin zen zeruan borroka izugaiz bat eta aingeru onak Miguel buru zutela aingeru txarrak garaitu zituzten eta, *belut fulgura*, tximuk bezala erori ziren zerutik infernura aingeru ederrak zirenak deabru bilakaturik.

Igaro ziren mendeak. Yaungoikoren semeak, gizon eginik, bere odol eta izerdiarekin landatu zuen lurrean bere erresuma, Eliza egiazkoa. Lenbizian landare ttikie, pixkeka-pixkeka goan zen aundituz eta hamasei mende igaro zirenean, bere zain ta adarrak bizkorki zabalduak zituen. Ain xuxen orduentxe arkitu zuten Amerika eta Indietako bideak ere orduentxe edekiak ziren. Eliza egiazkoa lur bira guzia ya besarkatzekotan zagon.

Baño ara non Alemaniako biotz biotzetik entzuten da biurrikerizko oyu aundi bat

ezarriko dut–, *similis ero altissimo* –Jaungoikoaren pare izanen naiz–.

Eta holako gogoetarekin harroturik oihu egin zuen: *Non serviam* –ez zaitut zerbitzatuko–, ez naiz ni zure menean egonen; aingeru talde handia, aingeru txarrak, bereganatzen zituela –harritua gelditu zen zerua holako ausardiaz–.

Baina hara non zeruko bertze kantoin batetik entzuten den oihu handi bat: *Quis sicut Deus* –Nor Jaungoikoa bezala?–. Oihu eder hau bota duen aingerua ezagutzen al duzue? Migel zen, Migel, Euskal Herriko aingeru maite ezta. Jaungoikoaren alde bandera goratuz. Aingeru talde handia ere bereganatu zuen. Eta orduantxe egin zen zeruan borroka izugaitz bat eta aingeru onek Migel buru zutela aingeru txarrak garaitu zituzten eta, *belut fulgura*, tximuak bezala erori ziren zerutik infernura aingeru ederrak zirenak deabru bilakaturik.

Igaro ziren mendeak. Jaungoikoren semeak, gizon eginik, bere odol eta izerdiarekin landatu zuen lurrean bere erresuma, Eliza egiazkoa. Lehenbizian, landare ttikia pixkaka-pixkaka joan zen handituz eta, hamasei mende igaro zirenean, bere zain eta adarrak bizkorki zabalduak zituen. Hain xuxen orduantxe aurkitu zuten Amerika eta Indietako bideak ere orduantxe irekiak ziren. Eliza egiazkoa lur bira guzia ia besarkatzekotan zegoen.

Baina hara non Alemaniako bihotz-bihotzetik entzuten den bihurrikeriazko

non serviam etzaitut zerbitzatuko; ez naiz zure menean egonen. Nor zen? Lutero, fraile agustindarra.

Errana ere bada gizonik onena txartzten delaik izeten dela makurrena; ala nola ardoik onena ozpintzen delaik, ozpinik biziena. Bere grina txarrak ezin menderaturik eta Luzifer bezala arrokeriz beterik altxatu zen Aita Sandu Erromako, Yaungoikuak lurtean duen ordezkorean kontra, erranez: Etzaitut aitortzen Eliza egiazkorean burutzat, ez dut nik zuk erakutsi bearrik zer egin, zer sinets; Eskriturak bakarrik aski ditut eta orietaik artuko dut neroni iduritzen zaitana, barnak agintzen datana.

Eta erran bezala eginez atra zuen Eskrituratik (edo obekiago erratekotz) bere burutik, lege berri bat, Yesukristok mundura ekarri zuen legearen itxura txar bat baizik etzena.

Kendu meza erran zuen; meza apezten sos atratzeko asmaketa bat da. Kendu sacramentuak, bizpairun itxura bakarrik utzirik. Kendu batez ere aitopeneko sacramentu belz, beldurgarri oi. Kendu Elizetako Sainduen eta irudiak; autsi eta puskatu, oiei ohore ematea alkegarri da; kendu apezak; lege berrian denak apez dire ta; edeki konbentuetako atea; atra daitzila karrikera fraile eta monjak; ezkon daitzila; eta berak erran bezate ezkondu edo dena dela (...) monja batekin (naiz historiak dionez gure monja andre ozarre atra); zeruratzeko ez da fama onik egin

oihu handi bat *non serviam* —ez zaitut zerbitzatuko—; ez naiz zure menean egonen. Nor zen? Lutero, fraide agustindarra.

Errana ere bada gizonik onena txartzten delarik izaten dela makurrena; hala nola ardorik onena ozpintzen delarik, ozpinik biziena. Bere grina txarrak ezin menderaturik eta Luzifer bezala harrokeriaz beterik altxatu zen aita saindu Erromako Jaungoikoak lurtean duen ordezkorean kontra, erranez: ez zaitut aitortzen Eliza egiazkorean burutzat, ez dut nik zuk erakutsi beharrik zer egin, zer sinets; Eskriturak bakarrik aski ditut eta horietarik hartuko dut neroni iduritzen zaidana, barnak agintzen didana.

Eta erran bezala eginez atera zuen Eskrituratik (edo hobekiago erratekotz) bere burutik, lege berri bat, Jesu Kristok mundura ekarri zuen legearen itxura txar bat baizik ez zena.

Kendu meza erran zuen; meza apezten sos ateratzeko asmaketa bat da. Kendu sakramentuak, bizpahiruren itxura bakarrik utzirik. Kendu batez ere aitopeneko sakramentu beltz, beldurgarri hori. Kendu elizetako sainduen eta irudiak; hautsi eta puskatu, horiei ohore ematea ahalkegarri da; kendu apezak; lege berrian denak apez dira eta; ireki komentuetako atea; atera daitezela karrikara fraide eta mojak; ezkon daitezela; eta berek erran bezate ezkondu edo dena dela (...), moja batekin (nahiz historiak dionez gure moja andre ozarra atera); zeruratzeko ez da

bearrik; sinestea bakarrik aski da; berdin gizonaren eskuetan ez dago ona edo gaixtoa izakera.

Orrengatik erraten zuen *Crede fortiter et pecca fortius*. Sinets zazu azkarki eta pekatu egizu lasaiki—. Olako erakutsiak gizonaren griña zakarrenak balakatzen dituztenak entzutean, ez da arritzeko yende multzo aundiek, ya erresuma osoak ere bere alde yartzea.

Eta ala nola ortotsa zabaltzen eta edatzen den mendiz mendi, oyanez oyan, ibarrez ibar, mendiak aren asotsa bere egin eta berritzen dutela; ala Luteroin biurrikerizko oyua zabaldu zen erresumaz erresuma, eta geyenetan atra ziren gizon (...) Luteroin oyua bere egin zutenak. *Non serviam* erran zuen Suizan Zuinglio zakarrak; *non serviam* Kalbinok Frantzian, naastale oken guzien artean erneenak; *non serviam* Ingalaterran Enrique VIII errege andreketari galdu arek; bere burua Ingalaterrako Aita Saindu eginez. ¡Yauna! ¡Yauna! ¡Au ondamera! Oraintxe ainbertze odol eta izerdi gostaikako zure Elizak, bereak egin ditu; oraintxe zure emazte garbi eta apal zure Eleiza otso tzar oyek beren aztaparretan puskatuko eta xautuko dute.

¿Ez ote da iñor izain zure Elizaren alde atrako denik? Ez ote du iñork bilduko fraile alemandar orrek bota duen desafioa? Bai. Euskal erriaren biotz biotzetik entzuten da ahots aundi bat Migelek bezala erranez: *¿Quis sicut Deus?* Nor

fama onik egin beharrik; sinestea bakarrik aski da; berdin gizonaren eskuetan ez dago ona edo gaixtoa izakera.

Horrengatik erraten zuen *Crede fortiter et pecca fortius*—Sinets ezazu azkarki eta pekatu egizu lasaiki—. Holako erakutsiak gizonaren grina zakarrenak balakatzen dituztenak entzutean, ez da harritzeko jende multzo handiak, ia erresuma osoak ere bere alde jartzea.

Eta hala nola ortotsa zabaltzen eta hedatzen den mendiz mendi, oihanez oihan, ibarrez ibar, mendiak haren asotsa bere egin eta berritzen dutela; hala Luteroren bihurrikeriazko oihua zabaldu zen erresumaz erresuma, eta gehienetan atera ziren gizon (...) Luteroren oihua bere egin zutenak. *Non serviam* erran zuen Suitzan Zuinglio zakarrak; *non serviam* Kalbinok Frantzian, nahastaile hauen guzien artean erneenak; *non serviam* Ingalaterran Enrique VIII.a errege andreketari galdu hark; bere burua Ingalaterrako aita saindu eginez. Jauna! Jauna! Hau hondamera! Oraintxe hainbertze odol eta izerdi kostarikako zure Elizak, bereak egin ditu; oraintxe zure emazte garbi eta apal zure Eliza otso tzar horiek beren aztaparretan puskatuko eta xahutuko dute.

Ez ote da inor izanen zure Elizaren alde aterako denik? Ez ote du inork bilduko fraide aleman horrek bota duen desafioa? Bai. Euskal Herriaren bihotz-bihotzetik entzuten da ahots handi bat Migelek bezala erranez: *¿Quis sicut Deus?*—Nor

Yaungoikoa bezala. Yaunak! Nor da ainbertzeko etsayen bidera atratzen den gizon ausart au? Euskaldun bat. Gure Ignazio.

Euskal errian etxe aundienetako batetik sortua, gaztedanik bialia Fernando Kastillakoaren jauregira, antxe erregearen jauregian guri guriki bizi zen. Baño agudu bizi modu guri arek nazkatu zuen. Bere naikeri guzia gudan (gerran) aritzea; aitzindari aundi, aipatuenetako bat atra eta aren izen eta aipamena lur bira guzian zabalduko zelakoan.

Alako batean gudan ari zelaik Iruñean Nafartarren kontra, itsusiki zauritua izan zen eta erdi ila arkiturik eraman zuten bere sortetxera. Zauri ura izan zen bere oneratzearen asmenta. Berriki Españan Aita Sainduaren ordezkariak edo Nunzioak erran zuenez, ezta izen munduan bertze zaurik (Yesukristo gure jaunaren zauriak alde bat utzi ta) ainbertze oinaze ekarri dionik.

Bere sortetxean izen zuen sendatze luzean Yaun Goikoak ukitu zion biotza, argitu zion burua lurreko gauze guzien yauseza ezagutzeko. Erabaki zuen lurreko gauze guziak utzi ta Saindu aundi bat izatea. Erran bezala, sendatuxe zenean atratzen da etxetik eta aitzindariz yantzie, bere ezpata zinzilik badoaye Montserrateko Andre Mariaren Eliza aipatuera.

Egiten du ilunabar batez bere bizi guziko aitormena eta gelditzen da bakarrik gau

Jaungoikoa bezala—. Jaunak! Nor da hainbertzeko etsaien bidera ateratzen den gizon ausart hau? Euskaldun bat. Gure Ignazio.

Euskal Herrian etxe handienetako batetik sortua, gaztedanik bidalia Fernando Gaztelakoaren jauregira, hantxe erregearen jauregian guri-guriki bizi zen. Baina agudo bizimodu guri hark nazkatu zuen. Bere nahikeria guzia gudan (gerran) aritzea; aitzindari handi, aipatuenetako bat atera eta haren izen eta aipamena lur bira guzian zabalduko zelakoan.

Halako batean gudan ari zelarik Iruñean nafartarren kontra, itsuski zauritua izan zen eta erdi hila aurkiturik eraman zuten bere sortetxera. Zauri hura izan zen bere oneratzearen hasmenta. Berriki Espainian aita sainduaren ordezkariak edo nuntzioak erran zuenez, ez da izan munduan bertze zauririk (Jesu Kristo gure jaunaren zauriak alde bat utzi eta) hainbertze oinaze ekarri dionik.

Bere sortetxean izan zuen sendatze luzean Jaungoikoak ukitu zion bihotza, argitu zion burua lurreko gauza guzien deuseza ezagutzeko. Erabaki zuen lurreko gauza guziak utzi eta saindu handi bat izatea. Erran bezala, sendatuxe zenean ateratzen da etxetik eta aitzindariz jantzia, bere ezpata zintzilik badoa Montserrateko Andre Mariaren eliza aipatura.

Egiten du ilunabar batez bere bizi guziko aitormena eta gelditzen da bakarrik gau

guzian Eleizan, auspezturik, nigarrez, otoitzean Andre Mariaren irudi beltzaren aitzinean erabaki ikaragarriak aitzinerako artzen zituela.

Antxe lurreko erregeen zerbitzuan zabilen aitzindari arro arek erabaki zuen Jesus, zeruko erregea ez bertze erregeik zerbitzatzea, lurreko txorakerietan liluraturik zabilen gizon gazte arek erabaki zuen bere arimaren ona eta Yaungoikuaren ohorea bakarrik bilatzea; Kastillako anderetxoan kausatzaile zen gizaseme galantak juramentu egin zuen bere ezpata zela ta, Virgiña Maria guziz garbia ez bertze andrei agur egitea.

Goizean goiz yeikitzen da lurretik, zinzilika uzten du bere ezpata Andre Mariaren aldare aitzinean; trukutzen du bere aitzindari yauntzia eskatzale baten zarpa zarrekin eta maurrena ondoko leze zulo batean sartzen da, bizi modu ikaragarrie asten da eramaten.

Iru lau egun, zortzi egunetaraño baru utsean egonez, ogi ta urarekin bakarrik barua autsiz, lo gutti lurraren gañean eginez, arri bat buruko zuela, bere gorputza izugarriki zigortuz, zazpi zortzi ordu otoitzean egunero Yaungoikoaren aitzinean eginez. . .

Baño Yaungoikoak adiazi zion etzela aski bere buruaren onari bakarrik begiratzea, bear ziola ere bertzeen onari begiratu, eta baizekien ongi arimetan on egiteko etzela aski ona izatea, bear zuela ere

guzian elizan, ahuspezturik, negarrez, otoitzean Andre Mariaren irudi beltzaren aitzinean erabaki ikaragarriak aitzinerako hartzen zituela.

Hantxe lurreko erregeen zerbitzuan zebilen aitzindari harro hark erabaki zuen Jesus, zeruko erregea ez bertze erregerik zerbitzatzea, lurreko txorakerietan liluraturik zebilen gizon gazte hark erabaki zuen bere arimaren ona eta Jaungoikoaren ohorea bakarrik bilatzea; Gaztelako anderetxoan kausatzaile zen gizaseme galantak juramentu egin zuen bere ezpata zela eta, Birjiina Maria guziz garbia ez bertze andreei agur egitea.

Goizean goiz jaikitzen da lurretik, zintzilika uzten du bere ezpata Andre Mariaren aldare aitzinean; trukutzen du bere aitzindari jauntzia eskatzale baten zarpa zaharrekin eta maurrena ondoko leze zulo batean sartzen da, bizimodu ikaragarria hasten da eramaten.

Hiru lau egun, zortzi egunetaraino barau hutsean egonez, ogi eta urarekin bakarrik baraua hautsiz, lo gutti lurraren gainean eginez, harri bat buruko zuela, bere gorputza izugarriki zigortuz, zazpi zortzi ordu otoitzean egunero Jaungoikoaren aitzinean eginez. . .

Baina Jaungoikoak adierazi zion ez zela aski bere buruaren onari bakarrik begiratzea, behar ziola ere bertzeen onari begiratu, eta baitzekien ongi arimetan on egiteko ez zela aski ona izatea, behar

yakinduri egokian dundu, ogeitamairu urte zituela ari zen aur ttikiekin latin ikasten Barzelonan, denen irriaz ajolarik gabe; gero filosofia Alkalan ta Salamankan; Teologia gero Parisen.

Baño agudo ezagutu zuen Elizaren orduko lanei buru emateko guizon bat yaus guti zuela, eta antxe asmatu zuen, eratu edo fundatu eta armatu Yesusen compañi edo lagundia, azkeneko mende otan atra (...) artean aunitzez aipatuena.

Bururatu zitzaion: lurreko erregeak izeten dituzten bezala beren gudari bereziak edozein arriskutan sartzeko trebe direnak, ala gizon saindu yakintsuak bereganatzea izan zituen Elizaren gudari trebe, edozein arriskueta sartzeko prestak.

Eta ala nola gudariak izaten dituzten beren legeak soldadu azkarrak atratzeko egokiak, ala berak armatu zuen lagundiari eman zition berak legeak yakinduriz eta zuurziz edo prudentziaz beteak, lege egokiak gizonak saildutasunaren gain gañeko mallara altxatzeko eta denbora berean gudari Yesusen azkarrak egiteko, edozein denboretako baño batez ere denbora artako etsayen, Lutero ta luterotarren garaitzeko egokienak.

Lutero bere buruaren aundi nayak galdu zuen; Ignaziok beti bere eta bere lagundikoen agoan nai zuen itza auxen: *omnia ad majorem Dei gloriam*; dena Yaungoikoaren gorapiderako.

zuela ere yakinduria egokian dundu, hogeita hamahiru urte zituela ari zen haur ttikiekin latin ikasten Bartzelonan, denen irriaz axolarik gabe; gero filosofia Alcalan eta Salamancan; teologia gero Parisen.

Baina agudo ezagutu zuen Elizaren orduko lanei buru emateko gizon bat deus guti zuela, eta hantxe asmatu zuen, eratu edo fundatu eta armatu Jesusen konpainia edo lagundia, azkeneko mende hauetan atera (...) artean aunitzez aipatuena.

Bururatu zitzaion: lurreko erregeek izaten dituzten bezala beren gudari bereziak edozein arriskutan sartzeko trebe direnak, hala gizon saindu yakintsuak bereganatzea izan zituen Elizaren gudari trebe, edozein arriskutan sartzeko prestak.

Eta hala nola gudariak izaten dituzten beren legeak soldadu azkarrak ateratzeko egokiak, hala berak armatu zuen lagundiari eman zizkion berak legeak yakinduriaz eta zuhurtziaz edo prudentziaz beteak, lege egokiak gizonak saildutasunaren gain-gaineko mailara altxatzeko eta denbora berean gudari Jesusen azkarrak egiteko, edozein denboratako baina batez ere denbora hartako etsaien, Lutero eta luterotarren garaitzeko egokienak.

Lutero bere buruaren handinahiak galdu zuen; Ignaziok beti bere eta bere lagundikoen ahoan nahi zuen hitza hauxe zen: *omnia ad majorem Dei gloriam*—dena Jaungoikoaren gorabiderako—.

Lutero arrokeriz auspaturik altxatu zen Aite Sainduaren kontra; Ignaziok bere lagunei itz emanazi zien gauz denetan Aita Sainduaren menean egoteko; Luterok eta beretarrek bakotxai zer iduritu, barnak zer agindu, ure sinets eta ure egin; Ignaziok nai zuen bere lagundikoak gañekoen eskuetan, gauza onetan yakine, egotea, (...), il bat bertzeen eskuetan egoten den bezala; Luterok Erromatar apezetaz irri egiten zuen, ez yakinak zirela erranez; Ignaziok bere lagunei ogeita amairu urteak artio mezik eman gabe egotea agindu zien, lan eta lan ikasten eta beren burua oneratzten.

Orrengatik ezta arritzeko Elizak gaur Brebiarioan diona: *ut omnium rerum sit etiam (...) confirmatus oraculo Deum, sicut alius aliis temporibus viros, item Lutero et ejusdem temporis hereticis Ignatium et institutam ab eo societatem (...)*.

Bertze Elizako arrisku aundietan gizon aundiak Elizara Yaunak igorri izan dituen bezala, ala Lutero ta luterotarren kontra, Ignazio eta berak asmatu zuen lagundia igorri zuela.

Oraintxe jaunak Ignazio berak armatu duen lagundiarekin gudarako prest dago, erne dago, armetan jarria dauka bere konpainia; txispaz armaturik, Jaungoikoaren maitetasun eta jakinduriaren txispaz armaturik, bandera zabalik eta bandera zabalean idatziak Migel aingeruaren itzak, atratzen zaye etsayei bidera eta garaitzen ditu, porrokatzen ditu.

Lutero harrokeriaz hauspoturik altxatu zen aita sainduaren kontra; Ignaziok bere lagunei hitz emanarazi zien gauza denetan aita sainduaren menean egoteko; Luterok eta beretarrek bakoitzari zer iduritu, barnak zer agindu, hura sinets eta hura egin; Ignaziok nahi zuen bere lagundikoak gainekoen eskuetan, gauza onetan jakina, egotea, (...), hil bat bertzeen eskuetan egoten den bezala; Luterok erromatar apezetaz irri egiten zuen ezjakinak zirela erranez; Ignaziok bere lagunei hogeita hamahiru urteak artio mezarik eman gabe egotea agindu zien, lan eta lan ikasten eta beren burua oneratzten.

Horrengatik ez da harritzeko Elizak gaur Brebiarioan dioena: *ut omnium rerum sit etiam (...) confirmatus oraculo Deum, sicut alius aliis temporibus viros, item Lutero et ejusdem temporis hereticis Ignatium et institutam ab eo societatem (...)*.

Bertze Elizako arrisku handietan gizon handiak Elizara Jaunak igorri izan dituen bezala, hala Lutero eta luterotarren kontra, Ignazio eta berak asmatu zuen lagundia igorri zuela.

Oraintxe, jaunak, Ignazio berak armatu duen lagundiarekin gudarako prest dago, erne dago, armetan jarria dauka bere konpainia; txispaz armaturik, Jaungoikoaren maitetasun eta jakinduriaren txispaz armaturik, bandera zabalik eta bandera zabalean idatziak Migel aingeruaren hitzak, ateratzen zaie etsaiei bidera eta garaitzen ditu, porrokatzen ditu.

¿Nola jaunak? Yaungoikoak mundu onetan gaixtuek garaitzen dituen bezala; ona gañezka, esku zabalez, ausarki ereinez. Ala Ignaziok garaitu zituen bere etsayak on eginez: ikastetxeetan gazteak Yaunaren beldur saindian eskolatuz; Elizetan eunka arimak oneratzuz eta bekatu bidetaik alde eginaziz, batez ere berak asmatu zituen ejerzizio espiritualekin.

Ikastola nagusi edo Unibersidadeetan yakinduri egiazko et Yaungoigozkoan bataiatuz, eliz batzarretan, batez ere Trentokuan, yakinduriarekin buruak ayatuz eta saindutasunarekin biotzak berotuz; paperetan azi ona alde guzietara ereinez eta etsaien arrazoi utsak urratuz; misio lanetan, Europan Elizak galdu zituen bertze ainbertze eta geyago arima Elizarendako irabaziz.

Eta misio lanak direlai ta nor ezta oroituko Francisco Jabier nafarra aundi arek Indietan egin zituen lanetaz. Jabier misiolari guzien artean eguzkia bezala dena, apostoluen ondotik atra den misiolaik azkarrena, Jabier biotz andi ura beti aotan geyago, *amplius*, geyago, zaukana; Jabier Nafarran sortu izan den lorerik ederrena, guk Nafarrak, guk Euskaldunak Ignazioi zor diogu: Ignaziok Yaungoikoaganatu zuen, Ignazioren lenbiziko semetaik; bere eskuñeko eskua eta begiko ninia bezala; Jabierrek aitortzen zuen zen guzia eta egiten zuen guzia Ignaziori zor ziola; begiramenduein begiramenduz belauniko idazten zion, ao

Nola jaunak? Jaungoikoak mundu honetan gaixtoak garaitzen dituen bezala; ona gainezka, esku zabalez, ausarki ereinez. Hala Ignaziok garaitu zituen bere etsaiak on eginez: ikastetxeetan gazteak Jaunaren beldur saindian eskolatuz; elizetan ehunka arima oneratzuz eta bekatu bideetarik alde eginaraziz, batez ere berak asmatu zituen ejerzizio espiritualekin.

Ikastola nagusi edo unibertsitateetan jakinduria egiazko eta Jaungoikozkoan bataiatuz, eliz batzarretan, batez ere Trentokoan, jakinduriarekin buruak ariaraziz eta saindutasunarekin bihotzak berotuz; paperetan hazi ona alde guzietara ereinez eta etsaien arrazoi hutsak urratuz; misio lanetan, Europan Elizak galdu zituen bertze hainbertze eta gehiago arima Elizarendako irabaziz.

Eta misio lanak direlarik eta nor ez da oroituko Frantzisko Xabier nafar handi hark Indietan egin zituen lanez. Xabier misiolari guzien artean eguzkia bezala dena, apostoluen ondotik atera den misiolaririk azkarrena, Xabier bihotz handi ura beti ahotan gehiago, *amplius* – gehiago –, zeukana; Xabier Nafarroan sortu izan den lorerik ederrena, guk nafarrak, guk euskaldunak Ignaziori zor diogu: Ignaziok Jaungoikoaganatu zuen, Ignazioren lehenbiziko semetarik; bere eskuineko eskua eta begiko ninia bezala; Xabierrek aitortzen zuen zen guzia eta egiten zuen guzia Ignaziori zor ziola; begiramenduaren begiramenduz belauniko

betez bete aita Ignazio Saindua deitzen zuen.

Orra nola Ignaziok garaitu zituen etsaiay. Ona alderdi guzietan ereinez. Berai esker Luterotarren ugalde itsusi ura gelditua izan zen, berai esker Alemani eta bertze erresumetan egiazko fedea etzen arront kasatue; berai esker Elizaren biotza doituxea zagona, inoiz baño azkarrago eta sendoago gelditu zen; berai esker bertze ainbertze eta geyago arima Elizak bereganatu zituen.

¡Aintza eta ohorea Jaungoikoari bere emazte apal eta garbi den Eleiza otsotarren atzaparretaik atra zuelakotz. Gora ta gora borroka aundi oketan Jaungoikoaren eskuñeko eskua izan zen Ignazio! Gora olako gizon aundie Eleizai eta munduari eman zion Euskal Erria!

Ikusi duzue etsayen eta Jaungoikoaren arteko burruka aundietan Euskal Erriaren alderdia zein izan den. An zeruko erreinuan izan zen lenbiziko borrokaldi artan, Migel Euskal Erriko zaindari maitea aingeru onen buru; emen lurreko Yaunaren erreinuan izen den borrokik aundienean Ignazio, euskalduna, Jaungoikoaren aldekoen aitzindari.

Ez uste izan ordea Jaungoikoaren eta bere etsaien arteko guda akitu denik. Ez. Guda unek beti iraun du eta iraunen du ere mundue mundu deño.

Gizon bakotxaren biotzean, etxe bakotxean, erri bakotxean, erresuma

idazten zion, aho betez beti aita Ignazio saindua deitzen zuen.

Horra nola Ignaziok garaitu zituen etsaiak, ona alderdi guzietan ereinez. Berari esker luterotarren ugalde itsusi hura gelditua izan zen, berari esker Alemanian eta bertze erresumetan egiazko fedea ez zen arrunt kasatua; berari esker Elizaren bihotza doituxea zegoena, inoiz baino azkarrago eta sendoago gelditu zen; berari esker bertze hainbertze eta gehiago arima Elizak bereganatu zituen.

Aintza eta ohorea Jaungoikoari bere emazte apal eta garbi den Eliza otsotarren atzaparretarik atera zuelakotz. Gora eta gora borroka handi hauetan Jaungoikoaren eskuineko eskua izan zen Ignazio! Gora holako gizon handia Elizari eta munduari eman zion Euskal Herria!

Ikusi duzue etsaien eta Jaungoikoaren arteko borroka handietan Euskal Herriaren alderdia zein izan den. Han zeruko erreinuan izan zen lehenbiziko borrokaldi hartan, Migel Euskal Herriko zaindari maitea aingeru onen buru; hemen lurreko Jaunaren erreinuan izan den borrokarik handienean Ignazio, euskalduna, Jaungoikoaren aldekoen aitzindari.

Ez uste izan ordea Jaungoikoaren eta bere etsaien arteko guda akitu denik. Ez. Guda honek beti iraun du eta iraunen du ere mundua mundu deino.

Gizon bakoitzaren bihotzean, etxe bakoitzean, herri bakoitzean, erresuma

bakotxean, ona eta gaixtoa beti gudan dabilt; Yaungoikoa eta bere etsaiak borroka bizian. Yaungoikoaren etsaiak zein diren? Ez duzue nik erakutsi bearrik. Zuen apezenganik frankotan aditue daukezue ta.

Zenbait aipatzekotz: Yaungoikoaren etsaiak dire griña txarrak gizona makurrezko bidetik daramatenak: Yaungoikoaren etsaiak dire oiture zakarrak mundu ugolde baten pare loiperatu nai dutenak; Yaungoikoaren etsaiak dire bereziki dantza naasiak, dantza lotu mota guziak, deabruak asmatuak arimak bere saretan arrapatzeko; Yaungoikoaren etsaiak dire yauntzi nabarmenak estali bearrean biluzi egiten dutenak; Yaungoikoaren etsaiak dire biraoak Yaunaren izen agurgarria zikindu nai dutenak; Yaungoikoaren etsaiak dire, sinismengabekeria, aragizko begi okin baizik ikusten dena egitzat artu nai ez duenak; diru zalekeria, aragizalekeria arima zerutarra loi biurtu nai duenak, arrokeria gizona alketzen duena Yaungoikoaren aitzinean auspezteaz, belaunikatzeaz.

Yaungoikoaren eta bere etsaien arteko guda untan zuen alderdia zein izanen da. Xur baizue fededunak zaten aldetik eta Euskaldunak zaten aldetik zuen alderdia Yaungoikoaren alderdia.

Fededunak zaten aldetik. Egizu kontu gaur atsaldean Ignaziok adiezten dazkitzula ain bere zituen itz ayek: *¿Quid prodest et...?*

bakoitzean, ona eta gaixtoa beti gudan dabiltza; Jaungoikoa eta bere etsaiak borroka bizian. Jaungoikoaren etsaiak zein diren? Ez duzue nik erakutsi beharrik. Zuen apezengandik frankotan aditua daukazue eta.

Zenbait aipatzekotz: Jaungoikoaren etsaiak dira grina txarrak gizona makurreko bidetik daramatenak: Jaungoikoaren etsaiak dira ohitura zakarrak mundu uholde baten pare lohiperatu nahi dutenak; Jaungoikoaren etsaiak dira bereziki dantza nahasiak, dantza lotu mota guziak, deabruak asmatuak arimak bere saretan harrapatzeko; Jaungoikoaren etsaiak dira jauntzi nabarmenak estali beharrean biluzi egiten dutenak; Jaungoikoaren etsaiak dira biraoak Jaunaren izen agurgarria zikindu nahi dutenak; Jaungoikoaren etsaiak dira, sinismengabekeria, haragizko begi hauekin baizik ikusten dena egiatzat hartu nahi ez duenak; diru zalekeria, haragi zalekeria arima zerutarra lohi bihurtu nahi duenak, harrokeria gizona ahalketzen duena Jaungoikoaren aitzinean auspezteaz, belaunikatzeaz.

Jaungoikoaren eta bere etsaien arteko guda honetan zuen alderdia zein izanen da. Xuhur baduzue, fededunak zareten aldetik eta euskaldunak zareten aldetik, zuen alderdia Jaungoikoaren alderdia.

Fededunak zareten aldetik. Egizu kontu gaur arratsaldean Ignaziok adierazten dizkizula hain bere zituen hitz haiek: *¿Quid prodest et...?*

Emagun etsaien bidetik jarraikiz
erdiesten duzula arimen etsaiek eskeintzen
datzuten gezurrezko zorientasuna ¿zer
zaizu zuri gero betiko betiko galtzen
baduzu zure arima? Fededunak bezala
Yaungoikoaren aldetik eta euskaldunak
bezala ere bai.

Bada oiture zakarr oriek, oiek ez dire
gureak, gureak gure mendietatik beiti
doazin urr txirripak bezain garbiak
dire ta; dantza lotu zikin oriek, oiek
ez dire gureak, gureak gure jaunaren
aitzinean dantza daizken dantzak dire
ta; soñeko nabarmen alkegarri oiek, oiek
ez dire gureak, emakume euskaldunen
loreik ederrena, beti begirunea, begi
apaltasuna izen da ta (...) oiek ez dira
gureak, euskerak ortarako itzik ez du
ta; sinismengabekerie, arrokeria oiek
ere ez dire gureak; euskalduna beti
Yaungoikoaren aitzinean auspezteko eta
belaunikatzeko zaulie izen da ta...

Fededunak zaten aldetik eta
Euskaldunak zaten aldetik zuen alderdia
Yaungoikoaren alderdia. Egizue ala,
aditzale biotzekoak.

Ala egiten baduzue Migel, Jabier
eta Ignazio, Euskalerriko zaindarien
bedeikatuko zaizte; berzela gure ganik
beren begiak aldetzen dituzte negarti
erranez: oiek ez dire euskaldunak; oiek ez
die gutarrak.

*¡Sancte Michael Archangele defenda nos in
praelio!* Migel, Migel gurea, zaindu,

Demagun etsaien bidetik jarraikiz
erdiesten duzula arimen etsaiek eskaintzen
dizuten gezurrezko zorientasuna, zer
zaizu zuri gero betiko-betiko galtzen
baduzu zure arima? Fededunak bezala
Jaungoikoaren aldetik eta euskaldunak
bezala ere bai.

Bada ohitura zakar horiek, horiek ez dira
gureak, gureak gure mendietatik beheiti
doazen ur txirripak bezain garbiak dira
eta; dantza lotu zikin horiek, horiek ez
dira gureak, gureak gure jaunaren aitzinean
dantza daitezkeen dantzak dira eta; soineko
nabarmen ahalkegarri horiek, horiek
ez dira gureak, emakume euskaldunen
lorerik ederrena, beti begirunea, begi
apaltasuna izan da eta (...) horiek ez dira
gureak, euskerak horretarako hitzik ez
du eta; sinesmen gabekeria, harrokeria
horiek ere ez dira gureak; euskalduna beti
Jaungoikoaren aitzinean ahuspezteko eta
belaunikatzeko zalua izan da eta...

Fededunak zaretan aldetik eta
euskaldunak zaretan aldetik zuen alderdia
Jaungoikoaren alderdia. Egizue hala,
aditzaile bihotzekoak.

Hala egiten baduzue Migel, Xabier
eta Ignazio Euskal Herriko zaindarien
bedeinkatuko zaituztete; bertzela,
guregandik beren begiak aldetzen
dituzte negarti erranez: horiek ez dira
euskaldunak; horiek ez dira gutarrak.

¡Sancte Michael Archangele defenda nos in praelio!
Migel, Migel gurea, zaindu, zaindu

a. Transkripzio literala

Aur euskaldunaren egunean Elizondoko elizan errana, 1932-garreneko buruilaren 4an.

A.M.D.G. Blas Fagoaga

Sinite parvulis venire ad me. S. Marc. C. 13

Gure aitzinekuak kristau on-onak izen zirela ukatu ez daiteken gauza da. Gaur berean (naiz zoritxarrez epeltzen ari garen) gure erriaren ohore ta berexgarririk aundienetako bat bere kristautasun sendoa da.

Berriki Pio XI garrenak aipatzen gintuen erranez *Piisima Vasconum gens*: euskaldunen yende yainkotiarra. Bai zinez kristautasun bizia ageri da gure aitzinekoenganik artu gintuen gauz geyenetan: legetan, oituretan, izkuntzan, dantzetan beretan...

Yo zazue gure erriko alderdi guzietara igen zaitezte mendi gañetara, yautsi ibarretara, begiztatu tzitzue eken landa, belai, etxeak, sar zaizte eken elizan... non nai kristautasun bizenaren agerkaiak.

Gure aitzinekoak ain yainkotiarrak bai ziren bizitzako aldi guzietan Yaungoikoaz oroitzen ziren, lanen bati asmenta edo buru ematerakoan Yaungoikoarengana biotza goratzen zuten. Baztango zenbait etxetan oñik irauten du orain aipatzera noan oiture eder onek. Landen bat eriteko lana akitzerakoan etxeko guziak landa bazterrean bildu ta etxeko nausiak

b. Gaur egungo euskara arautuaren araberakoa

Haur euskaldunaren egunean Elizondoko elizan errana, 1932ko buruilaren 4an.

A.M.D.G. Blas Fagoaga

Sinite parvulis venire ad me. S. Marc. c. 13

Gure aitzinekoak kristau on-onak izan zirela ukatu ez daitekeen gauza da. Gaur berean (nahiz zoritxarrez epeltzen ari garen) gure herriaren ohore eta bereizgarririk handienetako bat bere kristautasun sendoa da.

Berriki Pio XI.ak aipatzen gintuen erranez *Piisima Vasconum gens*—euskaldunen jende jainkotiarra—. Bai zinez kristautasun bizia ageri da gure aitzinekoengandik hartu gintuen gauza gehienetan: legeetan, ohituretan, hizkuntzan, dantzetan beretan...

Jo ezazue gure herriko alderdi guzietara, igan zaitezte mendi gainetara, jautsi ibarretara, begiztatu itzazue haien landa, belai, etxeak, sar zaitezte haien elizan... nonahi kristautasun bizenaren agerkaiak.

Gure aitzinekoak hain jainkotiarrak baitziren bizitzako aldi guzietan Jaungoikoaz oroitzen ziren, lanen bati hasmenta edo buru ematerakoan Jaungoikoarengana bihotza goratzen zuten. Baztango zenbait etxetan orainik irauten du orain aipatzera noan ohitura eder honek. Landaren bat ereiteko lana akitzerakoan etxeko guziak landa

boneta kendu ta erraten du aitzineko
usaña duen otoitz auxe: Guk dugula
parte –aingiruek bertze ainbertze–
gaizto etsayek baterez, guk artu dugun
atsaño artu bezate Purgatorioko anima
gaixoek.

Bai, ageri den gauza da. Jaungoikue
aspaldidanik gure erriaren yaun ta yabea
izena da. Yesus Jaungoiko biziaren semea
maitatua izan da gure errian aundiki
gartsuki.

Orrengatik Euskaltzaleak eskuaraz batera
gure erriaren oitura onak eta batez ere
bere kristautasun bizia maite dutenak
gaurko besta oni asmenta eman nai izen
diote Jaungoikoaren aitzinean auspeztuz,
Jaungoikoaren nagusitasun osoa aitortuz
eta Baztango errietatik bildu dituzten
aurttuak ekarri nai izan dituzte len-lenik
Elizondoko eliz eder untara Jesusek
munduan zebilelaik aurttuak ain maite
zituen Yesus arek bedeinka ditzan eta
sarri Kristau ikasbidea galdetuko diegu
eta sariztatu ere bai aur oiei ttipidanik
adiazteko bear dutela izen beren
aitzinekoek bezala euskaldun fededun.

Orrengatik nik ere leku saindu untan
Yesusen ordekoa naizen ezker, bertze
gai guziak geroko utzita, aurttu maiteak
mintzatuko natzaitzue Yesusez, erakutsiko
datzuet laburki bada ere Yesusen
zuenganako maitetasuna, orrela zuek
aur maiteak eta zuek aditzale guziak
ere, Yesusen Biotzaren edertasuna eta
ontasuna ikusiz geiago eta geiago maite

bazterrean bildu eta etxeko nagusiak
boneta kendu eta erraten du aitzineko
usaina duen otoitz hauxe: guk dugula parte
–aingeruak bertze hainbertze– gaizto
etsaiek batere ez, guk hartu dugun atsegina
hartu bezate Purgatorioko anima gaixoek.

Bai, ageri den gauza da. Jaungoikoa
aspaldidanik gure herriaren jaun eta jabea
izana da. Yesus Jaungoiko biziaren semea
maitatua izan da gure herrian handiki
gartsuki.

Horrengatik euskaltzaleak euskaraz batera
gure herriaren ohitura onak eta batez ere
bere kristautasun bizia maite dutenak
gaurko besta honi hasmenta eman nahi izan
diote Jaungoikoaren aitzinean ahuspeztuz,
Jaungoikoaren nagusitasun osoa aitortuz
eta Baztango herrietatik bildu dituzten
haurttoak ekarri nahi izan dituzte
lehen-lehenik Elizondoko eliza eder honetara
Jesusek munduan zebilelarik haurttoak hain
maite zituen Jesus hark bedeinka ditzan
eta sarri kristau ikasbidea galdetuko diegu
eta sariztatu ere bai haur horiei ttipidanik
adierazteko behar dutela izan beren
aitzinekoak bezala euskaldun fededun.

Horrengatik nik ere leku saindu honetan
Yesusen ordekoa naizenez gero, bertze
gai guziak geroko utzita, haurtto
maiteak mintzatuko natzaitzue Yesusez,
erakutsiko dizuet laburki bada ere Yesusen
zuenganako maitetasuna, horrela zuek
haur maiteek eta zuek aditzaille guziek
ere, Yesusen Bihotzaren edertasuna eta
ontasuna ikusiz gehiago eta gehiago maite

dezazuen eta gero ta urbilago yarraiki zakizkion.

Baño aitzinat yarraiki baño len agurtu dezagun laguntza eske, Yesus aurtxua mundura ekarri zakun Ama Maria.

I°) Yesus etorri zen mundura zuzentasune ekartzera. Yesus lurreratu zenean ez zuzena baizik indarra zen nagusi. Erresuma batzuek bertze erresuma batzuren pean ya itoak, gizon batzuek bertze gizon batzuen zangopean abreak balire bezala, emakumea (berez aulago den emakumea) ez zen ez gizonaren laguna gizonaren saietsetik atraia baizik gizonaren nerabea.

Eta ¿aurrak? ... Bai nigergarria aurren izakera (condizioa) Yesus lurreratu zenean. Entzun zitzue bizpairu gauz mende aietako kondairatik artuak. Berek erakutsiko datzute argi aski zein nigergarria zen aurren izakera.

Orduko kondairak erraten dakunez oso edatua omen zagon Erromatarren artean aur sortu berriak beren guratsoak alde bat non nai... bide bazterretan, karrike bazterretan uzteko oitura, Abruzio mendietatik otsu gosetiak gauez yaunsten omen ziren Erromako karriketara aurren aragi bila. Tertuliano kristau yakintsuak bere denborako epaikariei berei gaixtakeri au aurpegira ematen du.

Aurrak sortu onduan kasatzen bazituzten sortu aitzinean oñik gegago. Loikerian buru ta belarri sartuak etzuten nai aurrak diran lore berririk. Orrengatik agintariek

dezazuen eta gero eta hurbilago jarraiki zakizkion.

Baina aitzinat jarraiki baino lehen agurtu dezagun laguntza eske, Jesus haurtxoa mundura ekarri zigun Ama Maria.

I) Jesus etorri zen mundura zuzentasuna ekartzera. Jesus lurreratu zenean ez-zuzena baizik indarra zen nagusi. Erresuma batzuek bertze erresuma batzuen pean ia itoak, gizon batzuek bertze gizon batzuen zangopean abereak balira bezala, emakumea (berez ahulago den emakumea) ez zen ez gizonaren laguna gizonaren saihetsetik ateraia baizik gizonaren nerabea.

Eta haurrak? ... Bai negargarria haurren izaera (kondizioa) Yesus lurreratu zenean. Entzun itzazue bizpahiru gauza mende haierako kondairatik hartuak. Berek erakutsiko dizute argi aski zein negargarria zen haurren izaera.

Orduko kondairak erraten digunez oso hedatua omen zegoen erromatarren artean haur sortu berriak beren gurasoek alde bat nonahi... bide bazterretan, karrika bazterretan uzteko ohitura, Abruzzo mendietatik otso gosetiak gauez jausten omen ziren Erromako karriketara haurren haragi bila. Tertuliano kristau jakintsuak bere denborako epaikariei berei gaixtakeria hau aurpegira ematen du.

Haurrak sortu ondoan kasatzen bazituzten sortu aitzinean orainik gehiago. Lohikerian buru eta belarri sartuak ez zuten nahi haurrak diren lore berririk. Horregatik

Julia eta Popea deitzen diren lege bortitzak eman bear izan zituzten aurrak izatera eta aztera beartzeko.

Gaixtakeri aundie da lore berriak kasatzea baña aundiagoa da oñik lore berri oyek loikerirako ibiltzea. Ori ere gertatzen zen. Pederastia deitzen den izurria Erromatar ta Grezietarren artean zabaldua zagon.

“Emakumeetara baño geyago aurretara emanak zauden” eta makurrago dena: orduko yakintsuek gaixtakeri ok onartzen edo xurikatzen zituzten. Bai nigergarrie aurren izakera Jesus munduratu zenean. ¡Itsusikeri oken aldean zein ederra, zein maitagarria agertzen zaigun Yesusen aurrenganako maitasuna!

Entzun zitzue bere itzak, Ebanjelioko itzak. Bein batean ekarri zitiozten Yesusi aurrak eken alde otoi egin zezan.

Baño ikasleek zekarzkiotenei aserre ematen zieten. Yesusek ordea oi ikusirik aserretuta bere ikasleei erran zien: utzitzue aurrak neregana etortzen eta etzayezuela debekatu olakoena baita zeruko erresuma.

Zinez erraten datzuet: ezpaduzue artzen zeruko erresuma aurrak bezala etzerate an sartuko. Eta (erraten du Ebanjeliok) Yesusek aurrak besarkatzen zituen, laztantzen zituen, eskuak gañean paratu ta... bedekatzen zituen.

¡Zein gauza ederra, adi biotzekoak! Yesus aurrak besarkatzen! Yesus Yaungoikoa

agintariak Julia eta Popea deitzen diren lege bortitzak eman behar izan zituzten haurrak izatera eta haztera behartzeko.

Gaiztakeria handia da lore berriak kasatzea, baina handiagoa da orainik lore berri horiek lohikeriarako ibiltzea. Hori ere gertatzen zen. Pederastia deitzen den izurria erromatar eta greziarren artean zabaldua zegoen.

“Emakumeetara baino gehiago haurretara emanak zeuden” eta makurrago dena: orduko jakintsuek gaiztakeria hauek onartzen edo xurikatzen zituzten. Bai negargarria haurren izaera Jesus munduratu zenean. Itsusukeria hauen aldean zein ederra, zein maitagarria agertzen zaigun Yesusen aurrenganako maitasuna!

Entzun itzazue bere hitzak, Ebanjelioko hitzak. Behin batean ekarri zizkioten Yesusi haurrak haien alde otoi egin zezan.

Baina ikasleek zekarzkiotenei haserre ematen zieten. Yesusek, ordea, hori ikusirik haserretuta bere ikasleei erran zien: utz itzazue haurrak niregana etortzen eta ez diezaiezuela debekatu holakoena baita zeruko erresuma.

Zinez erraten dizuet: ez baduzue hartzen zeruko erresuma haurrak bezala, ez zarete han sartuko. Eta (erraten du Ebanjeliok) Yesusek haurrak besarkatzen zituen, laztantzen zituen, eskuak gainean paratu eta... bedekatzen zituen.

Zein gauza ederra, adi bihotzekoak! Jesus haurrak besarkatzen! Jesus Jaungoikoa

bera, indarra bera, garbitasuna bera
aur ttipiak besarkatzen eta laztantzen!
Yesusen besarka ortaik eldu zaie aurrai
gure artean duten aunditasuna, guk diegun
begiramendua.

Ola ola untz ayena aritz sendoan
biribilkatzen da ta aritzari besarkaturik
igeten da goiti, goiti an goitian loreak
eman arteo, alaxek aurra Yesusekin
besarkaturik altxatuak, goratuak izen ziren
beren yausezetik, geroztikan aurra gure
arteon Jaungoikoaren loreak dira.

Entzun zazue ere Yesusen aurrenganako
biotz xamurra ederki adierazten dakun
Ebanjelioko bertze zati au. Yair deitzen
zen gizon aundiki bati bere amabi urteko
alabattua il zitzaion. Yair au sinagogako
nagusietakoa zen, beraz Yesusen etsaya. Ala
ere oñazez lerturik Jesusenganatu zen ta
aren oñetan auspezturik otoika eta otoika
erraten zion: Yauna nere alabattua aixtion
il zait, zato nerekin, eskua gañean paratu
zayozu eta piztuko da. Jesus xutitu zen,
artu zituen bere ikaslerik maiteenak Pedro,
Santiago ta Juan eta yarraiki zitzaion.
Eldu dire Yairen etxera eta ikusten dute
etxe guzia nigerrez eta karrasiz naasia.
Yesusek erraten du “zertarako niger ta
karrasi ok? Nexka ez dago ila, lo baizik.
Baño irri egiten zioten bai zakiten ongi
aski ile zegola. Jesus nexkaren aita-ama ta
bere iru ikasleekin sartzen da neskatiko ile
etzana zagon gelara.

Urbiltzen da Jesus artzen du eskutik eta
erraten dio bere izkuntzan *Talita kumi*:

bera, indarra bera, garbitasuna bera haur
ttipiak besarkatzen eta laztantzen! Jesusen
besarka horretarik heldu zaie haurrei gure
arteon duten handitasuna, guk diegun
begiramendua.

Hola-hola huntz aihena haritz sendoan
biribilkatzen da eta haritzari besarkaturik
igaten da goiti, goiti han goitian loreak
eman artio, halaxe aurra Yesusekin
besarkaturik altxatuak, goratuak izan ziren
beren deusezetik, geroztik aurra gure
arteon Jaungoikoaren loreak dira.

Entzun ezazue ere Jesusen haurrenganako
bihotz xamurra ederki adierazten digun
Ebanjelioko bertze zati hau. Yair deitzen
zen gizon handiki bati bere hamabi urteko
alabatto hil zitzaion. Yair hau sinagogako
nagusietakoa zen; beraz, Jesusen etsaia. Hala
ere oinazez leherturik Jesusenganatu zen eta
haren oinetan ahuspezturik otoika eta otoika
erraten zion: Jauna, nere alabatto arestion
hil zait, zatoz nirekin, eskua gainean paratu
iezaiozu eta piztuko da. Jesus zutitu zen,
hartu zituen bere ikaslerik maiteenak, Pedro,
Santiago eta Juan, eta jarraiki zitzaion.
Heldu dira Yairen etxera eta ikusten dute
etxe guzia negarrez eta garrasiz nahasia.
Yesusek erraten du: “Zertarako negar eta
garrasi hauek? Nexka ez dago hila, lo
baizik”. Baina irri egiten zioten baitzekiten
ongi aski hila zegoela. Jesus nexkaren
aita-amekin eta bere hiru ikasleekin sartzen
da neskatiko hila etzana zegoen gelara.

Hurbiltzen da Jesus hartzen du eskutik
eta erraten dio bere hizkuntzan *Talitha kumm*:

Nexka yeiki zaite, nik erraten datzut.
Eta bereala yeiki zen, eta ibiltzen asi zen.
Guziak arriturik gelditu ziren. Yesusek
manatu zien bereala yatera eman zezaiotela.

2º) Yesusek beraz aurrak maite zituen.
Zuek maite duzuen zaintzen duzue.
Maite duzue osasuna eta zaintzen duzue,
maite duzue bizia eta zaintzen duzue.
Yesusek ere aurrak ain maite bai zituen
zaindu nai zituen gizon gaixtoenganik.

Bere Jaungoikozko begiekin ikusten
zuen bazirela eta izain zirela ere gizon
madarikatuak aur garbiak, oben gabeak
gaixtoratuko naiko lituzketenak,
gaixtakeria erakutsi naiko lieketenak...
eta naiz arrontean Jesus xamurki, xaloki
mintzatzen zen ... ala ere ikaragarriak dira
olako gizonentzat egin zituen meatxuak,
erran zituen itz gogorrak.

Entzun berriz ere Yesusen itzak: norbaitek
nere baitan sinesten duen aur ttipiotako
bat gaixtoratuko balu, obe luke errotarri
bat lepotik dilindan paratu eta itsaso
barnera botiaia izan.

Zorigaitz munduari gaizpideengatik zure
eskuak edo zangoak gaixtoratzen bazaitu,
moztu eta erantzi itzazu, obe baituzu
eskumotz edo zangomotz zeruan sartu,
ezen ez bi esku edo zangoekin (...) zeratu.
Videte ne... etzazuela gero ttipiotako bat
gaixtoratu, bada nik erraten datzuet: eken
aingiruek zeruan beti Aita Goitikoaren
aurpegia ikusten daude.

Nere Aita goikoak otarik bat ere
galtzea ez du nai. Itz ederrak *ad. bo.* eta

nexka jaiki zaitez, nik erraten dizut. Eta
berehala jaiki zen, eta ibiltzen hasi zen.
Guziak harriturik gelditu ziren. Jesusek
manatu zien berehala jatera eman ziezaiotela.

2) Jesusek, beraz, haurrak maite zituen.
Zuek maite duzuen zaintzen duzue.
Maite duzue osasuna eta zaintzen duzue,
maite duzue bizia eta zaintzen duzue.
Jesusek ere haurrak hain maite baitzituen
zaindu nahi zituen gizon gaixtoengandik.

Bere Jaungoikozko begiekin ikusten
zuen bazirela eta izanen zirela ere gizon
madarikatuak haur garbiak, hoben
gabeak gaixtoratu nahiko lituzketenak,
gaixtakeria erakutsi nahiko lieketenak...
eta nahiz arruntean Jesus xamurki, xaloki
mintzatzen zen ... hala ere ikaragarriak
dira holako gizonentzat egin zituen
mehatxuak, erran zituen hitz gogorrak.

Entzun berriz ere Jesusen hitzak:
norbaitek nire baitan sinesten duen haur
ttipiotako bat gaixtoratuko balu, hobe luke
errotarri bat lepotik dilindan paratu eta
itsaso barnera botiaia izan.

Zorigaitz munduari gaizpideengatik zure
eskuak edo zangoak gaixtoratzen bazaitu,
moztu eta erantzi itzazu, hobe baituzu
eskumotz edo zangomotz zeruan sartu,
ezen ez bi esku edo zangoekin (...) zeratu.
Videte ne... ez ezazuela gero ttipiotako bat
gaixtoratu, bada nik erraten dizuet: haien
aingiruek zeruan beti Aita goitikoaren
aurpegia ikusten daude.

Nire Aita goikoak hauetarik bat ere
galtzea ez du nahi. Hitz ederrak *ad.*

itz ikaragarriak. Itz ederrak Yesusen aurrenganako maitetasuna ederki agertzen bai dakute. Erran zadazue zuek batez ere gurasoak zeren aurrak ainbertze maite dituzuenak ya ola mintzo zen Yesusek aurrak aunitz maite zituen. Baño baita ere itz ikaragarriak aur gaixtatzaleentzat.

Entzun bitzate, entzun, oraiko eta mende guzietako gizon aur gaixtatzaleak Yesusen itz gogorrak: obe lukete errotarri lepotik dilindan paratu eta itsaso barnera botaiak izan. Ez uste izan gero aurrak ttipiak direla ta aietaz axola guti izan bear denik.

Bada ttipiak badira badute Jaungoikoak emanikako aingeru ederra eta aingeru oiek beti zeruan Aita goikoaren aurpegia ikusten dute eta edozein gaixtakeri egiten dietela aurrei salatuko diote eta kontu (...) artuko zaye.

3º) Yesusek aurrak maite zituen eta laudatu zituen. Guk ere maite duguna maiz aoan darabilegu. Errana ere da: biotz betea aoak urtu. Yesusek aurrak laudatu zituen kristau onaren eredutzat, modelotzat paratuz. Entzun Yesusen itzak.

Behin batean Yesusen ikasleak eztabaian ibili ziren nor ote zaiteken aundiena zeruko erresuman. Ta Yesusengana urbilduta galdetu zioten: nor iduritzen zaitzu aundiena zeruko erresuman. Yesusek urbil artan zagon aur bat deitzen du, besarkatzen du (erraten du Markos deunak) eta guzien erdian paratzen du.

bo. eta hitz ikaragarriak. Hitz ederrak Jesusen haurrenganako maitetasuna ederki agertzen baitigute. Erran iezadazue zuek batez ere gurasoek zeren haurrak hainbertze maite dituzuenek ea hola mintzo zen Yesusek haurrak aunitz maite zituen. Baina baita ere hitz ikaragarriak haur gaixtatzailentzat.

Entzun bitzate, entzun, oraingo eta mende guzietako gizon haur gaixtatzailleek Jesusen hitz gogorrak: hobe lukete errotarria lepotik dilindan paratu eta itsaso barnera botaiak izan. Ez uste izan gero haurrak ttipiak direla eta haietaz axola guti izan behar denik.

Bada ttipiak badira badute Jaungoikoak emanikako aingeru ederra eta aingeru horiek beti zeruan Aita goikoaren aurpegia ikusten dute eta edozein gaixtakeria egiten dietela haurrei salatuko diote eta kontu (...) hartuko zaie.

3) Jesusek haurrak maite zituen eta laudatu zituen. Guk ere maite duguna maiz ahoan darabilgu. Errana ere da: bihotz betea ahoak urtu. Jesusek haurrak laudatu zituen kristau onaren eredutzat, modelotzat paratuz. Entzun Jesusen hitzak.

Behin batean Jesusen ikasleak eztabaidan ibili ziren nor ote zitekeen handiena zeruko erresuman. Eta Jesusengana hurbilduta galdetu zioten: nor iduritzen zaizu handiena zeruko erresuman? Jesusek hurbil hartan zegoen haur bat deitzen du, besarkatzen du (erraten du Markos doneak) eta guzien erdian paratzen du.

Eta erraten die: zinez ta zinez erraten datzuet: ez bazerate biurtzen eta egiten aurrak bezala etzerate sartuko zeruko erresuman. Beraz aur au bezala ttipi egiten dena, oi da aundiena zeruko erresuman.

Oar gaitezen Yesusen itzotan. Zeruko erresuma aundia eta ederra da. Zeruan sartzeko bear dugu onak, zuzenak, apalak izan; apaltasuna on guzien iturburua baita. Beraz onak, zuzenak eta apalak izeteko bear dugu aurrak bezalakoak biurtu, ez naski gorputzez, baizik gogoz. Beraz, Yesusen iduriz aurrak zuzenak, apalak eta onak dira.

Itz oketaz oarturik Elizak eta elizako gurasoak aurrak laudatu dituzte; apaltasunean eta biotzeko garbitasunean kristauaren eredutzat paratuz. Entzun zitzue Krisostomo deunaren itz ederrok: Aurraren biotzak gaixtakeririk ez du. Norbaitek gaizki egiten badio ez dio idukitzen gorrotorik, agudo adiskidetzen da yaus gertatu ez balitz bezala. Bere amak zigortzen badu ere, bere ama bilatuko du eta guzien gain maiteko du.

Erakusten badiozu aurrari erregin bat yauntzi ederrenez apaindua, naiago du aurrak ikusi bere ama zarpa zarrez yauntzia ezen ez erregina ederrez yauntzia. Ezpaidio begiratzen aurrak ya aberatsa den edo gabea den, baizik ya berea duen, ya maite duen.

Aurrak ez du billatzen bear duena baizik. Esnez asetzen den bezain laster, bere amaren bularra utziko du. Ez du aurrak

Eta erraten die: zinez eta zinez erraten dizuet: ez bazarete bihurtzen eta egiten haurrak bezala, ez zarete sartuko zeruko erresuman. Beraz haur hau bezala ttipi egiten dena, hori da handiena zeruko erresuman.

Ohar gaitezen Jesusen hitzotan. Zeruko erresuma handia eta ederra da. Zeruan sartzeko behar dugu onak, zuzenak, apalak izan; apaltasuna on guzien iturburua baita. Beraz onak, zuzenak eta apalak izateko bear dugu haurrak bezalakoak bihurtu, ez naski gorputzez, baizik gogoz. Beraz, Jesusen iduriz haurrak zuzenak, apalak eta onak dira.

Hitz hauetaz oharturik, Elizak eta Elizako gurasoek haurrak laudatu dituzte; apaltasunean eta bihotzeko garbitasunean kristauaren eredutzat paratuz. Entzun itzazue Krisostomo donearen hitz ederrok: Haurraren bihotzak gaixtakeriarik ez du. Norbaitek gaizki egiten badio ez dio edukitzen gorrotorik, agudo adiskidetzen da deus gertatu ez balitz bezala. Bere amak zigortzen badu ere, bere ama bilatuko du eta guzien gain maiteko du.

Erakusten badiozu haurrari erregina bat jauntzi ederrenez apaindua, nahiago du haurrak ikusi bere ama zarpa zaharrez jauntzia ezen ez erregina ederrez jauntzia. Ez baitio begiratzen haurrak ea aberatsa den edo gabea den, baizik ea berea duen, ea maite duen.

Haurrak ez du bilatzen behar duena baizik. Esnez asetzen den bezain laster, bere amaren bularra utziko du. Ez

diruaren gutiziarik, ez da arduratzen lurreko gauz ustelkor otaz, ez da kezkatzen gerokoaz, bere uste osoa bere guratsoetan baitauka.

Ez du aurreratzen gorputzaren edertasunak. Orrengatik erran zakun Yesusek aurrak bezala biur eta egin gintezela, guk egin genezan gogoz aurrak berez bere egiten dutena.

4º) Azkenik Yesusek nai izan zuen guk ere aurrak Berak bezala maiteki ar genetzan. Una Yesusen itzak: Norbaitek aur ttipiotako bat nire izenean artzen badu ni artzen nau eta ni artzen nauenak ez ni baizik bialdu ninduenan artzen du.

Itz oken bidez Yesusek adiazten daku edozein on aur ttipi bati egiten diogula bere buruari egin bezala artuko duela. Yesusen Biotzaren ontasuna: Berari egin bezala artzen baitu edozein on erremex bati beartsu bati egiten diogula.

¿Nork daki zenbat on egin duten ogei mende otan Yesusen itz laburrok? Zuek badakizue Jeronimo Emiliano, Vicente Paul, Jose Kalasanz, Dom Bosko eta bertze saildu aunitzek zein gauz arrigarriak egin zituzten aur urrikaltsuen, erremexen, umezurtzen alde. ¿Zergatik uste duzue? Gogoan eta biotzean bai zituzten Yesusen itz ok: aur ttipiotako bat artzen duenak ni artzen nau.

Gaur berean Txinako eta misioetako toki urrun aietan mojakoak, emendik ganikako mojatxo txuriak beren astuekin

du haurrak diruaren gutiziarik, ez da arduratzen lurreko gauza ustelkor hauetaz, ez da kezkatzen gerokoaz, bere uste osoa bere gurasoetan baitauka.

Ez du aurreratzen gorputzaren edertasunak. Horrengatik erran zigun Jesusek haurrak bezala bihur eta egin gintezela, guk egin genezan gogoz haurrak berez bere egiten dutena.

4) Azkenik, Jesusek nahi izan zuen guk ere haurrak berak bezala maiteki har genitzan. Hona Jesusen hitzak: norbaitek haur ttipiotako bat nire izenean hartzen badu ni hartzen nau eta ni hartzen nauenak ez ni baizik bidali ninduenan hartzen du.

Hitz hauen bidez Jesusek adierazten digu edozein on haur ttipi bati egiten diogula bere buruari egin bezala hartuko duela. Jesusen bihotzaren ontasuna: berari egin bezala hartzen baitu edozein on erromes bati behartsu bati egiten diogula.

Nork daki zenbat on egin duten hogeimende hauetan Jesusen hitz laburrok? Zuek badakizue Jeronimo Emiliano, Vicente Paul, Jose Kalasanz, Don Bosko eta bertze saildu aunitzek zein gauza harrigarriak egin zituzten haur urrikaltsuen, erromesen, umezurtzen alde? Zergatik uste duzue? Gogoan eta bihotzean baitzituzten Jesusen hitz hauek: haur ttipiotako bat hartzen duenak ni hartzen nau.

Gaur berean Txinako eta misioetako toki urrun haietan mojakoak, hemendik joanikako mojatxo txuriak beren astoekin

ateratzen dire eta biltzen dituzte beren guratsoek (guratso gogorak) utzitako aur gaixuak eta bizkar orriek aurrez orniturik itzultzen dire eta aur oiek bataiatzen dituzte, iltzen badire badoazi zerura, bizi badire asiera ona ematen diete. ¿Zergatik ote? Yesusen itz okengatik: Norbaitek *etc...*

Itz labur oken indar Yaungoikozkoak zenbat ikastetxe, zenbat erruki etxe, zanbat gaixoteki, zenbat agotetxe (inclusa) sortuazi ditu ogei mende otan kristauen artean?

Oñik ez du urte bat: Iruñako agotetxean berrogei urte otan dagon monja euskaldun bati narrikan bezala erraten zioten: Bear bada lepotik dilindan daraman gurutzea oñik kendu bearke zuela eta erraten zuen: Baño zergatik uste duzu ni berrogei urte ontan bertzen aurren zikinkeria garbitzen ari naizela ez bada gurutze unengatik?

Orra bada ikusi duzue Yesusek aurrak zenbat maite zituen, nola zaindu nai zituen gizon etc. etc. Yesusi esker aurre gure artean gauza saildua da. Yesusi esker gutaik edozeñek badaki aurrak, amaren sabelean bizitzen asten den bezain laster baduela arima bat il eziña, Yesusen odolarekin eresia, aurtto ori bataiatzen den bezain laster Yaungoikuaren ume, zeruko yabegai dela, iltzen balitz garbia dan ezker bereala zerura bioakela, aur ttipi orrek baduela aingeru eder bat bere zaintzeko egina, ezagueraren izpi bat

ateratzen dira eta biltzen dituzte beren gurasoek (guraso gogorak) utzitako haur gaixoak eta bizkar-hordiak haurrez horniturik itzultzen dira eta haur horiek bataiatzen dituzte, hiltzen badira badoaz zerura, bizi badira hasiera ona ematen diete. Zergatik ote? Jesusen hitz hauengatik: Norbaitek eta abar.

Hitz labur hauen indar Jaungoikozkoak zenbat ikastetxe, zenbat erruki etxe, zenbat gaixotegi, zenbat agotetxe (“inclusa”) sorrarazi ditu hoge mende hauetan kristauen artean?

Orainik ez du urte bat: Iruñeko agotetxean berrogei urte hauetan dagoen moja euskaldun bati narrikan bezala erraten zioten: behar bada lepotik dilindan daraman gurutzea orainik kendu beharko zuela eta erraten zuen: baina zergatik uste duzu ni berrogei urte hauetan bertzen aurren zikinkeria garbitzen ari naizela ez bada gurutze honengatik?

Horra bada ikusi duzue Jesusen haurrak zenbat maite zituen, nola zaindu nahi zituen gizon ... Jesusi esker haurra gure artean gauza saildua da. Jesusi esker gutarik edozeinek badaki haurrak amaren sabelean bizitzen hasten den bezain laster baduela arima bat hilezina, Jesusen odolarekin eresia, haurtto hori bataiatzen den bezain laster Jaungoikoaren ume, zeruko jabegai dela, hiltzen balitz garbia denez gero berehala zerura doala, haur ttipi horrek baduela aingeru eder bat bere zaintzeko egina, ezagueraren izpi bat izaten

izaten duen bezain laister Yesusek bere gorputz eta odolarekin an bear duela. Yesus lurreratu zenean ez zuzena baizik indarra zen nagusi eta aurrek indarrik ez baitute aurrak yausetziren. Yesusek zuzentasuna ekarri eta... aurrak goratuak altxatuak izen ziren: Yaungoikoaren loreak, aingiruek dire; berriz ere gizadia Yesusenganik urruntzen bada, indarra nausituko da eta aurrak yaus ez dire izain.

¿Etzate oartu gizadia Yesusenganik urrunduz bezala asmentan aipatu dituten gaiztakeriek berak agertzen ari direla? Ez duzue irakurri Rusia urrikalgarri ortan nola dabilten aur multzuak zakurrak bezala, guratsorik gabe, goseak eta eritasunak ianak ebaskuari eta limurkeriari emanak? Adi biotzekuak: Yesusez landara zuzentasun osorik ez dago,

Aur maiteak: *laudate pueri dominum*. Lauda zazue Jesus zuen ongile aundia. Zuek oñik ttipiak zate eta ez duzue ezagutzen aal Yesusi zenbat zor diozuen. Baño zuek biotz ona duzue eta maite zaiztena maitatzen duzue. Maita zazue beraz eta lauda zazue Jesus zuen maitale aundia. *Laudate pueri...*

Eta zuek aditzaleak batez ete guratsoak: entzun zazue Yesusen deia; utzizue aurrak neregana etortzen... Zaindu itzazue ongi Yaungoikuak eman dazkitzuen aingeruok, ekarri tzizue maiz Yesusen oñetara, Yesusen eskuak edatu eta bedeika ditzan. Azi zituzue kristauki, ezi ere bai kristauki, bada naiz oñik garbiak diran, ala ere beren baitan

duen bezain laster Jesusek bere gorputz eta odolarekin han behar duela. Jesus lurreratu zenean ez-zuzena baizik indarra zen nagusi eta hurrek indarrik ez baitute haurrak deus ez ziren. Jesusek zuzentasuna ekarri eta... haurrak goratuak altxatuak izan ziren: Jaungoikoaren loreak, aingeruak dira; berriz ere gizadia Jesusengandik urruntzen bada, indarra nagusituko da eta haurrak deus ez dira izanen.

Ez zarete ohartu gizadia Jesusengandik urrunduz bezala hasmentan aipatu ditudan gaiztakeriak berak agertzen ari direla? Ez duzue irakurri Errusia urrikalgarri horretan nola dabilzan haur multzoak zakurrak bezala, gurasorik gabe, goseak eta eritasunak janak ebaskoari eta limurkeriari emanak? Adi bihotzekoak: Jesusez landara zuzentasun osorik ez dago.

Haur maiteak: *laudate pueri Dominum*. Lauda ezazue Jesus zuen ongile handia. Zuek orainik ttipiak zarete eta ez duzue ezagutzen ahal Jesusi zenbat zor diozuen. Baina zuek bihotz ona duzue eta maite zaituztena maitatzen duzue. Maita ezazue beraz eta lauda ezazue Jesus zuen maitale handia. *Laudate pueri...*

Eta zuek aditzaileak batez ere gurasoak: entzun ezazue Yesusen deia; utz itzazue haurrak niregana etortzen... Zaindu itzazue ongi Jaungoikoak eman dizkitzuen aingeruok, ekarri itzazue maiz Yesusen oinetara, Yesusen eskuak hedatu eta bedeinka ditzan. Hazi itzazue kristauki, hezi ere bai kristauki, bada nahiz

daukate gaitzerako griña guzietan lehenbiziko bekatutik datorkiguna, ttipi danik ezi eta zuzendu bear dire onerako. Erakus zaiezu kristau ikasbidea: Beti guratsoen gain dago au, baño batez ere gaur eskoletan erakustea debekatu den unta, zeonek erakutsi eta bializ Elizara apez yaunek erakutsi dezaieten.

Zuen umeak maite badituzue eta zuen sorterrria maite baduzue erakutsi kristautasun sendo eta bizia. Zuen umeak maite badituzue, zuen umei utzi dezaiekezuen ontasunik aundiena kristautasun sendo eta bizia da.

Eta zuen sorterriri buruz ere bai: gure erriaren ohorerik eta berexgarririk aundiena bere kristautasuna da. *Piissima vasconum gens.*

Nai baduzue zuen erriak aitzinat ere ola irau dezan (eta nai bear duzue ezpaduzue burua eta biotza galdu) erakutsi aurrei kristautasuna, bada gaurko aurrak biarko erria izain dire. Egizue ala. Ola egiten baduzue Yesusek bedeikatuko ditu zuen aurrak, eta zuek ere bedeikatu zaizte. Ala bedi. Virgini Mariak bere aurtxo Yesusekin guziok bedeika gaitzala. *Nos enim prole pia et...*

Aur euskaldunaren egunean Elizondoko elizan errana, 1932garreneko Buruillaren 4an.

A.M.D.G. Blas Fagoaga

orainik garbiak diren, hala ere beren baitan daukate gaitzerako grina guzietan lehenbiziko bekatutik datorkiguna, ttipidanik hezi eta zuzendu behar dira onerako. Erakutsi iezaiezu kristau ikasbidea: beti gurasoen gain dago hau, baina batez ere gaur eskoletan erakustea debekatu den honetan, zerorrek erakutsi eta bidali Elizara apez jaunek erakutsi diezaieten.

Zuen umeak maite badituzue eta zuen sorterrria maite baduzue, erakutsi kristautasun sendo eta bizia. Zuen umeak maite badituzue, zuen umei utzi diezaikezuen ondasunik handiena kristautasun sendo eta bizia da.

Eta zuen sorterriri buruz ere bai: gure herriaren ohorerik eta bereizgarririk handiena bere kristautasuna da. *Piissima vasconum gens.*

Nahi baduzue zuen herriak aitzinat ere hola irau dezan (eta nahi behar duzue ez baduzue burua eta bihotza galdu) erakutsi hurrei kristautasuna, bada gaurko haurrak biharko herria izanen dira. Egizue hala. Hola egiten baduzue Yesusek bedeinkatuko ditu zuen haurrak, eta zuek ere bedeinkatu zaituztete. Hala bedi. Birjina Mariak bere haurtxo Yesusekin guziok bedeinka gaitzala. *Nos enim prole pia et...*

Haur euskaldunaren egunean Elizondoko elizan errana, 1932ko buruillaren 4an.

A.M.D.G. Blas Fagoaga

3.3 Orreagako sermoia

Sermoi de la Natividad de N^{ra} Sra predicado
 en la Colegiata de Rosarvalle, en su fiesta principal -
 - 8 de Setiembre de 1934 -

Nativitas tua, dei Genitricis Virgo, gaudium annuntiant uni-
 verso mundo. In officio dei -

- Gauz luberis eguna, Birjina Maria mundus etri
 seu Regina, Dicazeko Abua Birjinaran eguna -
 Egun amdi eta porgania - Gauzko egunarekin
 etri seu mundura Jangorikoaren etru aalmetatik
 atara ~~seu~~ den iratedunik gaudium eta edieria, ematun-
 me gusim artian bedekatuia, Arigeran miragorin-
 ko Birjina, Jangorikoaren Abua amdi, gu pe-
 katarikoa Abua inikaltua, guze bisita, eskitatu-
 na eta nste ova - Oienzutiki gauz Ilisa boz-
 konior heterik agotren saigu eta kristanak ya im-
 tara daitren ditu eranen: "Cum juremdata Nativita-
 tem etc ... celebramus ut ... Ateginis sel-
 bra desagin Birjina Marianan ratsea Berak guze alde
 Yerkhista Gaurri otortu egui dioran - Bana
 guretat bada oranik geizgo - Gauzko egunare-
 kin mundus etri seu Birjina vrek, vai mile nste nign-
 ru duela, guze artian bere eragin yarekua paratu

13. Irudia: Orreagako sermoiaaren lehenbiziko orrialdea

Iurria: Etxebeltzea

a. Transkripzio literala

Sermón de la Natividad de Nuestra Señora predicado en la Colegiata de Roncesvalles, en su fiesta principal. 8 de Setiembre de 1934.

Nativitas tua Dei Genitrix Virgo, gaudium anuntiauit universo mundo. Ex officio diei.

Gaur Solbezio eguna, Birjiña Maria mundura etorri zen eguna, Orreagako Ama Birjiñaren eguna. Egun aundi eta pozgarria.

Gaurko egunarekin etorri zen mundura Jaungoikoaren esku aaltsuetatik atera den izatedunik garbien eta ederrena, emakume guzien artean bedekatuen, Aingeruen miragarritzko erregiña Jaungoikoaren Ama aundia, gu pekatarioken Ama urrikaltsua, gure bizitza ez-titasuna eta uste osoa.

Orrengatik gaur Eliza bozkarioz beterik agertzen zaigu eta kristauak yai untara deitzen ditu erranez: *Cum jucundita Nativitatem etc... celebremus ut...* Atsegiñez zelebra dezagun Birjiña Mariaren sortzea Berak gure alde Yesukristo Yaunari otoitz egin diozan.

Baña guretzat bada orañik geiago. Gaurko egunarekin mundura etorri zen Birjiña orrek, orai mile urte inguru duela, gure artean bere erregin yarlekua paratu zuen, eta mendez mende gure aitzinekoek (Santxo azkarrak) goratu zuten Eliza untan du bere egoitza, ementxe dago, mile

b. Gaur egungo euskara arautuaren arabera

Orreagako Kolegiatan Ama Birjinaren bestaburuan, Solbezio egunean, egindako sermoia. 1934ko buruilarren 8a.

Nativitas tua Dei Genitrix Virgo, gaudium anuntiauit universo mundo. Ex officio diei.

Gaur Solbezio eguna, Birjina Maria mundura etorri zen eguna, Orreagako Ama Birjinaren eguna. Egun handi eta pozgarria.

Gaurko egunarekin etorri zen mundura Jaungoikoaren esku ahaltsuetatik atera den izatedunik garbien eta ederrena, emakume guzien artean bedekatuen, aingeruen miragarritzko erregina, Jaungoikoaren Ama handia, gu bekatari hauen ama urrikaltsua, gure bizitza ez-titasuna eta uste osoa.

Horrengatik gaur Eliza bozkarioz beterik agertzen zaigu eta kristauak jai honetara deitzen ditu erranez: *Cum jucundita Nativitatem etc... celebremus ut...* Atseginez zelebra dezagun Birjina Mariaren sortzea berak gure alde Jesu Kristo Jaunari otoitz egin diezaion.

Baina guretzat bada orainik gehiago. Gaurko egunarekin mundura etorri zen Birjina horrek orain mila urte inguru duela, gure artean bere erregina jarlekua paratu zuen, eta mendez mende gure aitzinekoek (Antso Azkarrak) goratu zuten eliza honetan du bere egoitza,

urte unten bai, Auñamendiko erregiña,
bi Nafarroetako euskaldunen ama maitea
ementxe dago beren otoitzak entzuten,
ontasun eta bedeikazio ugari esku zabalez
ematen.

Eta Orreagako Ama Birjiña unek
urteain buruko bestik aundiena gaur du.
Orrengatik gu, Orreagako gure Ama
maite dugunok, Elizaren eta odolaren deia
entzunez, Orreagaren lau aldetatik bildu
gera, bai Benabarratik, bai Baztandik,
Auritzetaik, Errotik eta urrunagotik ere;
eta denak emen elkaturik, mendeekin bat
egiñez, egun unekin mile urte unten emen
ibili diren guziekin espirituz bat eginik,
Orreagako Andre done Mariaren aitzinean
bozkarioz belaunikatzen gare eta erraten
ditiogu Elizak mezaren asmentan erraten
dituen itzok: *Salbe Sancta Parens etc ...* Agur
Ama Saindua, zeru-lurren erregea mundura
ekarri zinakuna.

Poztu gaitzen bai, kristauak. Izan ere
Mariaren sortzea pozgarrie izan zen.
Zure sortzeak, o Birjiña Jaungoikoaren
Ama zorionez adiazi zion mundu guziari
erraten daku Elizak.

Ikusi dezagun laburki bada ere, zergatik
izan zen ain pozgarri Mariaren sortzea.
Zer nolako onak ekarri zazkun, gure
Birjiña Mariarenganako maitetasuna
aunditu eta berratu dayen eta Berak
Yesukristo Yaunari gure alde otoitz egin
diozan.

Ave Maria.

hementxe dago, mila urte honetan bai,
Auñamendiko erregina, bi Nafarroetako
euskaldunen ama maitea hementxe dago
beren otoitzak entzuten, ontasun eta
bedeinkazio ugari esku zabalez ematen.

Eta Orreagako Ama Birjina honek
urtearen buruko bestarik handiena gaur
du. Horrengatik gu, Orreagako gure ama
maite dugunok, Elizaren eta odolaren deia
entzunez, Orreagaren lau aldetatik bildu
gara, bai Benabarratik, bai Baztandik,
Auritzetarik, Erroibartik eta urrunagotik
ere; eta denak hemen elkaturik, mendeekin
bat eginenez, egun honekin mila urte honetan
hemen ibili diren guziekin espirituz bat
eginik, Orreagako Andre dona Mariaren
aitzinean bozkarioz belaunikatzen gara eta
erraten dizkiogu Elizak mezaren hasmentan
erraten dituen hitzok: *Salbe Sancta Parens etc...*
Agur Ama saindua, zeru-lurren erregea
mundura ekarri zeniguna.

Poztu gaitzen bai, kristauak. Izan ere
Mariaren sortzea pozgarria izan zen. Zure
sortzeak, o Birjina Jaungoikoaren Ama
zorionez adierazi zion mundu guziari
erraten digu Elizak.

Ikusi dezagun laburki bada ere, zergatik
izan zen hain pozgarri Mariaren sortzea.
Zer nolako onak ekarri zizkigun, gure
Birjina Mariarenganako maitetasuna
handitu eta berratu dadin eta berak
Jesu Kristo Jaunari gure alde otoitz egin
diezaion.

Agur Maria.

Aur baten sortzea auxko pozgarria iduritzen zaigu. Orrengatik geyenek beren urtebetetzean oroitzapen zerbait egiten dute, guratsoei, aideei, adiskideei, zorionak ematen dieztegu, agintari, errege, Apezpiku, Aita Saindu eta bertze onelako aundikien urtebetetzean yai aundiak egiten dira.

Baño ¿zer da gizon-emakume guzien sortzea Birjiña Mariaren sortze zorionekoaren aldean?

(a) Bertze guziak, sainduenak ere, bekatu orijinal onekin zikinduak piztuak izen dire bere amaren sabelean, Birjiña Maria bakar-bakarrik Yaungoikoaren esker aundiz, pekaturik gabe piztua izen zen; berzeak graziaz gabeturik sortzen dire (San Juan eta bertze lege zarreko sainduen bat kentzen badugu); Birjiña Maria grazi guziz ornitua sortu zen; bertze guziak, gaitzerako makurtuak pekatuak grinarekin sortzen dira, eta grina ori dela bide ¡zenbat eroriko, zenbat txarkeri, zenbat bekatu gizonaren bizi laburrean!

Birjiña Maria gaitzerako grinarik gabe sortu zen, eta ala, bere bizi guzian, den bekatu ttipienik ere etzuen egin; berzeak, gero saindu izanen badire ez dira saindu sortzen; Birjiña Maria Saindu yayo zen.

Ez, berez bere, gizonaren sortzea ez da pozgarria, nigargarria baizik; Birjiña Mariaren sortzea bai izen zela pozgarria, agurgarria, ooragarria. Orrengatik Aingeruak, ain garbi, ain eder, ain saindu

Haur baten sortzea anixko pozgarria iduritzen zaigu. Horrengatik gehienek beren urtebetetzean oroitzapen zerbait egiten dute, gurasoei, ahaideei, adiskideei zorionak ematen dizkiegu, agintari, errege, apezpiku, aita saindu eta bertze honelako handikien urtebetetzean jai handiak egiten dira.

Baina zer da gizon-emakume guzien sortzea Birjina Mariaren sortze zorionekoaren aldean?

(a) Bertze guziak, sainduenak ere, bekatu original honekin zikinduak piztuak izan dira bere amaren sabelean, Birjina Maria bakar-bakarrik Jaungoikoaren esker handiz, bekaturik gabe piztua izan zen; bertzeak graziaz gabeturik sortzen dira (San Joan eta lege zaharreko bertze sainduen bat kentzen badugu); Birjina Maria grazi guziz hornitua sortu zen; bertze guziak, gaitzerako makurtuak bekatuak grinarekin sortzen dira, eta grina hori dela bide zenbat eroriko, zenbat txarkeria, zenbat bekatu gizonaren bizi laburrean!

Birjina Maria gaitzerako grinarik gabe sortu zen, eta hala, bere bizi guzian, den bekatu ttipienik ere ez zuen egin; bertzeak, gero saindu izanen badira ez dira saindu sortzen; Birjina Maria saindu jaio zen.

Ez, berez bere, gizonaren sortzea ez da pozgarria, negargarria baizik; Birjina Mariaren sortzea bai izan zela pozgarria, agurgarria, ohoragarria. Horrengatik aingeruak, hain garbi, hain eder, hain saindu

sortzen ikustean, beren baitan zioten ¿Nor da au? ¿Nor da goiz argia bezala agertzen zaigun au, illargia bezain ederra, iduzkia bezain berexa eldu zaigun au?

(b) Gizonaren sortzea berez berez pozgarria ez bada ere, gerokoari buruz pozgarria liteke. Aur sortu berri oi bataioan garbitua geldituko da, Jaungoikoaren laguntzarekin gizon emakume on bat atearo daiteke, gizon aundi-aipatu bat izen liteke, agian saindu bat, aingeru bat izen liteke.

Alde untaik ere ¿zenbat pozgarriago Birjiñaren sortzea! Aur sortu berri oi gizon aipatu bat, aingeru bat agian izen laiteke; baño baita gizatxar bat, deabrukume bat izan daiteke; Birjiña Maria, aldiz, aunitzen ustez saindutasunean seguratu sortu zen; aur sortu berri oi gizon aipatu bat atera laiteke, baño Birjiñe Maria emakume guzien artean bedekatuen bearra zen, zeru lurra iduki ez dezaketena, bere sabelean iduki bearra zuen bizidun guziei janari ematen diena, bere bularretarik ase bearra zuen, mundu guziak bere beatzetik dilindan dauzkena bere besoetan iduki bearra zuen, saindu eta aingeru guziak Yaun eta Yabe deitzen dutena, semetto deitu bearra zuen, Jaungoikoaren Ama bearra zen. ¿Zer geiago erran daiteke aur sortu berri batez?

(c) Pozgarria berez bere, pozgarria gerokoari buruz, pozgarria ere ekarri bear zazkun ontasunengatik.

sortzen ikustean, beren baitan zioten: nor da hau? Nor da goiz argia bezala agertzen zaigun hau, ilargia bezain ederra, eguzkia bezain berezia heldu zaigun hau?

(b) Gizonaren sortzea berez-berez pozgarria ez bada ere, gerokoari buruz pozgarria liteke. Haur sortu berri hori bataioan garbitua geldituko da, Jaungoikoaren laguntzarekin gizon emakume on bat atera daiteke, gizon handi-aipatu bat izan liteke, agian saindu bat, aingeru bat izan liteke.

Alde honetarik ere, zenbat pozgarriago Birjinaren sortzea! Haur sortu berri hori gizon aipatu bat, aingeru bat agian izan liteke; baina baita gizatxar bat, deabrukume bat izan daiteke; Birjina Maria, aldiz, aunitzen ustez saindutasunean seguratu sortu zen; haur sortu berri hori gizon aipatu bat atera liteke, baina Birjina Maria emakume guzien artean bedekatuen beharra zen, zeru lurra eduki ez dezaketena, bere sabelean eduki beharra zuen bizidun guziei janari ematen diena, bere bularretarik ase beharra zuen, mundu guziak bere behatzetik dilindan dauzkana bere besoetan eduki beharra zuen, saindu eta aingeru guziak jaun eta jabe deitzen dutena, semetto deitu beharra zuen, Jaungoikoaren Ama beharra zen. Zer gehiago erran daiteke haur sortu berri batez?

(c) Pozgarria berez bere, pozgarria gerokoari buruz, pozgarria ere ekarri behar zizkigun ontasunengatik.

Gure gaitz guzien asmenta emakume zorigaiztoko bat izen zen; gure on guzien asmenta emakume zorioneko au bearra zen. Jaungoikoak gure lenbiziko guratsoak egin zituenean, grazi eta doai arrigarriz ornitu zituen. Berak eta beren ondokoak betiko zorioneko bearrak ziren.

Ordañez mandamentu bat eman zuen. Baño etsai maltzurak, gure zorionez bekaizturik, gure lenbiziko ama ele xuri-gezurtiz bekatuazi zuen, fruitu debekatua artu eta yan zuen eta bere senarrari yateko eman zion.

Bat batean grazi eta doai guzietaz biluziak gelditu ziren. Jaungoikoak zorioneko toki artaik bota zituen.

Orduantxe ikusi zituzten beren bekatuaren ondorio ikaragarriak; beren ondokoei zegokien etorkizun nigergarria.

Ainbertze neke, ainbertze izerdi, ainbertze oñaze, ainbertze gudu, ainbertze gorroto, ainbertze gosete, ainbertze eriotz, ainbertze infernuratze... orra or Ebaren ume zorigaiztokoan etorkizun nigergarria. Gure guratso gizajoei nigerra zerien.

Jaungoiko ona etaz urrikaldu zen. Beren aitzinean deabrua madarikatu zuen erranez: Etsaigoak paratuko ditut zure eta emakumearen artean, zure ondokoen eta bere ondokoaren artean. Berak zapalduko du zure burua eta zu alferrik yokatuko zara bere oñetara. Erran balio bezala:

Gure gaitz guzien hasmenta emakume zorigaiztoko bat izan zen; gure on guzien hasmenta emakume zorioneko hau beharra zen. Jaungoikoak gure lehenbiziko gurasoak egin zituenean, grazia eta dohain harrigarriz hornitu zituen. Berak eta beren ondokoak betiko zorioneko beharrak ziren.

Ordainez mandamentu bat eman zuen. Baina etsai maltzurak, gure zorionez bekaizturik, gure lehenbiziko ama ele xuri-gezurtiz bekatuan erorrarazi zuen, fruitu debekatua hartu eta jan zuen eta bere senarrari jateko eman zion.

Bat-batean grazia eta dohain guziez biluziak gelditu ziren. Jaungoikoak zorioneko toki hartarik bota zituen.

Orduantxe ikusi zituzten beren bekatuaren ondorio ikaragarriak; beren ondokoei zegokien etorkizun negargarria.

Hainbertze neke, hainbertze izerdi, hainbertze oinaze, hainbertze gudu, hainbertze gorroto, hainbertze gosete, hainbertze heriotza, hainbertze infernuratze... horra hor Evaren ume zorigaiztokoan etorkizun negargarria. Gure guraso gizajoei negarra zerien.

Jaungoiko ona haietaz urrikaldu zen. Beren aitzinean deabrua madarikatu zuen erranez: etsaigoak paratuko ditut zure eta emakumearen artean, zure ondokoen eta bere ondokoaren artean. Berak zapalduko du zure burua eta zu alferrik jokatuko zara bere oinetara. Erran balio bezala: zuk,

Zuk, maltzur orrek, emakume pekatari baten bidez galdu duzu gizagendea; nik bertze emakume saindu baten bidez gaitzgabekutako dut; zuk emakume baten bidez eman diozu munduari fruitu pozoindua; nik bertze emakume baten bidez emanen diot fruitu bedekiatua; zuk, emakume baten bidez eman diozu giza gendeari Aita eta Buru pekatari bat; nik bertze emakume baten bidez emanen diot Aita eta Buru saindu bat; zuk, zital orrek, emakume argal baten bidez garaitu duzu; nik bertze emakume indartsu baten bidez garaituko zaitut; Berak leertuko du zure buru pozointsua. Emakume bedekiatu ori Maria; bere fruitu bedekiatua Jesus gure Salbatzale bakarra.

Adan eta Ebaren umeak etziren eskeintza ortaz antzi. Beti bizi ziren izar ederrak noiz dizdiatuko, egun ederra noiz argituko, emakume bedekiatua noiz etorriko. Salbatzalea noiz sortuko...

Demagun mendi itsusi batean gauak arpatzen duela bidezkarri bat. Yo arat, yo unat eta bidea ezin xuxendu. Alde guzietarik erroitzak; bere inguruan pixti ikaragarriak bera idetsi naiez. Elorriak eta loiak aragia zarratzatzen diote, berdurrak eta gaueko otsak kaskaz eguiatzten. Zein luzea gaua orrelako bidezkariarentzat. Eta zein atsegingarria goiz argia.

Alaxe zabilen giza-gendea bidea galdurik; arrixkueatik ezin atraz, bidea ezin xuxenduz. Baño sortu zen Maria goiz

maltzur horrek, emakume bekatari baten bidez galdu duzu gizajendea; nik bertze emakume saindu baten bidez gaizkabekutako dut; zuk emakume baten bidez eman diozu munduari fruitu pozoiduna; nik bertze emakume baten bidez emanen diot fruitu bedekiatua; zuk, emakume baten bidez eman diozu gizajendeari aita eta buru bekatari bat; nik bertze emakume baten bidez emanen diot aita eta buru saindu bat; zuk, zital horrek, emakume argal baten bidez garaitu duzu; nik bertze emakume indartsu baten bidez garaituko zaitut; berak lehertuko du zure buru pozoitsua. Emakume bedekiatu hori Maria; bere fruitu bedekiatua Jesus gure salbatzaile bakarra.

Adam eta Evaren umeak ez ziren eskaintza horretaz ahantzi. Beti bizi ziren izar ederrak noiz distiratuko, egun ederra noiz argituko, emakume bedekiatua noiz etorriko. Salbatzailea noiz sortuko...

Demagun mendi itsusi batean gauak harrapatzen duela bidezkarri bat. Jo harat, jo hunat eta bidea ezin xuxendu. Alde guzietarik erroitzak; bere inguruan piztia ikaragarriak bera irentsi nahiez. Elorriak eta lohiak haragia zarratzatzen diote, beldurrak eta gaueko hotsak kaskaz egiazatzen. Zein luzea gaua horrelako bidezkariarentzat. Eta zein atsegingarria goiz argia.

Halaxe zabilen gizajendea bidea galdurik; arriskueatik ezin ateraz, bidea ezin xuxenduz. Baina sortu zen Maria goiz

argia bezala. Eta Mariak ekarri zigun gure animen eguzkia Jesus.

Eta oraintxe bai Maria eta bere fruitu bedeinkatuari esker bekatutik atera gaitezke; grina txarrak menderatu dezakegu, lurreko neke eta oñazeak leen bezala eramanez zerua erdietsi dezakegu; eta zeruratzen garenean akituko dira nekeak, lanak, oñazeak, gaixtakeriak, garaitua geldituko da eriotza, lenbiziko emakume artaiek etorri zizaizkun makurrak zuzenduak geldituko dira emakume bedeinkatu uni eta bere sabeleko fruituari esker.

Orra zer nolako onak ekarri zazkun Birjiña Mariaren sortzeak; zinez Elizak gaur erraten duen bezala “zure sortzeak, o Birjiña Jaungoikoaren Ama, zoriona adiazki zion mundu guziari”. Orreratik S. Bernardok erraten dio gizonari: gizona etzaitela gegygi emakumeaz arrankuratu, bada une gaitz guzien asmenta emakume bat izen ba zen, zure on guzien asmenta bertze emakume bat izen zen.

Zorionak eman diotzagun egun aundi untan Birjiña Mariari; erran diozagun fedez beterik: bedeinkatu zu andre guzien artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua Jesus. Zoriondu dezagun bere Seme Yainkoa: olako Semeari alako ama zegokion. Zoriondu ditzagun San Joaquin eta Santa Ana, Mariaren guratso zorionekoak, aur miragarritzko uni esker S. Teresak dion bezala, Yainkoaren aitatxi-amatxi izatea

argia bezala. Eta Mariak ekarri zigun gure animen eguzkia Jesus.

Eta oraintxe bai Maria eta bere fruitu bedeinkatuari esker bekatutik atera gaitezke; grina txarrak menderatu ditzakegu, lurreko neke eta oinazeak lehen bezala eramanez zerua erdietsi dezakegu; eta zeruratzen garenean akituko dira nekeak, lanak, oinazeak, gaixtakeriak, garaitua geldituko da heriotza, lehenbiziko emakume hartarik etorri zitzaizkigun makurrak zuzenduak geldituko dira emakume bedeinkatu honi eta bere sabeleko fruituari esker.

Horra zer nolako onak ekarri zizkigun Birjina Mariaren sortzeak; zinez Elizak gaur erraten duen bezala “zure sortzeak, o Birjina Jaungoikoaren Ama, zoriona adierazi zion mundu guziari”. Horregatik San Bernardok erraten dio gizonari: gizona ez zaitzela gehiegi emakumeaz arranguratu, bada une gaitz guzien hasmenta emakume bat izan bazen, zure on guzien hasmenta bertze emakume bat izan zen.

Zorionak eman diezazkiogun egun handi honetan Birjina Mariari; erran diezaiogun fedez beterik: bedeinkatua zu andre guzien artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua Jesus. Zoriondu dezagun bere Seme Jainkoa: holako semeari halako ama zegokion. Zoriondu ditzagun San Joaquin eta Santa Ana, Mariaren guraso zorionekoak, haur miragarritzko honi esker santa Teresak dioen bezala, Jainkoaren aitatxi-amatxi izatea

erdietsi baitzuten. Baño batez ere zoriondu ditzagun geren buruak.

Gaurtik aitzina Ebaren ume zorigaiztotook badugu Ama bat, zorionaren, bakearen, graziaren, bizitzaren Ama. Ama aaltsua Yainkoaren Ama baita, Ama urrikaltsua gure egiazko Ama baita. Eta Ama zorioneko unek aunitz esker mila, aintzineko denboran ementxe paratu zuen beren yarlekua bi Nafarroetako Ama eta Erregin izateko.

Gure aitzinekoek Amatzat zaukaten, Ama bezala maite zuten. Erregin unen eta bere Semearen agindupean bizi ziren; alaxe izen ziren ain kristau onak, ain Yainkozaleak beren itzkuntzetan (solasetan) eta yauntzietan eta denetan ain garbiak, alaxe utzi zizkiguten ain oitura garbi-ederrak kristautasunez gantzututako oitura ooragarriak.

Gu ere zorionekoak izen nai badugu, goazin Ama orrengana zorionaren eta bakearen iturri bakarra Ama oi eta bere altzoan duen Aur Yainkoa baita, ortik landara ez da egiazko zorionik, itxurazko zoriona, gezurrezko atsegiña, zoritxarra, betiko zoritxarra.

Artu dezagun guk ere Amatzat. Bizi gaitezen Erregin unen eta bere Seme Yaingoaren agindupean, izen gaitezen kristotarrak, bere Semearen aldekoak, erran diozagun guk ere geren itzetan, yauntzietan, dantzetan *etc...* garbiak izen nai dugula; eska diozagun galtzear

erdietsi baitzuten. Baina batez ere zoriondu ditzagun geren buruak.

Gaurtik aitzina Evaren ume zorigaiztotook badugu Ama bat, zorionaren, bakearen, graziaren, bizitzaren ama. Ama ahaltsua Jainkoaren ama baita, ama urrikaltsua gure egiazko ama baita. Eta ama zorioneko honek aunitz esker mila, aitzineko denboran hementxe paratu zuen beren jarlekua bi Nafarroetako Ama eta Erregina izateko.

Gure aitzinekoek Amatzat zaukaten, Ama bezala maite zuten. Erregina honen eta bere Semearen agindupean bizi ziren; halaxe izan ziren hain kristau onak, hain jainkozaleak beren hizkuntzetan (solasetan) eta jauntzietan eta denetan hain garbiak, halaxe utzi zizkiguten hain ohitura garbi-ederrak kristautasunez gantzututako ohitura ohoragarriak.

Guk ere zorionekoak izan nahi badugu, goazen Ama horrengana zorionaren eta bakearen iturri bakarra Ama hori eta bere altzoan duen Haur Jainkoa baita, hortik landara ez da egiazko zorionik, itxurazko zoriona, gezurrezko atsegiña, zoritxarra, betiko zoritxarra.

Hartu dezagun guk ere Amatzat. Bizi gaitezen erregina honen eta bere Seme Jainkoaren agindupean, izan gaitezen kristotarrak, bere semearen aldekoak, erran diezaigun guk ere geren hitzetan, jauntzietan, dantzetan eta abarretan garbiak izan nahi dugula; eska diezaigun

dauden gure oitura garbiak zaindu ditzala; egunetik egunera sartzen ari zaizkigun oitura galgarriak onda ditzala; Aditzatze biotzekoak!

Aitzineko denboretan, kristauak moroen kontra gudu bizian bizi zirelarik, Nafarrogo erregek gudura baño len, unetxera etortzen ziren, eta Orreagako Ama Birjiñaren aitzinean belaunikaturik laguntza eskatzen zioten; eta ola Birjiña unen laguntzarekin indarturik etsaiak porrokatzen zituzten eta gero, garailari eskerrak ematera itzultzen ziren, mesede aundiak egiten zitiotzen Eliza uni, bere garaikundearen ageriak ementxe uzten zituzten, ortxen dauden burdinezko kate oiek bezala.

Gu ere gudulariak, soldaduak gara gure animen etsai, mundu, deabru eta aragiaren kontra gudu bizian bizi gara; etsai maltzurak, etsai beldurgarriak; guk ere eska diozagun bere laguntza Birjiña uni eta bere laguntzarekin indarturik etsai guziak garaituko ditugu, eta unetxera esker onez itzuliko gara eskerrak ematera; Birjiña Mariaren bero indartsua beti laudatuko dugu.

¡Kristau maiteak! Aitzineko denboretan Europa guzitik bidezkarriak (peregrinoak) etortzen ziren Galizian dagon Yon Done Yakueren (Santiagoren) gorputza agurtzera, eta zelaietatik eldu ziren bidezkarri oyek Ibañetako patarrak igaro ondoan ementxe gelditzen ziren; ementxe Ama Birjiñaren gerizpean arkitzen zuten atsain lekua, yanaria, berokia, sendagaiak...

galtzear dauden gure ohitura garbiak zaindu ditzala; egunetik egunera sartzen ari zaizkigun ohitura galgarriak honda ditzala! Adi ezazue bihotzekoak!

Aitzineko denboretan, kristauak moroen kontra gudu bizian bizi zirelarik, Nafarroako erregek gudura baino lehen, honexera etortzen ziren, eta Orreagako Ama Birjinaren aitzinean belaunikaturik laguntza eskatzen zioten; eta hola Birjina honen laguntzarekin indarturik etsaiak porrokatzen zituzten eta gero, garailari eskerrak ematera itzultzen ziren, mesede handiak egiten zizkioten eliza honi, bere garaikundearen ageriak hementxe uzten zituzten, hortxe dauden burdinazko kate horiek bezala.

Gu ere gudulariak, soldaduak gara gure arimen etsai, mundu, deabru eta haragiaren kontra gudu bizian bizi gara; etsai maltzurak, etsai beldurgarriak; guk ere eska diezaiogun bere laguntza Birjina honi eta bere laguntzarekin indarturik etsai guziak garaituko ditugu, eta honexera esker onez itzuliko gara eskerrak ematera; Birjina Mariaren bero indartsua beti laudatuko dugu.

Kristau maiteak! Aitzineko denboretan Europa guzitik bidezkarriak (peregrinoak) etortzen ziren Galizian dagoen Jondoni Jakueren (Santiagoren) gorputza agurtzera, eta zelaietatik heldu ziren bidezkarri horiek Ibañetako patarrak igaro ondoan hementxe gelditzen ziren; hementxe Ama Birjinaren gerizpean aurkitzen zuten atsegin lekua, janaria, berokia, sendagaiak... eta gero Ama

eta gero Ama Birjiñaren bedeikazioa artu
ondoan, kantari eta pozik beren bidean
segitzen zuten.

Gu ere bidezkarriak gara, zerurako bidean
gaude; bide luze, neketsu, patartsua;
bide untan maiz muturkatzen gara,
zauritzen, indergabetzen; guk ere arki
dezagun Birjiña unen gerizpean berokia,
sendagaia, atsain lekua, gero Ama unen
bedeikazioarekin indarberriturik, kantari
eta bozik, bide xuxenetik makurtu gabe,
zeruko bidean aitzinat goan gaitzen.
¡Nere kristauak!

Orreagako Eliz eta eritegi aipatua egin
zuen Santxo azkarrak, gorputzez aundi
eta biotzez aundiago zen errege arek, bere
gorputza il ondoan ementxe obiratua izan
zedin nai izan zuen; aurten du ain xuxen
zazpi eun urte ementxe bere emaztearekin
obiratua izen zela.

Eta bertze Nafarroko errege Karlos
bigarrenak, gorputzez ttipi baño biotzez
aundi izen zen onek, Europa guzia
bere izenarekin bete ondoan, iltzean
utzi zituen: bere biotza Uxueko Ama
Birjiñarentzat, bere gorputza Iruñako Ama
Birjiñarentzat, bere erraiak Orreagako
Ama Birjiñarentzat.

Guk ere bizirik gaudenean paratu dezagun
gure biotzez Orreagako Ama Birjiñaren
zainpean gure biotz gaxo au berak zaindu
dezan, bere Semearen maitasunez berotu
dezan munduko maitasun eta atsegin
zozoekin gal ez dayen.

Birjinaren bedeinkazioa hartu ondoan,
kantari eta pozik beren bidean segitzen
zuten.

Gu ere bidezkarriak gara, zerurako bidean
gaude; bide luze, neketsu, patartsua;
bide honetan maiz muturkatzen gara,
zauritzen, indargabetzen; guk ere aurki
dezagun Birjina honen gerizpean berokia,
sendagaia, atsegin lekua, gero Ama honen
bedeinkazioarekin indarberriturik, kantari
eta bozik, bide xuxenetik makurtu gabe,
zeruko bidean aitzinat joan gaitzen. Nire
kristauak!

Orreagako eliza eta eritegi aipatua egin
zuen Antso Azkarrak, gorputzez handi eta
bihotzez handiago zen errege hark, bere
gorputza hil ondoan hementxe hobiratua
izan zedin nahi izan zuen; aurten du hain
xuxen zazpi ehun urte hementxe bere
emaztearekin hobiratua izan zela.

Eta Nafarroako bertze errege Karlos
bigarrenak, gorputzez ttipi baina bihotzez
handi izan zen honek, Europa guzia
bere izenarekin bete ondoan, hiltzean
utzi zituen: bere bihotza Uxueko Ama
Birjinarentzat, bere gorputza Iruñeko Ama
Birjinarentzat, bere erraiak Orreagako
Ama Birjinarentzat.

Guk ere bizirik gaudenean paratu dezagun
gure bihotzez Orreagako Ama Birjinaren
zainpean gure bihotz gaixo hau berak
zaindu dezan, bere Semearen maitasunez
berotu dezan munduko maitasun eta
atsegin zozoekin gal ez dadin.

Eta zuk Orreagako Andre done Maria, gizonen zorion iturri izateko gaurko egunarekin mundura etorri zinen orrek, eta gero bi Nafarroetako zure umeen Ama eta Erregina izateko emen zure jarlekua yarri zinuen orrek, bedeika tzitzu zure umeok, aunitz bide luzea eginik zu ooratzegatik zure oñetan bildu diren zure umeok, bedeikatitzu beren etxe ta etxeokak, beren biotz eta animak. Izan zaite bai gure Ama ona, begira gaitzazu; geren ilun aldietan argi egiguzu, geren arriskueta esku emaguzu, geren bearretan lagun gaitzazu, erortzen garenean altxa gaitzazu, geren atsekabetan atsain gaitzazu... eriotzeko orduan artu gaitzazu.

O Birjiña Yaungoikoaren Ama eta gure Ama ona! Otoitz egiozu gure alde zure Seme Jainkoari bere eskeintze ederrak erdiestea merezi dezagun. Amen.

Eta zuk Orreagako Andre dona Maria, gizonen zorion iturri izateko gaurko egunarekin mundura etorri zinen horrek, eta gero bi Nafarroetako zure umeen Ama eta Erregina izateko hemen zure jarlekua jarri zenuen horrek, bedeinka itzazu zure umeok, aunitz bide luzea eginik zu ohoratzeagatik zure oinetan bildu diren zure umeok, bedeinka itzazu beren etxe eta etxeokak, beren bihotz eta animak. Izan zaitez bai gure Ama ona, begira gaitzazu; geren ilunaldietan argi egiguzu, geren arriskueta esku emaguzu, geren beharretan lagun gaitzazu, erortzen garenean altxa gaitzazu, geren atsekabeetan atsegin gaitzazu... heriotzako orduan hartu gaitzazu.

O Birjina Jaungoikoaren Ama eta gure Ama ona! Otoitz egiozu gure alde zure Seme Jainkoari bere eskaintza ederrak erdiestea merezi dezagun. Amen.

3.4 Ezaugarri nagusiak

3.4.1 *Sermoi bat nolakoa den*

Ez da hau tokia adierazteko sermoi bat nola prestatu behar den edo zein zati (nagusi edo txiki) izan behar dituen erabakitzeke. Han eta hemen kontsultatu ondoren, erraten ahal da sermoi baten zati nagusiak lau izan ohi direla: izenburua, sarrera, puntu nagusiak eta ondorioak. Zertxobait zabalduz aipatutako puntu horiek (lau izan beharrean zazpi izatea), hauexek lirarteke, azalpen eta guzi.

- a. Izenburua: azaldu beharreko gai nagusia izendatzen du.
- b. Gaia: pentsamendu orokorra, mezuaren oinarria izanen duena.
- c. Testua: paragrafo bat, txatal edo bertset bat edo haren zati bat...

- d. Asmoa: entzuleengan erdietsi behar den asmoa, zeina izaten ahal baita doktrinala, ebanjelizatzailea, sagaratzea, etikoa, animoa ematekoa...).
- e. Sarrera: erran behar da kongregazioa edo eliztarrak bildu direla Jaungoikoaren hitza entzuteko. Hartara, mezuaren edukiarekin lotuta egon behar du.
- f. Gorputza: puntu nagusiak eta azpi-puntuak ditu. Puntuen banaketak logikoa izan behar du, sermoiaren egia nagusia zuzen erakutsi nahi bada.
- g. Ondorioak: predikariak entzuleak konbentzitu behar ditu, haien bi-zietan Jaungoikoaren hitzaren mezua onartua izan dadin.

3.4.2 *Hiru sermoi nagusi*

Blas Fagoagak idatzitako lanen artetik hiru sermoi aukeratu dira, 1927an Berroetan, 1932an Elizondon eta 1934an Orreagan eginak¹⁴.

Lehena, Berroetan (Baztan) egindakoa, Euskararen Adiskideen Bestan, 1927ko uztailaren 3In. Egun seinalatua, batetik, uztailaren 3I –San Ignazio eguna–, eta, bertzetik, euskararen adiskideen besta ospatzen zelakotz.

Bigarrena, Elizondon (Baztan) egina, 1932ko buruilaren 4an, Haur Euskaldunaren Egunean.

Eta, hirugarrena, Orreagako Kolegiatan egina, Andre Mariaren Sortze-egunean (Solbezio-egunean), 1934ko buruilaren 8an.

3.4.3 *Baztango euskara (“eskuara”)*

3.4.3.1 *Kokapena*

Baztan (edo Baztango harana edo ibarra) Nafarroako ipar-mendebaldean dago. Nafarroako udalerririk handiena da eta bere lurretan 15 herri daude, lau “kuartel” edo eskualdeetan antolatuak: Baztangoiza (Amaiur, Arizkun,

¹⁴ Ez dira Blas Fagoagak eskribitu zituen bakarrak. Bai, ordea, osorik idatzirik gordetzen eta luzeraz eta garrantziaz azpimarratzeko modukoak direnak.

Azpilkueta eta Erratzu), Elizondo (Elizondo, Elbete, Gartzain eta Lekaroz), Erbera (Arraioz, Irurita eta Oronoz) eta Basaburua (Almandoz, Aniz, Berroeta eta Ziga). Iparraldean muga egiten du Nafarroa Garaiko Urdazubi eta Zugarramurdirekin eta Lapurdiko Ainhoa, Ezpeleta, Itsasu, Sara eta Senpererekin. Ekialdean ditu Nafarroa Behereko Aldude, Banka, Baigorri, Bidarra eta Urepel. Mendebalean, Nafarroa Garaiko Bertizarana, Donamaria eta Etxalar eta, azkenik, hegoaldean, Nafarroa Garaiko Anue, Erroibar, Esteribar, Lantz eta Ultzama.

3.4.3.2 *Euskararen egoera*

Pello Salabururen eta Maite Lakarren arabera,

“...euskarak, batez ere, herri ttipienetan, bizirik iraun du. Elizondon ere biztanle gehienak euskaldunak izan dira beti, nahiz karrketan gutiago aditzen den (euskara).” Hala, “azken berrogei urteetan gertatu den bizimoduaren aldaketak berarekin batera ekarri du (...) erdara indartzea, alde batetik. Bertzetik, euskarak berak ere belaunaldi berrietan goiti egin badu, eta inoiz ere ibilia izan ez den tokietan (hez-kuntzan, komunikabideetan, administrazioan...) batasunera jo du, berdintze aldera, hola, bertze tokietan egiten den mintzoarekin”. (Salaburu eta Lakar 2005: 3)

Ildo beretik, erraten ahal da aunitz aldatu dela hizkera azken urteotan eta, Baztani dagokionez, joera horrek indar handiagoa erakutsi du, Baztanen Euskal Herriko hainbertze tokitan bezala, aldaketa sozial gaitza gertatu delakotz azken urteetan. Hartara, jendearen harremanak arrunt aldatu dira, lehenago Iparraldeko herritarrekin izan ohi zirenak pittaka hautsiz joan dira eta baztandarrak, eskuarki, gaur ez daude Iparraldera begira. Eta horrek guziak eragin ere du hizkeran: baztandarren euskara ez da gaur den egunean baztanera-lapurtera, baztanera-nafarrera da; gero eta nafarragoak dira alderdi horretatik begiratuta (Rekalde 2022: 23).

3.4.3.3 *Baztango mintzoa eta inguruko euskalkiak eta hizkerak*

Baztango mintzoak aski batasun handia du I5 herrietan. Luis Luziano Bonapartek bere garaian zalantzak izan bazituen ere non kokatu Baztango mintzoa, azkenean iparraldeko nafarreraren azpieuskalkitzat jo zuen.

Zenbait urte geroago, 2019an, Koldo Zuazo hizkuntzalariak euskara nafarraren barnean kokatu zuen Baztango euskara, euskalki horren tarteko hizkera gisa, erran nahi baita, euskara nafarraren eta euskara nafar-lapur-tarraren artean (www.euskalkiak.eus).

Eta Baztanen barnean, zer? Hona zenbait desberdintasun (Salaburu eta Lekar 2005: 5-6):

- a. Oronoz aldeko hizkerak ahaire handia du Bertizarana, Malerreka eta Bortzerrietako mintzoarekin.
- b. Baztango Basaburuko eta Oronozko hizkerak baditu berezitasun batzuk, Nafarroako hizkerekin lotzen dituztenak.
- c. Lekarozen hitanoaren presentzia handiagoa da gainerako herrietan baino.
- d. Baztango mintzoaren eta Urdazubikoaren eta Zugarramurdikoaren arteko aldeak ez dira hain handiak, gehienbat hiztegiko kontuak dira eta maiz frantsesaren eta espainieraren eraginen ondorio.

3.4.4 Sermoiien bizkuntza azterketa

3.4.4.1 Sermoiien bizkuntzak: euskara eta latina

Liburu honetan aztergai ditugun hiru sermoiak nagusiki euskaraz eskribituta daude. Hala ere, latinez idatzitako pasarte labur batzuk daude eta, ondoan, gehienetan euskarazko itzulpena, ez hala ere beti hitzez hitzkoa. Hona hemen hiru sermoietatik hartutako zenbait adibide (kopuruz gehiago dira Berroetakoa, gutiago Elizondokoa eta baten batzuk, berriz, Orreagakoa):

- a. Berroetako sermoia (1927)
 - *in coelum conscendam*, iganen naiz zeruaren gain-gainera
 - *supra astra Dei exaltabo meum*, eta han nire tronua ezarriko dut
 - *similis ero altissimo*, Jaungoikoaren pare izanen naiz
 - *non serviam*, ez zaitut zerbitzatuko
 - *quis sicut Deus*, nor Jaungoikoa bezala
 - *crede fortiter et pecca fortius*, sinets ezazu azkarki eta bekatu egizu lasaiki
 - *omnia ad majorem Dei gloriam*, dena Jaungoikoaren gorabiderako

- *amplius*, gehiago
 - *quid prodest et...?*, zer probetxurako eta ...
 - *Sancte Michael Archangele defenda nos in praelio!*, Migel, Migel gurea, zaindu, zaindu Euskal Herria!
- b. Elizondoko sermoia (1932)
- *Piisima Vasconum gens*, euskaldunen jende jainkotarra
 - *videte*, begira ezazue
 - *laudate pueri dominum*, lauda ezazue Jesus zuen ongile handia
- c. Orreagako sermoia (1934)
- *cum jucundita Nativitatem etc ... celebremus ut ...*, atseginez zelebraz dezagun Birjina Mariaren sortzea
 - *salve Sancta Parens etc ...*, agur Ama Saindua

3.4.4.2 Sermoiaren euskararen hizkuntza-azterketa

Sermoiaren euskararen hizkuntza aldetik aztertzeko, *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* (2005) lana baliagarri izan zaigu. Azalpen teoriko labur horiek baieztatzeko, sermoietara jo dugu¹⁵.

3.4.4.2.1 Fonetika eta Fonologia

Baztango mintzoaren bokal-sistema eta gainerako euskalkiena, zuberera ez bertze, berberak dira. Bokalak 5 dira: <<*i, e, a, o, u*: “ari”, “eri”, “alaba”, “ero”, “ura”>>. Bokal “garbi” horiez gainera, izan badira inguruko bertze bokal batzuen ebakitzeak sortutakoak. Erraterako, “etxia” formako *i* bokala ez da artikulazioaz eta akustikaz “ari” formako *i* bokala bezalako; jatorrizko *e* bat *i* bihurtu da ondoko *a* bokalaren eraginez. Edo “astua” formako *u* bokala ez da *u* bokal garbia; jatorrizko *o* bat *u* bihurtu da ondoko *aren* eraginez.

¹⁵ Egitura orokorra, hauex: sarrera letra arruntean, gero jatorrizko hitza, letra etzanean, eta sermoiaren kodea. Adibideak: ahaide: ahaideei (*aideei* SI934); horretarako: (*ortarako* SI927).

Baztango mintzoaren kontsonante-sistema “garbia” da, frikari eta afrikatu multzoak garbi bereizten dituztelako, eskuarki, baztandarrek. Ongi samar bereizten dira, erraterako, *atzo* eta *atso*, *etzi* eta *betsi*, *bazi* eta *hasi*, *hotz* eta *hots*...

tt, *dd*, *ñ* eta *ll* kontsonante sabaikariak arruntak (izan) dira Baztango mintzoan: *ttantta*, *Maddalen*, *oñaze* (“oinaze”, idatziz), *ollo* (“oilo”, idatziz). Nolanahi ere, erran dezagun azken aldiotan erabilera hori aldatzen ari dela gazteen artean eta *ll* eta *dd* y bat balitz bezala ahoskatzen direla. Erraterako: *maya* (“maila”, idatziz), *Mayalen* (“Maddalen”, idatziz).

Eta zer erran *j*-ren ahoskeraz? Arruntak dira gurean *yainko* (“jainko”, idatziz), *Yaungoiko* (“Jaungoiko”, idatziz), *yo* (“jo”, idatziz), *yan* (“jan”, idatziz). Gaztelaniatik hartutako hitzetan, gaztelaniaz duten ahoskera berbera ematen zaie *jertse*, *jerez*, *jesuita*... hitzei. Ez dira *yertse*, *yerez*, *yesuita*, *yolines*... ahoskatzen. Berdin gertatzen da *Juan* eta *Josefa* hitzekin ere (ez dira gurean *Yuan* eta *Yosefa*).

Bertzalde, *b*-rik ez du eskuarki aurkituko irakurleak sermoietan, XX. mendean lehen herenean ez baitzegoen oraino arautua *b*-aren erabilera euskaraz.

Sermoietakoa adibideak¹⁶:

- a. Sistematikoki ez du *b*-rik ibiltzen.
 - ahaide: ahaideei (*aideei* SI934).
 - ahaztu: ahaztera (*aztera* SI932).
 - aho: ahoak, ahoan, ahotan (*aoak* SI932; *aoan* SI932; *aotan* SI927).
 - bizpahiru: bizpahiru, bizpahiruren (*bizpairu* SI932; *bizpairun* SI927).
 - dohain: (*doai* SI927, SI934).
 - gehiago: (*geiago* SI932, SI934; *geyago* SI927, SI932).
 - gehien: gehienetan (*geyenetan* SI927, SI932).
 - han: (*an* SI927).
 - handinahi: handinahiak (*aundi nayak* SI927).
 - handitasun: handitasuna (*aunditasuna* SI927, SI932).
 - handitu: handituz, handitu eta berratu dadin: (*aundituz* SI927; *aunditu eta berratu dayen* SI934).
 - harat: (*arat* SI934).
 - harateko: (*arateko* SI927).

¹⁶ SI927: Berroetako sermoia (1927). SI932: Elizondoko sermoia (1932). SI934: Orreagako sermoia (1934).

- hartu: har, hartu, hartuko, hartzen, ar genitzan (*artu* SI927; *ar* SI932; *artuko* SI927, SI932; *artzen* SI927; SI932; *ar genetzan* SI932).
 - herri: herria, herrietatik (*erria* SI927; *erritik* SI927; *errietaik* SI927; *errietatik* SI932).
 - hil: hil, hila, hiltzean, hiltzen, hiltzen balitz (*il* SI927, SI932; *ila* SI927, SI932; *ile* SI932; *iltzean* SI934; *iltzen* SI932; *iltzen balitz* SI932).
 - hobe izan: hobe baituzu eskumotz edo zangomotz (*obe baituzu eskumotz edo zangomotz...* SI932).
 - hogeita hamahiru: (*ogeitamairu* SI927).
 - hola: hola, hola-hola, holako (*ola* SI934; *ola ola* SI932); *olako* SI927, SI932, SI934).
 - hondatu: honda ditzala (*onda ditzala* SI934).
 - horra: horra, horra nola Ignaziok garaitu zien etsaiei (*orra* SI932; *orra nola Ignaziok garaitu zituen etsaiay* SI927).
 - horretarako: (*ortarako* SI927).
 - horretarik: (*ortarik* SI932).
 - lehen: lehen, lehenago (*leen* SI934; *lenago* SI927).
 - lehenbizi: lehenbizian, lehenbiziko (*lenbizian* SI927; *lenbiziko* SI927, SI932, SI934).
 - lehen: lehen-lehenik (*len-lenik* SI932).
 - lohi: lohi, lohiak (*loi* SI927; *loiak* SI934).
 - ohitura: (*oitura* SI927, SI934; *oiture* SI927, SI932).
 - ohoragarri: ohoragarria, ohoragarriak (*ooragarria* SI934; *ooragarriak* SI934).
- b. Kontsonante afrikatuak (*tz, ts, tx*) eta igurzkariak (*z, s, x*) zuzen berreizten dira.
- ahaltzu: ahaltsua, ahaltsuetatik (*aaltsua* SI934; *aaltsuetatik* SI934).
 - ahuspeztu: ahuspezturik, ahuspeztuz (*auspezturik* SI927; *auspeztuz* SI932).
 - behartsu: (*beartsu* SI932).
 - bihotz: bihotz, bihotzak, bihotzekoak (*biotz* SI932, SI934; *biotzak* SI927; *biotzekoak* SI927, SI934; *biotzekuak* SI932).
 - hainbertze, hainbertzeko: (*ainbertze* SI927, SI932; *ainbertzeko* SI927).
 - haritz: (*aritz* SI932).
 - harritzeko: (*arritzeko* SI927).
 - harropuztu: harropuzturik (*arropuzturik* SI927).

- haserre: (*aserre* SI932).
 - hasi: hasi, hasten (*asi* SI932; *asten* SI927, SI932).
 - hasiera: (*asiera* SI932).
 - hasmenta: (*asmenta* SI927, SI932).
 - hautsi: (*autsi* SI927).
 - hauxe: (*auxe* SI927, SI932).
 - hazi: (*azi* SI927, SI932).
 - heriotza: (*eriotza* SI934; *eriotz* SI934).
 - hezi: (*ezi* SI932).
 - hitz: hitz, hitza, hitzak, hitzik, hitzotan (hitz hauetan) (*itz* SI932; *itza* SI927; *itzak* SI932; *itzik* SI927; *itzotan* SI932).
 - hots: hotsak (*otsak* SI934).
 - huts: hutsak, hutsean (*utsak* SI927; *utsean* SI927).
 - mehatxu: mehatxuak (*meatxuak* SI932).
 - saihets: saihetsetik (*saietsetik* SI932).
 - xahutu: xahutuko (*xautuko* SI927).
 - zahar: zaharrekin (*zarrekin* SI927).
- c. Bokal arteko *b*-a batzuetan *g* bilakatzen da.
- aho: ahoan (*agoan* SI927).
- d. *ez* partikula berezia da: ondoko kontsonanteak *z*-ren ahoskabetasuna asimilatzen du ahoz.
- ez baduzue: (*ezpaduzue* SI932).
 - ez baitio: (*ezpaidio* SI932).
 - ez bazarete: (*ezbazerate* SI932).
 - ez ezazuela: (*etzazuela* SI932).
 - ez zaitut: (*etzaitut* SI927).
 - ez zarete: (*etzarete* SI932; *etzerate* SI932).
 - ez zela: (*etzela* SI927).
 - ez zen: (*etzen* SI927).
 - ez zuen: (*etzuen* SI934).
 - ez zuten: (*etzuten* SI932).
- e. Asimilazioa eta disimilazioa.
- Hitz arruntei *-a* artikulua gaineratzen zaielarik, zenbait aldaketa gertatzen da Baztanen. Ez, ordea, Malerrekan eta Urdazubi-Zugarra-murdietan (gehienetan).

- *a* soinua *e* bihurtzen da, aitzinetik *i* edo *u* bokalak baldin baditu. Erraterako: *barri* + *a* > *barrie*; *belai* + *a* > *belaie*; *zerritegi* + *a* > *zerriteie*... Nolanahi ere, B. Fagoagak ez du beti erregela hori betetzen.
 - atsegin: atsegina (*atsegiña* SI934; *atsaie* SI932).
 - dira: (*dira* SI934; *dire* SI927, SI932, SI934).
 - eskaintza: (*eskeintza* SI934; *eskeintze* SI934).
 - gauza: (*gauza* SI932; *gauze* SI927).
 - handia: (*aundia* SI927, SI932; *aundie* SI927, SI932).
 - ikaragarri: ikaragarria (*ikaragarrie* SI927).
 - hil: hila (*ila* SI927, SI932; *ile* SI932).
 - hura: hura, hura sinets eta hura egin (*ura* SI927; *ure sinets eta ure egin* SI927).
 - mila: (*mile* SI932, SI934).
 - negargarri: negargarria (*nigergarria* SI932; *nigergarrie* SI932).
 - pozgarri: pozgarria (*pozgarria* SI934; *pozgarrie* SI934).
 - sinesmengabekeria: (*sinesmengabekeria* SI927; *sinesmengabekerie* SI927).
- *o* eta *e* bokalak *u* eta *i* bilakatzen dira *a* artikulua aitzinean daudelarik. Erraterako: *lerro* + *a* > *lerroa*, *lerrua*; *etxe* + *a* > *etxea*, *etxia*... Nolanahi ere, B. Fagoagak ez du beti erregela hau betetzen.
 - aitzineko: aitzinekoak (*aitzinekoak* SI932; *aitzinekuak* SI932).
 - alabatto: alabattoa (*alabattua* SI932).
 - asto: astoekin (*astuekin* SI932).
 - bihotz: bihotzekoak (*biotzekoak* SI927, SI934; *biotzekuak* SI932).
 - ebasko: ebaskoari (*ebaskuari* SI932).
 - gaixo: gaixoak (*gaixuak* SI932).
 - gaizto: gaiztoak (*gaixtuek* SI927).
 - gosete: goseteak (*gosetiak* SI932).
 - haur multzo: haur multzoak (*aur multzuak* SI932).
 - haurtto: haurttoak (*aurttuak* SI932).
 - haurtxo: haurtxoa (*aurtxua* SI932).
 - hau: honetan (*untan* SI927, SI932, SI934; *untan* SI927, SI934).
 - Jaungoiko: Jaungoikoaz, Jaungoikoak (*Yaungoikoaz* SI932; *Yaungoikuak* SI927).

- ondo: ondoan (*onduan* SI932).
- ordeko: ordekoa (*ordekua* SI932).
- otso: (*otsu* SI932).
- Trento: Trentokoan (*Trentokuan* SI927).
- *a* artikulua *e* bihurtzen da *i* eta *u* bokalen ondoren, berehala heldu bada edo tartean kontsonante bat edo biga (ahoz, *bide*) baldin badira. Erraterako: *aita* + *a* > *aita* > *aite*; *lagun* + *a* > *la(g)una* > *la(g)une*.
- aditua: (*aditue* SI927).
- mundu: mundua, mundua deino (*mundue mundu deño* SI927).
- zabaldu: zabalduak (*zabalduek* SI927).

f. Bustidura arauak

Baztanen bi palatalizazio egiten dira: automatikoa (ahoskatzeak sortua) eta erregistroak sortutakoa, mintzatzeko manera aldatu delakotz. Erraterako: *gain* > *gaiñ*; *hartu* > *barttu*, *battu*.

d, *t*, *l* eta *n* soinuak *i* bokalaren inguruan daudelarik gertatzen da. Erraterako: *egundaino* > *egundaiño* > *egundaño*; *aita* > *aitta* > *atta*; *hil* > *hilla*; *baina* > *baiña* > *baña*.

Euskalkietan bi aukera hauek ditugu: *hil* + *a* > *hilla* edo *bila*; *arin* + *a* > *ariña* edo *arina*; *gain* + *a* > *gaña* edo *gaina*. Baztanen bi joerak ditugu. Erbereko Oronozen eta Arraiozen eta Basaburuan bustidurak arruntak dira; gainerako herrietan, berriz, erdizka gertatzen dira.

- baina: (*baña* SI934).
- baino: (*baño* SI927, SI932).
- birjina: (*Birjiña* SI934).
- buruil: buruilaren (*buruilaren* SI932; *buruillaren* SI932).
- edozein: edozein, edozeinek (*edozein denboretako* SI927; *edozeñek* SI932).
- erregina: (*erregin* SI932, SI934; *erregiña* SI934).
- eskuin: eskuineko (*eskuñeko* SI927).
- ezina: ezina (*eziña* SI932).
- gain-gainera: gain-gainera (*gain gaiñera* SI927).
- gain: gainean (*gañean* SI927).
- gaineko: gainekoen (*gañekoen* SI927).
- gainezka: (*gañezka* SI927).
- grina: (*grña* SI927, SI932).

- ilargi: ilargia (*illargia* SI934).
- inor: (*iñor* SI927).
- jakina: (*yakine* SI927).
- jantzi: jantzia (*yantzie* SI927).
- maila: mailara (*mallara* SI927).
- marinel: marinelak (*mariñelak* SI927).
- mila: (*mile* SI932, SI934).
- oinaze: (*oñaze* SI934).
- oin: oinetan (*oñetan* SI932, SI934).
- orainik: (*orañik* SI934; *oñik* SI932).
- ordain: ordainez (*ordañez* SI934).
- soineko: (*soñeko* SI927).
- soinu: (*soñu* SI927).

3.4.4.2.2 Morfologia (Deklinabidea)

Sermoietako adibideak

3.4.4.2.2.1 Jende izenak

Gaztelaniazko eta euskarazko idazkera ageri da sermoieta jende izenetan. Nolanahi ere, maizago ikusiko ditugu gaztelaniazkoak, euskararen gaur egungo ortografiara egokitu gabeak.

- Ana: (*Santa Ana* SI934).
- Antso: (*Santxo azkarrak* SI934).
- Bizente Paul: (*Vicente Paul* SI932).
- Bosko: (*Dom Bosko* SI932).
- Eva: (*Ebaren* SI934).
- Frantzisko Xabier: (*Francisco Jabier* SI927).
- Henrike: (*Enrique* SI927).
- Ignazio: (*Ignazio* SI927; *Ignacio* SI927).
- Jakue: (*Yon Done Yakueren [Santiagoren]* SI934).
- Jeronimo Emiliano: (*Jeronimo Emiliano* SI932).
- Jesus: (*Jesus* SI927, SI932).
- Joakim: (*San Joaquin* SI934).

- Joan: (*Juan* SI932).
- Jose Kalasantz: (*Jose Kalasanz* SI932).
- Julia: (*Julia* SI932).
- Krisostomo: (*Krisostomo* SI932).
- Kruz: (*Kruz* SI927).
- Lutero: (*Lutero, Luteroin* SI927).
- Migel: (*Migel* SI927; *Miguel* SI927).
- Petri: (*Pedro* SI932).
- Popea: (*Popea* SI932).
- Teresa: (*S. Teresak* SI934).
- Tertuliano: (*Tertuliano* SI932).
- Xabier: (*Jabier* SI927).
- Yair: (*Yair* SI932).

3.4.4.2.2 Leku izenak

Bereizi beharrekoak ditugu bokalez akitzen diren leku-izenak (*Azpilkueta, Berroeta, Erratzu, Elbete, Elizondo, Irurita, Ziga*) eta kontsonantez akitzen direnak (*Almandoz, Amaiur, Aniz, Arizkun, Arraioz, Gartzain, Lekaroz, Oronoz*). Leku-denborazko kasuetan aldaketa gertatzen ari da kontsonantez (-n, -r, -z) akituta-koetan. Orain arte ia bakarrak izan diren *Almandoza, Amaiurra, Aniza, Arizkuna, Arraioza, Gartzaina, Lekaroz* eta *Obarriza* formez gainera, gaur den egunean gero eta maizago entzuten dira *Almandozero, Amaiurrera, Anizera, Arizkunera, Arraiozero, Gartzainera, Lekarozera* eta *Obarrizera*. Berdin gertatzen da ablatiboekin (-tik): *Almandoztik / Almandozetik; Amaiurtik / Amaiurretik; Aniztik / Anizetik; Arizkundik / Arizkunetik; Arraioztik / Arraiozetik; Gartzaindik / Gartzainetik; Lekaroztik / Lekarozetik* eta *Obarriztik / Obarrizetik*.

Gaztelaniazko eta euskarazko idazkera ageri da sermoietako leku izenetan. Nolanahi ere, maizago ikusiko ditugu gaztelaniazko idazkerak urruneko leku izenetan. Hurbilekoak, berriz, euskaraz idatzita ageri dira eskuarki.

- Abruzzo: (*Abruzio* SI932).
- Alemania: (*Aleman* SI927).
- Alcalá: Alcalán (*Alkalan* SI927).
- Auritz: Auritzetatik (*Auritzetatik* SI934). *Auritzez* eta *Aurizperriz* ari da Fagoaga.
- Bartzelona: Bartzelonan (*Barzelonan* SI927).

- Basaburua: Basaburua, Basaburuan (*Basaburua* SI927; *basaburuan* SI927). Sermoietan ageri den Basaburua Baztango lau eskualdeetako bat da.
- Baztan: Baztandik (*Baztandik* SI934).
- Baxenabarre: Baxenabarretik (*Benabarratik* SI934).
- Berroeta: (*Berroeta* SI927).
- Elizondo: Elizondoko, Elizondon (*Elizondoko* SI932; *Elizondon* SI932).
- Erroma: Erromako (*Erromako* SI932).
- Erro: Errotik (*Errotik* SI934).
- Errusia: (*Rusia* SI932).
- Espainia: Espainian (*Españan* SI927).
- Galizia: Galizian (*Galizian* SI934).
- Gaztela: Gaztelakoaren (*Kastillakoaren* SI927).
- Ibañeta: Ibañetako (*Ibañetako* SI934).
- India: Indietan (*Indietan* SI927).
- Ingalaterra: Ingalaterran (*Inglaterran* SI927).
- Iruñea: Iruñeko, Iruñean (*Iruñako* SI932, SI934; *Iruñako Ama Birjiñarentzat* SI934; *Iruñan* SI927).
- Montserrat: Montserrateko (*Montserrateko* SI927).
- Nafarroa: Nafarroetako, Nafarroako, Nafarroan (*Nafarroetako* SI934; *Nafarroako* SI927; *Nafarran* SI927; *Nafarrogo* SI934).
- Orreaga: Orreagako, Orreagaren (*Orreagako* SI934; *Orreagako Ama Birjiñarentzat* SI934; *Orreagako Andre dona Maria* SI934; *Orreagaren* SI934).
- Paris: Parisen (*Parisen* SI927).
- Roncesvalles > Orreaga.
- Salamanca: Salamancan (*Salamankan* SI927).
- Santiago: (*Santiago* SI932).
- Suitza: Suitzan (*Suizan* SI927).
- Trento: Trentokoan (*Trentokuan* SI927).
- Txina: Txinako (*Txinako* SI932).
- Uxue: Uxueko (*Uxueko* SI934; *Uxueko Ama Birjiñarentzat* SI934).

3.4.4.2.3 Erakusleak

Hiruko sistema du Baztango euskarak: singularrean, *bau*, *boi* eta *bure* (edo *bertze bure*), eta pluralean *hok*, *hoiek* eta *hek* (edo *bertze hoiiek*). Nolanahi ere, lehen

pertsonakoetan zenbait aldaketa fonetiko gertatzen dira, hala nola lehen pertsonakoetan Baztanen arruntak dira *bunek, buni, bunen, bunena, bunendako...* formak eta ez *honek, honi, bonen, bonena, bonendako...* Gertaera horrek Iparraldeko mintzoetara hurbiltzen du baztanera. Era berean, arruntak eta ia bakarrak dira bokalen artean *-k-* bat sartuta ditugun formak: *boken, bokena, bokendako, bokin, boketara, boketaraño...* eta ez *hauen, hauena, hauendako, hauekin, hauetara, hauetaraino...*

Aipatutako forma berezi horiek guziak ageri dira sermoietan: *ok* (hauek), *oken* (hauen), *okin* (hauekin), *okengatik* (hauengatik), *otan, oketan* (hauetan), *otarik* (hauetarik), *oketaz* (hauetaz), *untan, unten* (honetan), *untara* (honetara), *uni* (honi)...

- haiek: *haiek, haien, haietako, haietan, haietaz* (*ayek* SI927; *eken* SI932; *aietako* SI932; *aietan* SI932; *aietaz* SI932).
- hark: (*arek* SI927, SI932).
- hau: *hau, hauek, hauekin, hauen, hauen guzien, hauengatik, hauetan, hauetarik, hauetaz* (*au* SI927, SI932; *ok* SI927, SI932; *okin* SI927; *oken* SI927, SI932; *oken guzien* SI927; *okengatik* SI932; *otan* SI927, SI932; *oketan* SI927; *otarik* SI932; *oketaz* SI932).
- honetan, honetara, honi: (*untan* SI927, SI932, SI934; *unten* SI927, SI934; *untara* SI932, SI934; *uni* SI927, SI934).
- hori, horiei, horiei behar zaie burua argitu, horiek, horietarik: (*oi* SI927, SI932; *oiei* SI927, SI932; *oiei bear zaie burua argitu* SI927; *oiek* SI927, SI932, SI934; *oyek* SI927, SI932, SI934; *oietarik* SI927).
- hura, hura sinets eta hura egin: (*ura* SI927; *ure sinets eta ure egin* SI927).

3.4.4.2.2.4 Aditz izena eta osagarri zuzena genitiboan

Aditz-izenaren osagarria absolutiboan edo genitiboan ematen da Ekialdeko euskalkietan. Baztan ere bide beretik jotzen dugu edo jo izan dugu oraintsu artio. Arruntak dira *atzo izan ginen ardien kustera larrean* moduko esaldiak, hau da, *atzo izan ginen ardiak larrean ikustera*.

- lan: *lanan bati hasmenta eman* (*lanan bati asmenta edo buru ematerakoan* SI932).
- landa: *landen bat ereiteko* (*landen bat eriteko* SI932).

3.4.4.2.3 Morfologia (Aditza)

Zertzelada labur batzuk emanen dira hemen. Jakina da euskalkiak badituela tratamenduko erregistro bat baino gehiago eta ez denak euskalki guzietan ibiliak. Baztanen gaur den egunean erregistro neutroa (*izan gara*) eta hikako alokutiboa (*bartu duk edo dun*) ibiltzen dira eta, denboraz, *berorika* edo *borreka* izeneko tratamendua (*berorrek* edo *borrek erran du*, apezari-eta zuzentzeko ibilia).

Hau ez da tokia Baztango aditz-formak xehe-xehe emateko (ikus horretarako, bertzeak bertze, Salaburu eta Lakar, 2005).

Sermoietatik hartu dira euskara batuko formatatik urruntzen diren aditz-formak, dela aldaketa fonetikoak gertatu direlako, dela Ekialdera jotzen dutelako, dela gipuzkerazko edo lapurterazko formak direlako...

Sermoietako adibideak:

- a. *ba-* + aditz laguntzailea
 - *badoa*, *badoaz*: (*badoaye* SI927; *badoazi* SI932). Baztan-Bidaso osoko fenomeno da.
- b. *bait-* + aditz laguntzailea
 - *baitzekien*: (*baizekien* SI927).
 - *baitziren*: (*bai ziren* SI932).
 - *baitzituzten*: (*bai zituzten* SI932).
 - *baitzuten*: (*baizuten* SI934).
- c. Iparraldeko mintzoetara hurbiltzen duten aditz-formak
 - *digu*: *digu*, *digute*, *digun*, *digunez*: (*daku* SI932, SI934; *dakute* SI932; *dakun* SI934; *dakunez* SI932).
 - *dit*: *didana* (*datana* SI927).
 - *dizkizu*: *dizkizue*, *dizkizula* (*dazkitzue* SI932; *dazkitzula* SI927).
 - *dizut*: *dizudan*, *dizuet*, *dizuete*, *dizut*: (*datzuten* SI927; *datzuet* SI932); *datzuate* SI932; *datzut* SI932).
 - *zigon*, *zizkigun*: (*zakun* SI932; *zazkun* SI934).
- d. Gainerako aditzak
 - d.I Orainaldia
 - *dabiltza*: *dabiltzan* (*dabiltzen* SI927, SI932).
 - *dago*: *dagoen* (*dagon* SI932, SI934).
 - *darabilgu*: (*darabilegu* SI932).

- daukazue: (*daukezue* SI927).
- dauzka: dauzkana (*dauzkana* SI934).
- den: (*den* SI927, SI932; *dan* SI932). Baztanen bitxia da *dan* forma.
- diegu: (*diegu* SI932; *dieztegu* SI934).
- dio: dioen, dioenez (*dion* SI934; *dionez* SI927).
- dira: dira, diren (*dira* SI934; *dire* SI927, SI932, SI934; *diran* SI932).
- dituzte: dituzten (*dituten* SI932).
- dizkio: dizkion, dizkiogu (*dition* SI927; *ditiogu* SI934).
- doaz: doazen (*doazin* SI927).
- dute: (*beren urtebetetzean oroitzapen zerbait egiten dute* SI934).
- gara: (*gare* SI934). Baztanen *gara* da arrunta.
- natzaizue: (*nazaitzue* SI927). Hitz ikasia.
- zaie: (*zaye* SI927, SI932).
- zait: zaidana (*zaitana* SI927).
- zaizu: (*zaitzu* SI932).
- zakizkion: (SI932).
- zarete, zareten: (*zate* SI932; *zaten* SI927).

d.2 Lehenaldia

- genituen: (*gintuen* SI927, SI932).
- zebilen: zebilen, zebilelarik (*zabilen* SI927; *zabilen* SI927; *zebillelaik* SI932).
- zegoen: (*zagon* SI932; *zagona* SI927; *zegola* SI932). Lehenaldiko formetan *a* ageri da *e*-ren tokian, hots, *zago(e)n zegoen*-en tokian.
- zekiten: (*zakiten* SI932). Ikus *zegoen*.
- zenigun: zeniguna (*zinakuna* SI934).
- zenuen: (*zinuen* SI934).
- zeuden: (*zauden* SI932). Ikus *zegoen*.
- zeukan: zeukana, zeukaten (*zaukana* SI927; *zeukaten* SI934). Ikus *zegoen*.
- zitzaion: (*zitzaion* SI932).
- zizkioten: (*zitzioten* SI932, SI934).

d.3 Baldintza

- iltzen balitz: (SI932). Iparraldeko euskal mintzoetan arrunta. Adinekoen artean bereziki erabilia *bilen balitz*-en orde.

d.4 Ahalera

- daitezke: daitezkeen (*daizken* SI927).
- diezaiekezue: diezaiekezuen (*dezaiekezuen* SI932).
- liteke: (*liteke* SI934; *laiteke* SI934; *leiteke* SI927).
- zitekeen: (*zaitkeen* SI932).

d.5 Agintera

- bezate, bitzate: (*bezate* SI927, SI932; *bitzate* SI932).
- daitezela: (*daitzila* SI927).
- demagun: (*emagun* SI927).
- egizu, egizue: (*egizu kontu* SI927; *egizue* SI927, SI932).
- ezadazue: (*erran zadazue* SI932).
- ezaiozu, ezaiezu: (*zayozu* SI932; *zaiezu* SI932).
- ezazu, ezazue: (*zazu* SI927; *zazue* SI932).
- goazen: (*goazin* SI934).
- itzazu, itzazue: *itzazu*, *bedeinka itzazu*, *itzazue* (*itzatzu* SI932; *bedeika tzitzu* SI934; *bedeikatitzu* SI934); *itzazue* SI932; *tzitzue* SI932; *tzizue* SI932).
- zaitetz, zaitetzte: (*zaitte* SI932; *zaitte* SI927, SI932).
- zatoz: (*zato* SI932).
- ziezaiotela: (*zezaiotela* SI932).

d.6 Subjuntiboa

- dadin: dadin, gal ez dadin: (*dayen* SI934; *gal ez dayen* SI934).
- diezaieten: (*dezaieten* SI932).
- diezaiogun: (*eman diotzagun* SI934; *erran diotzagun* SI934).
- gaitezen: (*gaitezen* SI932; *gaitzen* SI934).
- genezan: (*egin genezan* SI932).
- genitzan: (*genetzan* SI932).

3.4.4.2.4 Hiztegia

Baztango mintzoaren hitzak eta erramoldeak (aunitz) bilduta daude zenbait argitalpenetan. Berriena *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* (2005) da, Fagoagaren lan honetan maiz aipatu dena. Liburu hartan bildutako hitzek-eta oinarri nagusi bat izan zuten, Mariano Izetaren *Baztango Hiztegia* (1996), atzendu gabe Resurreccion Maria Azkuek *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1906) lan

zabalean bildu zituen hitzak (eta horien artean Amaiurko Juan Bautista Gorosurreta apezak bildutakoak).

Nolanahi ere, erran behar da sermoietan denetarik dagoela: Baztanen usu ibiltzen diren hitzak, arrunt arrotzak direnak, bertze euskalki batzuetakoak, neologismoak, inongo hiztegitan aurkitu ez ditugunak...¹⁷

Sermoietakoa adibideak¹⁸:

- abere: abereak (*abreak* SI932). Zaldia edo behorra Baztanen eta inguruetan. Gainerakoak animaliak dira.
- adierazi: adierazi, adierazteko, adierazten (*adiazi* SI927; *adiazteko* SI932; *adiezten* SI927).
- adiskide: adiskideak (*adixkideak* SI927).
- adiskidetu: adiskidetu, adiskidetzen (*adiskidetzen* SI932).
- aditzaile: aditzaile, aditzaleak (*aditzale* SI927, SI932; *aditzaleak* SI932).
- agotetxe: agotetxe, agotetxean (*agotetxe*, *agotetxean* SI932). Hitz berria, ezezaguna Baztanen. Fagoagak gaztelaniazko ‘inclusa’ adierazteko ibiltzen du.
- agudo: (*agudo* SI927, SI932; *agudu* SI927).
- ahalkegarri: (*alkegarri* SI927).
- ahalketu: ahalketu, ahalketzen (*alketzen* SI927).
- ahaztu: ahaztu, ahaztera (*aztera* SI932).
- aingeru: aingeru, aingeruek (*aingeru* SI932; *aingiruek* SI932). Gaur den egunean, ahoz, *aingiru* ibiltzen da maizenik.
- aita goiko: Aita goiko, Aita goikoak (*Aita goikoak* SI932).
- aita goitiko: Aita goitiko, Aita goikoaren (*Aita Goitikoaren* SI932).
- aitzina: aitzina, aitzinat (*aitzina* SI934; *aitzinat* SI932, SI934).
- aitzineko: aitzineko, aitzinekoak, aitzinekoengandik (*aitzineko denboretan* SI934; *aitzinekoak* SI932; *aintzineko* SI934; *aitzinekoenganik* SI932;

¹⁷ Ez dira sermoietako hitz guzi-guziak bildu. Bai, ordea, euskara batuarekin alderatuta aldaketaren bat dutenak.

¹⁸ Sarreraren egitura: hitza euskara batuaz, letra arruntean, sermoietan aurkitu d(ir)en hitza(k), letra etzanean, sermoien kodea eta, batzuetan, azalpena. Adibideak: abere: abereak (*abreak* SI932). Zaldia edo behorra Baztanen eta inguruetan. Gainerakoak animaliak dira. arestian: (*aixtion* SI932).

- aitzinekoen ganik* SI927). *Aitzineko* zein *aintzineko* arruntak dira Baztango mintzoan.
- aleman: (*alemandar* SI927).
 - andreketari: (*andreketari* SI927). Andreak gustuko dituen, gaur den egunean guti ibilia.
 - apez: *apez*, *apezengandik* (*apez* SI927; *apezenganik* SI927).
 - arestian: (*aixtion* SI932).
 - ariatuz: (*ayatuz* SI927).
 - arima: *arima*, *arimen* (*arima* SI932; *anima* SI932; *animen* SI934). Baztanen, ahoz, *anime* ibilia.
 - arranguratu: (*arrankuratu* SI934).
 - arrisku: *arrisku*, *arriskuetatik* (*arrixkuetatik* SI934).
 - arrunt: *arrunt*, *arruntean* (*arront* SI927; *arrontean* SI932). Baztanen *arront* eta *arrontean* ibiltzen dira.
 - artio: (*arteo* SI932). Baztanen forma arrunta *artio* da.
 - asmaketa: (*asmaketa* SI927). Hitz arrotza Baztanen.
 - atera: *atera*, *ateratzen*, *aterea*, *atereaz* (*ateratzen* SI932; *atra* SI927, SI934; *atraia* SI932; *atraz* SI934). Baztanen arruntak dira gaur den egunean *atra*, *atratzen* eta *atraia*.
 - atsegin: *atsegin*, *atsegina*, *atseginez*, *atsegin gaitzazu* (*atsegiña*, *atsegiñez* SI934; *atsaïe* SI932; *atsain gaitzatzu* SI934).
 - atseginleku: (*atsain lekua* SI934).
 - atzapar: *atzapar*, *atzaparretarik* (*atzaparretaik* SI927).
 - aunitz: *aunitz*, *aunitz esker mila* (*aunitz esker mila* SI934; *aunitzek* SI932).
 - aurkitu: *aurkitu*, *aurkitzen* (*arkitu* SI927; *arkitzen* SI934).
 - axola: *xola*, *axolarik* (*axola* SI932; *ajolarik* SI927). *Ajola* arrunt arrotza da Baztanen. Aldiz, *azola* arrunta da *azolagabe* hitzean, erraterako.
 - baina: (*baña* SI934).
 - baino: (*baño* SI927). Batzuetan *baina* ere bada.
 - bakoitz: *bakoitz*, *bakoitzaren*, *bakoitzean* (*bakotxai* SI927; *bakotxaren* SI927; *bakotxean* SI927).
 - baldin: (*bealdin* SI927).
 - barau: (*baru* SI927).
 - barriatu: *barriatu*, *barriaturik* (*barraiatu* SI927).
 - batzuk/batzuek: *batzuk*, *batzuek*, *batzuen* (*batzuek* SI932; *batzuren* SI932). Kontuan izatekoa da *batzuek* forma bi modutan ibiltzen dela:

- batetik, ergatibo pluralean (*Haur batzuek ekarri dituzte pilota batzuk pilotalekura*) eta absolutibo pluralean (*Herriko haur batzuek (batzuk) joan dira goizean errekarra*).
- bedeinkatu: bedeinkatu, bedeinkatutuko, bedeinkatzen, bedeinka ditzan, bedeinka gaitzala, bedeinka itzazu (*bedeikatua* SI934; *bedeinkatuko* SI927; *bedeikatzen* SI932; *bedeinka ditzan* SI932; *bedeika ditzan* SI932; *bedeika gaitzala* SI932; *bedeika tzitzu* SI934, *bedeikatitzu* SI934).
 - bedeinkazio: (*bedeinkazioa* SI934).
 - begiramendu: begiramendu, begiramenduaren begiramenduz (*begiramendua* SI932; *begiramenduein begiramenduz* SI927).
 - beheiti: (*beiti* SI927).
 - bekatu: bekatu, bekatutik (*bekatutik* SI932; *pekatu* SI927). Baztanen *bekatu* ibiltzen da.
 - bekatuarazi: (*bekaturazi* SI934).
 - beltz: (*belz* SI927). *tz* kontsonante afrikatua > *z* kontsonante igurzaria bilakaera ez da arrotza Baztanen.
 - bera: bera, berari (*berai* 1927).
 - bereizgarri: bereizgarri, bereizgarririk (*berexgarririk* SI932).
 - berezi: berezi, berezia (*berexa* SI934).
 - bertze: bertze, bertzeak (*bertzen* SI932, *berzeak* SI934).
 - bertzela: (*berzela* SI927).
 - bezala: (*bezala* SI932; *bezela* SI927).
 - bidali: bidali, bidalia (*biali* SI932; *bialia* SI927).
 - bidezkarri: bidezkarri, bidezkariak (*bidezkari* SI934; *bidezkariak* SI934).
 - bihotz: bihotz, bihotzak, bihotzekoak (*biotz* SI932, SI934; *biotzak* SI927; *biotzekoak* SI927, SI934; *biotzekuak* SI932).
 - bilatu: bilatu, bilatuko, bilatzen (*bila* SI932; *bilatuko* SI932; *billatzen* SI932). Bi formak ibiltzen dira Baztanen. *Bilatu* (edo *biletu*) Baztangoiza eta Elizondo inguruan, eta, *billatu*, Arraiozen, Oronozen eta Basaburuko eskualdean.
 - birjina: (*Birjiña* SI934; *Birjiña Maria* SI934; *Virjiña* SI927, SI932). *Birjine* zein *birjiñe* arruntak dira Baztanen.
 - bizkar-hordi: bizkar-hordiak (*bizkar orriek* SI932). Hitz zaharkitua gaur egun Baztanen.
 - bonet: (*boneta* SI932). Baztanen ez dira gauza bera *boneta* eta *zapela*. *Bonet* gaztelaniazko “boina”-rako ibiltzen da eta *zapel* “sombbrero”-rako.

- borroka: borroka, borrokarik (*borrokik* SI927; *burruka* SI927). Baztanen *borroka* da arrunta.
- burdina: burdina, burdinazko (*burdinezko* SI934).
- buru: buru eta belarri (*buru ta belarri* SI932).
- buruil: buruil, buruilarren (*buruilarren* SI932; *buruillaren* SI932). Berriki artio arrunta izan da Baztanen. Gaur den egunean, hala ere, *setienbre* ere entzuten da.
- deabru: deabru, deabruak (*deabru* SI934; *deabrueak* SI927). Nolanahi ere, *debru* laburtua ere maiz entzuten da.
- deun: deun, deunaren (*deunaren* SI932). Hitz arrotza Baztanen. *Saindu* eta *santa* dira arruntak Baztanen.
- deus: deus, deuseza (*yaus* SI927, SI932; *yauseza* SI927). Arruntak dira Baztanen *yaus*, *yeus*, *yausez*, *yeusez*, *iyende...* modukoak.
- dohain: (*doai* SI927, SI934).
- doinutza: (*donutza* SI927).
- dundu: (*dundu* SI927). Baztangoizean ‘eskuratu’ adierarekin ibilia.
- ebasko: ebasko, ebaskoari (*ebaskuari* SI932, *goseak eta eritasunak lanak ebaskuari eta limurkeriari emanak* SI932).
- edozein: edozein, edozeinek (*edozein arriskueta* SI927; *edozein denboretako* SI927, *edozein erritaik* SI927; *edozeñek* SI932).
- eduki: eduki, edukitzen (*idukitzen* SI932).
- egia: egia, egiazat (*egizat* SI927).
- egiazko: egiazko, egiazkoa (*egiazko* SI934; *egiazkua* SI927).
- eginarazi: eginarazi, eginaraziz (*eginaziz* SI927).
- eguzki: eguzki, eguzkia (*eguzkia* SI934; *iduzkia* SI934). *Iduzki* eta *iruzki eguzki* baino arruntagoak dira Baztanen.
- ejerzizio (*ejerzizio* SI927).
- ele xuri: (*ele xuri-gezurtiz* SI934).
- eliza: eliza, elizari, elizak (*eliz* SI932; *Eleizai* SI927; *Eleizak* SI927). *Eleiza* arrotza da Baztanen.
- eman: emanikako (*manikako* SI927). Arrunta Baztanen, batetik, aferesia, hau da, izenaren lehen bokalaren (e-) galera, eta, bertzetik, *-dako -kako* bihurtzea.
- emanarazi: (*emanazi* SI927).
- epaikari: epaikari, epaikariei (*epaikariei* SI932). Hitz arrotza Baztanen.
- erratekoz: (*erratekotz* SI927). *-koz* eta *-kotz* arruntak dira Baztanen.

- erregina: (*erregin* SI932, SI934; *erregiña* SI934). *Erregin* eta *erregiña* ibiltzen dira Baztanen. Azken hori Basaburua eskualdean eta Oronoz inguruan.
- erromes: *erromes*, *erromesa* (*erremex* SI932; *erremexa* SI927). Galbi-dean den hitza Baztanen.
- eskaintza: (*eskeintza* SI934; *eskeintze* SI934).
- eskatzaile: (*eskatzale* SI927). *-tzaile -tzale* bilakatu ohi da Baztanen.
- eskritura: *eskriturak* (*Eskriturak* SI927).
- esku eman: *esku eman* *iezaguzu* (*esku emaguzu* SI934).
- eskuin: *eskuineko* (*eskuñeko* SI927).
- eta: (*ta* SI927). *Ta* arrunta (eta batzuetan bakarra) da Baztanen.
- Euskal Herri: *Euskal Herri*, *Euskal Herria*, *Euskal Herriko* (*Euskal Erria* SI927; *Euskal errie* SI927; *euskal erriko* SI927; *Euskalerriko* SI927). Ahoz gaur den egunean *Eskual Errie* eta *Eskual Erriko*.
- euskaldun: *euskaldun*, *euskaldunak*, *euskaldunaren* (*euskaldun* SI927; *euskaldunak* SI927; *euskaldunaren* SI932; *euskualdunak* SI927). Forma arruntak Baztanen *eskualduna* edo *eskualdune*.
- euskaltzale: *euskaltzale*, *euskaltzaleak* (*euskaltzaleak* SI932).
- euskara: *euskara*, *euskaraz*, *euskararen* (*eskuaraz* SI932; *euskeraren* SI927). *Eskuara* da maizenik ibiltzen den forma.
- ezagutarazi: (*ezagüerazi* SI927).
- ezen ez: (*ezenez* SI932).
- ezina: *ezina* (*eziña* SI932). 'eziña' ibili gabeko edo guti ibilitako hitza Baztanen. Bai, ordea, *ezine* eta *eziñe*.
- ezjakin: *ezjakinak* (*ezyakinak* SI927).
- fraide: (*fraile* SI927).
- gain: *gainetara* (*gañetara* SI932).
- gain: *gainean*, *gainekoen* (*gañean* SI927; *gañekoen* SI927).
- gainezka: (*gañezka* SI927).
- gain-gain: *gain-gainera* (*gain-gañera* SI927).
- gaitzgabetu: *gaitzgabेतuko* (*gaitzgabेतuko* SI934).
- gaixo: *gaixoak* (*gaixuak* SI932; *gaxo* SI934).
- gaixotegi: (*gaixoteki* SI932). Hitz arrotza Baztanen. *Eritegi* arrunta da.
- gaiztakeria: *gaiztakeria*, *gaiztakeriak*, *gaiztakeriarik* (*gaiztakeriek* SI932; *gaixtakeri* SI932; *gaixtakeriak* SI934; *gaixtakeririk* SI932).
- gaiztazale: *gaiztazaleentzat* (*gaixtatzaleentzat* SI932).

- gaizto: gaiztoek, gaiztoengandik (*gaixtuek* SI927; *gaixtoenganik* SI932).
- gaiztoratu: gaiztoratuko, gaiztoratzen (*gaixtoratuko* SI932; *gaixtoratzen* SI932).
- garailari: (*garailari* SI934). Hitz arrotza Baztanen.
- garrasi: garrasiz (*karrasiz* SI932).
- gauza: gauza, gauza denetan (*gauza* SI932; *gauze* SI927; *gauz* SI927, SI932; *gauz denetan* SI927). Formarik arruntena Baztanen *a* itsatsirik gabeko forma da, *gauz*, alegia.
- geroztik: (*geroztikan* SI932). *-tikan* forma bakan batzuetan bakarrik ibiltzen da.
- geure: (*geren* SI934).
- gizajende: gizajendea, gizajendeari (*giza-gendea* SI934; *gizagendea* SI934; *giza gendeari* SI934).
- gizajo: gizajoei (*gizajoei* SI934). Ez da arrunta Baztanen. Haren orden *gaixo* ibiltzen da.
- gogo: (*goo* SI927).
- greziar: greziarren (*greziarren* SI932).
- grina: (*grina* SI927, SI932).
- gudulari: gudulariak (*gudulariak* SI934).
- guraso: gurasoak, gurasoek (*gurasoak* SI932; *gurats* SI934; *gurats* SI932). *Gurats* da Baztanen maizenik ibiltzen den forma.
- guti: (*guti* SI932).
- gutti: (*gutti* SI927).
- guzi: guzi, guzian, guzietako (*guzian* SI927; *guzien* SI932; *guzietako* SI932).
- handi: handia, handiagoa (*aundia* SI927, SI932; *aundie* SI927, SI932; *aundiagoa* SI932). Ahoz *aundi* da forma bakarra Baztanen.
- handiki: (*aundiki* SI932).
- handitasun: handitasuna (*aunditasuna* SI927, SI932).
- handitu: handituz, handitu eta berratu dadin (*aundituz* SI927; *aunditu eta berratu* *dayen* SI934).
- harrapatu: harrapatzeko, harrapatzen (*harrapatzeko* SI927; *harrapatzen* SI932). Bigarren forma (*harrapatzen*) da maizenik entzuten gaur den egunean Baztanen.
- harrokeria: harrokeria, harrokeriaz (*harrokeria* SI927; *harrokeriz* SI927). *-keria* morfemaren *-a* itsatsirik gabe ibiltzen da Baztanen, hau da, *harrokeri* bat.

- hasiera: (*asiera* SI932). *Hasiera* ez da eskuarki ibiltzen Baztanen. Ikus *basmenta*.
- hasmenta: (*asmenta* SI927, SI932; *asmentan* SI932). *Hasmenta* ibiltzen da Baztanen, ez *hasiera*.
- haurtto: haurtto, haurttoak (*aurtto* SI932; *aurttuak* SI932).
- haurtxo: haurtxoa (*aurtxua* SI932). Arruntagoa da *haurtto*.
- heriotza: heriotza (*eriotz* SI934; *eriotza* SI934). *-a* itsatsirik gabekoa da arrunta Baztanen.
- hil: hil, hiltzean, hiltzen, hiltzen balitz (*il* SI927, SI932; *ila* SI927, SI932; *ile* SI932; *iltzean* SI934; *iltzen* SI932; *iltzen balitz* SI932).
- hizkuntza: hizkuntzetan (*itzkuntzetan* SI934).
- honat: (*unat* SI934). Ekialdeko euskalkietara hurbiltzen gaituen forma.
- honetxe: honetxera (*unetxera* SI934).
- huntz aihen: (*untz ayena* SI932).
- ia: (*ja* SI927, SI932). Ez dira nahastekoak *ia* ‘kasik’ eta *ja* (*ere*) ‘deus ez’.
- iduri: (*bada gezurra iduri bealdin bada...* SI927).
- igan: igan, iganen, igaten (*iganen* SI927; *igen* SI932; *igeten* SI932). *Igan* (*igen* eta *iyen*, ahoz) forma arrunta Baztanen, ez *igo*.
- igaro: (SI927, SI934). *Igaro* ez da Baztanen eskuarki ibiltzen. Haren tokian *pas(a)tu* ibiltzen da.
- ilargi: ilargi, ilargia (*illargia* SI934). *Ilargi* zein *illargi* ibiltzen dira Baztanen.
- inclusa (*inclusa* SI932). Gaztelaniazko hitza. Ikus *agotetxe*.
- inor: (*inor* SI927, *iñor* SI927).
- ireki: ireki, irekiak (*edeki* SI927; *edekiak* SI927). *Edeki* eta *ereki* arruntagoak dira Baztanen.
- iretsi: (*idetsi* SI934). *Idetsi* da arrunta Baztanen.
- itsaso: itsaso, itsasoaren (*itsaso* SI932; *itsasoaren* SI927; *itxesoaren* SI927). *Itsaso*, *itsas* modukoetan ongi mantendu eta ahoskatzen da *ts* kontsonante txistukari afrikatua. Bitxia egiten da *itxesoaren* hitzeko *tx*-a. Nolanahi ere, erran behar da azken aldi honetan *tx*-rako joera gero eta handiagoa dela.
- itsusikeria: (*itsusikeri* SI932). *-keria* morfemako *-a* itsatsia galtzen da Baztanen.
- izakera: (SI932).
- izan: izan, izanen, izan zaitez, izaten (*izan zaite* SI934; *izanen* SI927; *izain* SI927, SI932; *izen* SI927, SI934; *izeten* SI927).

- izugaitz: (*izugaiz* SI927). Ez da arrunta *tz* kontsonante txistukari afrikatua ibili beharrean *z* igurzkaria ibiltzea.
- jabe: jaun eta jabea (*yaun ta yabea* SI932).
- jabegai: (*yabegai* SI932).
- jai: jai (*yai* SI934). Ez da hitz arrunta Baztanen. Bai, ordea, *besta*.
- jaiki: jaiki, jaikitzen (*yeiki* SI932; *yeikitzen* SI927).
- jainko: jainkoaren (*Yaingoaren* SI934; *Yainkoaren* SI934).
- jainkotar: jainkotarra (*yainkotiarra* SI932).
- jainkozale: jainkozaleak (*Yainkozaleak* SI934).
- jakina: jakina (*yakine* SI927).
- jakinduria: jakinduria (*yakinduri* SI927).
- jakintsu: jakintsuak (*yakintsuak* SI927, SI932).
- jan: janak (*ianak* SI932).
- janari: janaria (*yanaria* SI934).
- jantzi: jantzi, jantzia (*yauntzi* SI927; *yauntzia* SI927; *yantzie* SI927).
- jarleku: jarlekua (*yarlekua* SI934).
- jarraiki: (*yarraiki* SI932).
- jarraikiz: (*yarraikiz* SI927).
- jarri: (*yarri* SI934).
- jaun: jaun, jauna, jaunak, jaun eta jabea (*Yauna* SI927; *yaunak* SI927; *yaun ta yabea* SI932).
- Jaungoiko: Jaungoiko, Juangoikoa, Jaungoikoak, Jaungoikoaren, Jaungoikoarengana, Jaungoikoak (*Yaun Goikoak* SI927; *Yaungoiko* SI932; *Yaungoikue* SI932; *Yaungoikoaren* SI927, SI932; *Yaungoikuaren* SI927, SI932; *Yaungoikoarengana* SI932; *Yaungoikoaganatu* SI927).
- jautsi: jautsi, jausten (*yautsi* SI932; *yaunsten* SI932). *Jautsi* da ibiltzen dena Baztanen, ez *jaitsi*.
- jende: (*yende* SI927).
- Jesu Kristo: Jesu Kristok (*Yesukristok* SI927).
- Jesus: Jesus, Jesusek, Jesusen, Jesusengandik, Jesusi (*Jesus* SI932; *Yesususek* SI932; *Yesus* SI927; *Yesusen* SI927, SI932; *Yesusenganik* SI932; *Yesusi* SI932).
- jo: (*yo* SI932).
- joan: joan, joanikako (*goan* SI927, SI934; *ganikako* SI932). Baztanen arruntak dira *gan* eta *goan* formak. Ikus *eman* (*emanikako*).
- jokatu: jokatuko (*yokatuko* SI934).

- juramentu: (*yuramentu* SI927).
- kanto: (*kantoin* SI927).
- karrika: karrika, karrikara (*karrike* SI932; *karrikera* SI927).
- kondizio: kondizioa (*condizio* SI932; *condizioa* SI932).
- konpainia: (*compañi* SI927; *compañi edo lagundia* SI927; *kompañia* SI927).
- kostatu: kostatako: (*gostaikako* SI927). Ikus *eman* (*emanikako*).
- kristotar: kristotarrak (*kristotarrak* SI934).
- lagundi: lagundia (*compañi edo lagundia* SI927).
- landara: landara, hortik landara (*ortik landara* SI934; *landara* SI932).
- laster: (*laster* SI932; *laister* SI932).
- lehenbizi: lehenbizian, lehenbiziko (*lenbizian* SI927; *lenbiziko* SI927, SI932, SI934).
- leize: (*leze* SI927).
- lohikeria: lohikerian, lohikeriarako (*loikerian* SI932; *loikerirako* SI932). Ikus *itsusikeria*.
- lurbira: (*lur bira* SI927). Hitz arrotza gaur den egunean Baztanen.
- marinel: marinelak (*mariñelak* SI927).
- mila: mila, mila urte honetan (*mile* SI932, SI934; *mile urte unten* SI934). *Mile* eta *mille* ibiltzen dira Baztanen: lehena, Baztangoizeko, Elizondoko eta Erbereko eskualdeetan, eta, bigarrena, Basaburuan eta Oronoz aldean.
- moja: moja, mojak, mojatxo zuriak (*monjak* SI927; *moja* SI932; *mojatxo txuriak* SI932).
- mundu: munduari, mundua mundu deino (*munduari* SI932; *mundue mundu deño* SI927).
- nafar: nafarra (*nafarra* SI927).
- nafartar: nafartarren (*nafartarren* SI927).
- nagusi: nagusiak (*nausiak* SI932).
- nagusitu: nagusituko (*nausituko* SI932).
- nahasle: (*naastale* SI927).
- nahikeria: (*naikeri* SI927). Ikus *itsusikeria*.
- negar: negarra, negarrez (*nigerra* SI934; *nigerrez* SI932; *nigarrez* SI927).
- nire: nire, niregana (*nere* SI927; *neregana* SI932).
- ohitura: (*oitura* SI927, SI934; *oiture* SI927, SI932).
- oihan: oihan oihanez (*oyanez oyan* SI927).

- oihu: oihua (*oyu* SI927; *oyua* SI927).
- oin: oinetan, oinetara (*oñetan* SI932, SI934; *oñetara* SI932).
- oinaze: oinazeak, oinazez (*oñaze* SI934; *oñazeak* SI934; *oñazez* SI932).
- ondo: ondoan (*onduan* SI932).
- orain: (*orai* SI927, SI932, SI934).
- oraingo: (*oraiko* SI932).
- orainik: (*orañik* SI934; *oñik* SI932).
- ordain: ordainez (*ordañez* SI934).
- ordeko: ordekoa (*ordekua* SI932).
- orduantxe: (*orduentxe* SI927).
- otoi: (*otoi* SI932). Ez da forma arrunta Baztanen. Bai, ordea, *otoitz*.
- otoika: otoika, otoika eta otoika: (*otoika* SI932; *otoika eta otoika* SI932).
- otoitz: (*otoitz* SI934). Forma arrunta Baztanen.
- otso: (*otsu* SI932).
- otsotar: otsotarren (*otsotarren* SI927).
- ozar: ozarra (*ozarre* SI927).
- pixkaka-pixkaka: (*pixkeka-pixkeka* SI927).
- piztia: (*pixti* SI934).
- pozoitsu: pozoitsua (*pozointsua* SI934).
- pozoitu: pozoitua (*pozoindua* SI934).
- prudentzia: prudentziaz (*prudenziaz* SI927).
- saihets: saihetsetik (*saietsetik* SI932).
- saindu, sandu: (*saindu* SI932; *sandu* SI927).
- sakramentu: sakramentuak (*sacramentuak* SI927).
- salbatzaile: (*salbatzale* SI934).
- semetto: (*semetto* SI934).
- sinesmengabekeria: (*sinismengabekeria* SI927; *sinismengabekerie* SI927).
- soineko: (*soñeko* SI927).
- soinu: (*soñu* SI927).
- Solbezio egun: (*Solbezio eguna* SI934). Andredena Mariaren sorteguna.
- sorterri: sorterriarenganako (*sorterriaren ganako* SI927).
- sos: sos ateratzeko asmaketa (*sos atratzeko asmaketa* SI927).
- ttiki: ttikia (*ttikie* SI927).
- ttipi: ttipi, ttipiak, ttipiotako, ttipidanik (*ttipi* SI932, SI934; *ttipiak* SI932; *ttipiotako* SI932; *ttipidanik* SI932).

- txarkeria: (*txarkeri* SI934). Ikus *itsusikeria*.
- tximu: tximuak (*tximuk* SI927). Hitz arrotza Baztanen. *Zimino* da usu ibiltzen dena.
- ugalde: (*ugalde* SI927; *ugolde* SI927).
- unibertsitate: unibertsitateetan (*unibersidadeetan* SI927).
- ur txirripa: ur txirripak (*urr txirripak* SI927).
- urrikaltsu: urrikaltsua, urrikaltsuen (*urrikaltsua* SI934; *urrikaltsuen* SI932).
- urte: urtearen (*urteain buruko bestik aundiena* SI934).
- usain: usaina (*usaña* SI932).
- uzta: uzta(il)aren (*uztaren* SI927). Baztanen ibilia, *uztailen* tokian. Nolanahi ere, *julio* ere entzuten da.
- xahar: xahar, xaharra (*xaar* SI927; *xarra* SI927).
- xuhur: (*xur* SI927).
- zabal-mendi: (*zabal-mendietan* SI927). *Mendi zabaletan* behar genuke.
- zahar: zaharrekin (*zarrekin* SI927).
- zalu: zalua (*zaulie* SI927).
- zauri: zauririk (*zaurik* SI927).
- zergatik: (*zergatik* SI932). Ez da arrunta Baztanen. Bai, ordea, *zerendako*, *zendako* eta *zertaz*, testuinguruaren arabera.
- zikinkeria: (*zikinkeri* SI932). Ikus *itsusikeria*.
- zintzilik: zintzilik, zintzilika (*zinzilik* SI927; *zinzilika* SI927). Arruntagoa da Baztanen *dilindan* (*dilinden*, ahoz).

3.4.4.2.5 Testu-zatiak

Aztertzen ari garen sermoien testua argi eta zehatz samarra da, jendearengana hurbiltzeko prestatua. Sermoiaren asmoa erdiesteko, baitezpadakoa da ideiak argi eta zehatz azaltzea, puntu nagusiak eta puntu txikiak bereiztea eta, azken finean, entzuleak, dela adineko, dela haur, konbentzitzea erraten den hori dela egiazkoa eta Jaungoikoarengandik hurbila.

Hori guzia erdietsi nahi bada, beraz, esaldiak ezin dira pilatu, bata bertzearen gainean eman... Berebizikoa da esaldietan zati nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi eta hurrenkera zehatz batean ematea, entzuleak erakartzeko hitzak eta esamoldeak ibiltzea, jendearengandik hurbileko mintzoa ibiltzea (latinezko esaldiak osatzen dituelarik segidan euskarazko itzulpena-edo

ematen du, entzuleek ez baitzekiten latinik, ez bazen entzuten eta konprentitu gabe errepikatzen zituzten otoitzak edo orazioak).

Azaldu nahi izan dena erakusteko hona hemen zenbait sermoi-zati:

a. Izenburua eta gaia:

Hiru sermoiek izenburu argiak dituzte, modu batean baino gehiagotan emanak:

– Berroetakoa:

Izenburu bikoitza du, euskaraz eta gaztelaniaz. Euskarazkoan aditzera ematen da non eta noiz eta zer dela-eta egin den (“Berroetan”, “1927ko uztaren 3In”, “Euskararen Adiskideen Bestan”). Baita egilea nor den ere eta sermoiaren xedea zein den: “Blas Fagoaga A.M.D.G.”¹⁹. Aldiz, gaztelaniazkoan adierazten da, egunaz gainera, nori eginen dion ohore predikuan: “Sermón-panegírico de San Ignacio de Loyola (...)”.

– Elizondokoa:

Izenburu bakarra du, euskarazkoa. Goiburuan erraten da “Haur Euskaldunaren Egunean” egin zuela, Elizondon, 1932ko buruilaren 4an. Horretaz gainera, San Markosen Ebanjelioko zati bat idatzi zuen: *Sinite parvulis venire ad me*. Egilearen berri ere eman digu, honela: “A.M.D.G. Blas Fagoaga”.

– Orreagakoa:

Izenburu bakarra du, gaztelaniazkoa. Goiburuan adierazten da sermoia Orreagako Kolegiatan egin zuela, Andre Mariaren festa-buru nagusian, erran nahi baita, Solbezio egunean, 1934ko buruilaren 8an. Hasmentan latinezko esaldi hauek idatzita utzi zituen: *Nativitas tua Dei Genitrix Virgo, gaudium anuntiavit universo mundo. Ex officio diei*.

b. Testua:

– Berroetakoa:

Egun seinalatuan egin zuen, Euskararen Adiskideen Bestan eta, are egun seinalatuagoan, San Ignazio egunean, uztaren 3In. Hau da:

¹⁹ A.M.D.G.: *ad maiorem Dei gloriam*, dena Jaungoikoaren gorabiderako.

euskaldunen bestak batu eta berotzen dituen egunean. Horretarako zer hobeia hari gorazarre egitea baino: “San Ignazio eguna Euskal Herri guzian egun handi berezia da”, “San Ignazioren bestak euskaldunen bestak batu eta berotzen ditu”.

Omendua (“Ignazio”) hitzaldiaren lehen lerrora ekartzen du behin eta berriz: “Ignazio abesten diote gipuzkoarrek beren zaindari handi honi. Ignazio erantzuten dute Euskal Herriko beste alderdietako anaiek. Ignazio oihu egiten dute itsasoaren harateko aldetik Ameriketako zabal-mendietan barreiatuak dauden euskaldun langileek. Ignazio diote itsasoaren gainean dabilzan euskaldun marinelek. Ignazio otoitz egiten dute eguzkia sortzen den alderdietan Kristoren alde lan eta lan ari diren euskaldun misiolariak”.

Loiolako santua lehen lerrora ekarri ondotik, zeri buruz mintzatu zitzaien adierazi zien aitzinean zituen herritarrei: “...euskararen adixkideen egiteko besta hauek eratzean ez da bakarrik gure euskara xahar maitea zaintzea eta laguntzea, ezta aitzinekoengandik hartu genituen euskaldun ohitura garbiei begiratzea...”.

Nolanahi ere, hori guzia baino lehenago dio “euskararen adixkideen egitekoa (dela) euskaldunen bihotzetan bere ex sorterriarenganako maitetasuna piztea sortu artean...”. “...beren herria maite ez dutenak...” gogoan, haiek ere solasaren lehen lerrora ekarri zituen aditza aitzinatuz: “...horiei behar zaie burua argitu, horiei beren herria ezagutarazi behar zaie; horiei behar zaie erakutsi beren herria ttikia izanagatik aunitz gisetara handia dela”. Eta hara non solasean sartzen duen “mundu guziak agurtzen (duen) gure Ignazio”.

Predikuaren bigarren zatian, euskara eta San Ignazio lotu ondoren, buru-belarri sartzen da predikuaren gai nagusian, hau da, Loiolako sainduaren bizi-ibilbidean: “Gizon baten handitasuna neurtzeko ikusi behar da Jaungoikoak zer egiteko eman zion munduan, nola bete zuen eta zer ondorio on munduari ekarri dizkion”. Zeruko aingeru onak eta txarrak zein diren erraten die eliztarrei, Jaungoikoaren kontra altxatu zen “Luzifer aingeru guzien artean ederrena” eta aingeru onak “Migel buru zutela aingeru txarrak garaitu (zituztenak), “tximuak bezala erori (zirenak) zerutik infernura aingeru ederrak zirenak deabru bilakaturik”.

Predikuan aitzina segituz, Lutero fraide agustindarraren harat-honatak aipatu zizkien mezarat hurbildutakoei. Luteroren pentsamendua xeheki adierazi zien, “gizonaren grina zakarrenak balakatzen (zituztenak) entzutean, ez (omen zen) harritzeko jende multzo handiak, ia erresuma osoak bere alde jartzea”.

Luteroren aldekoen berri ematen du, *non serviam* erraten zutenak, “nahastaile guzien artean (erneena)” zen Kalbino edo “bere burua” aita saindutako zuen Ingalaterrako Henrike VIII.a “errege andreketari galdu hura”... Bere buruari ere galdetzen dio B. Fagoagak: “Ez ote da inor izanen zure Elizaren alde aterako denik? Ez ote du inork bilduko fraide aleman horrek bota duen desafioa?”. “Bai” erantzuten du. “Nor da hainbertzeko etsaien bidera ateratzen den gizon ausart hau? Euskaldun bat. Gure Ignazio”.

Badugu, beraz, nork eginen dion kontra Luterori eta nork salbatuko duen “gure Eliza”. Baina nor da “Ignazio”? Segur aski beldur baitzen jendeak ez zuela jakinen, predikariak beharrezkotzat jo zuen azalpen luzexka egitea: non sortu zen (Euskal Herriko “etxe handienetako (batean)”) eta “guri-guriki bizi” zena Fernando Gaztelakoaren jauregian.

Bere “nahikeria guzia gudan (gerran) aritzea” zuen azpeitiarra zauritu zuten Iruñean (“nafartarren kontra” ari zenean). Predikariak diosku “zauri hura izan (zela) bere oneratzearen hasmenta”. Gudu-kontuak alde batera utzi eta “aitzindari harro hark erabaki zuen Jesus, zeruko erregea ez bertze erregerik zerbitzatzea, txorakerietan liluraturik zebilen gizon gazte hark erabaki zuen bere arimaren ona eta Jaungoikoaren ohorea bakarrik bilatzea”.

Baina bera bakarrik ez zen aski halakoetarako, “hantxe asmatu zuen, eratu edo fundatu eta armatu Jesusen konpainia edo lagundia...”. Prosa eder batez lagundurik, erraten digu Elizak behar dituela “lurreko erregeek izaten dituzten bezala beren gudari bereziak edozein arriskutan sartzeko trebe direnak...”. Azken finean, salbatzaileak behar dira, “bertze Elizako arrisku handietan gizon handiak Elizara Jaunak igorri izan dituen bezala, hala Lutero eta luterotarren kontra, Ignazio berak armatu duen (lagundia)...” gudarako prest dago.

Eta nola garaitu “gaixtoak”? “Jaungoikoak mundu onetan gaixtoak garaitzen dituen bezala; ona gainezka, esku zabalez, ausarki ereinez.” Eta batez ere “berak asmatu zituen ejerzizio espiritualekin. Ikastola nagusi eta unibertsitateetan jakinduria egiazko eta Jaungoikozkoan bataiatuz, ...”. Eta nola ez aipatu “misio lanak”, nola ez ekarri gogora “Frantzisko Xabier nafar handi hark Indietan egin zituen (lanak)”.

Ignaziok “etsaiak” garaitu ondoren, “luterotarren ugalde itsusi hura (gelditurik)”, sermoilariak “aintza eta ohorea” eskaintzen dizkio Jaungoikoari “bere emazte apal eta (garbia) den Eliza otso-tarren atzaparretarik atera zuelakotz”.

Eta zein ote “Jaungoikoaren etsaiak”? Honako egitura hau ibili zuen horretarako erratzuarrak: “Jaungoikoaren etsaiak dira ohi-tura zaharrak mundu uholde baten pare lohiperatu nahi dutenak; Jaungoikoaren etsaiak dira bereziki dantza nahasiak, dantza lotu mota guziak, ...”; Jaungoikoaren etsaiak dira jauntzi nabarmenak estali beharrean biluzi egiten dutenak; Jaungoikoaren etsaiak dira biraoak...”.

Baina ez aski etsaiak zein diren aipatzearekin, erratzuarrak argi erraten die eliztarrei “xuhur baduzue, fededunak zareten aldetik eta euskaldunak zareten aldetik, zuen alderdia Jaungoikoaren alderdia (da)”. Beraz, fedea, euskalduntasuna eta Jaungoikoa zaku berean sartuta. Arima ez galtzeko erraten die, alde batera uzteko “dantza lotu zikin horiek”, “soineko nabarmen ahalkegarri horiek”, “Jaungoikoaren alderdia”ri segitzeko. Hala eginez gero, oparia: “Migel, Xabier eta Ignazio Euskal Herriko (zaindarien bedeinkazioa)”.

– Elizondokoa:

Haur Euskaldunaren Egunean egina, haurrak ditu hartzaile nagusi, *Piisima Vasconum gens* –euskaldunen jende jainkotiarra–. “Kristautasun biziaz” ari zaie erratzuarra eta erraten die “gure aitzinekoak hain jainkotiarrak baitziren bizitzako alde guzietan Jaungoikoaz oroitzen ziren, lanen bati hasmenta edo buru ematerakoan Jaungoikoarengana bihotza goratzen zuten”.

Haurrak, hain zuzen ere “Jaungoikoaren aitzinean ahuspeztuz, Jaungoikoaren nagusitasun osoa aitortuz eta Baztango herrietatik bildu dituzten haurttoak... Haurttoei zuzendutako hitzak egin

zituen, “Jesusen ordekoa naizenez gero, bertze gai guziak geroko utzita” Jesusez mintzatu zitzaien eta Jesusek haienganako maitetasunaz. Sarrerako hitzen ondotik, sermoia lau zati nagusitan banatu zuen:

- Lehenean (I) elizan bildutakoei erraten die “Jesus etorri (zela) mundura zuzentasuna ekartzera”. Haurren izaera (“kondizioa”) negargarriaz mintzatu zitzaien, nola erromatarren garaian “haur sortu berriak beren gurasoak alde bat nonahi... bide bazterretan, karrika bazterretan uzteko ohitura (zegoen)”, nola “haurrak sortu ondoan kasatzen (zituzten)”.
- Erromatarren eta greziarren artean zabaldua zegoen “pederastia deitzen den (izurriaz)” mintzatu zitzaien. Era berean, adierazi zien nola Jesusek erraten zien inguruan zituen ikasleei: “utz itzazue haurrak niregana etortzen eta ez iezaiezuela debekatu halakoena baita zeruko erresuma”.
- Bigarreanean (2) berriro gogorarazten die Jesusek haurrak maite zituela. Eta Jesusek erran hitz hauek adierazi zizkien: “norbaitek nire baitan sinesten duen haur ttipiotako bat gaiztoratuko balu, hobe luke errotarri bat lepotik dilindan paratu eta itsaso barnera botaila izan”. “Oraingo eta mende guzietako gizon haur gaiztatzaileak” zituen jomuga.
- Hirugarrena (3) berdintsu hasi zuen Fagoagak. Bere hitzetan Jesusek haurrak maite zituen eta laudatu zituen. (...) Jesusek haurrak laudatu zituen kristau onaren eredutzat, modelotzat paratuz. Zeruko “erresuma” handi eta ederraz ere mintzatu zitzaien eta “zuzenak eta apalak” izateko haurrak bezalakoak bihurtu behar zen, “ez naski gorputzez, baizik gogoz”.
- Azkenik, laugarren zatia (4) honelaxe hasi zuen: “Azkenik, Jesusek nahi izan zuen guk ere haurrak berak bezala maiteki (hartzea)”. Zenbait saildu onek haur urrikaltsuen, erromesen eta umezurtzen alde egindakoak gogorazi zizkien.
- Txinan eta hango misioetan mojatxo txuriek egindakoak ere goraiatu zituen “beren gurasoek (guraso gogorrek) utzitako haur gaixoak eta bizkar-hordiak haurrez horniturik (itzuliz) eta haur horiek (bataiatuz)”. Baita Iruñeko agotetxean (“inclusa”n) berrogei urtetik goiti lanean ari zen moja euskaldun batek egindakoez ere.

- Errusia “urrikalgarri” an nola zebiltzan ere erran zien, “haur multzoak zakurrak bezala, gurasorik gabe, goseak eta eritasunak janak ebaskoari eta limurkeriari emanak (...)”. Elizara hurbildutakoei (“aditzaileak batez ere gurasoak”) erran zien, orobat, haurrak “kristauki” hazteko, kristau ikasbidea erakusteko, “kristautasun sendo eta bizia” emateko, bere hitzetan, “gaurko haurrak biharko herria izanen (direlako)”.
- **Orreagakoa:**

Predikuari hasmenta emateko, gaur den egunean galbidean den hitz berezi bat ibili zuen: “Solbezio-eguna”. Hau da: Birjina Maria mundura ekarri zuen eguna. Eta haren segidan goraiatu zuen prediku honen ardatz izanen den “Orreagako Andre Maria”.

Historia eginez, Orreagan bildutakoei adierazi zien “gaurko egunarekin mundura etorri zen birjina horrek orain mila urte inguru duela, gure artean bere erregina jarlekua paratu zuen, eta mende mende gure aitzinekoek (Antso Azkarraz ari da) goratu zuten eliza honetan du bere egoitza (...)”. Orreagako Ama Birjina, “bi Nafarroetako euskaldunen ama maitea” gogoan, adierazi zuen Orreagako lau aldetarik elkartu zirela baxenabartarrak, baztandarrrak, auriztarrak, erroibartarrak eta are urrunagokoak ere.

Segidan, “haur baten sortzea anixko pozgarria” zela adierazi zuen, baita agintari, errege, apezpiku, aita saindu eta bertze hone-lako handikien urtebetetzean jai handiak egiten direla ere. Ttikeriatako zuen hori: “Baina zer da gizon-emakume guzien sortzea Birjina Mariaren sortze zorionekoaren aldean?”.

Goraiatze sutsuarekin segituz, “bekatu orijinalarekin” zikinduak sortu zirenak ekarri zizkien gogora. “Birjina Maria grazia guziz sortu” zela erran zien, “gaitzerako grinarik gabe”. Birjina Mariaren sortzea eta “gizonaren sortzea” erkatu zituen. Bere ustez, ez zen gauza bera izan: gizonarena ez zen pozgarria izan, “negargarria baizik”. Aldiz, Mariarena “pozgarria, agurgarria, ohoragarria” izan zen.

Nolanahi ere, bereizkuntza egin zuen: “gizonaren sortzea berez-berez pozgarria” izan ez bazen ere, “gerokoari buruz pozgarria

izan” daitekeela erran zien bildutakoei. Jakina! “Jaungoikoaren laguntzarekin gizon emakume on bat atera daiteke, gizon handi-ai-patu bat izan liteke, agian saindu bat, aingeru bat izan liteke”.

Ez zen horretan gelditu erratzuarra. Halaxe erran zien Orreagan bildutakoei: “Gure gaitz guzien hasmenta emakume zorigaiztoko bat izan zen; gure on guzien hasmenta emakume zorioneko hau beharra zen”. Dena ez zegoen galdua, beraz. Adami eta Evari gertatutakoa ere gogora ekarri zien, gertatutakoak behin eta berriz errepikatuz: “Hainbertze neke, hainbertze izerdi, hainbertze oinaze, (...) horra hor Evaren ume zorigaiztokoan etorkizun negargarria”.

Hura guzia azaltzeko zer hobea kontakizun bat tartean sartzea baino: “Demagun mendi itsusi batean gauak harrapatzen duela bidezkarri bat. Jo harat, jo hunat eta bidea ezin xuxendu. Alde guzietarik erroitzak; bere inguruan piztia ikaragarriak bera irentsi nahiez (...)”. Gau luzea eta goiz argia, iluntasuna eta argitasuna... “Baina sortu zen Maria goiz argia bezala. Eta Mariak ekarri zigun gure animen eguzkia Jesus”.

Predikua non, han gertatutakoak ere kontatu zizkien eliztarrei. “Aitzineko denboretan, kristauak moroen kontra gudu bizian bizi zirelarik, Nafarroako erregeak gudura baino lehen, honexera etortzen ziren eta Orreagako Ama Birjinaren aitzinean belaunikaturik laguntza eskatzen zioten; eta hola Birjina honen laguntzarekin indarturik etsaiak porrokatzen zituzten eta...”.

Eta ezin aipatu gabe utzi “aitzineko denboretan, Europa guzitik bidezkarriak (peregrinoak) etortzen (zirela) Galizian dagoen Jondoni Jakueren (Santiagoren) gorputza agurtzera, eta zelaietatik heldu ziren bidezkarri horiek Ibañetako patarrak igaro ondoan hementxe gelditzen ziren...”. Eta zer aurkitzen zuten han?: “Ama Birjina honen gerizpean berokia, sendagaia, atsegin lekua...”.

Haurrak ere ezin aipatu gabe utzi Ama Birjinari zuzenduz: “bedeinka itzazu zure umeok, aunitz bide luzea eginik zu ohoratzeagatik zure oinetan bildu diren zure umeok, bedeinka itzazu beren etxe eta etxeok, beren bihotz eta arimak (...)”.

Predikuari akabaila otoitz batekin eman zion. Amen!

Iturriak

- Erratzuko Etxebeltzea.
- Iruñeko Elizbarrutiko Agerkari Ofiziala (*Boletín Oficial del Obispado de Pamplona*), 1920. eta 1932. urte bitartekoak. Iruñeko Seminarioko Biblioteka.
- Iruñeko San Migel Seminarioko “Libro de prueba de los alumnos del Seminario Conciliar de San Miguel de Pamplona: 1903-1923”tik Mikel Larranbebere Seminarioko errektore ohiak eskura jarritako datuak).
- Iruñeko San Migel Seminarioko *Kalendarium* edo *Ratio Studiorum in Annum Academicum*, 1939. eta 1965. urte bitartekoak. Iruñeko Seminarioko Biblioteka.
- Nafarroako Foru Diputazioaren 1922ko agiriak (*Actas de la Diputación Foral y Provincial de Navarra*). Agirien 184. eta 185. liburukiak. Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.
- Patxi Ondarra Funtsa: P. Ondarrak Baztango Udaleko Artxiboan, eta Le-karozko komentuko Borda-Ubilloso familiaren eta aita Donostia Artxiboan jasotako lekukotasun argitaragabeak.

Bibliografia²⁰

- Arana, Aitor (2001). *Zaraitzuko Hiztegia*, Nafarroako Gobernua eta Hiria Liburuak S.L.
- (2002). *Izarbeibarko Hiztegia*, Nafarroako Gobernua eta Hiria Liburuak S.L.
- Azkue, Resurreccion Maria (2018 [1918]). *Ardi galdua*, (paratz. E. Pérez Gaztelu eta A. Toledo Lezeta), (Euskaltzainak Bilduma 27). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Belasko, Mikel (1996). *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra*. Iruñea: Pamiela.
- (2000). *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*. Iruñea: Pamiela.
- Bidador, Joxemiel (2004). *Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra*. Iruñea: Pamiela.
- ‘Bostak bat’ lantaldea (2011). *Euskal Hiztegia*, Adorez, 13. Bilbo.
- Dronda, Javier (2007). «El clero navarro ante el euskera en los años de entreguerras», *Fontes Linguae Vasconum* 39. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 271-298.
- El Pensamiento Navarro* egunkaria (1923). 8128 zk., 1923-06-08koa.
- Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* (1970-2008). Donostia: Auñamendi, Estornés Lasa Hnos.
- Estornés Lasa, Bernardo (1997). *Diccionario español – uskara roncalés / Erronkariko uskararen hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Euskaltzaindiaren 1920. eta 1924. urteen bitarteko batzar-agiriak, *Euskera* (1925). Euskaltzaindia.
- (2023 [1987-2005]). *Orotariko Euskal Hiztegia*, www.euskaltzaindia.eus. 2023. urtean kontsultatua.

²⁰ Oharrak eta iradokizunak egiteko erabili duguna.

- *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, www.euskaltzaindia.eus. 2023. urtean kontsultatua.
- EODA, www.euskaltzaindia.eus. 2023. urtean kontsultatua.
- Fagoaga, Blas (1963). «Iniciación al estudio del euskera. Breve diccionario etimológico de apellidos toponímicos, etc. fáciles de retener». 1963-1964 ikasturtean Seminarioko ziklostilean ateratakoa.
- González de Viñaspre, Roberto (2020). «El corónimo navarro Salazar / Zairaitzu: origen y desarrollo de su doble nominación», *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari*. Nafarroako Gobernu, 283-294.
- Gorrotxategi, Mikel eta Salaberri, Patxi (testuen egileak) (2001). *Euskal izendegia (Ponte izendegia)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Ibarra, Orreaga (2007). *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia*, (Mendaur IV). Euskaltzaindia – Nafarroako Gobernu.
- Intxaurren, Miguel (1926). *La Iglesia y el Euskera. Obligación de hablar al pueblo en su lengua nativa y de cultivarla*. Iruñea: Imp. Federación C. S. M.
- (1928). *Método Práctico del Euskera*. Iruñea: Librería José Aramendia.
- Iñigo, Andres (1996). *Toponimia histórica del Valle de Santesteban de Lerin*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- (2008). «Santesteban de Lerin haraneko izengoitiak», *III. Onomastika jardunaldien agiriak*, Lizarra, 1990eko iraila, (Onomasticon Vasconiae, 7). Bilbo: Euskaltzaindia, 352-382.
- (2011a). «Toponimia nagusiaren lekukotasunak Prudencio de Sandoval Iruñeko apezpikuaren 1614ko Katalogoan», *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina* (Iker, 26, CD-ROM), (argit. Sagarna, Andoni, Lakarra, Joseba, Salaberri, Patxi). Bilbo: Euskaltzaindia, 1255-1280.
- (2011b). *Perpetua Saraguetako eskuidatziak eta hiztegia*, (Mendaur IX). Euskaltzaindia – Nafarroako Gobernu.
- (2023). «Euskara katedraren mendeurren Iruñeko Seminarioan», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 68-I. Bilbo: Euskaltzaindia, 11-30.
- Iñigo, Andres eta Rekalde, Paskual (2018). «Euskal oikonomia Baztan-Bidasoa eremuko lekukotasun historikoen argitan», *Engraxitik Garazira, Izenen misterioa Nafarroan*, (zuz. Zabalza Seguín, Ana). Zizur Txikia: Aranzadi, 163-249.
- (2019). «Zenbait toponimoren lekukotasunak Bortzirietako, Malerrekako eta Baztango agiri zaharren argitan», *Euskera* 64, 2-I. Bilbo: Euskaltzaindia, 291-341.
- Iñigo, Andres eta Salaberri, Patxi (1994). «Nafarroako antroponimia XVI. eta XVII. mendeetan», *Euskera* 39. Bilbo: Euskaltzaindia, 1415-1422.

- Iribarren, Jose María (1984). *Vocabulario Navarro* (nueva edición). Pamplona: Institución Príncipe de Viana.
- Irigoién, Alfonso (1986). *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Izeta, Mariano (1996). *Baztango Hiztegia*, (prest.: Rekalde, Paskual). Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Jimeno Jurío, Jose Maria (1997). *Navarra, Historia del Euskera*. Tafalla: Txalaparta.
- Justizia Ministerioa, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Euskaltzaindia (1998). *Euskal Deituren Izendegia / Nomenclátor de Apellidos Vascos*. Imprenta Nacional del Boletín Oficial del Estado.
- Kamino, Peio eta Salaberri, Patxi (2022). «Luzaideko oikonimiaren azterketa: etxe izengoitiak», *Fontes Linguae Vasconum*, 134. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 309-336.
- La Avalancha*. Revista ilustrada / Biblioteca Católico-Propagandista. Pamplona 1895-1950. Eskuragarri: <https://binadi.navarra.es/registro/00002000>
- Lakarra, Joseba, Manterola, Julen eta Segurola, Iñaki (2019). *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzandia.
- Lakoizketa, Jose Maria (1994 [1888]). *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas, en correspondencia con los vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos*. Faksimile edizioa (sarrera, aurkibidea eta eranskina: Eduardo Gil Bera). Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Larranbebere, Mikel (2016). «Interés histórico de una singular institución educativa. El Seminario Conciliar de San Miguel de Pamplona y su biblioteca», *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, 23: 195-214.
- Mitxelena, Koldo (1997 [1953]). *Apellidos vascos*. Donostia: Txertoa.
- Nafarroako Gobernua (1992-1999). *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra*, I-LIX, (zuz. Jimeno Jurío, Jose Maria). Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Pazos, Antón M., (1990). *El dero navarro (1900-1936): Origen social, procedencia geográfica y formación sacerdotal*. Pamplona: Eunsa.
- Rekalde, Paskual (2022). «Amaiurren gaindi ibilki», in *Euskaltzaindiaren Buletina*, 2.
- Salaberri, Patxi (2004). *Nafarroa Beberereko herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- (2005). «Origen y significado de la toponimia de Navarra», *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España. Actas de las primeras Jornadas de Onomástica*

- (Iruñea, 2003), (koord. Ramírez Sádaba, José Luis). Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 91-127.
- (2015). *Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos*, (Izenak 5). Euskaltzaindia.
- (2016). «En torno al sistema toponímico vasco: los antropónimos», *Nouvelle Revue d'onomastique* 58: 251-275.
- (2022). «El camino jacobeo en Vasconia. Apuntes históricos y explicación etimológica de los nombres de las localidades por las que transcurre», *Os amiños de Santiago de Europa a Galicia. Lugares, nomes e patrimonio*, 389-413.
Eskuragarri: <https://doi.org/10.32766/rag.404.16>
- Salaberri, Patxi eta Salaberri, Iker (2020). «Nafarroako toponimia nagusia aztergai: -oi(t)z, -o(t)z, -(i)(t)z duten herri izenen inguruan», *Fontes Linguae Vasconum* 129. Nafarroako Gobernu, 7-38.
- (2022). «Legado vasco en el Nuevo Mundo 2: Sobre los apellidos de los gobernantes de Norteamérica y Filipinas», *Boletín de la R.S.B.A.P.* LXXVIII, I-2, 367-427.
- Salaberri, Patxi eta Zaldúa, Luis Mari (2019). *Gipuzkoako berrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*, (Izenak 9). Euskaltzaindia – Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Salaburu, Pello eta Lakar, Maite (lag.) (2005). *Baztango Mintzoa: gramatika eta biztegia*, (Mendaur II). Euskaltzaindia – Nafarroako Gobernu.
- Zuazo, Koldo (2019). www.euskalkiak.eus (2024/06/22an kontsultatua).

